
HAUTESKUNDE PROGRAMA 2020

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA

**GURE
KONPROMISOA:
MEREZI DUZUN
HERRIA**

**egiteko
prest.**

ehbildu

aldaketarako prest.

Datorren legegintzaldiko lau urteetan zehar gure ibilbide orria izango den hauteskunde-programa hau aurkezten dugun garaian, globalizazioaren ondorioz, espero ez genuen epidemia-foku bat pandemia global bihurtu da. Gainera, hurrengo urteetan bestelako krisiak ere etorriko direla aurreikus daiteke, birus bat zabaltzen delako, hondamendi naturalek eragiten dutelako edo Wall Street desagertzen delako, baldin eta logika neoliberala geldiaraztea lortzen ez badugu, eta erdigunean bizitzaren zaintza jarriko duen sistema bat eraikitzen ez dugun.

Pertsonen bizitzarekiko eta biodibertsitatearekiko errespetuan oinarritutako paradigma berri bat eraikitzeaz ari gara, bizi garen planeta honetako baliabideak mugatuak direla argi izan behar dugulako, eta agertzen ari zaizkigun erroka berriei erantzuteko prest egon behar dugulako - Ekoizpen-sistema jasagarriak, etorkizuneko erroka lotutako kalitatezko enpleguaren sorrera, klima-aldaketaren aurkako borroka, zaintza-sistema publikoen erdigunean, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreala, migrazioa, justizia soziala, herrien emantzipazioa, zibersegurtasuna eta abar -, horiei guztiei herri-erantzukizun, elkartzasuna, justizia eta ekitatetik erantzunez.

Coronavirusak agerian utzi du aspaldi huts egin duen sistema baten amaieraren aurrean gaudela. Gainera, krisia funtsean politikoa dela nabarmendu du, inguruko gobernuak aurreikusteko, jarduteko eta kudeatzeko gai ez izateaz gainera, gure bizitzari eta lurraldeei buruz erabakitze gaitasuna ukatu digutelako. Gure autogobernu indibidual eta kolektiboa inoiz ez bezala dago zalantzan.

Testuinguru honen erdian gaudela, aurre egin behar diegun egiturazko erroka jabetzen hasi behar dugu, jendarteak bere osotasunean eskura izango duen kalitatezko sistema publiko bat eraiki ahal izateko, gure osasun fisiko, mental eta soziala zainduko duena, eta ekonomia sendo zein zerga-sistema justua zutoin nagusi izango dituen. Horretarako, lidergo instituzionalaren baitako ekintza irmoa behar dugu, herritarrentzat eta herritarrekin gobernatzen jakingo duena, eta gure herriko eragile sozial eta sindikalekin batera ari tuko dena.

Herri honek bultzada berri bat behar du. Zintzotasun politikotik, sakontze demokratikotik, eta ez bairik gabeko sistema publikoaren defentsatik. Eta horretarako galderak egingo dituen gobernu bat behar dugu, entzuten jakingo duena, eta herritarrekiko informazio kanalak beti irekita mantenduko dituen. Umiltasunez eta ahaleginez, zintzotasunetik, parametro horietan oinarritutako alternatiba eraikitze konpromisoa hartzen dugu.

Jaiki Larrialdi Plana:

<http://ehbildu.eus/albisteak/covid-19ak-sortutako-krisiaren-ondorioei-erantzuteko-eh-bilduren-larrialdi-plana>

EH Bildun prest gaude datozen erronkei aurre egiteko.

ERAIKI!

EKONOMIA HOBETZEKO PREST

- 6** Kalitatezko enplegua
- 18** Enplegu publikoa
- 22** Aurrekontu politikak
- 26** Fiskalitatea eta finantzak
- 30** Industria
- 38** Merkataritza eta Turismoa

ZAINDU!

JENDARTEA BABESTEKO PREST

- 46** Politika Sozialak, Zaintza sistema publikoa
- 53** Autonomia materiala eta erabateko integrazioa
- 58** Erronka demografikoa
- 61** Pentsioak

DUINDU!

JUSTIZIA SOZIALA ESKURATZEKO PREST

- 66** Osasuna
- 74** Hezkuntza
- 87** Etxebizitza
- 93** Euskara
- 99** Kultura

MUGITU!

LARRIALDI KLIMATIKOARI AURRE EGITEKO PREST

- 102** Energia, klima
- 105** Ingurumena eta biodibertsitatea
- 109** Lurralde antolamendua, egiturak eta mugikortasuna
- 119** Elikadura politika eta landa eremu bizia

BABESTU!

GIZA ESKUBIDEEKIN AURRERA EGITEKO PREST

- 124** Gatazkaren konponbidea
- 128** Justizia
- 1332** Segurtasuna

JAUZI!

ETORKIZUNA ERABAKITZEKO PREST

- 138** Erabakitze eskubidea
- 141** Herritarren parte hartzea
- 146** Gobernantza eredu berria

BAT EGIN!

ELKARREN ARTEKO ETORKIZUNA ERAIKITZEKO PREST

- 154** Feminismoa
- 164** Gazteria
- 167** LGTBI
- 173** Migrazioa eta aniztasuna

SARETU!

ELKARTASUNETIK AURRERA EGITEKO PREST

- 180** Nazioarte politika
- 186** Hedabideak eta eitb
- 190** Garapenerako lankidetzak
- 193** Jarduera fisikoa eta kirola
- 198** Laikotasuna

ERAIKI!KALITATEZKO
ENPLEGURAKO
POLITIKAK

ERAIKI!**EKONOMIA
HOBETZEKO PREST****Kalitatezko enplegurako politikak**

DIAGNOSTIKOA

COVID-19k sortutako krisiak ondorio larriak izango ditu enpleguan eta enpresetan. Langabeziak nabarmen egin du gora azken hilabeteetan, baina kezkarriena bilakaera da duda izpirik gabe: kolokan daude momentu honetan milaka lanpostu; babesik gabe dago langabeen herena eta handiagoa izan daiteke kopurua krisiak aurrera egin ahala; enpleguaren sorrera desitxuratzen ari da eta, hiru-bost urteko denbora-muga aipatzen dute adituek krisi honen aurreko langabezia-ehunekoetara itzultzeko, zeintzuek Europako azken bagoietan kokatzen gintuzten jada. Gauzak horrela, enpresa txiki eta ertainek, autonomoek, merkataritxikiek edo industriaren eremuko enpresek, ziurgabetasun handiko egoera dute aurrean eta, horiekin batera, milaka langile muga mugan.

COVID izurriteak jada anomaloa eta eskasa zen egoera baten kostura guztiak bistaratu ditu. Europako testuinguruan EAeko enpleguaren datuak, kuantitatiboak zein kualitatiboak, eskasak ziren oso pandemiaren aurretik ere. Jaurlaritzak legegaldiaren lorpen nagusi bezala hauspotu zuen eta, oraindik ere, hauspotzen duen %10tik beherako langabezi tasak Europako azken posiziotan kokatzen gaitu enpleguari dagokionean; Grezia, Txipre, Espainia eta Italia baino ez ditugu atzetik. Gure aberastasun maila duen herri baten zat, Europako 280 eskualdeetatik 50 aberatsenen artean dagoen herri baten zat, erabateko anomalia da horrelako langabezia tasa izatea. Izan ere, birusa iritsi aurretik, ia hirukoiztu egiten genuen aurreko krisian sartu aurretiko langabezia tasa.

Ezaugarri berezi eta egiturazkoak ditu EAeko langabeziak. Batetik, oso iraupen luzekoa da, eta gero eta pertsona zaharragoetan metatzen da. Gure langabetuen erdiak urtebete baino gehiago darama langabezian. Enplegu

politikak ez dira kapazak hain mingarriak diren bizi esperientzi hauei erantzun bat emateko eta langabezia aurreko krisian lan merkatutik baztertuak izan ziren horien bizitzan instalatu da. Hau da dugun ahulezia handienetako bat. Pertsona hauetako asko aukerarik gabe geratzen ari dira eta, are gehiago, galtzaile handienak izan daitezke orain egoera ekonomikoak okerrera eginez gero. Bestetik, emakumezkoek gehiago pairatzen dute langabezia; %10,2koa da emakumezkoen langabezi tasa, gizonezkoena %8,5koa denean. Eta hirugarrenik, bada etorkizunera begira langabeziaren inguruan oso kezagarria den beste datu bat: EAEko gazte langabezia tasarena. Eustaten arabera, %22,4koa da, eta, hortaz, Europako gazte langabezia tasa bikoizten dugu Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. COVIDaren kolpeak ere gogor jo ditu, beste behin ere, emakumezkoak, etorkinak eta 35 urtetik beherakoak.

Datu kuantitatiboak onak ez, eta zer esanik ez kualitatiboak. Behin-behinekotasun tasa altuak, ziurgabetasuna, soldaten debaluazioa, borondatezkoa ez den partzialitatea.... prekarietatea egiturazko bilakatu da gurean. Dagoeneko, enplegua izatea ez da segurtasun bitalaren bermea. Prekarietatea baino ezagutu ez duen belaunaldi baten aurrean gaude eta 100.000 baziren enplegua edukita beren oinarrizko beharrei erantzun ezinean zebiltzan herritarrak, litekeena da zifra horrek nabarmen gora egitea. Horrek, gainera, eragin zuzena du kezagarria eta onartezina den lan istripuen kopuruan, indarrean dugun osasun eta lan segurtasunaren ereduaren gabezien adibide lazgarriena.

Datu guztiek okerrera egiten dute emakumezkoen kasuan, baita, COVIDaren ondorenean ere. Genero arrakala desberdinak ematen ari dira gurean gizon eta emakumeen artean enpleguaren arloan. Aktibitate tasari dagoen genero arrakala 7 puntutan kokatzen da EAEn. %24ra iristen da hilero-ko soldata arrakala Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian. 7.552€ gutxiago jasotzen dituzte lansaritan emakumeek, ordaindutako lanean jardundako orduen eta ordukako lansarietan ematen diren gizon eta emakumezkoen arteko arrakalaren ondorioz. Europako altuenetakoa da EAEko soldata arrakala. Horretaz gain, gehienetan borondatezkoa ez den partzialitateak eta segregazio okupazionalak, edo feminizatu eta prekarizatutako sektoretako jardunen baldintzek ere, izugarriko eragina dute gizon eta emakumezkoen arteko arrakalan. Enplegua, langabezia, errenta eta zaintzen krisia batera doazen arazoak direla eta erantzun integrala behar dutela erakusten digute datu hauek guztiek.

Testuinguru honetan eta bizi dugun egoeraren larritasunaren aurrean, Jendartearen kezka nagusietakoa den arlo estrategiko honetan enplegua babestea, egungo distortsioa zuzentzea eta kalitatezko enpleguaren bidean aurrera pausuak ematea premiazkoa bilakatu da. Enplegu politiketan orain arte eman diren inertziak gainditu eta politika publiko esanguratsuen bidez lidergo eta ekimena berreskuratu eta garatzea premiazkoa da. Enpleguaren suntsitzea ekiditeaz gain, egungo prekarietateari aurre eginez eta ditugun erronka handien aurrean –langileen errelebo masiboa, transizio ekologikoa, zaintza lanaren aitortza eta duintzea edo enpleguaren eraldaketa ekartzen

ERAIKI!**KALITATEZKO
ENPLEGURAKO
POLITIKAK**

duen digitalizazioa, adibidez- jarrera proaktiboa erakutsiz. Diruz lagundutako enpresen babes eta laguntza politiketan aldaketak sustatuz, gehiengo sozialaren bizi-baldintzak hobetzen eta bizi dugun krisi ekologikoari aurre egiten lagungarri diren enpresak lagunduz. Eta horretarako, beharrezkoak ditugun tresnak ere eskuratuz, gure eredu produktiboaren eraldaketarako eta lan harreman orekatuak eta eraginkorrak izateko beharrezkoak ditugunak, atzerapen, debaluazio eta pobretze orokorra ekartzen dituen Espainian indarrean dagoen ereditik urrun, oso urrun.

Enplegua babesteko ekimen politiko sendoa behar du herri honek. Ekonomia aktibatzearekin batera, kaleratzeak eta langileen pobretze masiboak saihesteko, pertsona ahulenen kolektiboak babesteko eta hauei aukerak eskaintzeko, lurraldeen arteko orekak lortzeko, estrategikoak diren sektore eta enpresak babesteko eta krisitik ahalik eta azkarren atera daitezten, enpresei beren egiturei eta lan-indarrari eustea ahalbidetzeko. Momentu honetan, enplegu gehiago ez suntsitzea, langileak babestea, kalitatezko enplegurako bidea egitea eta langileak etorkizunean garrantzi handikoak izango diren arloetarako prestatzea (zaintza lanak eta enplegu berdea, nagusiki) enplegu politiken lehen tasun nagusiak bihurtu behar dira.

Era berean, dagoeneko errealitatea den eta etorkizunean orokortuko den lan mundu digitalerako prestakuntza indartzea ezinbesteko erronka bihurtu da. Digitalizazioa eta, orokorrean, teknologia aurreratuenen erabilpena funtsezkoa izango da ehun produktibo sendo eta aurreratua edukitzeko. Langileon -egungoak zein etorkizunekoak- prestakuntza digitalerako planifikazio berezitia indarrean jarri behar dugu.

Estrategia nazional bat behar du gure herriak, enplegua babestu, langileak babestu eta krisi hau gure gizartea jasangarriagoa den norabide batean kokatzeko, kalitatezko enplegua sustatu eta ingurumen inpaktua murrizten duten jardun ekonomikoak selektiboki sustatzeko baliagarri izango dena. Hitz batean esanda Kalitatezko Enpleguaren Aldeko Herri Itun bat, krisian ere sortu daitezkeen aukera-leihoak eta gure indar-guneak baliatzeko eta itxaropentsua izan daitezkeen eta izan behar duen etorkizun baterako baldintzak sortzeko balio behar duena. Alderdi politiko, sindikatu guztiak, enpresari, merkatarari eta autonomo elkarteak, kooperatibak eta, oro har, ekonomia sozialeko eragileen arteko akordio zabal bat, euskal marko batean kokatuta.

Ekimen publiko horren helburu nagusia kalitatezko enplegua sustatzea izan behar da ezinbestean, hau da, bazterkeria eta bereizkeriarik gabe lan-baldintza bidezko eta egokietan oinarritzen den enplegua. Norberaren eta famili artekoen segurtasun bitala bermatzen duena; garapen pertsonalerako aukerak eskaintzen dituena; langileen parte-hartzea sustatu eta bermatzen duena; aberastasunaren banaketa justu eta ekitatiboago bat ahalbidetzen duena; ingurumen inpaktua murrizten duena eta trantsizio ekologikoan kokatzen dena; oreka produktibo eta erreproduktibo berriak sustatzen dituena. Finean, langileei beren bizitzaren kontrola berreskuratzea ahalbidetu, desberdintasun sozialak murriztu, hedatuta dagoen egiturazko prekarietateari erantzun irmoa eskaini eta etorkizun jasangarri baterako aukerak eskaintzen dituen enplegua izan behar da helburua.

Bide horretan, politika publikoen bitartez, EAEn bestelako ekonomia baten

alde urratsak egitea ere ezinbestekoa gertatzen da. Lankidetzan oinarritutako ekonomia, kolektiboa, eta kapitalari izaera instrumentala aitortzen diona, non helburua jendartearen bizi-baldintzak hobetzea eta komunitatearen beharrak era jasangarrian asetzea izango den.

Ezin dugu ahaztu lanaren mundua aldaketa sakonean murgilduta dagoela. Onerako eta txarrerako, errealtate berriak sortzen ari dira, telelanetik, plataforma digitalen bidez kudeatutako autonomo faltsuen fenomenora. Robotikak, Adimen Artifizialak eta Digitalizazioak enpleguaren mundua aldatzen ari dira. Aldaketa horren kontrola hartzea ezinbestekoa da herri sektoreen aldeko trantsizio antolatua gauzatzeko edo bestela, orain arte bezala, aurre-rapen teknologiko horiek kapitalismo neoliberal basatiaren zerbitzuan erabiliko dira, prekaritatea areagotzeko.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- %24,25 igo da langabezia EAEn lehengo urteko maiatzarekin konparatzen badugu.
- 141.715 pertsona daude langabezian 2020ko maiatzean; langabezia tasa %13ra igo da azken hilabetetan.
- COVIDaren ondorioz ia 200.000 ABEE tramitatu dira EAEn; maiatzean, oraindik 100.000 dira egoera honetan dauden langileak.
- Ostalaritza eta merkataritza dira COVIDaren kolpea gogorren jasan duten sektoreak eta gazteak, emakumeak eta atzerritarrak gehien kolpatutako gizataldeak.
- Langabezi tasa, %9,3koa zen EAEn COVID 19aren aurretik. Europar Batasunean, %6,3. Europaren kasuan gutxieneko historikoetan zegoen eta EAEn, aldiz, marka horretatik oso urrun (%3,1, 2007an).
- EAEko enpleguaren zaurgarritasun tasa %19,5koa zen COVID krisiaren aurretik. Eta 100.000 gizon eta emakume dira enplegua edukita beren oinarrizko beharrak asetzeko modurik ez dutenak.
- Lanbiden gehiago zeuden beste enplegu dat lortzeko izena emanda duten pertsonak (127.000) langabezian zeudenak baino (117.000), egungo enpleguen prekarizazioaren adibide argia.
- Langabetuen %50k urtebete baino gehiago darama langabezian. Iraupen luzeke langabeziari dagokionez EAE buru da, bai Estatu Espainoan eta bai Europan. Oso urrun gaude Europak duen %22ko tasatik.
- Langabetuen %66k ez du inolako langabezia-saririk jasotzen. Eta soilik %21ek jasotzen dute langabeziagatiko prestaziorik. Besteek, askoz ere murriztagoa den sorospen laguntza jasotzen dute. Beharrezkoa da, beraz, aldaketak sustatzea estaldura eta babes maila handitzeko.
- Gazteen langabezia tasa %22,4 da, Europako tasa bikoitza, eta datu

ERAIKI!**KALITATEZKO
ENPLEGURAKO
POLITIKAK**

horrek nabarmen egingo du okerrera COVID 19aren ondorioz. Euren egiten zaizkien kontratu mugagabeak %5 dira soilik, eta jasotzen duten soldata 2008an jasotzen zutena baino %20 gutxiagokoa da. Gazte emakumeen kasuan, langabezia tasa 9 puntu altuagoa da, eta soldata arrakala %21 da.

- EAEn gaur egun lanean dauden langileen erdia jubilatuko da 2030rako, sektore publiko zein pribatuan. Zehazki, 450.000 lanpostu ordezkatzeko dira, eta 75.000 lanpostu berri sortuko dira. Kolosal den erronka honek ekimen eta lidergo publiko irmoa eskatzen du.
- EAEn enpresen %84 inguru enpresa familiarrak dira eta enpleguaren sortzaile nagusiak dira, %60 baino gehiago. Baina, enpresa familiarren arazo nagusia, edozein azpisektoretan (nekazaritzan, industrian, merkataritzan, ostalaritzan, turismoan,...) errelebo faltarena da, hurrengo urteetarako erronka nagusietako izanik.
- Kontratu berrien %92 behin-behinekoak dira, eta langileen behin-behineko tasa %30 da. Lanaldi partzialak ere oso altuak dira, %18. Jardunaldi osoko kontratu finko, mugagabe eta eskubideduna rara avis bihurtzen ari da.
- 2008ko krisia hasi zenetik soldaten erosteko ahalmenak gutxienez 4 puntu galdu ditu, inflazioarekin alderatuta. Desberdintasun iturri hori askoz ere nabariagoa da soldata apaletan soldata handietan baino.
- EAEn soldata arrakala %24 da. Emakumezkoek kalitate txarreko kontratuen %67 dituzte, eta lanaldi partzialen %78, kasu gehien-gehienetan behartuta, ez euren borondatez.
- 7 puntu portzentaletan kokatzen da aktibitate tasaren inguruko genero arrakala.
- Gizonezkoek emakumezkoek baino %14 ordu gehiago egiten dituzte ordaindutako lanetan eta %11 gehiago kobratzen dute lan egindako ordu bakoitzeko.
- Segregazio okupazionala dago soldata arrakalaren %35aren atzetik.
- EAEn dauden 126 sektore hitzarmenetatik, 76tan 1.000 euro baino gutxiagoko kategoriak izaten dituzte. Beraz, 1.200 euroko gutxieneko soldata premiazko eskakizuna da.
- Langileen %61ek hitzarmena eguneratuta dute. Aldiz, %39 luzatuta edo iraungita. Mobilizazioa eta lan gatazkei esker, azken urtean langileen %10ek hobetu dituzte euren lan-baldintzak, batez ere itunpeko irakaskuntzan eta metalgintzan.
- Ekonomia Soziala EAEko Barne Produktu Gordina BPGren %5 inguruko da (%9,7 industriaren kasuan). Kooperatibagintzak Euskal Herrian ia 4.000 kooperatiba eta 71.000 enplegatu ditu.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Kalitatezko Enpleguaren aldeko Herri Ituna; kontsentsu zabaletik, baina determinazioz, enplegua babesteko eta kalitatezko enplegurako bidean urrats handiak egiteko ekimen politiko sendoa behar du herri honek. Ekonomia aktibatzearekin batera, kaleratzeak eta langileen pobretze masiboak saihesteko, pertsona ahulenen kolektiboak (besteak beste, iraupen luzeko langabetuak, emakumezkoak edo gazteak) babesteko, estrategikoak izan daitezkeen sektoreak identifikatu eta sustatzeko, irekitzen diren aukera-leihoak baliatzeko eta, batez ere, gure gizartea jasangarriagoa eta justuagoa den norabide batean kokatzeko. Alderdi politiko, sindikatu guztiak, enpresari elkarte, merkataria, autonomoak, kooperatibak eta, oro har, ekonomia sozialeko eragileen arteko akordio zabal bat da EH Bilduk proposatzen duena. Euskal markoan, gure errealitate sozioekonomikoari eta ditugun erronka handiei erantzunak hemen eta orain eskainiko dituen herri itun nazionala.

2

Egiturazko prekarizazioaren aurka 1.200 euroko gutxieneko soldata; Europako Gutun Sozialak dioena aplikatuz (gutxieneko soldata lurraldearen batez besteko soldataren %60 izatea) eta Nazioarteko Lan Erakundeak OITk berak Europako herriei gomendatutakoaren bidetik, premiazkoa da gure errealitate sozio-ekonomikoari eta ekoizpen ereduari estuki lotutako eta horren arabera diseinatutako gutxieneko soldaten politikak ezartzea. Horren harira, hurrengo neurri hauek proposatzen ditugu:

- 1.200 euro EAEko gutxieneko soldata de facto ezartzeko Jaurlaritzak Lanbide Arteko Akordioa sinatzeko babes eta konpromiso irmo, publiko eta jarraitua; oraindik lan harremanen esparrua gure eskuduntza zuzena ez denez, beharrezkoa da prekarizazioaren aurkako neurri horrekin Jaurlaritzaren borondatea argiki adieraztea eta EAEn aplikatu ahal izateko prozesua hastea, herri bezala pentsatzen duen Kataluniak eragile sindikal, sozial eta ekonomikoekin hasi berri duen bezala.
- Diru-publikoarekin sustatzen diren kontratazio guztietan 1.200 euroko gutxieneko soldata; borondate eta konpromisoa Jaurlaritzaren esparrura ere eramatea logiko eta koherentea izanik, prekarizazioa geldiarazteko neurri eraginkor eta ikusgarri hau indarrean jartzea egoki bezain beharrezkoa da.
- Gutxieneko soldata arautzea EAEn erabaki ahal izateko eskumena aldarrikatzea; Estatuaren egoera hobetzeko aukera irekitzeko, euskal lan harremanetarako esparrua indartzeko eta soldata minimoa eta bizitzaren kostearen artean proportzionaltasun erreala bermatu ahal izateko.

3

35 orduko lan astea; enpleguaren bilakaeraren baitan eta kalitatezko enpleguak ezartzeko helburuarekin bat, arlo publiko zein pribatuan neurri hau indarrean jarri eta orokortzeko bideari, soldata gutxi-

ERAIKI!**KALITATEZKO
ENPLEGURAKO
POLITIKAK**

tu barik, heldu behar dio administrazioak lehenasunez, negoziazioa kolektiboan akordioak bultzatuz, kontratazio publikoan berori ezarri, sektore estrategikoetan plan pilotuak diruz lagunduz, edo ikerketa lan prospektibo espezifikoak eginez, lau eguneko astea eta 32 orduko lan astea jomugan izanik.

4

Enpresa handien itxieraren ondoren langabezia gelditzen diren langileak birkokatzea; sistema antolatu behar da krisi hauek kudeatzeko Protokolo Integralaren atal bat bezala, are gehiago bizi dugun egoera zein den ikusita. Horrelako itxierek inpaktu handia sortzen dute gertatzen diren eskualdeetan. Hori dela-eta, pertsonengan eta lurraldeetan efektu horiek arintzeko protokolo oso bat aktibatu behar da itxierak ekiditeko eta, hori ezinezkoa bada, langileak lehenbailehen esparru industrialean birkokatzeke.

5

Kontratazio publikoaren eredu berri bat ezartzeko Klausula Sozialen Legea; Kontratazio publikoa helburu politikoen lorpenarako baliatzea gomendatzen du Europak. Ikuspegi horretatik, beste helburuez gain (berdintasuna, ingurumena, hizkuntza...), kalitatezko enpleguaren inguruko helburuak lortzeko tresna baliagarria bilakatzen da kontratazio publikoa. Horrek kontratazio eredu berri bat garatu eta ezartzea ahalbidetuko duen marko normatibo berri bat eskatzen du, merkatu irizpideetatik urrunduko dena, erlazio klientelarrak saihestuko dituen eta irizpide ekonomizisten gaintik, helburu politikoak ezarriko dituen. Bertako hitzarmenak exijitza, 1.200 euro gutxieneko soldata bermatzea, 35 lan ordu orokortzea, soldata arrakala murriztea edo langileen subrogazioa ziurtatzea horietako batzuk dira, besteak beste. Ahaztu gabe, kontratazio publikoaren arloan ere beharrezkoa dela bertan pentsatu eta egindako araubide propio garatzeko aukera, horretarako behar ditugun eskuduntza guztiak gure esku egonik. Hori aldarrikatzeko eta gauzatzeko konpromisoa ere badugu.

6

Lan Harremanetarako Euskal Esparrua ezartzeko konpromisoa; ditugun erronka kolektiboen aurrean herri duin gisa aurreapauso erabakigarriak emateko, ezinbestekoa zaigu gure errealitate sozio-ekonomikoari, ekoizpen ereduari eta langileen kualifikazio zein dibertsifikazioari egoki erantzuteko tresna eraginkorrek izatea. Horrek eskatzen ditu ahalmena eta eskuduntzak, lan harremanetarako marko oso berrian islatu beharko direnak. Estatus Politiko berrian gauzatu beharreko bide horrek baditu, baina, tarteko helmugak, administrazio lider batek osatu beharrekoak: soldadak eta lan baldintzak debaluatzeko sorturiko azken lan erreformak indargabetzea, kanpoko esku-hartzerik gabeko negoziazio kolektiborako esparrua bermatzea, langileen lan-baldintzak zuzenean pobretzen dituzten Estatu mailako hitzarmenak aplikatzeari atea ixtea edo elkarte autonomo bakoitzak bere errealitateari egokituriko gutxieneko soldata indarrean jartzeko ahalmena izatea, besteak beste. Gainera, antidemokratikoa den egungo Elkarrizketa Sozialerako Mahaia gainditu eta gehiengoan ordezkariak onartu eta errespetatuko dituen elkarrizketa eredu irekia, malgua eta ausarta inplementatzea premiazkoa da. Zentzu horretan, azken lan erreforma ez aplikatzeko konpromisoa hartzen dugu, bai eta

gai honi dagokionean Madrileko Gobernuarekin adostutako akordioa betearaztea.

7

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eta Euskal Enplegu Sistemari buruzko lege berria; Lanbide izan behar da enpleguaren arloan eman behar diren aldatetarako giltza eta traktore nagusi, eta horregatik, tresna ezinbestekoa bilakatzen da, lehenetsi eta indartu beharrekoa. Egungo gabeziak eta zatiketak gaindituta –Jaurlaritzaren egiturari, Enplegua eta Lana sail bakarrean egotea premiazkoa bezain beharrezkoa da-, publikoa, eraginkorra eta erreferentziazkoa izan beharko luke Euskal Enplegu Sistemak, eta horrek atzeraezina bilakatzen du Lanbideren modernizazioa eta marko juridikoaren eguneratzea. Hortaz, gure errealitateari egokituriko enplegu politika indartsu eta koherenteak osatzeko, besteak beste, langileak enplegu berrietarako prestatzeko erreferente izan, enplegu politika pasiboak bertan txertatu, tokian tokiko garapen agentziekin beharrezkoa den lankidetzaren prozesu eta espazioak sortu, erakundea euskaldundu edo eragile publiko eta pribatuen arteko erlazio marko berriak definitu behar dira. Ahaztu gabe kalitatezko enpleguaren sortzaile diren kooperatibek bertan leku eta ahots propio izan behar dutela.

8

Belaunaldien arteko Elkartasuna ziurtatzeko Estrategia Publiko Nazionala; Hurrengo hamarkadan, lanpostuen erdia ordezkatu beharko da EAEn bai administrazio publikoan bai arlo pribatuan -500.000 baino gehiago-, batez ere, erretiroa hartuko duten langileena. Hortaz, aukera lehiu eder bat irekitzen zaio gure herriari. Alde batetik, ordezkatzeko hori ordenatua eta kalitatezko enpleguan oinarrituta izateko. Eta bestetik, prozedura horretan gizarte gisa ditugun erronka nagusiei egoki eta lidergo publikoaren bitartez heltzeko (langabeziaren tasa gutxitu eta horren egiturazko ezaugarriak erantzun, talentoaren kudeaketa, enpresa kultura aldaketa, ekoizpen ereduaren eraldaketa trantsizio ekologikorako, emantzipazioa eta demografia, berdintasuna eta zaintzaren antolaketa sozialaren aldaketa eta zaintza lanak duintzea, digitalizazio zein robotizazioa...). Testuinguru erabakigarri horretan, politika publikoen erdigunean kokatuko den Estrategia Publiko berria sortzea, sail-arteak eta erakundearteak, proposatzen dugu. Lehendakaritzak gidatuko duen estrategia berri honek eragileekin etengabeko harremana garatuko du, auzolanaren filosofiarekin lan egingo du, ikuspegi nazionala izango du, Nafarroa eta Iparraldearekin lankidetzaren eremuak definituz, eta bere plangintza esanguratsu eta estrategikoak garatzeko ahalmena, eskuduntzak (egungoak zein beharrezkotzat jotzen diren berriak) eta baliabide ekonomikoak izango ditu.

9

Sektore berri eta estrategikoetan gazteen kontratazioak sustatzeko diru-laguntza programa masiboa; pairatzen duten egiturazko prekaritateari aurre egiteko eta gazteen emantzipazioa sustatu eta bizitza proiektu duinak martxan jarri ahal izateko, baldintzak zehatzak betetzen dituzten enpresen eta beste antolakunde ekonomikoaren kontratazio berriak gauzatzeko laguntza lerroa indarrean jartzea, tokian tokiko garapen agentziekin elkarlanean eta, bereziki, pobretutako edo kaltetutako eskualdeetan lanketa berezituak propo-

ERAIKI!KALITATEZKO
ENPLEGURAKO
POLITIKAK

satuz. Kontratatzeko oinarrizko baldintzak hauek dira: kontratu mugagabeak, 3 urte mantentzeko konpromisoa, bertako hitzarmen pean egotea, edozein kasutan 1.200 euroko langa gainditu (14 ordainsarrietan) eta lanposturako formakuntza eta egokitzapen prozesuak bermatzea. Emakume gazteei laguntzak gehituko zaizkie, pairatzen duten soldata arrakalari aurre egiteko.

10

Iraupen luzeko langabetuak egoki artatzeko talka plana; laneratzeko zailtasuna bereziak dituzten pertsona hauek erreskartzeko ekimena da, aldi berean, euren oinarrizko baliabideak ziurtatuz. Plan horretan, banan banako arreta, prestakuntza, orientazioa, bitartekaritza eta laneratzeko aukerak bereziki zaintzea proposatzen da, Lanbiden ad hoc prestatutako eta espezializatutako lan taldeak sortuz, tokian tokiko garapen agentziekin elkarlanean arituz eta bereziki pobretutako edo kaltetutako eskualdeetan lanketa berezituak proposatuz. Enplegu Planak egokitu eta indartuko dira, kontratazioaren kalitatea bermatuz (1.200 euroko langa gaindituta), horren iraupena luzatuz eta kontratu mugagabeak sustatuz, beti ere, gutxienez, urtebete eta hiru urte bitarte mantentzeko konpromisoarekin. Eta lan bizitzaren azken urteetan dauden iraupen luzeko langabetuei jubilatutako kontratuak sustatzeko diru-laguntza lerro berezitu bat indarrean jartzea. Edo langabetuei Estatuak eskaintzen dien babesa eta estaldura maila tamalgarriak ikusita, estaldura hori duintzeko baliabideak gehitzea. Zentzu horretan, enplegu politika pasiboak gure esku izatea ezinbestekoa bilakatzen da, baina, eskualdatze hori gauzatu bitartean, langabetuen estaldura maila eta babesa hobetu eta langabezia-sarien duintzea proposatzen da Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta DSBERen baitan, helburu horretarako beharrezko egokitzapenak martxan jarri.

11

Langabezia tasa altuenak dauzkaten eskualdeak artatzeko planifikazio berezituak; gaur egun langabeziaren inpaktua ez da inolaz ere homogenea EAren lurralde osoan. Orokorrean, jarduera industrial sendoena daukaten eskualdeetan langabezia tasa baxuagoa da eta zerbitzuetan oinarritutako eskualdeetan altuagoa. Herrialde bakoitzean badaude arazo berezia daukaten eskualdeak: Aiaraldea, Araban; Ezkerraldea, Meatzaldea eta Enkarterri, Bizkaian; Oarsoaldea, Gipuzkoan, besteak beste. Ezinbestekoa da eskualde hauei begirako enplegu eta, orokorrean, suspertze sozioekonomikorako politikak indartzea: ikerketa lan taldeak, talka planak eta plan estrategikoak, tokiko garapenaren perspektibatik eta eragileen elkarlanaren bidez diagnosi eta ekimena... Era berean lanaren sorrera eta langabetuak laguntzea helburu duten politika publikoak baliabide bereziak eduki behar dituzte zonalde hauetan.

12

Enplegu berdea: Trantsizio ekologikoan oinarrituriko kalitatezko enplegu berdeak sortzeko plangintza; Krisi sanitariotik abiatuta azkartu eta sakondu den krisi ekonomikoaren irteera, aurretik genuen krisi klimatiko eta ekologikoan sakondu gabe egitea eskatzen du, eta horretarako ezinbestekoa da iraunkortasunarekin lotutako enplegua (enplegu berdea) sustatzea. Trantsizio ekologikoaren baitan koka dezakegun enplegu sorrera oso garrantzitsua da, honako

esparruetan; trantsizio energetikoa eta energia berriztagarrien hedapenean, etxebizitzaren birgaitzeari eta eraginkortasunari atxikiak direnak, mugikortasun jasangarriaren inbertsio eta inplementazioaren inguruan, ekonomia zirkularrari lotuak daudenak, agroekologiaren garapenari loturikoak hala administrazioaren kontratazio berdearekin erlazionatuak. Trantsizio ekologikokoa enplegu intentsiboa da baina, horretarako, egungo marketina gainditu eta benetako apustu ekonomikoa bideratu beharrean gaude. Energia fosilen desinbertsioek eta jasangarritasun energetikoaren legea funtsen bitartez garatzeak legealdian 800 M€ko inbertsioa ahalbidetuko dute, hein batean herritarren eta enpresen inbertsioen trakzio lana ahalbidetuz kopuru hori hirukoizteko gaitasunarekin. Enplegu berdearen Itunaren bitartez, administrazioaren inbertsio zuzenak 10.000 lanpostu berde zuzen sortzeko gaitasuna du legealdian, eta herritar eta enpresen inbertsioekin kopuru hori hirukoiztu daiteke. Zentzu honetan, norabide honetan kokatzen diren Europar Batasunaren berreraikuntzarako mekanismoek epe ertainean ekar ditzaketen inbertsio-aukerak metabolismo sozioekonomiko iraunkor eta erresiliente baterako eraldaketaren alde baliatuko ditugu.

13

Digitalizazioak ahalbidetzen duen muturreko prekarizazioa mugatzea; ekonomia digital berria edo “ekonomia kolaboratibo” bezala ezagutzen diren negozio eredu berriek (Glovo, Deliveroo, Uber, Cuideo...), azpi-kontratazioaren digitalizazioan oinarrituz, langileen baldintzak eta egoera muturreraino prekarizatzen dituzten errealitate berriak sortu dituzte, beti ere, enpresaren irabazien mesederako. Iru-zurrezko lan harreman eredu berri horrek, autonomo faltsuen irudian ezaguna egin denak, baditu kolektibo zaurgarrienetan bere biktima perfektuak: gazteak, pertsona migranteak eta iraupen luzeko langabetuak. Hortaz, premiazkoa da ekonomia eredu berri hori aztertu eta bere egiturazko ondorio negatiboak mugak jartzea. Horretarako, alde bate-tik, horren errealitate zehatza eta etorkizuneko joera, bilakaera edota ondorioak ezagutzeko ikerketa sistematikoa martxan jartzea eta, bestetik, lan baldintzei eta lan harremanei egindako erasoak zigortzeko eta zuzentzeko arau neurriak hartzea dira hartu beharreko oinarritzko konpromisoak.

14

Ekonomia digitalerako abilezien garapenerako planifikazioa; Ekonomiaren digitalizazioa paradigma neoliberalaren menpean egiten denean esplotazioa areagotzeko tresna izan badaiteke ere, ezin da ukatu aurrerapen teknologikoaren potentziala bizitza eta baita ere lan mundua hobetzeko. Ez da ia arlorik geratuko lan munduan teknologien erabilpena eskatuko ez duena, baita orain arte kualifikazio baxuko esparrutzat hartu direnak ere. Eta dagoeneko teknifikatuta dauden espazioetan exigentzia maila areagotuko da. Gaitasun digitalak hartzeko dinamika oinarritzko formaziotik habiatu behar da eta zehar lerroa bihurtu hezkuntza maila guztietan. Goi mailako hezkuntzan indartze horrek oso sendoa izan behar du eta arlo teknikoetara gazteak (eta bereziki emakumeak, hor ematen den arrakala gainditzeko) erakartzeko ahaleginak planifikatu behar ditugu.

ERAIKI!KALITATEZKO
ENPLEGURAKO
POLITIKAK

15

Soldata arrakalaren kontrako estrategia; Lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko dikotomia desorekatua apurtu eta enpleguaren arloan ematen diren gizon eta emakumezkoen arteko arrakalak zuzenduko dituen estrategia bat abiaraztea da proposamena. Soldata arrakalaren inguruko hausnarketa zabal eta oso batetik abiatuta, lehentasunezkoa da Jaurlaritzak zaintza azterketaren eta ekinbidearen erdigunean kokatuko duen soldata arrakalaren estrategia oso bat martxan jartzea. Ikuspegi horretatik, estrategiak baliabide egokiz hornitutako neurri sorta zabala jasoko du. Besteak beste:

- Egungo kontziliazio sistemaren rebisio kritikoa, zaintza lanak emakumeen eta gizonen zein estatuaren ardura modu parekidean banatzeko asmoz.
- Kontratu partzialak jornada osoko bihurtzea sustatzeko laguntzak.
- Emakumezkoak esparru industrialera erakartzeko estrategia planifikatua
- Zaintza lanak aitortu eta ardura publikoko diren lan arlo feminizatu eta prekarizatuak duintzeko neurri zehatz eta eraginkorrak hartzea lehentasunezkoa bilakatzen da. Nagusiki, hurrengo hauek: 1.200€ko gutxieneko soldata, ardura publiko diren arlo horien guztien kontratazioan klausula sozialak aplikatzea eta EAEko adinekoentzako egoitza-zentroei buruzko 126/2019 Dekretua sakonki aldatzea, eguneroko jardueretarako laguntzarako denbora nabarmenki areagotuz, -batez besteko 120 minutuko arreta zuzena bermatuz- eta, orokorrean, zuzeneko ratioak hobetuz. Kalitatezko 1.500 lanposturen sorrera ekarriko luke neurri honen aplikazioak.

16

Telelana; COVID19aren euste-neurriek telelana sustatzera eraman dituzte enpresa asko eta asko. Bizitza pertsonala, familiarra eta lan ordutegiak bateragarri egiteko oso balekoa izan daitekeen lan modalitate honek kalitatezko baldintzak eskatzen ditu lan ordutan gehiegikeriak eman ez daitezen, edo emakumezkoentzako gain karga bat bilakatu ez dadin. Bide horretan, telelana sustatzeko lanbide arteko akordioa proposatuko dugu.

17

Etxeko Langileak; Orain arte egindako lanari jarraipena emanez, etxeko langileen esparruaren lana duintzeko hainbat konpromiso hartuko dugu. Besteak beste, Lanbidek etxeko langileen enpleguaren kudeaketan erreferente publikoa izan dadila sustatuko dugu, honen faltan bitartekaritza agentziek (agentzia banpiroak deitu izan dituztenak) negozioa egiten baitute langileen eskubideak albo batera utziz. Horregatik, azken hauen gaineko kontrola iraunkorra izatea bultzatuko dugu eta etxeko langileen kontratuak zein lan baldintzak tokian-toki behatzeko Osalanen lana sustatuko dugu. Horretaz gain, Jaurlaritzako sailen arteko koordinazioa sustatzeko lan plana osatuko dugu, Osakidetza lan istripuak, Lanbidek kontratazioa, Osalanek kontrola... egiteko behar dituzten formakuntzak eta zuzentarauak etxeko langileen elkarte zein adituekin batera elkarlanean osatu eta ikuskatzeko. Ekin-tzailtza kolektiborako programak horien artean bultzatzea eta men-

dekotasuna duten pertsonekin lanean ari diren pertsonen ziurtagiri profesionalak lortzeko aukera etxeko langileei ere zabaldu ahal izatea badira garatu beharreko beste konpromisoak.

18

Lan segurtasuna eta lan osasuna indartzeko talka plana; lan istripuak indarrean dagoen egiturazko prekarietatearen ezaugarri muturreko eta lazgarrienetako bat izanik, Osalan eta, bereziki, lan ikuskaritza sendotu beharra dago, arazoaren erpin ezberdinei egoki heltzeko eskuduntza guztiak gureganatuz eta horien giza zein bitarteko materialak indartuz. Lehentasunezkoa da, zentzu horretan, Europar indarrean dauden batez bestekora heltzeko ikuskari ratioak handitzea, edo kontratazio publikoen lan baldintzetan arreta jartzea, bereziki, horren prekarioa den obra publikoan. Horri guztiari bide emateko eta konpromiso orokorra finkatzeko, Lan Duinaren Behatokia sortzea lehenesten dugu, eragile sozio-ekonomikoekin elkarlanean.

19

Ekonomia Sozialaren Legea; gaur egun kalitatezko enpleguaren sortzaile nagusi den ekonomia sozialaren baitan eta, zehazki, kooperatibismoaren olatu berrian gertatzen ari den aldaketari eta sortu diren behar berriei erantzungo dien ekonomia sozialaren ikuspegi berri-tu eta indartua zehaztuko du legeak. Hortaz, bizitzak erdigunean jarri, eta eskualde eta lurraldetutako beharren diagnostikoetan oinarrituko diren harreman publiko, komunitario eta kooperatiboetan sortutako egituretan antolatzekeo beharrezkoak diren forma juridikoentzat eta estrategientzat markoa jartzea da horren helburua.

20

Ekintzailtza kolektiboa sustatzeko plangintza; proiektu profesional eta ekimen sozio-ekonomikoak martxan jartzen laguntzeko ekintzailtza programa desberdinak sustatu eta diruz lagunduak izan dira orain arte, baina, orokorrean, ekintzailtza indibidualaren eredia lehenetsi da, merkatu logikan oinarritutako eredia, alegia. Hala ere, Euskal Herrian bada beste eredu ekonomiko baterako bokazioa argi bat. Horregatik, gizartean identifikatutako bokazio asetzeko, gaur egungo ekintzailtza sustatzeko erduez gain, beharrezko da ekonomia soziala ardatz duen ekintzailtza programa eta marko bat eskaintzea. Marko berri horrek ekintzailtza molde berriak martxan jartzeko aukera eskainiko du eta aktibitate sozio-ekonomiko berrien sustapena kooperatibagintzan eta garapen komunitarioen klabeetan oinarrituko da, komunitatearen beharretatik abiatuz eta komunitatean bertan sare-tuz, bizigarritasuna motor bihurtuz.

21

Langileak enpresen kapitalean eta kudeaketan sartzeko funtsak; langileak enpresen kapitalean sartzea, eta, ondorioz, enpresen kudeaketan ere sartzea sustatzeko neurriak behar dira. Adostasuna dago enpresen eredu inklusiboa bultzatzeko, eta horretarako parte-hartzeko tresnak hobetu behar dira, langileen sarrera hori, kapitalean eta kudeaketan, indartzeko. Funtsak indartzea eta lege mol-daketak beharrezkoak dira dinamika hori sendotzeko. Era berean, enpresa bat krisian dagoenean Jaurlaritzak, egoera hauek artatzeko Protokolo Integral baten baitan, langileei enpresaren jabegoa eskuratzeari buruz aholkularitza lana eskainiko die eta helburu hori baliabide ekonomikoekin laguntzeko funts berezi bat sortuko du.

ERAIKI!ENPLEGU
PUBLIKOA

22

Ezgaitasuna duten pertsonen enplegu arrunta sustatzea; Nazio Batuen Konbentzioaren 27. artikulua aitortutakoren bidetik, ezgaitasuna duten pertsonen elkarrekin plangintza zehatz eta tasatu bat adostea eta martxan jartzea proposatzen dugu, irisgarriak, inklusiboak eta irekiak diren lan ingurune eta merkatuetan libreki aukeratu edo onartutako enpleguekin pertsona horiek euren bizi-proiektua aurrera eramateko eskubidea egikaritzeko bideak ezarri ahal izateko, eta indarrean dagoen legediak helburu horretarako aurreikusitako lan erreserbarako kuotak, behingoz, benetako bihurtzeko, ezgaitasuna duten emakumeen enplegurako sarbidea aukera berdintasunean eman dadin neurri berezituak ezarriz. Ikuspegi honetatik, lehentasunezko bilakatzen da, ezgaitasuna duten pertsonen laneratzeko azken dekretuaren berformulazioa.

Enplegu Publikoa

DIAGNOSTIKOA

EAEn Enplegu publikoan dugun behin-behinekotasun tasa handia ez da kasualitatearen ondorioa, baizik eta politika zehatz batzuen emaitza. Hain markadetan aplikatu den kontratazio eredu zehatz baten ondorioa, hain zuzen ere.

Sistema publiko argalagoa, malguagoa, menperatuagoa eta pribatizazioa bilatzen zuen erabaki baten ondorioa. Edo planifikazio oker baten ondorioa. Edo Madrildik eratorritako ereduaren aurrean eredu benetan propioa landu nahi ez izatearena. Edo negoziazioaren bidez administrazio publikoko erronka eta arazoei irtenbidea emateko gaitasun ezarena. Edo faktore guztiak batera.

Covid19aren aurretik titular handien bidez Enplegu Publikoen Eskaintzak -EPE-ak iragartzeari eta egiteari ekin zion Jaurlaritzak. EPE ez nahiko horiek masibo eta handiak izango bailiran. Nahiz eta iragartzen hasi ziren EPE horiek ezin duten dagoen arazoa konpondu eta bestelako neurriak, salbuespeneko neurriak, behar ditugun momentu honetan. Covid19-ak agerian utzi duen bezala, esaterako Osakidetzan. Halaber, salbuespen neurri horiek arazoa errotik konpontzeko lehen urratsa izan behar dira.

Hala ere, ikusita dagoeneko funtzio publikoan lanean diharduten langileen lan baldintzen inguruan botatzen hasiak diren mezuak, funtzio publikoa pribilegioekin erlazionatuz, pentsa daiteke, zenbait, Covid19aren ondorioz eremu desberdinetan sorturiko krisiari aurre egiteko prest daudela 2008ko krisian egin zen bezala, inoiz baino beharrezkoagoa den sistema publikoa kolokan jartzeko.

Horri gehitu behar zaio azken urteetan belaunaldi aldaketa bat ematen ari dela. Orain arte krisiaren aitzakiapean, birjartze tasen ezarpenarekin eta gastuaren kontrolerako lege eta irizpideekin EPE-ak ez dira egin edo eta egin

direnak anekdota hutsak izan dira, erretiratzeko diren eta sartzen diren langileen kopuruak alderatzen baditugu. Nahiz eta, borondate politikoa egon denean, Ertzaintzaren kasuan adibidez, arazorik ez den egon lege horiek ezarritako mugak gainditzeko.

Halaber, belaunaldi aldaketan ez dago inolako planifikaziorik, modu orekatsuan orain arteko giza kapitalaren ezagutza eta esperientziaren transferentzia egiteko. Ondorioz, apurketa bat emateko arriskua handia da, oinarrikoak diren eskubideen gauzatze egituretan. Adibidez, Hezkuntzan, makina bat ikastetxeren proiektu aitzindari eta eredu garriak kolokan daude. Osakidetza egoera ere ez da hobea, jubilazioak alde batetik eta osasun profesionalen gabeziak eta gabezia horiei aurre egiteko planifikaziorako egitasmo eta tresnarik gabe... Finean, gure gizartearen eskubide bermatzailea eta ongizatearen bizkar hezurra den sistema publikoa bereziki ahuldu da.

Jaurlaritzak azken urteetan egonkortu duen zerbitzuak kanpora kontratatze-ko joerak eta aipaturiko kontratazioari jarraipenik ez egiteak, erantzukizun publiko eta politikoa enpresa pribatuan delegatzea ekarri du, bere ondorio guztiekin. Horrek, bereziki, prekarietatea areagotu du, lan osasuna arriskuan jarriz eta lan istripuak areagotuz. Gainera, zerbitzuaren kalitatearen kaskartzea ekarri du, eta horren adibide esanguratsua Tolosako Asunción klinika dugu. Ahaztu ezin diren bezala, AHTren obra, San Mames Berriaren eraikuntza edo eta Anoetaren eraberritzean nominekin gertaturiko irregulartasunak, segurtasunean, lan istripuak. Edo eta emergentzietan gertaturikoa 2019ko abenduan, enpresak kontratua bertan behera utzia zuenean eta langileen esfortzu eta borondateari esker zerbitzua mantentzea lortu zenean.

Horrez gain, administrazio publikoan, izan administrazio orokorra, Osakidetza edo gainerako edozein eremu, agerian geratu da ezarrita dagoen sistema burokratiko ez dela gai diru publikoaren erabilera egokia, eraginkorra bermatzeko.

Funtzio Publikoan Jaurlaritzak Madrilen menpeko jokatzen du. Madrilen erabakien baitan jokatzen du eta negoziazio kolektiborako mahai orokorra hustu du. Ondorioz, informaziorako mahai hutsa bilakatu da.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Europar Batasunean, langileen %20a langile publikoak diren bitartean, EAEn %12a da.
- Jaurlaritzan, 10 langiletik 4 behin-behinekoak dira. Guztira, 40.000 langile aurki ditzakegu zintzilik (Mahai Orokorraren menpean dauden langileen datua).
- EAEn, 100.000 langile daude azpikontrataturik sistema publikoarentzat lanean.
- Hezkuntzan, guztira %41ko behin-behinekotasunarekin daude, irakasle zein gainerako langileak zenbatzen baditugu. Eta horrek ondo-

ERAIKI!**ENPLEGU
PUBLIKOA**

rio zuzena dauka hezkuntza proiektuetan, ikasleen emaitzetan eta kalitatean.

- Osakidetzan, %44 behin-behinean dago. Horrek ondorio zuzena dauka: Osakidetzan eraiki den sare klientelarra, iruzurrean oinarritutako EPE-ak, Osasun arretaren kalitatean. Profesionalen esfortzuari esker mantendu dena. Covid19ak ere agerian utzi du Osakidetzaren eta Osasun sistema publikoak oro har pertsonalean dituzten gabeziak.
- Ertzaintza da sail bakarra behin-behinekotasunik ez duena.
- Administrazio orokorrean %40tik gorakoa behin behinekotasun tasa aurkitzen dugu. Eragin zuzena dauka estaldura soziala bermatzeko egituraren.
- Sozietate Publikoetan %30.
- EHU: %35.
- Aztertzen badugu azkeneko EPE-ak noiz egin ziren, hainbat kategorietan datu deigarriekin aurkitzen gara: adibidez, administrazio orokorrean 2000. urtean egin zen; Heziketa berezian 2005an edo eta sukalde eta garbitzaileenetan 2001an. Beraz, ardurak ez daude langileengan.
- Osakidetzako adibidea: egiturazko plantilla 27.496 da. Egunero lanean ari direnak, berriz, (2019ko urriko datuak; hilero kopurua aldatzen da) 33.386 dira jardunaldi osoz.
- Hezkuntzako adibidea: egiturazko plantilla (2020an) 26.470 da; 2019an 24.983. Egunero lanean ari direnak, berriz, (2019ko urria; hilero datua aldatzen da) 29.993 dira.
- Mahai Orokorrari dagokionez, azken akordio nagusia 2009koa dugu, ondorengo dekretuan jaso zena: 83/2010. Orduetik ez da egon akordiorik. Egon direnak oso puntualak eta txikiak.

2024RAKO KONPROMISOAK

1**Enplegua Egonkortzeko legea aurkeztu;**

- Lehenik eta behin, estrukturalak diren plazak azaleratu behar dira. Kode gabeko lanpostuak azalertzeko diagnostikoa egin eta mahai orokorrean onartu beharko da (sektore publiko osorako, Jaurlaritzaren – Mahai Orokorraren menpekoa), egonkortu beharreko lanpostu publikoen kopurua zehazteko.
- Kidego, eskala, espezialitate eta kategori guztietako hautaketa prozesuetarako beharrezkoak diren aurrekontu-zuzkidurak onartuko dira.
- Behin-behinekotasun tasa handia duten eremuetan, sailkapen talde

eta azpi-taldeen enplegua finkatzeko prozesuak abiatu, portzentaje handiak dituztenetan, txanda bat baino gehiago sartzeko aukera izanez eta zenbait kategoritan azterketa berezituak eginez. Iraupen luze-ko interinoren egonkortasuna aitortzeko prozedura bereziak onartu.

2

Kontratazio publikoan -zerbitzu, obra, hornidura- klausula sozialak ezartzeko legea aurkeztu:

- Prekarietateari aurre egiteko. Kalitatezko zerbitzua bermatzeko.
- Kontratazio publikoan ardura sozialaz jokatu.

3

Belaunaldi aldaketa era planifikatu, normalizatuan eta orekatuan egiteko lan ildoak abiatu.

4

Urtarrilak 31ko 9/2012 dekretuak murriztutako eskubideak berreskuratzeko Plan Estrategikoa aurkeztu.

- Erosteko ahalmena, borondatez aurretiaz jubilatutako Muface-ko irakasle jubilatuen zorra ordaintzeko lege egitasmoa aurkeztu.

5

Gutxienez, 1.200 euroko gutxieneko soldata.

6

35 orduko lan astea Administrazio publikoan.

7

Lan hitzarmen kolektiboetan aurrerapausoak:

- Administrazioan mahai orokorrak adostasunean oinarritutako izaera negoziatzailea berreskuratzeko eta negoziazio kolektiboa aitzineratzeko lan ildo iraunkorarekin jarraituko dugu.

8

Kontratazio publikoa duintzeko Plana:

- Kontratazio Publikoan obrak baldintza duinetan garatzeko lan ildoan sakonduko dugu, prekarietateari buelta emateko.

9

Osalanen gaineko azterketa burutu:

- Osalanen funtzionamenduaren inguruko azterketa sakona egingo dugu, indarrean diren neurriak birplanteatu behar badira, egokitze-ko.

10

Administrazioa euskalduntzeko emergentziazko Plangintza Eragilea:

- Administrazioa euskalduntzeko neurriak hartuko ditugu. Eta erabile-
ra planak errebisatu eta bereziki planak garatzeko baliabideak jarri.

11

Egiazko lanbide garapenerako eredu birpentsatu eta adostu langileen ordezkarezekin.

Aurrekontu politikak

DIAGNOSTIKOA

Aurrekontu publikoak arloetako politika publikoak aurrera eramateko tresna erabakigarriak dira eta baita gobernu baten lidergoaren froga eta apustu publikoak egiteko erreminta nagusia ere.

Krisi sozial eta ekonomikoa ekarri duen krisi sanitarioan murgilduta gaudeenez, aurrekontu publikoek garrantzi handiagoa hartzen dute, eta herritarrak, zerbitzu publikoak eta ekonomia babestuko dituzten politika publikoak antolatzekeo tresna garrantzitsuenetako bat bihurtzen dira.

Azken legegaldian ikusi izan dugu nola Jaurlaritzak muzin egin dion aurrekontu politikek herri apustu estrategikoak egiteko ematen dituzten aukerei, eta aukera paregabea galdu du herriaren onurarako aurrekontuak egiteko, bere premia politiko propioei erantzuteko akordioak lehenetsiz.

Orain, ezinbestekoa da Jaurlaritzak atzerapenik gabe herri-apustu estrategikoak egitea, krisi hau gainditzeko funtsezkoak baitira ekonomia suspertzekeo eta gizarte-babeserako politika publikoak.

Urteak daramatzagu krisiaren aitzakiaz indarrean jarritako aurrekontu politikekin, non murrizketak eta gizartearen beharretatik aldentzen diren lehentasunak nagusitu izan diren. Murrizketa horiek argi eta garbi islatu dira Covid-19 pandemiari aurre egiteko orduan sortutako arazoetan, bai osasun-mailan, bai gizarte-zerbitzuetan.

Krisi-egoera honek, aberastasuna sortzeko eta gizarte-desberdintasunak murrizteko printzipioen gainean jarduteko lehentasunak eta baliabideen esleipena birpentsatzera behartu behar ditu administrazio publikoak, proposamen ausart baten bidez. Administrazioak oso ondo definitu behar du zer den gizarte-ongizateari benetan balioa ematen diona. Eta hori oinarritzat hartuta esleitu behar dira baliabideak, egoera kezkarri honetan kudeaketa eraginkorrena eta efizienteena egin ahal izateko.

Defizita eta zor publikoaren kontrola aurrekontu politiken ardatz bihurtu dituzte, jendartearen mesederako politikak abian jartzeko tresnak izan behar direnean, eta horrela, zenbait arazo larri (jendarte-desberdintasuna, langabezia, jendarte-bazterkeria) konpondu ordez eta susperraldi ekonomikoa bideratu ordez, arazo horiek sakontzea ekarri dute.

Kudeaketa publiko arduratsua egitea edo defizita, zorra eta gastua kontrolatzea politika publikoak sostengatzeko ekimenak dira, beti ere behar sozialak artatzeko eta garapen ekonomikoa sortzeko helburu nagusiari begira. Aldiz, ezin dira gure herriaren errealitateari behar bezala erantzutea galarazten dигuten oztopo izan.

Azken urteotan Europar Batasunean indarrean egon diren austeritate-politika zorrotzak zalantzan zeuden pandemiaren aurretik. Batzuek aspalditik esan dugu austerizio-politika horiek ez zutela ezer onik ekartzen, kontrol ekonomikoa ezin zela pertsonen eskubideen ginetik egon, haien mesedetan baizik

Barne eta kanpoko faktoreek eraginda, datuak zein pertzepzioak atzeraldi ekonomikoaren mamua astindu eta alarma seinaleak pizten ari dira Europa osoan.

Egoera horretan, gero eta gehiago dira austeritate politikak alde batera utzi eta politika ekonomiko berriak eskatzen dituzten ahotsak. Izatez, ez dira soilik orain arteko Europako Batasunaren neurrien gabeziak eta eragin kaltegarriak salatzen dituzten ahotsak. Muturreko zorrotasunaren alde lerratutako askok ere sektore publikotik lidergoa eta bultzada eskatzen ari dira.

Pandemiak eragindako krisiak politika horien baliagarritasunik eza baieztatu du, politika publikoen beharra nabarmenagoa bihurtu denean. Gaur egun, inoiz baino beharrezkoagoak dira aurrekontu-neurri guztiak, lehentasunak birdefinitzea, zerbitzu publikoak eta ekonomia sustatzeko politikak indartzearen aldeko apustu garbia egiteko.

Gurean badugu aukera eta beharra inbertsio eta gastu publikoa indartzeko, urteetan jasandako murrizketak eta paralisia alde batera utziz eta erronka ekologiko, industrial zein sozio-laboralei taxuz heltzeko. Gizarte kohesioa sendotzeko, ekoizpen eredua eraldatzeko edo trantsizio ekologikoak ekartzen duen erronkari egoki erantzuteko politika ekonomikoei bultzada eman behar diegu.

Gure ekonomiak aukerak ditu, euskal gizarteak etorkizun hobe bat izan dezake eta horretarako politika publikoek bidea egin behar dute. Gure autonomia finantzarioaz jardun behar dugu, jarduera publikoak tresna ekonomiko guztiak erabili behar ditu hori guztia ahalbidetzeko. Herri gisa ditugun erronkei erantzuteko, muturreko austeritate politikak alde batera uztea eta politika ekonomiko berriak indarrean jartzea ezinbesteko premisa da.

Izan ere, urte asko galdu dira jada gure trantsiziorako bide propio egiteko, EAEko gobernu ezberdinen oniritziarekin Espainiak bere egoera okerrari erantzuteko inposatutako neurriak ñabardurarik gabe gurean aplikatuta. Hortaz, gure aurrekontu politikaren ardatzek erantzun behar diete gizarte gisa ditugun erronkei, horretarako politika publikoetan eman beharreko jauzi kuantitatibo zein kualitatiboa egoki islatuz.

Genero-ikuspegia eta erronka ekologikoari erantzun egokia ematea izango dira gure aurrekontu-politikaren oinarrizko bi ardatzak, funtsezkoak baitira berdintasunean eta justizia sozialean oinarritutako euskal gizartearen eraikitzeke.

Horrekin batera, gure aurrekontu-politika baliabideen kudeaketaren arrazionalizazioan eta zorrotasunean, gardentasunean, eraginkortasunean eta parte-hartzean oinarrituko da, betiere pertsonak lehenetsiz.

ERAIKI!**AURREKONTU
POLITIKAK****HAINBAT DATU ESANGURATSU**

- Aurreikuspen ekonomikoen arabera, BPG-aren beherakada orokorra izango da eta langabeziaren hazkunde handia
- Zerga-bilketan% 20-25 inguruko beherakada aurreikusten da, eta horrek 2000 milioi euro inguruko beherakada ekarriko lioke Eusko Jaurlaritzari.
- Eusko Jaurlaritzak dagoeneko jaulki du 2020rako aurreikusita zuen zor publiko guztia, 886 milioi baino gehiago, eta 2020an zorpetzeko behar handiagoa aurreikusten da.

2024RAKO KONPROMISOAK

- 1** **2020ko aurrekontuak berrikustea, lehentasuna emanez zerbitzu publikoak indartzeari eta Covid-19aren krisiak jotako pertsonen beharrei erantzuteari.** Horrek zenbait inbertsio alde batera uztea edo birplanteatzea ekarriko du, adibidez, azpiegitura handiei dagokionean.
- 2** **Hurrengo urteetako aurrekontu-politikaren helburua izango da, era berean, inbertsio soziala lehenestea eta garapen ekonomiko orekatua bultzatzea, non zainketak, elikadura-subiranotasuna, 0 km-ko kontsumoa, uraren eta ondasun naturalen kudeaketa, trantsizio energetikoa edo ekonomia zirkularra komunitatearen zerbitzurako garapen baten parte izango diren.**
- 3** **Pizgarri ekonomikoko aurrekontu-politikei dagokienez, enpresei laguntzak planteatzerakoan, baliabideen kudeaketa publikoaren erantzukizuna ardatz izanik, baldintza hauek proposatuko dira: ezingo dute eduki zerga-paradisuetan erregistratutako filialik; laguntzak itzultzen ez diren bitartean, ez dira dibidenduak banatuko, ezta exekutiboek gainsoldatak ordainduko ere; langileen baldintza duinak mantenduko dituzte, eta CO2 isurketak murrizteko konpromisoak hartuko dituzte.**
- 4** **Genero-arrakala hausteko aurrekontu-estrategia aurkeztu.**
 - Besteak beste, enpleguaren, zaintza-lanen eta etxeko lanen banaketa integratuz (gaur egun, batez ere emakumei dagokie).
 - Norberaren bizitza eta lana benetan bateratzeko baldintzak erraztuz.
 - Gaitasunen teoria aplikatu aurrekontuetako genero-inpaktuaren azterketan.
 - Aurrekontu-araudia egokitzea genero-eragina baloratzeko.

- Norabide eta partida guztietan zeharka tasatutako genero-neurriak ezarri.

5**Burujabetza Ekonomikorako Lehendakariordetza sortu.**

- Eztabaida eta ekintza politikoaren lehen lerroa eramateko, lidergoaren eta beharrezko bultzada publikoaren ikuspegitik, politika propio eta koherenteak, anbizio handikoak, gauzatzeko beharrezkoak diren tresna guztiak pixkanaka bere gain hartzen joateko beharra.
- Lehendakariordetza horrek, besteak beste, finantza-, zerga- eta lan-arloei buruzko proposamenak egingo ditu.

6**Lehendakaritza Sailaren barruan, Aurrekontu Eraginkortasunaren, Gardentasunaren, ikuspuntu feminista eta Erronka Ekologikoaren Zuzendaritza sortu.**

- Deskarbonizazioaren bidetik, erronka ekologikoari aurre egiteko Lurralde Estrategia bat ezarri.
- Aurrekontu-prozesuetan benetan parte hartzeko bitartekoak ezarri.
- Genero-ikuspegia txertatu.
- Kontuak emateko prozesu publikoak gauzatzeko mekanismoak ezarri.

7**Gastu eta inbertsio publikoak bultzatzeko ibilbide-orri fiskal eta finantzario berri bat diseinatu eta indarrean jarri.**

- Zorpetze-politika eta beste finantza-tresna batzuk, euskal egoerari erantzuteko eta Covid-19 pandemiaren ondorioei aurre egiteko.

8**Aurrekontuen ahalbideak erabiltzerakoan, politika publikoen emaitzak ebaluatzeko mekanismoak ezarri.****9****Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araubidea berrizatu.**

- Gardentasuna eta eraginkortasuna indartzeko dituen eskumenetan sakondu.

Fiskalitatea eta finantzak

DIAGNOSTIKOA

Herri baten garapenerako oinarritzakoa da finantza sistema egokia izatea, eta horretarako egun ditugun eskumenak baliatuta aurrera pausuak emateko aukera badago. Fiskalitatea eta finantzak oinarritzakoak dira politika publikoak elikatzeke. Eta gaur egun pandemiak eraginda bizi dugun krisiari aurre egiteko, agerikoa da politika hauen beharra.

Gure finantza sistemak aldaketa sakonak bizi izan ditu azken urteetan: aurrezki kutxen desagerpena eta bere ordeztako bankuaren eta hiru fundazio bankarioen sorrera eta kreditu kooperatiben arteko fusioa, besteak beste. Honek eragina izan du finantza sistemarekiko bai partikularrek bai enpresek dituzten harremanetan, batzuetan bulegoak itxi direlako eta besteetan krediturako aukerak zailago bilakatu direlako.

Finantza-sistema ezinbestekoa da ekonomia bideratzeko, lehiakortasunerako, inbertsioetarako, enplegua sortzeko eta aberastasuna birbanatzeko; horretarako, finantza-tresna publikoak indartu behar ditugu, eta, gainera, sistema antolatzeke ahalmena eduki behar dugu. Ezinbestekoa da estrategikotzat jotzen ditugun izaera ekonomikoko sektoreak ekintza publikoaren esparrura gehitzea. Halaber, finantza-sistema publikoaren eraketa dela eta, ez dugu sektore pribatuarekiko subsidiariorat jotzen, ez eta arlo pribatuaren defizitak ordaintzeko moduzat ere. Aitzitik, finantza-sektore publikoa trazio-elementua izan behar da kreditua eta aurrezki sozializatzeke, inbertsio produktiborako eta enpresei zein norbanakoei laguntzeko.

Gure sare sozioekonomikoaren premiei erantzuteko garaian, oro har, gure herriari pentsatu eta diseinatutako politika publikoekin erantzutea behar-beharrezkoa da, aurrezki gure herriaren produkzioan inbertitzera eta premia sozialetara bideratu ahal izateke, irizpide etikoei jarraikiz eta pertsonak ez ezik, gure lurraldeetan errotuta dauden enpresa txiki eta ertainak ere ardatz izanik. Gauzak horrela, Finantzen Euskal Institutuak protagonismoa irabazi behar du ehun ekonomikoa osatzen duten agente ekonomikoen finantzaketan, bereziki enpresa txiki eta ertainen finantzazio iturriak bermatzeko, bizi dugun krisiak gogor jotzen ari zaie eta, horretarako fondoak eskuratzeko ahalmena bermatu behar zaio nazioarteko merkatuetan. Gerora Euskal Banku publikoa sortzeko oinarria izanik, familiei finantzazio justua bermatzeko.

Gero eta gehiago dira Europa mailan hartzen diren erabakiak gurean eragina dutenak, eta fiskalitate eta finantza arloan bereziki, dugun autonomia balioan jarri beharra agerikoa da, gure ahotsa zuzenean Europako erabakiguneetan entzun dadin. Ecofin bezalako foroetan zuzeneko presentzia ziurtatzea helburu izan behar dugu European, estatu espainiararen bitartekorik gabe; iruzurraren aurkako borrokan informazio elkar trukaketa zuzenak izanik edota zenbait zergen inguruko eztabaida eta diseinuan gure jarrera propioa azalduz eta defendatuz.

COVID-19 pandemiaren ondoriozko behar sozial eta ekonomiko handiak sortu dira, eta honek baliabide publiko eta pribatu ugari mobilizatu beharra ekarriko du, hain zuzen ere, historia hurbilean aurrekaririk ez duen diru-sarrera fiskalen jaitsieraren testuinguruan. Gastu publikoaren beharrak ez datoz bat aurreikusitako diru-sarrera fiskalekin.

Egoera honek neurri fiskal ausartak eta sakonak abian jartzea eskatzen du. Inplementatu beharreko tipoen eztabaidari ausardiaz eutsi behar diogu, lurraldeetako Batzar Nagusiekin batera, euskal erakundeek datozen hilabete eta urteetan izango dituzten finantzaketa-beharrei aurre egiten lagundu ahal izateko.

Premiaz behar ditugun politika publikoak ezartzeko behar adina baliabide bermatzeko zerga-neurri gehigarriak eta salbuespenezkoak aplikatzea ezinbestekoa da. Fiskalitate progresiboago eta bidezkoago bati buruzko beharrezko eztabaidarekin batera, COVID Tasa delakoa ezartzea proposatzen da, errekareru gisa, zuzeneko zerga hauetan gaitasun ekonomiko handiena duten pertsona eta enpresen zerga-tasak, aldi baterako, zati batean, baina nabarmen handitzea ekarriko duena.

Zerga politikaren bidez administrazio publikoaren diru sarreraren zati handiena definitzen da. Zerga-arloko eskumen gehienak Lurralde Historikoei dagokien arren, Eusko Jaurlaritzak da erantzule herritarrentzat biziki garrantzitsuak diren gaitetan. Erantzukizun hori izan arren, Jaurlaritzak ez du protagonismo handiagoa izan politika fiskalak landu eta ezartzeko garaian, eta ez da bete administrazio bakoitzak bere eraginpeko herritarren premiei eta eskubideei erantzun egokia emateko helburua. Jaurlaritzak baditu aurrerak zerga politikaren alorrean ere, besteak beste fiskalitate berdea garatuz erronka ekologikoari aurre egiteko bidean.

Iruzuraren aurkako borrokan, nahiz eta azken urteetan Aldundi eta Jaurlaritzaren arteko lanean alor honetan asko aurreratu den, oraindik badago bidea egiteko eta Jaurlaritzak lidergoa izan behar du, gizartearen onuran egin beharreko lan honetan.

Kontzertu ekonomikoaren baitan aldebikotasuna indartzearen beharra agerikoa da, eta orain arteko dinamikarekin bukatu beharra dago, alegia, estatuko gobernuak izan ditzakeen behar politikoaren arabera jarduna ezin da izan bidea; benetako aldebikotasuna ziurtatu beharra dago eta burujabetasun fiskalean aurrera pausuak mahai gaineratu behar dira, hemen har ditzagun zerga guztiei buruzko erabakiak, politika osoak eta koherenteak landu ahal izateko.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- 2019an zerga bilketa 15.400 milioitik eurotik gorakoa izan da. Aurtengo hasieran aurreikuspenak positiboak baziren ere, Covid-19ko pandemiaren ondorioz, diru-sarrerak nabarmen gutxituko direla aurreikus daiteke eta hurrengo urteari begira panorama ez da oso argia.

ERAIKI!**FISKALITATEA ETA
FINANTZAK**

- EAEko Ogasunen artean 11 milioi datu trukaketa baino gehiago egiten dira, Nafarroa eta estatuko Ogasunetik 98 miloi inguru jasotzen dira eta ia 40 milioi bidaltzen zaizkie. (2018ko datuak).
- Fiskalitate berdearen bidez Europa mailan BPG aren % 2,4 inguru biltzen da.
- 150 enpresa izan dira Euskal Finantza institutuaren onuradun EAEn bere jarduera hasi zuenetik, naiz eta 59.000 enpresa baino gehiago daudenean EAEn.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Covid-19ren pandemiak sorturiko kalteei aurre egiteko, zergen bidezko diru-sarrerak handitu Batzar Nagusiekin elkarlanean.

2

COVID Tasaren aplikazioa: zerga-arauketaren esparruan zerga-tasa altuenei aurre egin behar dieten pertsona eta enpresei soilik aplikatuz, sakoneko erreforma fiskala egin bitartean.

- Errekargua PFEZaren tarte altuenetan.
- Aurreko ekitaldiarekin alderatuz %10etik gorako kontabilitate-irabaziak izan dituzten enpresa ertain eta handien gainordaina Sozietateen gaineko Zergaren zerga-tasan.
- Gainordaina Ondarearen gaineko Zergaren zerga-tasetan eta benetako progresibotasuna bermatzeko ezkutu fiskala bertan behera utzi.
- Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan zerga-tasen errekargua.

3

Lurraldeetako Batzar Nagusiekin batera sakoneko erreforma fiskalari ekin:

- Aberastasun Handien gaineko Zerga ezartzeko prozesua abian jarri
- Ondare Zergaren zerga-ekzutua kendu eta familia-partaidetzak zergapetu
- PFEZean behin behineko errekargoa aztertu
- Lanaren eta kapitalaren diru-iturriak era beretsuan zergapetzeko bidea ireki, oinarri bakarreko bidea jorratuz eta zerga-tarifa progresiboa jarritz.

4

Kontzertu ekonomikoaren baitan benetako alde bikotasuna ziurtatzea, gure ekonomiari eta egoera sozialari erantzuteko tresna guztiak eskuratuz: zorpetzearen eta defizit publikoaren bide orri propioa egiteko ahalmena izatea.

5

Euskal aurrezki kutxen desagerpenaren ondoren sortutako Kutxabank bankuaren lotura gure lurraldera indartu.

- Bere jabe diren fundazio bankarioen araubidea berriztatuz ordezkarrizak herriaren errealitateari erantzuteko eta Kutxabank-ekin akordioak indartuz.

6

Finantzen euskal institutua berrindartu

- Ehun ekonomikoa osatzen duten agente ekonomikoen finantzaketan izan behar duen protagonismoa garatuz, Banku publikoaren bidea zabaltzeko.
- Besteak beste fondoak eskuratzeko ahalmena behar du nazioarteko merkatuetan eta egun Jaurlaritzak dituen inbertsio funtsak eta berriak indartu behar dira, sektore finantziarioaren eta BGAE ren parte hartzea sustatuz.

7

Europa mailako foro fiskal eta finantzieroetan (ecofin) ordezkarrizka zuzena izateko eta nazioarteko tratatu eta hitzarmenak adosteko lanketa egin, besteak beste iruzurraren aurkako borrokan eraginkortasuna irabazteko.

8

Zerga Iruzurraren aurkako borrokarako baliabideak indartu.

9

**Euskal Behatokia sortu iruzur fiskalaren aurkako borroka-
ren ebaluazio, jarraipen eta aholkulari funtzioak egingo li-
tuzkeenak.**

- Iruzurraren kontrako borroka planteamendu integral batean kokatzen dugu: batetik, kontzientziazioa, bestetik, araugintzan zerga ihesa mugatzeko aldaketak eta baita ere, administrazioaren eraginkortasuna eta baliabideak areagotzea.
- Gainera ingeniariaritz fiskalaren bidez paradisu fiskal eta tributazio baxuko herrialdeetara egiten diren mozkinen desbideratzeei aurre egitea berebiziko erronka dira.

10

Administrazio maila guztietan kontratazio publikoan ardura fiskalari buruzko klausulak ezarri.

- Kontratazioetan fiskalki arduratsu diren enpresak lehenetsiz, eta paradisu fiskaletan filialak dituzten enpresak zigortu.

11

Zerga Koordinaziorako Organoan berdintasun lantaldea sortu generoak zerga politikan duen eragina aztertzeke eta genero-arrakalaren kontrako neurriak diseinatzeke

12

BEZ, zerga bereziak eta gaur gaurkoz gure eskumen ez diren bestelako zergak arautzeko subiranotasun fiskala lortzeko lanketa egin.

ERAIKI!

INDUSTRIA

13

Aldaketa klimatikoaren kontrako borrokaren baitan fiskalitate berdea garatu

- Premiazkoa da alor honetan nazioarteko esperientzian abiarazitako urratsak ezagutu eta gurean izan dezaketen potentzialitatea aztertzea.
- Hondakin solidoen isurketa eta errausketaren gaineko zergak, lurzoru erabileraren aldaketen gainekoa, atmosferari egindako isurketa kutsakorren gainekoa, erabilera bakarreko plastikozko poltsen gainekoa ... dira horietako batzuk.

14

Eusko Legebiltzarrak egitate berriak zergapetu ditzake, besteak beste, pertsona juridikoen aktibo ez produktiboen gaineko zerga-luxuzko ondasunen zergapetzea, edari azukredunen gaineko zergak eta janari azkarra.

Industria

DIAGNOSTIKOA

Covida-19ren krisiak euskal industrian, ekonomia osoan bezala, ondorio kalkulaezinak eragin ditu. Industria defendatzea eta indartzea apustu estrategikoa zen eta bada euskal ekonomia eta gizartearentzat. Industriak balio erantsia, soldata handiagoak eta baliabide fiskal handiagoak sortzen ditu. Euskal ekonomiaren posizio erlatibo abantailatsua historikoki gure lurraldearen industria-sendotasunean oinarritzen da. Covid-19 pandemiak sortutako krisi globalak une zail batean harrapatu du euskal industria. Nahiz eta euskal industria suspertu egin zen 2008ko krisiaren gainbeheratik produkzioari dagokionez, krisi horrek gure herrialdean industria-ehunari eragin baitzion nagusiki, oraindik ez da birsortu azken hamarkadan galdutako industria-enplegua. Gainera, euskal industria-sarea bidegurutze batean zegoen: errentetatik bizitzen jarraitzea, gero eta ahulagoa zen inertzia historiko bat aprobeztatuz, edo XXI. mende aurreratu honetako errealitate ekonomiko eta sozial globaletara egokitzeko ariketa bat egitea. Krisi globalak, nahiz eta ondorio aurreikustezinak izan, bigarren bide horren alde egiteko beharra areagotzen du, bizirauteko berme bakar gisa. Eta epeak laburtzen ditu, behar bezala egin ahal izateko.

Orain arte, industria globala honako bektore hauek markatzen zuten:

- Manufaktura-ekoizpena gorabidean dauden herrialdeetara lekualdatzea, batez ere Txinara, eta EBko espazioaren pisu politikoa eta ekonomikoa galtzea.
- Digitalizazioa, ekonomia desmaterializatu eta larritasun ekonomiko zentroa manufakturakoak ez diren sektore berrietara eramaten duena, eta, aldi berean, enpleguaren kontzeptua eraldatzen duena.

- Krisi ekologikoa: hazkunde materialaren mugak erakusten ditu, eta, aldi berean, produkzio-prozesuak eta, oro har, bizimodua birpentsatzera behartzen du, planetaren iraunkortasuna bermatzeko.

Erronka orokor horiez gain, euskal industriak, bereziki, bere erronkei aurre egin behar die:

- Nazioartean lehiakideak baino askoz txikiagoak diren enpresen presentzia bermatzea.
- Industria-enpresaren bizitzan gizarte-ikuspegia txertatzea.
- Jauzi teknologikoa egitea.
- Lurraldeari lotutako enpresei eustea.
- Azken produktua sortzen duten eta enpresa traktoreen kopurua handitzea.
- Eskualdeen arteko desorekak.

Azkenik, Covid-19ren krisiak industria-ekoizpenean izan duen inpaktuak beste arazo batzuk ere erakusten ditu, orain arte bigarren planoan zeudenak:

- Produktu kritikoen hornidura bermatzeko ezintasunak, hala nola elementu medikoak edo osasun-babeseakoak.
- Hiper-globalizazioak balio-kateak luzatu ditu, mota guztietako krisien aurrean kaltebera bihurtzeraino.

Eusko Jaurlaritzak azken legegintzaldian (edo legegintzaldietan) garatutako industria-politika laissez faire neoliberalaren aplikazioa izan da, enpresa-munduaren esku utziz politiken zuzendaritza eta uko eginez gobernu bati dagokion lidergo zereginari. Euskal industria sarea inertzia moduan funtzionatzen ari da, ikuspegi eta norabide partekaturik gabe, eta gobernuari legezkiokkeen azterketa eta orientazio estrategikotik umezurtz. Euskal industriak bultzada publiko handia behar du, garai ekonomiko global berrira eta aldaketa disruptiboen segidara egokitzeko, eta, aldi berean, arazo espezifikoak zuzendu behar ditu, bere abantailak maximizatuz, horiek ere badaudelako. Baina, bistan denez, lehenengo erronka jarduerari berriro ekitea da, Covid-19aren krisialdiaren eta atzeraldi ekonomikoaren testuinguruan.

Europako Batzordeak aurreikusi duenez, Espainiako Barne Produktu Gordina %9,4 jaitsiko da 2020an, eta %7 igo 2021ean eta langabezia-tasa % 18,9ra iritsiko da. Euroguneak % 7,7 egingo du atzera 2020an, eta % 6,3 egingo du gora 2021ean. Politika publiko indartsu eta lidergo-bokaziodun batek bakarrik artikulatu dezake aurretik dugun aurrekaririk gabeko krisi bati erantzuna ematea, haren iraupena laburtzea eta euskal industria-sarearen berrikuntza estrategikorako oinarriak jartzea. Aurre egingo diogun legegintzaldiak lehen etapa bat izan behar du, krisiari aurre egiteko erantzuna izango duena, haren eragina geldiaraziko duena eta oinarriak jarriko dituena, bigarren etapa batean, euskal industriari laguntzeko eta egitura berritzeko neurriak artikulatzeko.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Euskal erkidegoa desindustrializatu egin da. 2008ko krisiaren ondoren, industriak 4 puntuko pisua galdu zuen EAeko BPGan (% 28,3tik % 24,2ra). Gaur egun, jaitsiera hori ez da berreskuratu, eta 24,2an jarraitzen dugu. Alemaniak 2,5 puntu galdu zituen 2009an, eta berreskuratu egin zituen 2010an. EB-28 19,8tik (2008) 19,6ra (2018) igaro da. Urkulluren agintaldietan, nahiz eta ziklo makro-ekonomikoa aldekoa izan, industria gelditu egin da.
- 2008an 250.000 pertsonak egiten zuten lan EAeko industrian, eta 2017. urtean 203.000 ziren. 2008 eta 2017 artean, industrian lan egiten zuten langileak 24,2tik 20,6ra pasatu dira.
- Industria-ondasunen esportazioak 25.487 milioi eurokoak izan ziren 2018an. Inportazioak 20.289 milioi eurokoak izan ziren. Ondorioz, 2018ko industria ondasunen merkataritza saldoak 5.199 milioi euroko superabita ekarri zuen. Estaldura-tasa EAeko 125,6koa da.
- Euskal industriaren enpleguen bi heren teknologia maila txikiko edo ertain-txikiko sektoreen mende daude. Euskal industriak sortutako balio erantsiaren %70 balio teknologiko gutxiko sektoreetan kokatzen da (ertain-txikia, txikia edo maila teknologikorik gabekoa).
- Emakumeek industriako enpleguen %20,7 baino ez dituzte betetzen. Presentzia hori, gainera, ehungintzan, elikagaigintzan edo farmazeutikan kontzentratuta dago.
- Euskal industria manufaktura-jarduera klasikoez hornitzen da, hala nola siderurgiaz, motordun ibilgailuen fabrikazioaz (automobilgintzako osagaiak barne), makineria eta ekipamenduez (industriaren arloko balio erantsiaren %44 osatzen dute) eta energiaz. Gure ekoizpen-profila nahiko tradizionala da, eta zerbitzu aurreratuak gutxi garatzen dira. Lau adar industrial handienek (Metalurgia eta metalezko gaiak, Garraio-materiala, Energia Elektrikoa, Gas eta baporea eta Makineria eta ekipamendua) balio erantsi industrialaren %60 bildu zuten 2017an, eta horrek produkzio-kontzentrazio handia erakusten du.
- Herraldeko erreferenteak, hala nola CAF, Irizar, Tubacex, Vidrala, Orona, Ederlan Taldea, Veolia, Danobat Group, Sener, munduko lehiaren aktore txikiak dira. Adibidez, Oronak 700 m €fakturatzen ditu urtean, eta Schindlerrek, berriz, ia 9.000 m €. CAFek 1.400 milioi euro fakturatzen ditu, eta Txinako CRRC korporazio berriak, berriz, 13.000 milioi euro.
- Urkulluren agintaldian (2012-2019) I+Gko inbertsioa BPGren %2,20tik %1,86ra jaitsi da EAEn. I+Gko ahaleginean gertuago gaude Espainiatik Alemaniatik baino, eta dagoeneko EBko batez bestekoaren azpitik gaude, baita Txinatik ere, eta eskualde liderretatik argi-urteetara. Europar Batasuneko berrikuntza-adierazleen panelak egiaztatu due-

nez, EAE bigarren kategoriatik hirugarrenera jaitsi da berrikuntza-a-dierazleei dagokienez.

- EAEko 20 industria-enpresa handienetatik 6 baino ezin dira kalifikatu tokiko erabaki-ahalmen errealekotzat; horietatik 5 gizarte-ekonomiaren ingurukoak dira, eta beste 4, berriz, I+G+b arloarekin edo tokiko nolabaiteko ainguraketarekin (I+G+B, tokiko erabaki exekutiboak) lotutako tokiko lotura garrantzitsutzat jo daitezke. Gainerako % 50, funtsean, korporazio globalen ekoizpen-plantak dira. Horri gehitu behar zaio inbertsio-funtsek gero eta partaidetza handiagoa dutela tamaina ertaineko enpresa garrantzitsuetan. :
- Automobilgintzaren sektoreak 40.000 lanpostu sortzen ditu EAEn, industria-enpleguaren % 20 eta enplegu globalaren % 5. Gehien esportatutako 5 produktuak eta euskal esportazioen % 35 sektore honetakoak dira (petroliotik eratorritakoak barne).

2024RAKO KONPROMISOAK

Legegintzaldirako funtsezkoak diren 5 helburu estrategiko:

1. Pandemiak eragindako krisiari aurre egitea.
2. Industriaren pisua BPGaren % 28 izatea.
3. Industrian 250.000 langile izatea (2007an zegoen kopurua)
4. BPGren % 3 I+Gn inbertitzea
5. Euskal industria-eredu berritua bultzatzea, ezaugarri hauekin:
 - 5.1. Eredu industrial soziala, parte-hartzailea eta ez-sexista.
 - 5.2. Industria-eredu ekologikoa.
 - 5.3. Industria-eredu teknologikoa.
 - 5.4. Herrialdean errotutako industria-eredua.
 - 5.5. Ekoizpenaren eta lurraldearen aldetik dibertsifikatutako industria-eredua.
 - 5.6. Industria-eredu eraginkorra.

Ikuspegia: industria-politikak lehenengoz krisiari aurre egiteko dinamika garatu behar du. Gero, industria-eredu berri baterantz aurrera egitea izan behar du helburu, osagai teknologiko handikoa, lurralde eta ekoizpen-dibertsifikatua, ingurunea errespetatzen duena, energia gutxiago kontsumitzen duena, sozialki eta fiskalki arduratsuagoa, euskaldunagoa, berdintasuneko eta parte-hartzaileagoa, eta gizarte-ekonomia eta tokiko garapena sustatuz egin behar du, gizarte-eragileekin elkarrizketa eta akordioaren bidez, eta ondo koordinatutako eta ikuspegi estrategikoa duen lidergo publiko baten pean.

ERAIKI!

INDUSTRIA

- 1 Funts publikoen sistema berregituratzea**, orain arte egindakoa aztertu ondoren, eta, besteak beste, inbertsio publikoko funts bat sortzea, 800 milioiko zuzkidura izango duena legegintzaldian zehar, euskal enpresa estrategikoen kapitalean partaidetza publikoa errazteko, bai duten dimentsioagatik, bai sektoreagatik edo lidergo-gaitasunagatik (txapeldun ezkutua), eta herrialdean ainguratzea eta errotzea bermatzeko.
- 2 Inbertsioaren eta finantzaketaren aldeko herri-akordio bat bultzatzea**, banku-fundazioekin eta Kutxabankekin, desinbertsioak saihesteko eta erakunde horiek euskal industria-enpresen kapitalean duten partaidetza handitzeko, bai eta ekoizpen-ehunari finantzaketa handiagoa eta hobea emateko ere. Beste erakunde, banku-erakunde eta BGAEei irekia.
- 3 Finantzen Euskal Institutuan lehentasunezko finantzaketalerro bat irekitzea** enpresei, euskal industria-ereduarekin lerrokatutako erronka estrategikoei aurre egiteko, bereziki trantsizio ekologikoan edo nazioartekotzean.
- 4 Gizarte politika, ekonomia, politika, hezkuntza, komunikazio-eragileen arteko herri-akordioa bultzatzea**, 2025ean BPG-ren %3 I+Gn inbertitzeko konpromisoa hartzeko. Itunaren gobernantza-mahai bat eta goi-komisionatu bat sortzea, independentea baina sail baten maila baliokidearekin, I+G politikak koordinatzeko.
- 5 Eskualde behartsuenak bultzatzea** (Ezkerraldea, Oarsoaldea, Aiaraldea edo batez bestekoa baino egoera sozioekonomiko okerragoa duten beste batzuk), azterketa eta lan-taldeak, talka-planen eta plan estrategikoen bidez, eremu horietan industriaren presentzia indartzeko helburu nagusiarekin, lehentasunezko inbertsio-eremu izendatuz eta horietan industria-jardueren instalazioa sustatuz.
- 6 Adimen Ekonomikoko Euskal Zentroa sortzea**, Eusko Jaur-laritzaren eta unibertsitate publikoaren gidaritzapean eta gainerako unibertsitateekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan. Zentro horren helburua industria-politikak eta enpresa-jarduera bera orientatzeko azterketa garrantzitsuak ematea litzateke, eta, besteak beste, helburu hauek ditu:

 - Ekonomia eta industria-joera globalak eta horien ondorioak haute-matea.
 - Euskal ekonomiaren egitura eta industria, ahuleziak eta indarguneak aztertzea.
 - Industriaren eta haren sektoreen azterketa dinamikoa egitea.
 - Beste herrialde batzuetako industria eta I+G politikak aztertzea, jardunbide egokiak eta erreferentziak bilatuz.
 - Euskal industria eta haren nazioarteko irudia hobetzeko proposamenak egitea.

7

Krisian dauden Enpresa Industrialak Arreta emateko Protokolo Integrala sortzea, bi zutaberekin:

- A) Prebentzioa eta pro-akzioa: eskanerra: sektoreen eta enpresen azterketa dinamikoa, zaurgarritasun-egoerak goiz detektatzeko eta lehen neurriak abian jarri ahal izateko. Arreta berezia jarri behar zaie enpresa estrategikoei edo aldez aurretik zailtasunak izan dituztenei.
- B) Esku-hartzea: behin enpresa batek krisi-egoera bat duenean (galera larriak, enplegu-erregulazioko espedientea, itxiera-iragarpena ...), Eusko Jaurlaritzak aldeekin hitz egiteko, aholkularitza emateko eta baliabideak eskaintzeko zeregina garatuko luke, konponbide egokia lortzen laguntzeko.

Protokolo horren helburua izan behar da bideragarriak izan daitezkeen enpresa guztien biziraupena bermatzea eta, halakorik ezean, langile guztiak industria-munduan birkokatzea. Krisian dagoen enpresaren zatitzat hartu beharko dira enpresa nagusiaren mende dauden azpikontratak eta langile autonomoak.

8

Gobernuaren eta sindikatu nagusien arteko elkarriketa berreskuratzea, industria-politikaren definizioan eta garapenean partaide izan daitezen.

9

Lan baldintza hobek bermatzeko eta prekarietatea saihesteko klausula sozialen lege bat onartzea.

10

Enpresen deslokalizazioen aurkako lege bat onartzea, desindustrializazio praktika hori saihesteko.

11

Mugikortasun Elektrikorako Euskal Estrategia diseinatzea, lau alderdi dituena:

- A) Ibilgailu elektrikoa hedatzen laguntzea, mugikortasun jasangarriarako trantsizioaren funtsezko pieza gisa, eta helburu gisa legegintzaldiaren amaieran EV-ren % 10etik gorako salmenta-kuota ezartzea.
- B) Karga-sare azkar bat zabaltzea, lurralde osoa hartuko duena eta espero den EVen kopuruarekiko proportzionala eta sare elektriko orokorra eskari berrira egokitzeko neurriak hartuko dituena.
- C) Automobilgintzaren euskal sektorea berrikustea, automobilaren elektrifikazioaren erronkari egokitzeko.
- D) Flota publikoen eta korporazio-flota handien elektrifikazioa.

12

Auto elektrikoentzako bateria-fabrika bat euskal lurraldean instalatzeko aliantza handi bat sortzea, giga-faktoria estiloan, ahal dela adierazle sozioekonomiko txarrak dituen eskualderen baitan. Apustu hori Europako agendan txertatu behar da, automobilgintzako baterien merkatu estrategikoan sartzeko.

ERAIKI!

INDUSTRIA

- 13** **Industria berderako Euskal Estrategia.** Energia berriztagarriak sortzeko ekipoak ekoiztea, horiek sortzea bera; material urriak berreskuratzea eta birziklatzea; automobil elektrikoa; ekonomia zirkularra ... industria-espazioan aukera gisa ikusi behar diren sektoreak dira. Horretarako, herrialde-estrategia bat egin behar da, industria berdearen sektore horietan euskal herritarren presentzia eta are lidergoa bilatzeko aktibatu beharreko helburuak, baliabideak eta mekanismoak zehaztuko dituen.
- 14** **Parke teknologikoen eta industrialdeen ingurumen-jasangarritasunerako plana,** industria-gune horien jasangarritasunerantzko berrikuntza bilatuko duena, energia-kontsumoari, isuriei, mugikortasunari eta abarri dagokienez, enpresek egin beharreko lanaren osagarri gisa.
- 15** **Energiaren Euskal Erakundea (EEE) Energia Berriztagarriaren Euskal Erakundean (EBEE) birmoldatzea,** bere eginkizunen artean industria-sarearen auditoretza eta trantsizio energetikoa sartuz. Baliabide propioekin eta FEIrekin finantzatzen laguntzea.
- 16** **Eskualdeko garapen-agentziak saretzea,** indartzea eta koordinatzea, industriaren presentzian garapen endogenoa eta lurralde-oreka sustatzeko.
- 17** **EAEko lurraldeko lurzoru industrialaren errolda bat egitea,** honako hauek zehaztuko dituen: guztizko azalera erabilgarria, okupazio-maila, egoera juridikoa, jarduera-mota. Horrela, lurzoru industrialak sortzeko politika arrazionalizatuko da eta gaur egun okupatu gabe dauden lurrak balioetsiko dira, lehentasunez desindustrializazio-prozesuak izan dituzten eskualdeetan.
- 18** **Klusterren politikaren berrikuspen integrala,** oso jarduera desberdina izan baitute. Jardunbide egokiak sustatzea, inertziak eta eraginkortasunik ezak zuzentzea eta klusterrak merkatu-nitxo berriak bilatzeko gune bihurtzea, ekoizpen-dibertsifikazioaren eta sektore-estrategia partekatuen aldeko apustua egitea.
- 19** **Basque Country eta Made in Basque Country markak sustatzea,** gure industria-eskaintza bereizteko elementu gisa, eta kalitate handiko produktuarekin lotzea.
- 20** **Euskara** industria-munduan, lantokietan, mintegietan, argitalpenean... lan-hizkuntza gisa bultzatzeko plana.
- 21** **Nafarroako Erkidegoarekin eta Ipar Euskal Herriko mankomunitatearekin** lan industrialeko sare bat sortzearen aldeko apustua egiten du, lurralde eta kultura industrialeko sinergiak indartzeko, baliabideak, azpiegiturak eta esperientziak partekatzeko eta lan komunerako guneak sustatzeko.
- 22** **Gazteak industriarekin lotutako ikasketetara erakartzeko estrategia,** bereziki langile kualifikatuei dagokienez defizitarioak diren edo izango diren esparruetan (ingeniaritzak, programazioa ...)

- 23** Euskal enpresetako administrazio-kontseiluetan **emakumeen kuota ausarta bat ezartzea**, gizarte-eragileekin adostu ondoren.
- 24** **Emakumeak STEM eremuko ikasketetara erakartzera bideratutako Emakumea eta Industria** programa espezifikoa, industria-eremuan emakumeen presentzia handiagoa lortzeko, hori baita soldata-arrakala murrizteko gakoetako bat.
- 25** **Enpresa-eredu inklusibo-parte-hartzailea ezartzen laguntzea**, langileek enpresaren kudeaketan, mozkinetan eta kapitalean parte har dezaten. Plantillaren parte-hartzea sustatzeko tresnak hobetzea. Tresna integral bat sortzea (Programa bat, batez ere finantzaketa, aholkularitza eta laguntza), enpresa bateko langileek jabegoa eskuratzeko edo parte hartzeko, zailtasunak daudenean, kapitala handitu behar dutenean, zuzendaritzan/jabetzan erreleboa eman behar denean ...
- 26** **Erronka berriei erantzun berrikuntzatik etorritako erantzunak ematea:** teknologia sozialerako diru laguntzak Ia aurrekaririk gabeko egoera batean kokatu gaitu COVID-19ak, zaintza eta babesari dagokionean aurretik ere identifikatutako erronkak oso agerian geratu dira orain eta argi geratu da, betiko errezetek ez dutela balio. Ongizate eta konfiantzaren alorrean erronka garrantzitsuak ditugu aurretik eta komunitatean, pertsona eta erakundeetan, harreman jokamoldeetan, baliabideen kudeaketan eta elkarren arteko baloreen trukaketan aldatetak txertatzea eskatzen du horrek. Horregatik, gizarte diseinua eta gizarte teknologia alorreko ekarpenak premiazko ditugu momentu honetan.
- 27** **Ekonomia soziala eta kooperatiboa**, non gure herrialdea erreferente den munduan, aitortzea eta indartzea. Eredua sendotu eta zabaltzeko estrategia. Kooperatiba-kulturari eta bertako enpresei laguntzea. Ekintzazailtza kolektiboa sustatzea.
- 28** **Teknologikoa ez den berrikuntza-estrategia bat garatzea** (marketina, merkaturatzea, diseinua, antolaketa, ekoizpena, finantzak ...), errealitate hori enpresetara hurbiltzeko berariazko programa batekin.
- 29** **Garapen Ekonomikoko Sailean zeharkako lan-ildo bat sortzea**, ETEei jakinarazteko zer laguntza-aukera dituen Eusko Jaurlaritzak hainbat zereginetan: berrikuntza eta I+G, nazioartekotzea, berrikuntza ez-teknologikoa, finantzaketa, etab. ETEentzako "lehiatila bakarreko" egoera baterantz.
- 30** **Gaur egun Estatuaren kudeaketapean dauden euskal portu eta aireportuen transferentzia aldarrikatzea**, azpiegitura horiek industria-jarduerarako oinarrikoak direla iritzita.

ERAIKI!**MERKATARITZA,
OSTALARITZA
ETA TURISMOA**

Merkataritza, Ostalaritza eta Turismoa

DIAGNOSTIKOA

COVID-19k sortutako krisiak merkataritzan eta turismoan eragin suntsitzaileria izan du. Merkataritza eta turismoa zerbitzuen sektoreko osagai nagusietako bi dira, eta, beraz, batera aztertu ohi dira. Hala ere, krisi honen aurretik bi sektoreak guztiz kontrako egoeran zeuden. Turismoak goraldi globaleko garaia bizi zuen, merkataritza, batez ere hurbilekoa, krisi sakon batean murgilduta zegoen bitartean.

Aldaketa soziologikoen, esperientziei emandako garrantziak eta horiek sare sozialetan zabaltzeari, bai eta low cost hegaldien boomak eta ostatu-modalitate berrien agerpenak ere, turismoaren hedapen handia eragin zuten, bereziki hirigune erakargarrietara. Horrek aurrekaririk gabeko masifikazio-fenomenoa eragin du, eta gehien kaltetutako gunetako egoiliarren bizimodua larriki aldatzen hasi da. Alokairuaren prezioak gora egin eta egoiliarrentzako dendak desagertzen diren auzoak, turismora bideratutako negozio bihurtzeko; aisialdirako leku tradizionalak kolapsatuta; desitxuratu diren ohiturak; auto-imitazio bihurtzen diren tradizioak; gehiegizko ustiapen turistikoaren arriskuak eta kalteak ukaezinak dira dagoeneko. Hala ere, pandemiaren agerpenak jarduera turistikoa ia erabat izoztu du. Mugikortasunaren murrizketek eta masa-turismoaren berezko pilaketak saihesteko beharrrak sektoreko jarduera geldiarazi dute. Gehiegikeriatik ezerezero pasatu gara.

Geldialdi horrek euskal turismoaren eredia birpentsatzeko aukera izan behar du, eta, masifikazioaren bidean egotearen zantzu argiak ematen zituena normaltasunera itzultzea saihestuz, eredu iraunkorrago baterako oinarriak jarri behar dira. Horrek ez du esan nahi turismoa ez denik aberastasun ekonomiko eta kulturalaren iturri. EH Bilduk turismo-jarduera modu ordenatuan eta turistak hartzen dituzten eremuetan bizi diren pertsonen bizi-kalitatearekin bateragarri eginez sustatu nahi du. Gure apustua da ahalik eta turismo deszentralizatuena eta ez urtaro-bakarrekoa lortzea, espazio fisiko eta nitxo berriak irekiz eskaintza dibertsifikatzeko, turismo-plangintza txar batek mehatxatu ditzakeen natura- eta gizarte-guneak babestuz eta gure geografiako hainbat puntutan dagoen masifikazioa leheneratuz. Krisia aprobetxatu akatsak zuzentzeko eta turismo-sektore orekatuago eta osasuntsuago bat berreraikitzeko.

Pandemiaren aurretik turismoak hazkunde-krisia jasaten bazuen, tokiko merkataritza egiturazko krisian zegoen. Urtero milaka denda ixten ziren, batez ere langileen erosteko ahalmenaren galeratik eta azalera handien ugalketatik, EAJk eta PSOEk inolako disimulorik gabe sustatuta. Horrez gain, merkataritza elektronikoa etengabe sartu zen. Covidaren-19aren krisian merkataritza-jarduerari ezarritako murrizketek muturreko egoerara eraman dituzte saltoki asko. Jaurlaritzak egituratutako laguntza urriak, berantiarrik

eta eskasak, ez dira benetako defentsa izan jardueraren geldiarazpenaren eta/edo gainbeheraren aurrean. Sektorean zeuden arazoei aurrekaririk gabeko krisia gehitu zaie, eta arriskuan jarri da milaka saltoki eta ostalaritza-lokalen iraupena.

Jaurlaritza problematikaren dimentsioaz jabetu behar da eta proportzionaltasunez jokatu behar du. Merkataritza jarduera ekonomikoa baino gehiago da; izan ere, segurtasuna, argia, sozibilitatea eta oinarritzko produktuen eskuragarritasuna ematen ditu, krisi honetan konprobatu dugunez. Herri, auzo eta hirietako gizarte-sarearen funtsezko pieza da, eta hiri-paisaia egituratzen du, bizitza eta nortasuna emanez. Sektorearen historiako krisirik handienak erantzun egokia eskatzen du. Ostalaritzak merkataritzarekin partekatzen du arazoaren zati handi bat, eta ekintza paralelo eta berezitua eskatzen du.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Turismoa: EAEko turismo-sektorea berriro martxan jartzeko politikak turismo jasangarria sortzera bideratuta egon behar dute, natura eta hiri-guneak degradatuko ez dituen, eta, aldi berean, jarduera ekonomikoa ahalik eta modu deszentralizatuenean eta urtarokotasunik gabe sortzeko aukera eman behar dute, turismo-eskaintzan gaur egun periferikoak diren eremuak eta errealitateak txertatuz, hori guztia euskal nortasunaren eskaintza eta langileen eskubideekiko errespetua ardatz nagusizat hartuta.

2

Merkataritza: hurbileko merkataritza egoera kritikoan dago, aurrekaririk gabeko krisian, eta egoeraren larritasunarekiko erantzun proportzionala behar du. Tokiko merkataritza sustatzea lehentasuna izango da gobernuarentzat, ekonomia- eta gizarte-dimentsioagatik, eta, horretarako, biderkatu egingo dira arlo horretara bideratutako baliabideak, sektorea sustatzeko, defendatzeko eta hobetzeko politike-tan jauzi kualitatibo bat emateko, epe laburrean talka planteatuz eta etorkizunera begirako egiturazko neurriak hartuz. Ostalaritza berriaz hartu beharko da kontuan, duen dimentsioagatik eta krisi honetan duen eragin bereziagatik.

COVID-19 TALKA-PLANA AUTONOMO ETA MIKRO-ENPRESENTZAT.

Merkataritzan, Ostalaritzan, Turismoan Zentratua.

01. Jarduera uzteagatiko laguntza berezia: COVID-19ren eragin ekonomikoa eta sozialari aurre egiteko ezohiko presazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritako jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa arlo horretako organo eskudunak aitortu dien langile autonomoek 2.200 euroko aparteko laguntza zuzena jasotzeko eskubidea izango dute. Neurri hori arautzen duen aginduak edo dekretuak

ERAIKI!**MERKATARITZA,
OSTALARITZA
ETA TURISMOA**

betekizunak ezarriko ditu egoitzari, berankortasunari, gehieneko diru-sarrerari edo beste batzuei dagokienez, laguntza honen ekitatea bermatzeko. Laguntza ordainketa bakarra izango da baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat, eta esleipen-prozedura erraza eta arina izango da.

- 02.** Diru-sarrerak jaisteagatiko laguntza berezia: martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritako jarduera uzteagatiko aparteko prestazioa jaso ez duten langile autonomoek 700 euroko aparteko zuzeneko laguntza jasotzeko eskubidea izango dute, baldin eta laguntza eskatu aurreko hilabete naturaleko fakturazioa gutxienez ehuneko 30 murriztu bada, aurreko seihileko naturalaren fakturazioaren batez bestekoari dagokionez. Neurri hori arautzen duen aginduak edo dekretuak bizilekuari, berankortasunari, gehieneko diru-sarrera osoei edo bestelakoei buruzko betekizunak ezarriko ditu, haren ekitatea bermatzeko. Laguntza ordainketa bakarra izango da baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzat, eta esleipen-prozedura erraza eta arina izango da.
- 03.** Aldez aurretik ezarritako laguntza eta babes-neurri guztiak luzatzea, jarduerari berrekin ondoren alarma-egoera aldarrikatu aurreko seihileko naturaleko fakturazioaren batez bestekoaren % 70eko diru-sarrera lortzen ez duten negozioentzat, laguntzak gehi sortutako diru-sarrerak % 70era iristen diren mugaraino.
- 04.** Alarma-egoeran dauden bitartean nahitaez itxi beharreko establezimendu eta jardueretarako ezarritako babes laguntza eta mekanismo guztiak luzatzea deseskalatze-aldian jardueraren itxierari eustea erabakitzen duten profesional guztiei, murriztapenek irauten duten bitartean berriro irekitzea ekonomikoki bideragarria ez dela iritzita.
- 05.** Lan autonomoaren euskal mahaia sortzea, erakundeak (Jaurlaritza, Aldundiak, Eudel) eta sektoreko elkarteak bertan direla, egoerari buruzko informazioa trukatzeko, ekarpenak jasotzeko eta jarduteko iradokizunak egiteko.
- 06.** Lan autonomoaren euskal mahaiaren esparruan, eta alderdi politiko eta sindikatuekin adostasuna bilatuz, "Lan autonomoari laguntza estrategikoa emateko euskal plan integral" bat egitea, epe labur, ertain eta luzera esku hartzeko neurriak jasoko dituen, COVID-19aren krisiak eragindako lan autonomoaren munduari behar adinako laguntza iraunkorra bermatzeko.
- 07.** Hiru milioi euroko partida bat gaitzea langile autonomoen, merkataritzaren, ostalaritzaren eta turismoaren erakundeen egiturak indartzeko, elkarte bakoitzaren ordezkagarritasunaren arabera banatuta, eskaria biderkatzen den une hauetan aholkularitza juridikoa eta ekonomikoa eman dezaketen langileak kontratatzeko.

- 08.** Gobernu zentralari eta Jaurlearitzari eskatzea merkealdi ofizialak uztaile arte atzeratzeko eta deskontuan oinarritutako sustapenak debekatzeko, merkataritza-sektoreko egoera normalizatu arte.
- 09.** Kontsumo-makro-bonu bat sortzea krisialdian zehar itxierak eragindako merkataritza, ostalaritza eta turismo-establezimenduetan. EAEn erroldatutako adin nagusiko pertsona bakoitzak 25 euroko bonoa jasoko du konfinamendu-neurriak kendu ondorengo bi hilabeteetako bakoitzeko; guztira, 25 euroko lau bonu, 100 euro pertsona bakoitzeko.
- 10.** Jaiegunetan merkataritza-gune handiak irekitzea debekatzeko.
- 11.** Merkataritza elektronikoa gehiago zergapetzeko premiazko akordioa.
- 12.** Merkatalgune handien gaineko zerga ezartzea.
- 13.** Merkataritzan EAeko eskuduntza osoa berreskuratzeko, Madrillgo Gobernuari eskatzea indargabetzeko eskuduntza hori murrizten duten dekretuak.
- 14.** Juridikoki ahal den heinean merkatal gune handi berrien egitasmoak gelditzea (Zaldunborda) eta baimen berriak ez ematea.
- 15.** Atzerapen fiskala eta kuotena, interesik gabe. Barkamen partzialak.
- 16.** Akordioa EUDELen: IBIaren %50aren barkamena itxita egon diren lokal komertzialen jabeen eta %25 beste guztiei, baldin eta jabea negoziatu ustiatzen duena bada.
- 17.** DSBEn barruan sartzea jarduera uzteagatik aparteko prestazioa jasotzen duten langile autonomoak
- 18.** Tokiko merkataritzaren aldeko komunikazio-kanpaina masibo eta iraunkorra.
- 19.** Murrizketa iraunkorrako dituzten sektoreentzako konpentsazio funtsa: turismoa, ostalaritza... (25 milioi)
- 20.** Jarduerara itzultzeko moldaketak ordaintzeko laguntzak: Lanak, ekipoa... ordaintzeko laguntza lerroa. (25 milioi)

ERAIKI!**MERKATARITZA,
OSTALARITZA
ETA TURISMOA****Merkataritza**

- 1** **Lau urteko epean EAEko aurrekontuetan merkataritza-arlor**a bideratutako aurrekontua bikoiztea, urtean gutxienez %25eko gehikuntza eginez.
- 2** **Alokairu komertzialen prezioen indize bat egitea**, lurraldeetako Batzar Nagusiekin adostuta, alokairu-prezioak aplikatzen dituzten errentatzaileei zerga-zigorra ezartzeko, baldin eta, zehaztu beharreko portzentaje batean, kokatuta dauden eremuko batez bestekoa gainditzten badute.
- 3** **Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritzako Aholku Batzordea** berriro martxan jartzea, merkataritzari buruzko politikei buruzko informazio eta eztabaida organo nagusia izan dadin.
- 4** **Hirigintza eta ingurumen-inpaktuaren ondorioz merkataritza-azalera handien gaineko zerga ezartzen duen lege bat aurkeztea.**
- 5** **Zaldunborda-Hondarribian makro-zentro komertzial bat jartzeari uko egitea**, eta gure esku dauden ekintza legal guztiak gauzatzea proiektu hori bertan behera utz dadin.
- 6** **Merkealdiko aldi zehatz eta kontzentratu bat berrezartzea.**
- 7** **Sektorearekin adostuta, denda tradizionaleko eta denda historikoko figurak sortzea**, hurrenez hurren, 50 urtetik gorako merkataritza-establezimenduetarako eta 50 urtetik gorako antzinatasuneko eta arkitektura-ondareko edo ezohiko establezimenduetarako. Onarpen horrek babes eta laguntza neurriak ekarri beharko lituzke berekin.
- 8** **Foru-aldundiekin batera, e-commerce enpresen gaineko zerga-ezarpena areagotzeko plan bat adostea**, bereziki, beren jarduera nazioartean gauzatzen duten eta zerga-iheserako praktika sistematikoak egiten dituzten enpresen gainekoa.
- 9** **Herritarrei merkataritza txikiaren garrantziari buruzko sensibilizazio-kanpainei izaera egonkor eta jarraitua ematea**, baliabide gehiago izango dituzte, eta haien alderdi pedagogikoa eta hurbileko merkataritzaren balio erantsia sustatuko dute.
- 10** **E-commerce multinazionalak edo merkatalgune handiak ezartzeko industria-lurrak ez birkalifikatzea** (EAJk Amazonekin Trapagaranen egin duen bezala) edo azalera handiak (berriro ere EAJk Sestaon Costcorentzat) industrialdeak periferiako ezkutuko merkataritza-azalera bihurtzea saihestea.
- 11** **Jaiegunetako merkataritza-irekierak arbuiatzea**, irekiera horiek babesten dituen estatuko araudia indargabetzea erreklamatzeko eta irekiera horiek saihesteko ekintza sindikalak babestea.

- 12** **Merkatarien elkarte eta konfederazioei lehentasunezko sarbidea ematea lankidetzaz-hitzarmenetara**, bulego teknikoan emakidara eta Eusko Jaurlaritzak sektoreari laguntzeko sustatzen duen beste edozein programatarara, eta hala jasotzea haien agindu eta deialdietan.
- 13** **Ostalaritza eta merkataritza Sailaren Zuzendaritza berean kokatzea, oso lotuta baitaude.**
- 14** **“BEZik gabeko” publizitate-kanpainak debekatzea**, engaizuzko kanpaina gisa.
- 15** **Ikuskapen-plan bat egitea**, toki-administrazioen lankidetzarekin, baimendu gabeko salmentak saihesteko merkataritza gisa gaituta ez dauden formatuetan, hala nola hoteletan, lehia desleialeko elementuak saihesteko.
- 16** **Merkataritza-arloaren gaineko eskumena Autonomia Erki-degoaren eskumen eskusiboa dela defendatzea**, Autonomia-estatutuaren 10.21 artikulua, eta, beraz, Estatuko gobernuari eskatzea eskumen horren legeria inbaditzailea bertan behera utz dezala eta etorkizunean eskumen-inbasio hori errepikatzeari uko egin diezaiola. Zehazkiago, Gorte Nagusiei eskatzea indargabetu ditzatela merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko maiatzaren 25eko 19/2012 Errege Lege Dekretua, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua eta Hazkunderako premiazko neurriak onartzen dituen uztailaren 4ko 8/2014 Errege Lege Dekretua.
- 17** Merkataritza-asoziazionismoari laguntzea estrategikotzat joko da, eta, ondorioz, **elkarteen eta konfederazioen eginkizuna aitortuko da**, haiekin etengabe hitz egingo da, eta haien egiturak finantzatuko dira, egonkor, nahikoa eta egiaztatutako ordezkagarritasun-mailarekiko era proportzionalean.
- 18** Merkatarien elkarteekin batera, **Euskal Herrian ekoizitako produktuen euskal merkataritzan salmenta sustatzeko ekintza** ildo estrategikoa aktibatzea. Made in Basque Country-Euskal Produktua-Producto Vasco.
- 19** **Merkataritza-sektorearekin euskal txikizkako merkataritza digitalizatzeko plan integral bat adostea**, saltoki txikiak dena fisikoa digitalizatzeko erronkei (wi-fi, ordenagailuak, sare sozialak, pantailak ...) eta tokiko merkataritzako produktuak elektronikoki saltzeko teknologiaren erabilerari erantzun ahal izateko.
- 20** **Esku-hartze espezifikoko ildoak irekitzea:**
- Tokiko merkataritza bultzatzea hiriburuetakoko gune ez zentraletan.
 - Udalerrri txikietan tokiko merkataritza bultzatzea.

ERAIKI!**MERKATARITZA,
OSTALARITZA
ETA TURISMOA**

- Hirietako erdiguneetan merkataritza berezi txikiaren jarraipena edo ezarpen berria erraztea, klonazio-efektua saihesteko eta merkataritza-eskaintza berezia sustatzeko.
- Txikizkako merkataritza-establezimenduak bereizteko praktikak sustatzea.

- 21** **DSBEren legea erreformatzea**, Langile Autonomoen Araubide Berezitik datozen eta gizarte-segurantzarekin zorra duten pertsonen prestazio hori edo erretiroagatiko prestazio ez-kontributiboa jaso ahal izan dezaten, baita lokalak jabetzan dituzten kasuak ere, baldin eta erosteko eskaintzarik ez dagoela edo balio txikikoa dela egiaztatzen bada.
- 22** **Azpisektoreetan esku hartzeko planak garatzea**, sektoreko elkarrekin adostea eta horiei denbora-jarraitutasuna eta aurrekontu-egonkortasuna ematea.
- 23** **Merkataritzarako finantza-abal espezifikoaren programak ezartzea**, sasoiko erosketa errepikatuaren espezifikotasuna kontuan hartuta.
- 24** **Belaunaldi-erreiboko programak indartzea eta koordinatzea**.
- 25** **Txikizkako merkataritzan eta saltoki handietan euskararen erabilera sustatzeko estrategia bat prestatzea**.
- 26** **Merkataritza-establezimenduetan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko, birziklatzeko eta jasangarritasun integrala izateko estrategia bultzatzea**.
- 27** **Esparru horretan negoziazio kolektiboaren estatalizazioa salatzea eta euskal esparrua negoziatorako eta akordioarako aldarrikatzea**, merkataritza-sektoreko langileek lan- eta soldata-baldintza duinak izan ditzaten.
- 28** **MEC programaren edo beste baten bidez, merkataritza-jarduerari onura zuzenik ekartzen ez dioten bizilagunen komunitatearen gastuak ordaintzeko ekarpenei aurre egiteko laguntzak sartzeko, hala nola igogailua jartzea**.

Turismoa

- 1 **Euskal turismoaren marka-irudia egituratzea** alderdi propio eta eksklusiboen inguruan, hala nola hizkuntza, kultura, historia, folklorea, gastronomia... euskal turismo-eskaintzaren funtsezko pieza nortasun bereiziko lurralde bat garela izan dadin.
- 2 **Eskaintza turistikoa Nafarroa eta Iparraldearekin hitzartzea**, Euskal Herri osorako helmuga partekatuaren irudia sortu ahal izateko.
- 3 Zona batzuetan gaur egun dauden hazkunde-erritmo handiegiak mantentzen diren bitartean, **turismoa sustatzeko ekintzak bisitari gutxien biltzen diren eremuetara mugatzea**, horietan garapen turistiko jasangarria egon baitaiteke.
- 4 **Euskararen erabilera bultzatzea erakargarri turistiko gisa**, bisitariengana hurbilduz bere errealitatea eta historia, hizkuntza-turismoa sustatuz eta toki turistiko, establezimendu hartzaile eta ostalarietan euskararen presentzia eta erabilera bultzatuz.
- 5 **Turismo-helmuga espezifiko bat sortzea**, bere plan zuzentzailearekin, industria-turismorako.
- 6 **Turismo-saturazioarekiko kalteberak diren eremuen mapa egitea eta inpaktu negatiboak saihesteko euste-neurriak aplikatzea**. Arlo horietan bizi diren pertsonen hitza eta botoa ematea.
- 7 **Turismoari buruzko legea erreformatzea, pertsona juridikoek erabilera turistikoko etxebizitzak (VUT-ETE) eskaintzea debekatzeko**, gehienez ere bi etxebizitzatara mugatuz pertsona fisiko batek VUT-ETE gisa erabil ditzakeen etxebizitzak.
- 8 **Legez kanpoko VUT-ETE ikuskatzeko eta ixteko lana biderkatzea**.
- 9 **Turismo-sektoreko langileen lan-eskubideak bermatzea**, prekarietatea saihestuz eta enpleguaren prestakuntza eta kalitatea hobetuz, etengabeko ikuskaritza- eta prestakuntza-planen bidez.

ZAINDU!**GIZARTE
POLITIKAK ETA
ZAINZA SISTEMA
POLITIKA**

ZAINDU!**JENDARTEA
BABESTEKO PREST****Gizarte Politikak
Zaintza Sistema Publikoa**

DIAGNOSTIKOA

Covid-19ak eragindako eta azaleratutako dimentsio anitzeko krisiak agerian utzi ditu Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren gabezia larriak. Zalantzarik gabe, pandemiak zaintzarako eta babeserako edozein sistema tenkatuko zutkeen; arazoa da, gure herrian, sistemak ez dela ezta lehenengo zartada jasateko gai izan. Hego Euskal Herrian Covid-19aren lehenengo kasuen ondoren, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eten egin zituen zaintza-zerbitzu ia guztiak, adinekoentzako egoitza-zentroak izan ezik.

2016ko gure hauteskunde-programan esaten genuen, Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legea garatzeko erakundeen arteko akordioen testuinguruan –Euskal Herria Bildu izan zen hauen motorra–, “garrantzi handiko unean” geundela Euskal Autonomia Erkidegoak Gizarte Zerbitzuen Sistema bat izan zezan. Lau urte beranduago, diagnostikoa ezin da etsigarriagoa izan. Gizarte Zerbitzuen Legean jasotako helburuak ez betetzeaz gain, lurraldeen arteko eta lurraldeen barruko desorekak eta desberdintasunak eta, ondorioz, pertsonen artekoak, murriztu beharrean, areagotu egin dira.

Lurraldeen arteko, lurraldeen barruko eta pertsonen arteko desoreka- eta desberdintasun-baldintza horietan heldu dio sistemak Covid-19aren krisiari. Krisi horretan, sistemak ez du gobernaziorik izan, Jaurlaritzak, hasiera-hasieratik, Legeak ematen zizkion eskumenei uko egitea erabaki baitzuen. Hala, lurralde historiko eta udalerrri bakoitzak eman dituen erantzunak oso desberdinak izan dira, baita kontraesankorrak ere.

Mediterraneoko herrialdeetan gertatzen den bezala, gure erregimenak familia jartzen du arduren erdigunean. Milaka emakumek, familien barruan edo etxeko-enpleguaren bidez, zaintza-lanak modu ikusezin eta eraginkorrean

ebazten dituzte, baina zeren kontura? Zaintzek askotariko ondorioak dituzte zaintza horiek egiten dituztenen oraingo eta etorkizuneko bizitzetan: orainaldian bere burua zaintzea sakrifikatzen hasi, eta ordaindu gabeko lan bat egiteagatik etorkizuneko zigor eta mendekotasun ekonomikora arte. Zaintza-lanak balio publikoa dira; gaur egun, ordea, lan horiek egiteak dakartzan ondorioak norbanakoak dira, eta ez dugu onartu behar horrela izaten jarraitzea. Ezinbestekoa da eremu publikotik erantzun bat ematea, larritasun handieneko norbanakoen ondorioak zuzentzeko.

Erantzun hori premia-azkoagoa da Covid-19aren krisian azaleratutako eta areagotutako zaintza-krisia nola konpondu den kontuan hartzen badugu. Adibidez, adineko pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak edo buruko gaixotasuna duten pertsonak artatzeko eguneko zentroak ixteak edo, kasu batzuetan, Etxez etxeko laguntza-zerbitzua eteteak familia asko egoera kritikoa jarri zituen, bereziki zaurgarritasun egoeran zeudenak: administrazioak zaintza formalen prestazioa eten zuen, eta ez zuen beste aukerarik eskaini, familiek berak –emakumeek– zaintza beharrei etxean aurre egitea bakarrik, lantokietan jarduera mantentzen zen bitartean. Are gehiago, foru-aldundi batzuek familiak egoitza-zentroetako erabiltzaileen zaintza beren gain hartzera ‘animatu’ zituzten. Hitz batez, krisia ‘konpondu’ egin da zaintza-lana eremu formaletik eremu informalerara transferituz. Arriskua, orain, argia da: banaketa berri hori finkatzea eta gure erregimenaren familiarizazioa areagotzea.

Hain zuzen ere, adinekoentzako egoitza-zentroek aparteko kapitulu bat mezezi dute Covid-19aren krisian. Badira gaur egun, Covid-19arekin hildako bi pertsonatik ia bat adinekoentzako egoitza-zentro bateko erabiltzailea zen arren, ‘gure ereduak’ funtzionatu duela defendatzen jarraitzen dutenek. Zein eredu? Arabakoa, ‘zerbitzu-txekea’-ren bidez eraiki dena? Bizkaikoa, Gipuzkoakoa baino % 50 langile gutxiago dituen? Hirugarren sektore sozialak kudeatutakoa? Arrisku-kapitaleko inbertsio-funtsek kudeatutakoa? Gure herrialdean ez dago adinekoentzako egoitza-arretarako eredu bat. Iazko uztailean, 20 urte baino gehiago zituen araudi bat eguneratzeari ekin zitzaionean, aukera bat izan genuen eredu batez hornitzeko, baina Jaurilaritzak erabaki zuen ez genuela hobeto zainduko. EAJk eta PSEk interes minimo bat erakutsi izan balute, gure egoitza-zentroek baldintza hobetoetan aurre egingo zioten Covid-19aren krisiari.

Azken lau urte hauetan, zaintza-lanen delegazioari emandako erantzun instituzionala merkantilizazio formula muturrenekoa izan da: ‘zerbitzu-txekea’. Horrek areagotu egin du ‘zaintzaren sorgin-gurpila’. Baliabide gutxien dituztenek, zaintzetara sarbide murriztagoa dute, eta, beraz, beren gain hartu behar duten zama handitzen da; horrela –zaintza denbora-irensle handia da–, ‘sorgin-gurpilekin’ hautsi ahal izateko baliabide gehiago lortzea galarratzen zaie. Merkantilizazioa, gainera, sostengatzen ari da, ekonomikoki eta sozialki, milaka emakumeren lan-prekarietate izugarriaren kontura.

Covid-19aren krisiak errealitate hori ikusarazi du: zaintza beharrak ebazten ari gara milaka emakumeren esplotazioaren bitartez, erakundeetan edo etxeetan. Ikusarazi eta gogortu, orain arriskuan jarri behar izan dituztelako beren bizitzak eta familienak. Arratsaldero milaka pertsonen txaloen hotsek

ZAINDU!

GIZARTE
POLITIKAK ETA
ZAINZA SISTEMA
POLITIKA

ezin digute eragotzi beren lan- eta soldata-errebendikazio legitimoak entzutea, lehenbailehen erantzuna izan behar dituztenak.

Aurreko gutzia gertatu da zaintzen krisia atze-oihala zelarik. Krisi horren ondorioz, ohiko zaintza-sistemak gainbeheratu dira, eta erakundeek ez dute erantzunik eman, eta, horren ondorioz, egungo zaintzak desegokiak, eskasak, prekarioak eta ez dira libreki aukeratuak. Orain, erronka demografiakoaren testuinguruan, zaintzek eztabaida politikoaren esparrura jauzi egin badute, aurreikus daitekeen eskasiagatik da, eta horren errua emakumeei egotzi diete.

Gizarte Zerbitzuen Legean aurreikusitako zaintzarako eskubide unibertsala erakundetzeko bide graduala erabateko porrota izan da; zerbitzu jakin batzuetarako sarbideak eta zerbitzu horien kantitateak eta kalitateak ezin dute jarraitu bizilekuaren arabekoak izaten. Horrela, jauzi bat egitea proposatzen dugu, alde batetik, Zaintza Duin eta Unibertsalen Sistema Publikoaren erakundetze berri bat egituratzeko, eta, bestetik, zaintzak baloratu, aitortu eta konpentsatzeko.

Hala ere, jauzi kualitatibo hori egin aurretik, aurrerapauso bat eman behar dugu: osasun-krisiari aurre egiteko euste-neurrien ondoriozko larrialdiei erantzun beharko diegu. Oso zalantzarriak diren erabaki batzuek, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, lehen mailako arretaren zati bat izan ezik, hibernazioan jarri dute, eta premiazkoa da hortik ateratzea. Gainera, lehentasuna eman behar diegu udazkenetik aurrera Covid-19aren bigarren zikloaren ondorioak arindu eta hobeto erantzuteko aukera emango diguten premiazko erreformei. 'Zaindu' eta 'bateratu' aditzak 'normaltasun berrian' jokatu behar ditugu.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- BPGaren % 32 emakumeek egindako ordaindu gabeko etxeke lanetik dator.
- 205.071 pertsonak, hamarretik batek, nolabaiteko muga edo mendekotasuna dute (2018).
- Adineko pertsonentzako eguneko zentro bateko erabiltzaile batek gehienez 16,83 euro ordaintzen ditu egunean Mutrikun (Gipuzkoa). Ondarroan (Bizkaia), egunean 52,09 euro ordaindu beharko lituzke.
- Adinekoentzako egoitza-zentro bateko erabiltzaile batek 69,90 euro ordaintzen ditu gehienez egunean Eibarren (Gipuzkoa). Ermuan (Bizkaia), egunean 80,73 euro ordaindu beharko lituzke.
- Mendekotasun handia duen pertsona bat, adinekoentzako egoitza-zentro bateko erabiltzailea dena, 110 minutuko arreta zuzena jasoko du egunean Elgoibarren (Gipuzkoa). Durangon (Bizkaia), berriz, 76,6 minutura murriztuko litzateke zuzeneko arreta.

- Elorrion (Bizkaia) mendekotasun handia duen senide bat zaintzen duen pertsona batek 520,69 euroko prestazioa jasoko du hilean. Arrasaten (Gipuzkoa), urtean 1.160 euro gutxiago jasoko lituzke.
- Gasteizko (Araba) adinekoentzako egoitza-zentro bateko langile batek 1.000 euroko soldata jasotzen du hilean. Donostian (Gipuzkoa), ia 500 euro gehiago jasoko lituzke hilean.
- Adinekoentzako egoitza-zentroetan artatutakoen % 70 emakumeak dira. Adinekoentzako egoitza-zentroetan zuzeneko arreta ematen duten langileen % 90 emakumeak dira.
- 73.019 familiek aparteko gastuak hartu behar dituzte mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko. 39.833 familiek, bitik batek, oinarrizko gastuak edo aisialdiko gastuak murriztu behar izan dituzte, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko beharrezkoa den gastua dela eta. Oinarrizko gastuetan murrizketak emakume bat erreferentziazko pertsona den familietan kontzentratzen dira.
- Mendekotasuna duten pertsonen erdiek baino gehiagok uste dute jasotzen dituzten zaintzak ez direla onak edo hobetu daitezkeela.
- Emakumeek gizonek baino bi ordu gehiago ematen dituzte egunean ordaindu gabeko etxeko lanetan eta zaintzan.
- Familia-ingurunean mendekotasuna duten adinekoak zaintzen dituzten hamar pertsonatik zazpi emakumeak dira; hamarretik bik ez dute familiakoen laguntzarik jasotzen; eta lautik batek hamar urte baino gehiago daramatza zaintzan.
- Familia-ingurunean mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten lau pertsonatik batek erabat uko egin dio gizarte-bizitzari.
- Bizkaiko egoitza-zentroetako langileak bi urtez egon ziren greban. Gipuzkoan, 243 egun eman dituzte greban: EAJk eta PSEk soldata izoztu diete, eta eurek, berriz, % 8 baino gehiago igo dute beraiena.
- EAJk eta PSEk onartutako adinekoentzako egoitza-zentroeiei buruzko dekretu berriak murriztu egin du egoiliarren arreta. Batez beste, egoitza handietan, langileek duela 20 urte baino bost minutu gutxiago dituzte egunean egoiliar bakoitzari arreta emateko. Mendekotasun moderatua duten egoiliarren kasuan, zuzeneko arreta ordu erdi baino gehiago murriztu da.
- EAJk eta PSEk onartutako adinekoentzako egoitza-zentroeiei buruzko dekretu berriaren arabera, martxan dauden zentroek ez dute baldintza material berririk bete behar.
- Jaurlaritzak 600 milioi euro bideratu zituen iaz bere zorpetzea murriztera. Aurrekontu horrekin, 27 urtez adinekoen egoitza-zentroetako erabiltzaileei zuzeneko arretako bi ordu finantzatu ahal izango lirатеke.

ZAINDU!

GIZARTE
POLITIKAK ETA
ZAINZA SISTEMA
POLITIKA

- Gizarte-zerbitzuen Erakunde arteko Organoak, administrazio publikoen arteko koordinazioaz arduratzen denak, hiru hilean behin bildu behar du. Jaurlaritzak hiru aldiz baino ez du deitu legegintzaldi osoan zehar.
- Gizarte-zerbitzuen arloko goi-ikuskaritzak, Jaurlaritzaren mendekoa, ez zuen jarduera bakar bat ere garatu Covid-19aren krisialdian.
- Covid-19aren krisialdian, Jaurlaritzak bere erantzukizuna foru-aldundien esku utzi zuen.
- Jaurlaritzak eta foru-aldundiek, Nafarroako Gobernuak ez bezala, titulartasun pribatuko egoitza-zentroetan ez esku hartzea erabaki zuten. Nahiz eta kasuren batean hutsune larriak egiaztatu ziren.
- Covid-19aren krisialdian, EAJ eta PSE adinekoentzako egoitza-zentroetako langileen kopurua handitzearen aurka agertu ziren.
- Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuak adierazi du: “[egoitza-zentroetako] ereduak pertsonak babestu ditu. 18.500 lagunetik 500 inguru hil dira”.
- Aditu ugari, senideen elkarteek, sindikatuek eta Arartekoak berak adierazitakoaren kontra, Jaurlaritzak defendatzen du ez dela beharrezkoa adinekoentzako egoitza-zentroen araudia berrikustea.
- Urteetan adinekoen arretaren privatizazioa bultzatu ondoren, Covid-19aren krisialdian, Arabako foru-aldundiak behin eta berriz azpimarratzen zuen arazoa egoitza “pribatuetan” ardaizten zela.
- Covid-19aren krisialdian, Bizkaiko foru-aldundiak ‘berrogeialdi informatiboa’ aplikatzea erabaki zuen Covid-19arekin adinekoentzako egoitza-zentroetan hildako pertsonen buruz.
- Covid-19aren krisialdian, Gipuzkoako egoitzetako langileek hitzarmen kolektibo baten aldeko 243 eguneko greba utzi zuten beren lanpostuetara bueltatzeko, beren bizitzak arriskuan jarritz. Markel Olano Gipuzkoako ahaldun nagusiak “adinekoen osasuna babesteko ahalegin kolektiboan” parte hartzen ez zutela aurpegiatu zien.

2024RAKO KONPROMISOAK

Erakundetze berri bat zaintza duin eta unibertsalerako eskubidea bermatzeko: Gizartekintza.

1

Zaintzen unibertsalizazioa eta aukera askea bermatuko duen lege berri bat aurkeztu.

- Erakunde bakar batek zaintza-prestazioa bermatuko du; honen sarbidea ez da mendekotasun-egoera iraunkorretara mugatuko. Zaintzak aukeratzeko askatasuna dimentsio guztietan: nork bere burua

nola zaindu edo nola zaindua izan erabakitzea; eta nola, zenbat eta nor zaindu erabakitzea.

2

Zaintzetara zuzendutako prestazio ekonomikoak eta zerbitzuak birdefinitu.

- Prestazio ekonomikoen eta zerbitzuen zorro berri bat, autonomia pertsonalaren promozioa, harreman-integrazioa eta zaintzen komunitarizazioa barne hartzen dituena.

3

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hibernazioari amaiera emateko erakunde arteko akordioa:

- Autonomian mugak izatearen ondorioz sortutako premiei erantzuteko eguneko zentroak: titulartasun publiko eta pribatuko zentroek bete beharreko baldintza materialak, funtzionalak eta langile-baldintzak hobetzea.
- Datozen hilabeteetan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen preskripzioa baldintza bakarra izango da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko.
- Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Funtsaren zuzkidura ekonomikoa handitzea eta toki-erakundeen finantza-nahikotasuna bermatzera bideratzea, honako neurri hauei aurre egin ahal izan diezaieten: Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren sarbidea erraztea eta estaldura eta gehieneko intentsitatea handitzea; gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku-hartzeko zerbitzuak indartzea; zaintzaileei laguntzeko zerbitzuak indartzea.

4

Iraupen luzeko zaintzen eredu berria egoitza-zentroetan: diseinu material berriak, langile-eskakizun berriak eta handiagoak, eta antolaketa- eta kudeaketa-formula berriak. Hori guztia desgaitasuna eta/edo mendekotasuna duten pertsonen bizi-proiektuei jarraipena ematera bideratua.

- Adinekoentzako 300 egoitza-zentro baino gehiago fisikoki egokitzeko premiazko inbertsio erakunde arteko plana: banakako gelen kopurua handitzea, banaketa modularra eta, aldi berean, plaza berriak irekiz sarearen estaldura mantentzea bermatzea.

5

Titulartasun publiko eta pribatuko adinekoentzako egoitza-zentroetako erabiltzaileei bi orduko arreta zuzena bermatzea.

- Adinekoentzako egoitza-zentroen dekretu berria.

6

Euskal administrazioek, gomendioak, neurriak eta jarduteko arauak ez betetzearen ondorioz, erabiltzaileen zaintza arriskuan jarriz gero, titulartasun pribatuko zentroetan esku-hartzeko duten eskumena atxikitzea.

ZAINDU!

AUTONOMIA
MATERIALA ETA
ERABATEKO
INTEGRAZIOA

- 7 **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen arloko Goi-Ikuskaritza abian jartzea.**
- 8 **Zeharkakoa, parte-hartzailea eta gardena izango den batzordea bat eratzea,** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Covid-19aren krisialdian egindako kudeaketa aztertzeko. Bere helburuen artean 'Jardunbide Egokien Gida' bat osa dezaketen esperientziak identifikatzea gongo da, eta, ondoren, araudian translazioa izango du.
- 9 **Etkez etxeko laguntza-zerbitzua arautu.**
 - Hartzaile berriak, prestazio eta modalitate gehiago, intentsitate handiagoa eta prezio publikoaren murrizketa.
- 10 **Herritar guztiei, beren bizilekua edozein dela ere, prestazio eta zerbitzu nahikoak izango dituztela bermatu.**
 - Erakunde bakar batek izango du Sistema hedatzeko ardura, horrek aukera emango du dauden lurraldeen arteko desberdintasunak gainditzeko.
 - Gizarte- eta osasun-sistemen arteko zaintzen jarraitutasuna bermatu.
- 11 **Errentaren eta/edo klase sozialaren arabera, zaintza formalerako sarbidean desberdintasuna sortzen duten oztupoak kendu.**
 - Erabiltzaileen parte-hartze ekonomikoa murriztea zerbitzuen finantzaketan. Gizarte- eta osasun-arretaren doakotasuna.
- 12 **Gizarte-zerbitzuak desmerkantilizatu.**
 - Kudeaketa publiko zuzenari lotutako sistemaren zerbitzuen kopurua handitzea.
 - Irabazi asmorik gabeko gizarte-ekimenarekin itun sozialaren erregimena arautzea.
 - Zaintzak baloratzea, aitortzea eta konpentsatzea.
- 13 **Lege bat aurkeztea, urte luzez familia-eremuan zaintza-lanak egin dituzten emakumeak konpentsatzeko.**
 - Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoaren zenbatekoa handitzea. Atsedenerako eta autozaintzarako zerbitzu eta espazio nahikoak eta doakoak eskuratzea. Errenta indibiduala, uniberttsala, baldintzarik gabekoa eta nahikoa bermatzea 65 urtetik aurrera (1.080 euro).
- 14 **Erakundeen arteko akordioa, eguneko zentron itxierak eragindako 6.000 familiei Familia inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa ofizioz aitortzeko eta atzeraeraginezko izaerarekin ordaintzeko.**

- Zaintzen sektorean lan-baldintza duinak: bereizketa horizontalaren amaierarantz.

15

1.500 euroko "aparteko prima" egoitza-zentroetako langile guztientzat.

16

Erakundeen arteko funts bat sortu zaintza-sektoreko lan-baldintzak hobetzeko.

17

Administrazioak kontratatu, itundu eta hitzartutako gizarte-zerbitzuetan lan- eta soldata-baldintza duinak ezarri.

18

Zaintzaren sektoreko langileen lan-baldintzak gorantz parekatuko dituen autonomia-erkidegoko hitzarmen kolektibo bat onar dadin bultzatzea.

19

Lan-sektore maskulinizatueta baino soldata-igoera handiagoak bermatzea.

20

Kooperatibizazio-prozesuak laguntzea.

Autonomia materiala eta erabateko integrazioa

DIAGNOSTIKOA

Covid-19aren krisia hasi aurretik, datu eta adierazle gehienek argi erakusten zuten herritarren bizi-baldintzek okerrera egin zutela. Egia da herritarren zati batek Atzeraldi Handia 'gainditu' zuela, baina beste zati batek ez zuen egin, eta are garrantzitsuagoa dena, egitetik gero eta urrunago zegoen. Ez da gure herria bi abiaturako dinamika batean kokatu zela, baizik eta biztanleriaren zati handi baten bizitzak halabeharrez prekarietateak zeharkatua izatera zirudiela, hau da, loka zeuden; generoa, adina eta jatorria faktore erabakigarritzat zirelarik. Aurreko guztiari gehitu behar zaio arazo nagusietako bat zela familiek ez zutela gaitasunik epe ertain eta luzera bizi-baldintza duinak bermatzeko; gure herrian ehunka mila pertsonak ezin zioten aurre egin ezusteko bati, Covid-19aren krisiak eragindakoa, esaterako.

Deskribatutako errealitateari emandako erantzun politiko-instituzionala bi esparrutan hedatu da. Lehenengoa, espazio ideologikoan: euskal herritarren zati batek gozaten duen ongizatea nabarmentzea statu quo-a justifikatzeko. Bigarrena, politika publikoen eremuan: pobrezia murriztera bideratutako inbertsioa mugatzea, pobretutako klaseen barruko errenta banaketa bultzatzea eta pobretutako pertsonen 'diziplina' edo 'zigor-programa'. Politika publiko horiek, gainera, larriki areagotzen dute gure babes erregimenaren familiarizazioa, eta, ondorioz, handitu egiten dute gizonen emakumeekiko duten nagusitasuna.

ZAINDU!**AUTONOMIA
MATERIALA ETA
ERABATEKO
INTEGRAZIOA**

Covid-19aren aurkako euste-neurrien ondorio ekonomikoei emandako erantzuna bide beretik joan da. Espainiako eta Frantziako estatuek euren babes-sistemetara sarbidea izateko baldintzak malgutzen zituzten bitartean, Jaurlaritzak ez zuten beharrezkotzat jo inolako aldaketarik egitea duela ia hiru hamarkada gure erkidegoan martxan jarri zen babes-sisteman. Aitzitik, DSBE/EPO/GLL sistematik kanpoko laguntza txiki batzuen alde egin zuten, aurrekontuan mugatuak, eta inolako eskubiderik sortu ordez, 'Gose Jokoetara' bultzatu zituzten pertsonak.

Enpleguak erabateko ongizatearen berme izateari utzi badio, eta, gutxienez, ondasun urria bada, pertsonen babesak ezin du horren inguruan biratu. Wellfaretik workfarera eraman gaituen bidean atzera egin behar dugu. Pertsonen bizi-proiektuen erabateko garapena ezin da lan-merkatuarekin duten iraganeke, oraingo edo etorkizuneko harremanaren mende egon.

'Aukera-berdintasunean' oinarritutako justizia sozialaren teoriaren aurrean, 'posizio-berdintasunean' oinarritutako justizia sozialaren teoriara igaro behar dugu. Lehenik eta behin, desberdintasunaren gehikuntza, ugalketa eta herentzia ikusita -haurtzaroan eragin berezia duena-, posizio sozial desberdinen arteko 'igogailuek' funtzionatzeari utzi diotela ondorioztatu daiteke. Bigarrenik, gizarte-posizio jakin batzuk ez direlako iraunarazi behar, indargabetu baizik. 'Posizioen berdintasuna' lehenesteak 'aukera-berdintasuna' gauzatzea ahalbidetuko digu, posizioen desberdinen arteko distantzia murriztuz.

Gizartean pertsonen erabateko integrazioak izaera dimentsioaniztuna du, eta ez da alderdi ekonomikora mugatzen -ekoizpenean eta kontsumoan parte hartzea-; errealitate hori are nabarmenagoa da enplegua lortzea integrazioaren eta ongizatearen sinonimo gisaren paradigma erori denean. Integraziorako ezinbesteko baldintzak dira herritartasun politikoa -eskubideak eta parte-hartze politikoa-, herritartasun soziala -hezkuntza, etxebizitza eta osasuna- eta gaiztoak ez diren gizarte-harremanak -gatazka eta gizarte-isolamendu eza- erabat eskuratzea. Horretarako, herritar guztiak integratzeko bidean, gizarte-lanak zentralitate berria lortu behar du.

Begirada hori da, hain zuzen ere, Covid-19aren krisiaren kudeaketa instituzionalaren hutsune nagusia. Pertsonen ongizatearen dimentsio bakarra hartu da kontuan: osasuna, stricto sensu. Horrela, adibidez, erabat isolatzen ziren krisiaren aurretik zaurgarritasun- eta/edo arrisku-egoeran zeuden familiak, gizarte-laguntzako inolako neurririk aurreikusi gabe. Jaurlaritzak abiatutako deseskalatze prozesuak ikuspegi horretan sakondu du. Bertan ez gara herritarrak, behar politikoak, sozialak edo harremanetakoak dituztenak; merkaturatu daitezkeen ondasun eta zerbitzuen ekoizle eta kontsumitzaileak gara.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- 270.294 pertsona ongizate-gabezia egoeran daude (2018), duela bi urte baino 40.000 gehiago.
- 130.965 pertsona daude benetako pobrezian (2018), duela bi urte baino 8.000 gehiago.
- Lau familietatik batek ez du aurrezpen nahikorik ustekabeko gastuei aurre egiteko.
- 435.595 pertsonak ez dute gaitasunik epe ertain eta luzera (2018) bi-zi-baldintza onargarriak finkatzeko, duela lau urte baino 70.000 pertsona gehiagok.
- 360.000 pertsona segurtasunik gabe daude, beraien 'erresistentzia koltxoia' oso ahula delako.
- Gero eta handiagoa da pertsonak benetako pobrezia-egoera gehienak biltzen dituztenak.
- 2008an, benetako pobrezia-kasu guztien % 33,9 emakumeak buru ziren familietan kontzentratzen ziren, eta 2018an, hau da, 10 urte geroago, % 50,6.
- Guraso bakarreko familien artean ikusten da narriadura nagusienera: % 15 benetako pobrezian dago.
- Benetako pobrezia-egoera lau kasutik bat guraso bakarreko familietan edo seme-alabak dituzten bikoteetan gertatzen da.
- Adin-taldeei erreparatzen badiegu, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen egoera da gehien okertu dena.
- 65 urtetik gorako emakumeen benetako pobrezia-egoera laukoiztu egiten du gizonena.
- Pobrezia-arriskuan dauden 197.185 pertsonetatik 60.618 ez dira DBE/EPO/GLL sistematan artatzen, eta artatzen diren pertsonetatik 70.348 ez dira pobrezia-egoeratik ateratzen.
- 334.000 pertsona gizarte-bazterketa egoeran daude; horietatik 194.000 bazterketa-egoera larrian, duela bost urte baino 79.000 gehiago.
- Ordaindutako enplegua duten 10 pertsonatik bat pobrea da.
- Biztanleriaren % 11,8 bazterketa politiko egoeran dago, duela bost urte baino 2,8 puntu gehiago.

ZAINDU!

**AUTONOMIA
MATERIALA ETA
ERABATEKO
INTEGRAZIOA**

- 2.320 pertsona bizitegi-bazterketa larrian daude, duela bi urte baino 311 gehiago.
- Klean lo egin duten lau emakumetik batek sexu-eraso bat jasan du.
- Araban urtean biztanleko gizarte-langile 18,37 minutu ditu, Bizkaian 18,16 minutu eta Gipuzkoan 23,45 minutu.
- EAJk eta PSEk diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko lege-proposamena, ez dator bat “indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteari buruzko nazioarteko esparru juridikoarekin”.
- Arartekoak behin eta berriz adierazi du Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren praktika jakin batzuek arriskuan jartzen ari direla indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak: “[Lanbideren eskakizunek] jasandako indarkeria berriz bizitzera eta biktima behar-beharrezkoa ez den arrisku-egoeran jartzera baino ez daramate”.
- Covid-19aren krisialdian, beharrezkoagoak zirenean, gizarte- eta hezkunta-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko programak etetea erabaki zen.
- Covid-19aren krisialdian, gizarteratze-premiei erantzuteko zerbitzu asko eten ziren, eta ez zen bestelako aukerarik aurreikusi.

2024RAKO KONPROMISOAK

Posizioen Berdintasuna

- 1 **Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen erreforma**, banakotasunaren, unibertsaltasunaren eta baldintzazkotasunik ezaren printzipioetan oinarrituta.
- 2 **DSBE/EPO/GLL sisteman premiazko neurriak hartzea, Covid-19aren krisiaren ondoriozko beharretara egokitzeak:**
 - Euskal Autonomia Erkidegoko 2020. urteko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legearen seigarren xedapen gehigarria aldatzea, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean aurreikusitako prestazioaren gehieneko zenbatekoak berriz indarrean egon daitezen.
 - Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua eta Oinarrizko Errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituen 2001eko otsailaren 14ko Agindua aldatzea, pizgarrien aplikazioa aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen ondoriozko prestazioetara, langile autonomoek jarduera uzteagatik aparteko prestaziora eta etxeko langileentzako prestaziora hedatzeko.

- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua aldatzea, enplegurako pizgarriak aplikatzeko gehieneko epea luzatzeko.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua aldatzea, hura eskuratzeko baldintzak malgutzeko eta/edo ezabatzeke.
- “Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arloan dituen irizpideak” dokumentuan jasotako interpretazio murriztaile guztiak aldatzea.

3

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskubide subjektibo gisa konfiguratzeko, aurrekontu-erabilgarritasunaren mende egon gabe.

4

Oinarrizko errenta unibertsala adingabeei eta emantzipatu gabeei zuzendutakoa (0-23 urte).

- 120 euroko prestazio unibertsal batek desberdintasunaren eta pobrezia-aren belaunaldien arteko transmisioa murriztea ahalbidetuko du.

5

Oinarrizko errentaren edo kapital-zuzkiduraren proiektu pilotu bat ezartzea, gazteen emantzipazioa sustatzeko.

Integrazio politikoa, soziala eta harremanetakoa

6

Biztanle bakoitzeko gizarte-langileen kopurua handitu: gizarte-langile bat 1.700 biztanleko.

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan gizarte-langileen plantilla handitzeko laguntza-ildoak.

7

Gizarte-zerbitzuetako profesionalei zuzendutako etengabeko prestakuntza.

8

Babesgabetasun- eta arrisku-egoerak goiz detektatzeko programak unibertsalizatzea.

9

Gizarteratzeko Lege bat onartu: aktibazio inklusiboa:

- Gizarteratze-prozesuen dimentsioaniztuna.
- Zerbitzu pertsonalizatuak eta pertsonen autonomia eta autodeterminazioa.
- Eskakizun-maila desberdinak: arriskuak eta kalteak murriztea eta eskakizun txikia.

10

Lehen mailako eta bigarren mailako arretako zerbitzuen arteko integrazio-prozesua: arretaren jarraitutasunaren printzipioa.

ZAINDU!ERRONKA
DEMOGRAFIKOA

- 11** Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiari giza baliabide eta baliabide ekonomiko nahikoak eman. Estrategia horrek ez da soilik erakundeen jardueren orientatzaile izango.
- 12** Housing First estrategia modu irmoan ezartzearen aldeko apustua egin.
- 13** Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren kudeaketan diziplina-eta normatibizazio-praktikekin amaitzea.

Erronka demografikoa

DIAGNOSTIKOA

Zahartze demografikoa eztabaida publikoaren erdigunean jarri da azken urteotan. Bizitza luzearen demokratizazioan izandako arrakastak eta ugalkortasun-tasen murrizketak, neurri handi batean lan- eta bizitegi-prekarietatearekin lotuta, gure populazio-piramidearen egitura eraldatu dute. Irakurketa apokaliptikoetatik eta emakumeak 'arazoaren' errudun egiten dituzten eta beren gorputzak eta bizitzak erabili nahi dituzten erantzun natalistetatik urrun, Euskal Herria Bildun uste dugu ugalketa-iraultza honek gure herriak aurre egin beharreko erronka batzuen aurrean jartzeko gaitueta. Erronka horiek harreman handiagoa dute ondo bizitzearekin jaiotza-tasekin baino.

Jaurlaritzak familiei laguntzeko bultzatutako erakunde arteko planek porrot egin dute nabarmen. Finantzaketa nahikorik ez izateak eta familietan benetako eragina izango duen neurri garrantzitsurik ez egoteak ezaugarritu du plan ezberdinen ezarpena. Hala, gure herriko gizarte-babeseko sistema zerbaitetan nabarmentzen bada, familiak babesteko politiken multzoaren orientazio ahul eta desegokian da. Orain, Covid-19aren krisiarekin irekitako agertokian, agerian geratu da familiak babesteko politiken ahultasuna. Familiei -emakumeei- areagotu egin zaie zaintza-lana, kasu batzuetan muga eutsiezinetaraino, inolako laguntza-neurririk gabe.

Ugalkortasun-tasa handitzea berhartu nahi duten natalismo-politikek, 'arazoari' irtenbidea eman beharrean, mendekotasun-tasa handitzea eragingo dute, eta, ondorioz, zaintza-premia handiagoa izango da. Gure ongizate-erregimena ahula denez, familiarizazioa -lan-merkatua uztea- sendotzeko arrisku larria dago, hau da, ongizatea lortzeko emakumeek gizonetikiko duten mendekotasuna zurkaiztea. Zoritxarrez, badirudi hori dela Covid-19ak ireki duen krisialdirako arduradun publiko batzuk marrazten ari diren irteera.

Guk, aldiz, uste dugu aurrean dugun erronkak eraldaketa sozial sakona eskatzen duela. Gure politika publikoak berriz diseinatu behar dira ugalketari eta hazkuntzari buruzko erabakiak eta aukerak benetan askeak izan daitezkeen beharrezkoak diren baldintza sozial eta ekonomikoak bermatzeko. Era berean, emakumeei ugalketaren erantzukizun bakarra ezartzen dien indarkeria sinbolikotik aske.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- 1.000 biztanleko 7,4 jaiotza daude; Europako batez bestekoa baino askoz txikiagoa da, 1.000 biztanleko 9,7 jaiotza (2018).
- 65 urteko edo gehiagoko 150,5 pertsona daude 16 urtetik beherako 100 pertsonako, duela 10 urte baino 15 gehiago.
- Emantzipatzeko batez besteko adina, 29,6 urte (2017), Europako batez bestekoa baino ia lau urte handiagoa da. Italia, Eslovakia, Kroazia eta Malta baino ez daude Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik. Emantzipazio-tasak hiru puntu egin du behera 2007tik.
- Familientzako eta seme-alabentzako babesa oso txikia da. Gastua BPGren % 0,7koa da, eta Europarena, berriz, % 2,4koa.
- Bost gizonek -Urkulluk, Gonzalezek, Olanok, Rementeriak eta Landak- sinatu zuten 'Familiaren aldeko Ituna', emakumeei seme-alaba gehiago izan behar zituztela esateko.
- Amatasuna eskuratzek % 4 pobretzen ditu emakumeak; gizonen kasuan, berriz, aitatasuna eskuratzek % 6 aberasten ditu.
- Lanaldi partzalean lan egiten duten 10 pertsonatik 8 emakumeak dira.
- Lan-murrizketak eta eszedentziak hartzen dituzten pertsonen % 95 emakumeak dira.
- Guraso bakarreko familien % 15 benetako pobrezian dago.
- Benetako pobrezia lau kasutik bat guraso bakarreko familietan edo seme-alabak dituzten bikoteetan gertatzen da.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten seme-alabak dituzten 10 familietatik 3k soilik lortzen dute pobreziatik ateratzea.
- Diru-sarrerak Bermatzeko Legearen arabera, bi seme-alaba dituzten guraso bakarreko familiek hilean 1.456 euroko diru-sarrerak izateko eskubidea dute. EAJk eta PSEk 1.036 euroraino murriztu dute, hau da, 420 euro gutxiago hilean.
- Hazkuntzaren kostua 620 euro ingurukoa da hilean.
- Covid-19aren krisiaren hasieran, Jaurlaritzak adierazi zuen familia zabalak konpondu behar zituela seme-alabak zaintzeko beharrak.
- Jaurlaritzak familientzako Covid-19aren inpaktu ekonomikoari erantzuteko laguntzak, ikastetxeak eta eguneko zentroak ixten hasi eta 40 egunera argitaratu zituen. Laguntza horiek, ziurrenik, ez dira urtea amaitu arte ordainduko, eta baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek ez dituzte jasoko.

2024RAKO KONPROMISOAK**Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzeko prestazioak eta laguntzak**

- 1** **Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna sustatzeko prestazioak eta laguntzak.**
 - Diseinuan elementu hauek hartuko dira kontuan: unibertsaltasuna, titulartasuna, zenbatekoa eta ordaintzeko modua.
- 2** **Gaur egun kontziliaziorako aurreikusita dauden prestazio eta laguntzak eskatzen diren unean ordaintzea.**
- 3** **Baimen parekideak eta besterenezinak eremu pribatura zabaltzea, soldata-arrakala murrizteko beharrezko neurriekin batera.**
- 4** **Sektore ekonomiko eta profesional feminizatuenean lan- eta soldata-baldintzak hobetzeko neurriak.**
- 5** **Lan- eta hezkuntza-ordutegiak harmonizatzea eta malgutzeta.**
- 6** **Laguntza ekonomikoetan, finantzaketa-jardueretan eta kontratazio publikoan lehentasuna ematea lana, kontziliazioa eta bizitza pertsonala bateragarriak egiten dituzten neurri eraginkorrak dituzten enpresa eta erakundeei.**
- 7** **Guraso bakarreko familiei buruzko lege bat aurkeztea, prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko aukera eta erraztasunak emateko:**
 - Egoera desberdinak definitu eta aitortzea: guraso bakarreko etxea, guraso bakarreko familia eta guraso bakarreko egoera.
- 8** **Zaugarritasun-maila handiko familiak babesteko neurriak: guraso bakarrekoak, ugariak, desgaitasun bat duten seme-alabak edo gurasoak dituztenak, adopzio anizkoitza, harreran hartutakoak.**
 - Lehentasuna prestazioak eta enplegua sustatzeko politikak eskuratzeko orduan.
- 9** **Prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko familia-errenta estandarizatzeko sistemaren erregulazio berria.**
- 10** **Adingabearen babesari eta zaintzari eragiten dioten arau eta neurri guztietan adingabearen interes gorenaren printzipioa txertatzea.**
 - Bereziki garrantzitsua eta premiazkoa Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren erregulazioari eta kudeaketa-irizpideei dagokienez.

- 11. Seme-alabengatiko prestazio ekonomikoen eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren arteko bateragarritasuna.**
- 12. Seme-alabengatiko zerga-kenkariak itzulgarri bihurtzea,** behar adinako zenbatekoarekin -hazkuntza-kostua- eta izaera linealarekin, familia guztiek onura bera jaso ahal izan dezaten.
- 13. Kalitatezko Arreta Goiztiarreko eredu baten garapen homogeneoa.**

Pentsioak

DIAGNOSTIKOA

Elkartasuna, berdintasuna, eskubide eta justizia sozialak dira jendarte aurreratu baten oinarri-oinarrizko printzipioak. Gizarte aurreratu batek bere kideak zaindu eta babesteko obligazioa du, eta helburu horri begira berebiziko garrantzia du gizarte babes indartsu, koherente, orekatu, oso eta ondo hornitu bat izatea eta, ondorioz, Babeserako Euskal Sistemaren egituratze, eguneratze eta sendotzea ezinbestekoa bilakatzen da.

Babes sistemaren oinarri nagusienetako bat pentsio sistema da, ezbairik gabe. Izan ere, pentsioak eta pentsio sistema erabat loturik daude zenbait ezgaitasun bizipenetan, alarguntze egoeratan edota bizitzaren azken etapan izango ditugun bizi-baldintza eta bizi kalitatearekin. Horregatik, eta sistema publiko indartsu baten alde gaudelako, bizi-baldintza duinak bermatuko dituen sistema publiko baten aldekoa da gure hautua. Eta, hori, egun, ez dago bermatua gurean. Inolaz ere.

Izan ere, jomugan egon dira pentsio publikoak eta litekeena da hala egoten jarraitzea COVID19ak murgildu gaituen krisi egoera honetan. Botere ekonomiko eta politikoek pentsio sistema publikoak higitzeko helburuarekin, babes publikoaren aurka jo dute, hainbat arlotan erreforma gogorrak eta murrizketak pairatzen ari direlarik. Estatuan antolaturiko eraso horiek herritarren artean ziurgabetasuna eta beldurra zabaltzea dute helburu, pentsio sistemaren jasangarritasuna aitzakia, hartzen diren neurriak "ekidinezinak" direla sinestarazteko. Are gehiago orain, COVID19ak ekonomian izan dituen eta izango dituen epe motz, ertain eta luzerako ondorioek gizarte segurtzaren erreserba funtsak eta diru-sarrerak era nabarmenean murriztuko dituztenean.

Ondorio larriak izan dituzte eraso hauek pentsiodunen bizi-baldintzetan. Pentsioak, batez ere, adineko eta ezgaitasuna duten pertsona askoren diru-sarrera nagusi eta, askotan, bakarra izanik, murrizketa horien ondorioz, prekaritate bitala pentsiodun askoren bizitzan instalatu da.

Bereziki lazgarria da emakume pentsiodunen egoera, hauek izan baitira pentsio sistemaren kontrako eraso horien baitan eman diren murrizketa eta

ZAINDU!**PENTSIOAK**

erreforma guztiek gehien kolpatutakoak. Nonbaiten agerikoa bada gizon eta emakumezkoen arteko arrakala pentsiodunen artean da. Hamarkadatan soldata jaso gabe bizitza sostengatzen egon ondoren, emakumeak dira pentsio baxuenak eta prekariedade maila handiena pairatzen dutenak. Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta DSBEren osagarria jasotzen duten 15.000 pentsiodunen hirutik bi emakumezkoak dira. Zaintza lanetara kondenatuak izan ondoren, prekarietatera kondenatuak dira emakumeak. Gure gizarte antolaketaren eta, bereziki, zaintzaren antolaketa sozialaren ondorio larrienak, antolaketa horren desorekak eta zaintza lanen aitortza eza ageri-agerian geratzen dira emakumezko pentsiodunen egoeran. Egoera larria eta lazarria da, eta izugarrizko eragina dauka emakume pentsiodunen bizi-baldintzetan eta beren zahartze proiektua baldintza duinetan emateko aukeretan. Pentsioen eztabaiaren erdian kokatu beharra dago beraz, bizitzaren sostenguari ematen diogun garrantzia kontuan hartuta, emakume hauen aitortza, erreparazioa eta konpentsazioa.

Pentsio sistema publikoaren kontrako erasoek eta egoeraren larritasunak piztu egin ditu pentsiodunak. Determinazioz, nekerik gabe, baturik, beren justizia eta bizitza duinen aldeko aldarria ozen entzunarazi dute azken urteetan, baita pandemia garaian ere. Mobilizazio ikusgarrien protagonista izan dira, eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kaleak astelehenero duintasunez betetzeaz gain, lortu dute pentsioen eta pentsiodunen egoera agenda politikoan indartsu sartzea.

Euren aldarrikapenekin bat eginez, ezin dugu onartu pentsiodun bat bera ere baldintza duinetan ez bizitzea. Ezin dugu beste alde batera begiratu eta eskuduntza faltaren edo COVID19aren diru-sarreraren galeraren edo ondorio ekonomikoen atzean ezkutatu. Premiazkoa da, beraz, kalean indarrez beteriko eskariak politikoki artikulatu eta pentsioen inguruko neurri ausartak hartzea, gehiengo sozialarekin batera, pentsiodunekin batera, hainbat belaunaldik bizitza osoan zehar egindako lana eta ahalegina eskubide eta segurtasun osoz babesteko. Zentzu horretan, ezinbestekoa da pentsio sistemaren jasangarritasunean zentratu den eztabaida gainditu eta bizitzaren jasangarritasuna eztabaidaren erdigunera ekartzea. Aurrerapausoak emateko beharrea gaude, bizitza duinak bermatuko dituen euskal pentsio sistema lortzeko bidean. Bitartean, kudeaketa eta lege-garapena eskuratzea eta, egun ditugun eskumenekin, eskura ditugun baliabide eta erremintak baliatuz, Europako Gutun Sozialak markatutako bidetik, egoera leundu eta egungo pentsioak duintzea lehentasunezko konpromisoak bilakatzen dira.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- EAEn 364.625 pentsiodun daude eta, batz bestea, 1.428,35 euro jasotzen dituzte.
- COVID 19aren pandemiagatik eman diren heriotzen ondorioz eta alta berriak tramitzeko sortu diren arazoaren ondorioz, 1.912 pentsiodun gutxiago daude egun EAEn.

- 42.403 pertsonek ezgaitasun pentsioa jasotzen dute EAEn; bataz bestekoa, 1.260,33 eurokoa da.
- DSBEren onuradunen %25a pentsiodunak dira. Horietatik 3tik 2 emakumeak.
- 1.568€koa da EAEn gizonekoen batez besteko pentsioa, 907€koa emakumezkoena. Beraz, 661€koa da gizon eta emakumezko pentsiodunen arteko arrakala.
- Emakumezko pentsiodunen %73k 1.000€tik beherako pentsioa jasotzen du.
- Emakume pentsiodun %45ek alargun pentsioa jasotzen du, eta alargun pentsioen bataz bestekoa, 785 eurokoa da.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Pentsiodunen mugimenduak egiten dituen aldarrikapenekin bat eginez, eta Europako Gutun Sozialak adierazitakoari jarraituz, EAEko pentsio guztiak, gutxienez, 1.080 eurokoak izateko konpromisoa. Horretarako bideratuko dira gure ekimen nagusiak, beharrezkoak diren moldaketa legalak eginez eta mekanismo eta tresna guztiak martxan jarritz.

2

Jaurlaritzako egungo eskuduntzak eta ahalmena pentsiodunen bizi-baldintza duinak bermatzeko gauzatu, emakumezkoen egoeran arreta berezia jarritz. Zentzu honetan, jasotzaileak pobrezia kondentatzen dituzten pentsioak -batez ere, alargunenak osatzeko eta duintzeko pausoak eman.

- DSBEren legerian egin beharreko aldaketak txertatu, batez ere, ondaren minorizazioa eta prestazioaren indibidualizazioari dagozkionak, bere senarrekiko emakume askok izan dezaketen mendekotasunarekin amaitu ahal izateko.
- DSBE ezarritako murrizketak bertan behera utzi. Murrizketa larriak jasan ditu DSBE 20012tik eta, horiek, besteak beste, eragina izan dute pobrezia egoeran egonik beren pentsioak prestazio honekin osatu beharrean aurkitzen diren pertsonen artean.
- Pentsio baxuak osatzeko eskubidea pentsiodunen artean zabaltzeko informazio eta asistentzia kanpaina bideratu. Hainbat arrazoi tarteko oso altua da osagarria jasotzeko eskubidea izan eta bera eskatzen ez duten pentsiodunen kopurua. Tarte hori nabarmen murriztu eta babesa zabaltzea premiazkoa da.

3

Zaintza lana aitortu eta horretara dedikatutako emakumeak erreparatzeko bidean, zaintza lanetan urteetan aritu diren emakumeak konpentsatzeko funtsa sortu.

ZAINDU!**PENTSIOAK**

- Jendarte eredu berri baten oinarriak sendo eraiki nahi baditugu, justiziazkoa da atzera begiratzea eta egiturazko egoera bidegabea pairatu duten emakumezkoek, pentsiodunak izan zein ez izan, egindako zaintza lana aitortu eta, neurri batean, konpentsatzea, beti ere, 1.080ko gutxieneko pentsioa helburu izanik.

4**Gizarte Segurantzaren egungo sistemaren garapena eta kudeaketa berehala gure esku izateko neurriak gauzatu.**

- Atzerapen gehiagorik gabe, Gizarte Segurantzaren erregimen ekonomikoaren kudeaketa berehala lekualdatzeko neurriak garatuz, horrela kuotak biltzeko, prestazioak ordaintzeko, altak eta bajak erabakitzeko edo/eta sistema ikuskatzeko gaitasuna gureganatuz.
- Bizitza eta pentsio duinak ahalbidetuko dituen gizarte babeserako sistema publiko osoa eraikitzeko bidean, Gizarte Segurantzaren sistema euskal erakunde publikoek legez garatzea, gauzatzea eta osorik kudeatzea egingarri bihurtu nahi dugu egungo eskuduntzaren margena zabalduz.

5**Planifikaziorako, lege-ahalmen eta kudeaketarako gaitasun osoa izango duen Euskal Pentsio Sistema Publikoa sortzeko konpromisoa.**

- Ekimen zehatzak, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko akordioak eta eztabaida publikoa sustatuz.
- Estatus Politiko Berriaren eztabaidan, babes sistema osotzeko eta trinkotzeko ezinbestekoa den pentsio sistema propio eraikitzeko tresna eta ahalmen guztiak gure esku izateko lehentasunezko proposamena defendatzen jarraituz.
- Sistema bidezkoa eta bideragarria izateko, hainbat osagai (kotizazioak, erretiro adina eta baldintzak, prestazioak, gutxieneko pentsioak, pentsio motak ...) euskal erakundeen esku egoteko ezinbestekotasuna erakutsiz eta aldarrikatuz.
- Belaunaldien elkertasunean oinarrituriko sistema iraunkorra eta koherentea izateko, kalitatezko enplegua eta lan-baldintza eta soldata duinak bultzatuko dituen lan harremanetarako euskal esparrua osatzeko ekinbideak eginez.
- Etorbizuneko pentsioak ziurtatze aldera, besteak beste, gazteen laneratze prozesu duinetan eta iraupen luzeko langabetuen laneratze erreskatean arreta jarriko dugu, gauzatzen ari den lan-erleboia orekatua eta bidezkoa izan dadin.
- Sistema osatzeko bide-orria bideratzeko batzorde berezitua osatuz, bideragarritasun juridikoa eta ekonomikoa aztertuz, Espainiako Gobernuarekin eskuduntza negoziatuz eta horren egitura publikoa eratuz.

6**Borondatezko gizarte aurreikuspen sistemari dagokionez, entitateen balio soziala aztertu eta zehaztu.**

- Eredu produktiboa elikatzeke eta politika publikoak indartzeko euren ekarpena arautuz.
- Erabateko lehenetasuna sistema publiko osoa eta bidezkoa eraikitzea izanik, borondatezko gizarte aurreikuspen sistema menpekoa izango da eta bere garapena, enplegu modalitateari dagokionez, kalitatezko enpleguen orokortzearekin eta langileen ordezkarien gehiengoaren oniritziarekin estuki lotuko da.
- Euskal aurrezkien zati garrantzitsu honek ekonomia erreala bultza dezan aukerak aztertu eta konpromiso zehatzak jaso eta arautuko ditugu. Horrela, balizko hobari fiskalak onura publikoarekin lotuko ditugu.
- Entitateekin lankidetzak politikak berrikusiko ditugu, euren balio soziala eta langileen artean duten kobertura maila aztertuz, bereziki langile guztiengana heltzeko aukerak kontuan hartuz.
- Zaurgarrienak diren kolektiboen beharrak kontuan hartuta, gizarte aurreikuspeneko entitate publiko bat sortzeko aukera aztertuko dugu eragileekin batera.

DUINDU!

OSASUNA

DUINDU!

JUSTIZIA SOZIALA ESKURATZEKO PREST

Osasuna

DIAGNOSTIKOA

SARS-CoV-2 birusaren agerpenak, dagoeneko kolpatua, gainditua edo gainezkatua zegoen Osasun sistema publikoa are eta gehiago ahuldu du. Urteetako inertziak, autu politikoek, planifikazio eta aurreikuspen ezak ekarri dituzten ondorioak Covid19aren pandemian azaleratuak geratu dira, Osakidetzaaren egoera erreala erakutsiz. Lidergo eza, Erakunde Sanitario Integratuek elkarlanean aritzeko zailtasunak, langile kopuru azpi dimentsionatua, hornikuntzarako mendekotasunak edo estrategiak definitu, garatu eta konpartitzeko gaitasun ezak osasun krisi honetan bat-batean aritzea ekarri du. Langileen erantzun goraipagarriak itxi duen zuloa ireki du birusak gure sistema sozio-sanitarioan. Birusaren eta etor daitezkeen antzeko krisien bilakaera zein izango den ez dakigun une honetan, erabaki azkar eta egiturazkoak hartu behar dira, langileek emandako erantzuna egonkortu eta, aurrerantzean, erantzun egokiena eman ahal izateko nahikoa tresna dituztela ziurtatu ahal izateko.

Osasun Saila tentsioak sortzen dituzten indar zentrifugo desberdinen artean mugitzen da, hainbat eta hainbat profesionalen lan tekniko bikainari eraginkortasuna murriztuaz. Osasun Sailean eta Osakidetzan ez dago nora joan nahi dugunaren ikuspegirik eta are gutxiago herritarren osasunean eraldaketa nabarmen bat eragiteko gai den lantalderik. Osasun arretaren filosofia aldaketa helburu jarrita justifikatu zuten Erakunde Sanitario Integratuen antolakuntza eredu berria: osasun sustapena eta prebentzioa indartzeko, lehen arreta indartu eta lehen arreta eta ospitale mailako arretaren integrazioa areagotzeko, baina ez dira gai izan edo ez dakigu helburua ez ote zen juxtu kontrakoa. Ekonomia eta giza baliabideak dira ardatza eta beste behin herritarrei eman beharreko osasun arreta baztertua geratu da. Estrategian

nabarmetzen duten eta garai berriek eskatzen duten kultura aldaketa (asistentziatik sustapenera) kudeatzeko gaitasunik ez dute izan. Zentzu horretan, Osasun plana ipar orratza izan beharko litzateke Osasun Sailarentzat. Ipar orratza izateaz gain, plana garatu ahal izateko finantziarioa ezinbestekoa da eta apustu sendoa egin beharra dago esku hartze komunitarioan.

Lurralde kohesioan eragina duen planifikazio gabezia nabarmena da:

- Hainbat ospitale berri ireki bada ere, hauetako gehienetan zerbitzu zorroa ez da argia eta ez da aurrera begirako planifikaziorik ageri.
- Arrasaten ospitale berria irekitzearekin pertsonal eta zerbitzu murrizketak izan dira.
- Eibarren ospitale berria planifikazio eta azterketarik gabe ireki da, baina horrek ahalbidetu zuen 2014ko aurrekontuak aurrera ateratzea PSE-EEren bozekin.
- Urdulizek Erandiori zerbitzua eman behar zioen eta azken unean irizti aldaketa etorri zen.
- Tolosaldeako ESI-aren privatizazioa.
- Gasteizen San Martineko etengabeko atentzio gunea itxi dute. Oro har, EAG-ekiko anbiguetatea nagusitu da.
- Lehen arretako profesionalen proposamenak onartu ordez, arazoa konpondu ez dituzten adabakiak inposatu dituzte goitik behera.
- Osasun mentala edo Emergentziak bezalako ESI txikiak existitu ere ez dira egiten.

Osasun arretan ere, egoera sozial zaugarrian aurkitzen diren herritarrak, planetatik kanpo, bazterrean geratzen joan dira. Beraien egoerak ez dira kontutan hartu eta sarbidea ez zaie erraztu. Premiazkoa da gizarte arrakala areagotu ordez gutxitzen joateko Osasun Saileko planen begirada aldatzea.

Itxarote zerrendak, beste adierazle batzuegatik ordezkatu behar dira. Ospitale bakoitzak bereak ditu eta araudia zehaztuta egon arren ez dago adierazle bateraturik. Maiz itxarote zerrendak pribatura deribazioak justifikatzeko erabiltzen dira.

Beste eragileekin ezer adostu nahi ez duenez, arazoak ukatzea kudeaketa arau bihurtu duen eta prentsari begirako politikak lehenetsi dituen gobernuaren aurrean egon gara. Horren ondorio da ahaztu ezin dugun 2016-2017 EPEa. Osakidetza ere duen kuestioan jarri du EPEaren auziak. Gai honetan EH Bilduk auzia ikertzeko eta egoerari aurre egiteko proposamen zehatzak jarri ditu mahai gainean. Osasun Sailaren jarrera ordea ukazioa, defentsiba eta ikertzen eta neurriak hartzen ari zirenen itxurakeria egitea izan da. EH Bilduk aurkeztu dituen proposamenei gobernuak beti ezezkota eman die. Hasiatik gainera, EH Bildu prest egon zen gobernuarekin elkarlanean gaia ikertu eta neurri berriak esploratzeko. Ez zuten nahi izan.

DUINDU!**OSASUNA**

Hala ere, ez da soilik Lan Eskaintzaren Eredua eztabaidan dagoena. Osakidetza sistema osoa, antolakuntza eredu, giza baliabide politika ere birtentsatu behar da. Jaurlaritzak indarrean dagoen zigorgabetasun eremua mantendu nahi duela besterik ez dugu ikusi.

Ospitalez kanpoko larrialdien kudeaketa, gobernu honentzat ez da lehentasuneko eremua izan. Egoera kezkarria bizi izan dugu: zerbitzuaren pribatizazioa, Emergentziak ezagutzen ez dituzten arduradunen izendapena, ambulanzia eta azpiegituren egoera prekarioa edo zentro koordinatzaileen zentralizazio mehatxua. Gobernuak zentralizazioak ekarriko duen egoera aztertuko zuen txostena bukatua izan behar zuen 2019rako baina legegintzaldia bukatu da eta oraindik ez dugu txostena ezagutzen. Segurtasun sailko ertzainen (SADAEak) zentralizazioak kalteak ekarri ditu funtzionamenduan. Abenduaren 31an oinarritzko ambulanzien zerbitzua bertan behera geratzeko zorian egon zen Araban. Langileen inplikazioari eta profesionaltasunari esker mantendu zen. Ez da lehen aldia izan. Orain dela 5 urte gertatu zen eta orain dela 17 urte ere. Emergentzien esparruan ere atzean geratzen ari da EAE.

Aurreko legegintzaldian, 2016ko uztailan, EH Bilduren ekimenez, legebiltzarrean onartu zen "Bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko legea -11/2016-. Okertzeko beldurrik gabe, esan genezake Espainiar estatuko legerik aurrerakoiena dela.

Legebiltzarrak, lege horren onarpenarekin, urrats garrantzitsua eman zuen pertsonen heriotza ona ziurtatzeko, baina, eutanasia legetik kanpo utzi zen. Horregatik, pasa den legegintzaldian EH Bilduk Gorteetarako ekimen legegilea aurkeztu zuen eutanasia eta suizidio lagundua despenalizatzeko, baina ekimenak ez zuen aurrera egin.

2018ko abenduan Onkologikoaren publikazioerako jauzi kualitatiboa ematen da, lotura atxikimenduaren bidez, urteetako Jaurlaritzaren jarrera aldatuz. 2013ko Martxoan EH Bilduren ekimenez, Onkologikoa Osasun Sistema Publikoan, Osakidetza, integratzea onartu zen. Jaurlaritzak eta Osasun Sailak bete ordez beste aldera begiratu zuten. Hainbat espezialitateetan, erradioterapia eta onkologia medikoan esaterako integrazio funtzionalak onartuak izan ziren baina ez ziren gauzatu. Integrazio funtzionalari jarraipena egiteko mahai instituzional bat ere teoriarik ba omen zen, baina Logik enpresaren bidez pribatizazioa gailendu zen eta Onkologikoa bere izaera galtzen joan zen.

2018ko uztailan azken urteetako norabide aldaketa ekar zezakeen berria iragarri zuen Osasun Sailak, alegia Onkologikoa Osakidetza integratzearena. Horretarako irailaren 4ko 127/2018 dekretuan "zerbitzu sanitarioak emateko titulartasun pribatuko eta irabazi asmorik gabeko zentro sanitarioekin atxikimendu-hitzarmen espezifikoak izenpetzeko betekizunei eta prozedurei buruzkoa" onartzen da. Horren ondorioz Osasun Sailaren eta Onkologikoko Fundazioaren artean funtzionamendu integratua emateko hitzarmena sinatuko da. Onkologikoaren aktibitatea, orain arteko kontzertazio eredu gaituz, Osakidetza eta Osasun Sailaren planifikazioaren eta aurrekontuen baitakoa bihurtuko da.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Osasun profesional gabezia
- Hilero Osakidetzako plantilla aldakorra da. Egiturazko plantilla 27.496 da. Egunero lanean ari diren langileak (2019ko urriko datuak) 33.386 jardunaldi osoz.
- Osakidetzan egunerokoan beharrezkoak diren 3000 lanpostu daude ofizialki onartu gabe.
- MIR azterketa gainditu ezinik mediku poltsa esanguratsua dago Estatu espainolean (7.000 pertsonatik gora). EAeko gobernuak ez du eskuduntzarik bere beharren arabera egoiliarren kopuruak ezartzeko eta, ondorioz, ditugun beharrei erantzun ahal izateko planifikazioa bideratzeko. Egoera hau izanda ere, Deustuko unibertsitateari medikuntzako fakultatea irekitzeko aukera eman zaio.
- Emergentzien zentro koordinatzaileen eredu-kudeaketa aztertu behar duen txostena bukatu gabe nahiz 2019aren amaierarako bukatua egon behar zuen.
- Gipuzkoako Ospitalez kanpoko larrialdietako medikudun bi bizi euskarri (Tolosa eta Elgoibar) pribatizatuak.
- Eskualde mailako ESI-tan osasun kontseiluak aktibatu gabe edo eta herritarren parte hartzea bideratu gabe.
- Eskualde mailako ospitaleetan osasun profesionalak kontratatzekeo zailtasunak.
- Osasun sustapena eta prebentzioa lehen lerroan ezartzeko zailtasunak.
- Demografiaren eboluzioari eta zahartzeari egokituriko osasun arreta soziosanitarioa garatzeko ezintasuna.
- Itxarote zerrendei jarraipena egiteko ez dago gardentasunik.
- Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko II plana ez da bete.
- Osasun sailak hornikuntza zein zerbitzu desberdinak eskaintzeko egiten dituen kontratuen jarraipenik ez dago: Tolosako klinika kudeatzen duen Inviza enpresarekin duen kontratua edo Arabako ESIko sukaldeetako hornikuntzarako kontratua dira adibide. Urdulizen hau errepikatu nahi izan da baina sententzia batek atzera bota du.
- Covid19ari aurre egiteko, ohiko aktibitate ia guztia geratu da. Orain aktibitate guzti horri aurre egin behar izateak, gehi Covid19ari erantzuten jarraitu behar izateak, arretan atzerapenak eta zailtasunak areagotuko ditu.
- Covid19arekin kutsatutakoen eta kontaktuen detekzio azkarra egiteko eta jarraipenerako zailtasunak Osasun publiko eta lehen arreta ahula izatearen ondorioz.

DUINDU!**OSASUNA**

- PCR probak areagotzeko ikerketa zentroekin zein EHUko unibertsitatearekin elkarlana gauzatzeko oztopoak. Halaber, PCR-en zein beste-lako test-en hornikuntzarako zailtasunak.
- Prebentziorako Oinarrizko Unitateen ahulezia langileak babesteko eta langileon formakuntza garaiz eta modu iraunkorrean ezartzeko.
- Protokoloekin noraeza eta irizpideak bateratzeko arazoak.
- Langileen norbere babeserako ekipoak eskuratzeko arazoak. Osakidetza-entzat lan egiten duten enpresa kontzertatuetan larriagoa izan da arazoa. Kategorien arabera ere mailakatua izan da.
- Kutsatutako profesional kopurua oso altua izan da.
- Mugazgadiko kolaborazioa bultzatzea helburu zuen “When EMS erases borders” proiektuan sartu arren, ez da Aragoik jada Estatu frantsesarekin sinatu duen akordioa sinatzeko gaitasunik izan.

2024RAKO KONPROMISOAK

1**Covid19-arekin bizitzeko osasun larrialdi plana garatu**

- EHUko eta EAEko ikerketa zentroekin hitzarmena sinatu eta garatu. Kliniko guztiekin, uneko beharrak kontutan izanik, egoeraren arabera egokitzen joango den elkarlan iraunkorra hitzartu.
- Etorkizuneko balizko epidemien eta pandemien aurrean azkar erantzuteko Osakidetza eta oro har Osasun sistema publikoa berrantolatuko dugu.
- Covid19 Osakidetzako langileen gaixotasun laborala izendatzea.

2**Mediku, osasun profesional gabeziari aurre egin**

- EAEn bizi diren eta BAME (MIR) plaza lortu ez duten osasun profesionalen poltsan daudenei arau bidezko irteera egokia ematea izango da gure helburua, horretarako egon daitezkeen aukera posibleak aztertuz eta Osakidetzako sindikatuekin adostuaz.
- Osakidetzan 7000 plaza behin behinekotasunetik atera eta egiturazko bilakatu.

3**Autogobernuan sakondu planifikazioan hobetzeko:**

- MIR, EIR eta gainerako egoiliarren eskuduntzak eskatuko dizkiogu Madrili. Eskuduntza gureganatzen dugun bitartean, gizarte gisa ditugun beharrak kontutan izanda, Espainiako gobernuarekin eta EHUrekin negoziatuko dugu BAME (MIR) kopurua EHUko medikuntza graduako eskaintzarekin egokitzeko.

- Berrordainketa bertan behera utziko dugu.
- Farmaziako eskuduntza guztiak lortzeko Madrileko gobernuarekin negoziazioa ireki.
- Farmazia publikoa sortzeko ibilbide orria zehaztuko dugu.
- Lan osasunaren arreta sistema publikoan eskaintzeko Estatuko Gizarte Segurantzarekin lan ildo irekiko dugu. Mutua zerbitzuen eta haien finantziazioaren transferentziarako ildo irekiko dugu.
- Nazioarteko osasun sistema publiko desberdinekin, estrategikoak kontsideratzen ditugun alorretan elkarlanerako bideak ireki eta hitzarmenak sinatuko ditugu:
 - Soziosanitarioa
 - Osasun Publikoa eta epidemiologia
 - Hizkuntza Politika

4

Publifkazio eta unibertsaltasun osorantz bideratu Osakidetzaen pausuak

5

Lehen arreta eta osasun mentala indartu

- Integrazio zuzendaritzak integrazio erreal bat lortzera zuzenduko ditugu.
- Gutxienez 300 kodigo berri lehen arretako plantilla finkatzeko eta indartzeko.
- Plantilla %10an handituko dugu.
- Lehen arretaren desburokratizazioa.
- Talde-lanean oinarrituko den lehen arreta multidisziplinarra antolatuko dugu erizainen eginkizunak indartuz
- Osasun profesionalei lan administratiboa kentzeko neurriak hartuko ditugu
- Ratioak berregokitu ditugu horretarako beharrezkoa den aurrekontuarekin
- Arreta komunitarioa lehenetsiko dugu osasun determinanteetan eraginez.
- Tratu txarrak izan dituzten emakumeei, adinekoei edo etorkinei luzatuko diegu bereziki begirada.
- Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan osasun mentaleko profesionalak barneratuko ditugu, gazteekin lanketa desberdinak ikastetxeetan bertan garatzeko: Autoestimua, mendekotasunak, buru gaixotasunak. Osasun mentalean sail berezitua indartuko dugu haur eta gazteekin ikastetxeetan lan egiteko.

DUINDU!

OSASUNA

- 6 Osasun Sailaren Osasun publiko arloa indartu**

 - Bigarren Hezkuntzako curriculumean, hezkuntza sailarekin elkarlanean, lehen sorospenak txertatuko ditugu.
- 7 Gerentziak profesionalizatzeko ibilbide orria negoziatu eta adostu**
- 8 Osasun kontseiluak aktibatu eta herritarrak sartu erabaki guneetan.**

 - Osasun arreta Osakidetzako lehen lerroan jartzeko eta osasuna guztion artean zaindu eta sustatzeko, kontseiluetan, erabakiguneetan herritarrak txertatuko ditugu.
 - Eskualde mailako kontseiluak indartuko ditugu.
 - Herritarren formakuntzan sakontzeko estrategiak abiatuko ditugu.
- 9 Tolosan ospitale publikoa eraiki**

 - Eskualdeko eragileekin Tolosaldeako ESIak eman beharreko osasun arreta adostuz.
- 10 Itxarote zerrendak murrizteko kudeaketa garden a ezarri**

 - Herritarrek jaso beharreko arreta garaiz jaso dezaten. Adierazle berriak ezarriko ditugu.
- 11 Emergentziak Zerbitzu Erakundea hobetu**

 - Zentralizazioaren mamuari amaiera emango diogu. Zentro koordinadoreak lurraldeka ezarriz eta bertan Ertzaintzaren SADAEak integratuz.
 - Protokolo bat definitu eta onartuko dugu EAEko hiriburuetakoa, Gasteiz, Bilbo eta Donostiako udaltzaingoak eta Emergentziak arteko harremana zehazteko. Horrela, udaltzainek, osasun larrialdi batera iristen lehenak diren kasuetan, osasun asistentziari dagokionez nola jokatu behar duten jakin dezaten.
 - Halaber, Suhiltzaile, Ertzaintza eta Babesgo zibileko teknikariak zentro koordinadoreetako sanitarioekin hitz egiteko protokoloa landuko dugu.
 - Anbulantzia errekurtsoen mapa berraztertuko dugu.
 - Emergentzien kudeaketa publikatzeko formula aztertuko dugu.
- 12 EPE, Lan Eskaintza Publiko berri garden bat abian jarri**

 - Kontratazio eredu berri batean oinarrituta.

- 13** **Pobrezia, bazterketa nagusitzen den guneetako ikastetxeetan osasun zerbitzua bermatu**
 - Haginlaria, elikadura edo ohitura osasuntsuak.
- 14** **Euskararen normalizazioan urrats kualitatiboa emateko, erabilera plan berria abian jarri**
 - Baliabideak ezarriko ditugu ESI bakoitzean planaren garapenerako. Osakidetza euskaraz lan egitera bideratuko dugu.
- 15** **Mugaz gaindiko hitzarmenetan sakondu**
- 16** **Osakidetza onkologian erreferente bilakatu**
 - Onkologikoaren publikazioa errealitate bilakatzeko, lotura atxikimenduan oinarritutako hitzarmena beteko dugu.
- 17** **Etxez Etxeko zerbitzua ordenatu eta homogeneizatu lurralde guztietan.**
- 18** **Zaintza Aringarrien plana beteko dugu**
 - Eutanasiaren legean sakonduko dugu.
- 19** **Gaixoen Segurtasun plana paperetik ekintzetara pasa**
 - Horretarako baliabideak esleituz.
- 20** **Laborategien Plan zuzentzailea berraztertuko dugu.**
 - Eskualde mailako ospitaleen laborategi beharrak berraztertu eta kontutan hartuko ditugu.
- 21** **Eskualdeko ospitaleen beharrei erantzun**
 - Debagoieneko ospitaleak eta tipologia bereko ospitaleek, osasun arreta eskaintzeko dituzten espezialista gabeziari aurre egingo diogu.
 - Leza ospitalearen beharren azterketa egingo dugu.
- 22** **Etengabeko Atentzio Guneen izaera eta banaketa berraztertu**
- 23** **Hornikuntzarako egiten diren erosketa, behar materialak hemengo sare produktiboarekin egiteko egon daitezkeen aukeren azterketa eta plangintza egingo dugu.**
- 24** **Ikerkuntza klinikorako sare nazionala sortzeko bidea zabaldu.**
 - Dauden ikerkuntza institutuak eta eragileak kontutan hartuaz, ikerkuntza klinikorako sarea indartu eta elkarlanerako egitura hobetu.

- 25** Osakidetzan ardurak izatea eta esparru pribatuan lan egitea bateraezina bilakatu
- 26** Euskal Herri mailako datuak eta informazioa jasotzeko Gai-degiarekin hitzarmena sinatzea.
- 27** Lan Osasunari presentzia eta arreta gehiago eskainiko diogu osasun sistema publiko eta arretako zerbitzuetan
 - Gaixotasun profesionalak eta lan arriskuak sistema publikoan integratzeko lan ildo ireki.

Hezkuntza

DIAGNOSTIKOA

Hezkuntza euskal herritar ororen eskubide indibidual zein kolektiboa da. Horregatik, euskal herritarron garapen integrala eta Euskal Herriaren garapen kolektiboaren zerbitzuan egongo den euskal hezkuntza sistema publiko burujabea garatzea da gure helburua: euskalduna, hezkidetzalea, inklusiboa, parte hartzailea, laikoa, demokratikoa, herritarra eta publikoa.

Hezkuntzak jendarte ikasiaz osatutako Euskal Herria kultu eta ekintzailea eraikitzeko balio behar du. Hau honela, ezinbestean, hezkuntzan ere burujabetza osoa lortzeko politikak erdietsi behar ditugu. Hezkuntza, pertsona aske, kritiko, ahaldun, solidario, euskaldun eleaniztun eta zoriontsuak hezteko tresna gisa ulertzen dugu, jaiotzetik hil arte ematen den prozesu gisa. Hezkuntza, gainera, pertsonak erdigunean kokatuko dituen jendarteari ekarpena egiteko tresna gisa ulertuz, zaintzarako hezkuntzaren beharra azpimarratzen dugu. Honek Euskal Herriaren biziraupen eta garapen zein egituratze sozial, politiko, ekonomiko, kultural eta linguistikorako balioko digu.

Egoera bestelakoa da, ordea, gurean. Azken hamarkadako murrizketa ekonomikoek, Hezkuntza sail ezberdinen utzikeriak eta Madrilekiko menpekotasunak gure hezkuntza sistema blokeora kondenatu dute. Egun dugun sistema erabat agortua dago eta hori Madriletik pairatzen ditugun inposizioen zein bertoko Gobernuaren politiken ondorio da. XIX. mendeko eredia zaharkitua-rekin, XX. mendeko profesionalekin XXI. mendeko ikasleak hezten ari gara.

Indarrean dugun LOMCE legeak zein Hezkuntza sailak egindako horren aplikazioa den 'Heziberri 2020'k hezkuntza sistema merkatuaren logika konpetitiboan kokatu eta bi mailatako ikasleak heztea dute helburu. Gainera, azken urteetan areagotu egin dira segregazio mota ezberdinak; sexuaren arabera-ko segregazioa, hizkuntza ereduaren arabera-ko banaketa eta jatorri ezberdinetako ikasleen edota maila sozio-ekonomikoaren arabera-ko ghetifikazioa handituz doaz. Eta COVID-19ak egoera hau areagotu besterik ez du egin.

Agorpen egoera hau gero eta larriagoa izanik, gure hezkuntza sistemak bul-tzada berritua behar duela argi dugu, paradigma berri bat; iraganeko erreze-tek ez digute balio. Hezkuntza dagoen zokoramendutik atera eta herri gisa ditugun etorkizuneko erronkei erantzuteko proposamen berritua eskaintzen diogu jendarteari. Justizia soziala oinarri, hezkuntzaren funtzio konpentsa-tzailea berreskuratu eta Herri Hezitzailea eraikitzeke proposamena da aur-kezten duguna.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- EAEko hezkuntza sistema Espainiar estatuko LOMCEren eta horren aplikazioa den 'Heziberri 2020'ren menpekoa da.
- Azken bi Hezkuntza sailek, 8 urtez, Hezkuntza lege berria erdiesteko konpromisoa hartu zuten. Baina ez dute egin. Horren ordez PPrekin egin dute Hezkuntzako sasi-akordioa.
- Sistemako langile guztien artean (irakasle hezitzaile, garbitzaile...) %40eko behin behinekotasuna.
- Ebaluazio tresna desberdinek agerian utzi dute ekitatean atzerantz egiten ari garela, Ebaluazio Diagnostiko desberdinak, PISA 2019: eki-tatean atzera egin du EAEk. Estatuko txarrenetarikoak.
- A, B eta D hizkuntza ereduek ez dute behar bezala euskalduntzen. 2006tik jada emaitzak kaxkarrak ziren. A %0; B %33; D %66. 2019an azken urteetako datu txarrenak ditugu.
- Kultur-trasmisioa kolokan: JM Torreal dai: "LOMCEren arabera egin-dako testuliburuak nagusi dira gurean. Soilik %25 inguru ekoizten da berton."
- ISEK mailen arteko ezberdintasunak areagotu dira. X3 aukera gutxia-go ISEK baxuko ikasle batek altuko batek baino.
- Save The Children: "Segregazioa pairatzen duten ikastetxeen %89 pu-blikoak dira. 10etik 4k ikasten dute egoera zaurgarria duten ikaste-txeetan."
- Hezkuntza sailak 13.000.000€ ematen die OPUSeko 6 ikastetxe se-gregatzaileentzat.
- COVID-19ak ikasleen %30a bazterrean utzi du, bitarteko teknologi-koen gabeziagatik zein beste egiturazko beharrizan batzuegatik.
- COVID-19ak ikasleen zati handi bat ere euskararekiko inongo kontak-turik gabe utzi du, horrek, aurrera begirakoan izan dezakeen kaltea-rekin.
- EHBrekin gauzak onartu direnean, gure Hezkuntzak aurrera egin de-zan balio izan du:

DUINDU!**HEZKUNTZA**

- 18.000 beherako errententzat Haurreskolak doan lortu da.
- Eskatzen duten ikastetxeetan sukaldeak eraikitzea eskatu zen (ez da betetzen ari).
- SKOLA Eri aitortza politikoa egitea eta judizializazioa etetea.
- Nahiko ez izan arren, Euskadiko Eskola Kontseiluaren parte hartzaileak zabaltzea lortu da.
- Burokrazia murrizteko neurriak onartu ziren, baina ez da bete.
- Zuzendaritzen eta irakasleen egonkortasunean sakontzea onartu zen baina oraindik ez da bete.
- Eskola garraioaren araudia aldatzea lortu da, baina asko dago hobetzeko.

2024RAKO KONPROMISOAK

HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKO BURUJABEA

Hezkuntza sistema publiko burujabearen norabidean, sistema antolatzeke eredu berritzailea proposatzen dugu. Hezkuntzak behar duen eraldaketa gauzatzeko eta paradigma berri bati ekiteko sistemaren berrantolaketa berri eta ausarta planteatzen dugu. Trantsizio ordenatu bat eman beharko dela aurreikusten dugu eta beharrezkoak ditugun zerbitzu publikoak indartzea izango du helburu.



'Hezigune' sare publiko bateratua sortu

- Eskubide eta betebehar berak izango dituen.
- Doakoa eta unibertsala.
- Euskarazko murgiltze eta mantentze eredu duena.
- Pedagogia feministetan oinarritua, laikoa, eta euskal curriculumean oinarritua.
- Inklusioa eta ekitatea bermatu eta segregazio oro ekidingo duena.
- Gobernantza eredu berria eta administrazio ezberdinen zein maila lokaleko komunitatearen parte hartzea bermatzen dituen.
- Administrazioaren titularitatea eta titularitate publiko-partekatua bilduko dituen.
- Ikastetxeen autonomian oinarritua dagoena.
- Berau garatzeko Plan Estrategikoa egikaritu.

LEGEAK ETA GUNEAK

2

Hezkuntza akordioa

- Egungo eredu agortua gainditu eta gure herriak behar duen hezkuntza sistemaren oinarriak finkatzeko akordio parte hartzaile, garden, demokratiko eta zabala erdietsi.
- Adostasunetan oinarritutako Hezkuntza Akordioa lortzeko alderdi, erakunde, eragile eta jendarte zibileko kidez osatutako mahaia eratu.

3

Euskal hezkuntza legea

- Hezkuntza Akordiotik eratorritako 'Euskal Hezkuntzaren Legea' osatzeko Legebiltzar ponentzia parte-hartzailea martxan jarri.

4

Ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko legea

- Legebiltzarrean erroldatutako (2016/05/20) 'Euskarazko Murgiltze Eredu Gehigarrirako legea' onartuko dugu.

5

Euskal lanbide heziketako legea egokitu.

6

Euskal Unibertsitate legea

7

Eskola Kontseilua (EEK)

- EEKren funtzioak areagotu
- EEK Hezkuntza Saila eta eragile zein jendarte zibilaren arteko harremanak estutzeko erakunde gisa birformulatu.
- Garai berrietara egokitutako 'Euskal Hezkuntza Kontseiluaren Legea' sustatu.

8

Berritzeguneak

- Berritzeguneak euskal curriculumaren garapenerako eta metodologia berritzaileen formakuntza eta inplementaziorako laguntza bitarteko gisa bilakatu.
- Proiektu lokalen garapen, jarraipen eta sustapenerako gune gisa bilakatu unibertsitateekin harremanduz eta 'Berrikuntzarako Gunea' sortuz.

9

Ikuskaritza

- Erronka berriei egokitutako funtzioak areagotu eta legearen bete-zearen eta kontrol funtziotik haratagoko zereginetara zabaldu bere zereginak.

DUINDU!

HEZKUNTZA

10**Gobernantza eredu berritzailea**

- Hezkuntza sistema osoaren eredu bertikala irauli eta demokrazia eta parte hartzean sakondu
- Hezkuntza komunitateak ahalduentzeko bitartekoak sortu.
- Ikastetxeen autonomia indartu eta sakondu.
- Ikastetxeetako komunitate lokalak aktibatu.
- Udalerri mailako Hezkuntza Kontseiluak sortu komunitate guztiaren parte hartzearekin.
- Bereziki ikasle, irakasle eta familien parte hartze demokratikoa sustatzeko bitartekoak eskaini.

ZIKLOAK**Haur hezkuntza**

Hezkuntza jaiotzetik hil arteko prozesua da. 0-6 zikloa bizitzako etapa garrantzitsuenetakoa izanik, hezitzailea izan eta merezi duen aitortza behar du.

1. 0-6 zikloa hezkuntza sistemaren barruan behar duen aitortza izan dezan Sailburuordetza propioa sortu.
2. 0-3 Hezkuntza Sailaren barruan kokatu.
3. Trantsizio gisa Haurreskolak Partzuergo sarea indartu eta hedatzeko plan espezifikoak martxan jarri 2020-2021 ikasturteko matriculazio garairako martxan jarri dena.
4. Partzuergoaren estatutuak aldatu eta garai berrietara egokitzeko konpromisoa hartu, erakunde lokalen erabaki ahalmena handituz, gobernantza eredu partekatuan sakonduz.
5. Ziklo honetan haurren autonomia helburu, pedagogia eta formakuntza berritzaileak bultzatu.
6. Doakotasun osoaren bidean 24.000€tik beherako errententzako doakotasuna bermatu 2020-2021 ikasturtean Partzuergoko zein Udal Haur Eskoletan. 32.000€koentzat 2021-2022 ikasturtean. Zikloaren doakotasun osoa 2022-2023 ikasturtean.

'Hezigune' sare publiko bateratuaren plan estrategikoa

- Sare publiko berri baten norabidean konpromisoak hartu behar ditugu, sistema publiko berritzailea euskalduna, herritarra, parte hartzailea, demokratikoa eta sistemaren ardatz eta erreferentia izan dadin.

7. Legebiltzarrean onartutako Euskal Eskola Publikoari dagokion 23/2016 ebazpena garatu (kanpotik etorritako ikasleak, matrikulazio bulego bakarra, eskolaratze batzorde mistoak sortu, irakasleen egonkortasuna...).
8. 2021eko lehenengo hiruhilekoan hezkuntza proiektu eraldatzai-leak dituzten hezkuntza sistemako ikastetxeen mapa osatu eta hauek garatu eta hedatzeko beharrezko baliabideak ziurtatu (aholkularitza, finantziarioa, formazioa...)
9. Ikastetxeen autonomia erreala bermatzeko baliabideen kudeaketa autonomoa ziurtatu (aholkularitza, finantziarioa, formazioa...)
10. Heziguneren digitalizazio integral, zentzudun, jasangarri eta arduratsua egin.
11. Teknologia berriak sistema eta software libreetan oinarritu, privatizazioa eta datuen salerosketa ekiditeko.

Lanbide Heziketa

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 agendaren arabera, Lanbide Heziketa funtsezko arloetako bat da Hezkuntzan, lan duinean eta hazkunde ekonomikoan garapen jasangarriko helburuak lortzeko.

12. Lanbide Heziketaren legea eraldatzeko urratsak eman.
13. 2020-2021erako Lanbide Heziketa euskalduntzeko plan estrategikoa osatu.
14. Euskaraz ikasteko eskubidea berma dadin titulazioen mapa eta egutegia 2022-2023 ikasturterako diseinatu.
15. LHko zentroak enpresa eta enpresa txiki eta ertainen elkarlanean sakontzeko I+G+B oinarritutako proiektuak martxan jarriko ditugu, tokiko garapena oinarri.
16. LHko zentroyen bidez enpleguan sarbidea errazteko eta bizitza osoko formazio iraunkorra egituratzeko dauden programak berri-ritu, indartu eta trebakuntzan sakondu
17. 2021-2022 ikasturterako, erabaki ahalmena izango duen "Euskal Lanbide Heziketaren Kontseilua" sortu inplikaturako sektore guztien parte hartzearekin.
18. Lanbide Heziketako ikastetxeetako eskola-mapa berria 2022-2023 ikasturtetarako sortu
19. Lanbide Heziketan dagoen goitik beherako erabaki eredu-ua aldatu eta garden, parte hartzaile eta demokratikoa bilakatu.
20. Lanbide Heziketan hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei laguntzak bideratzeko zerbitzu berezitua abian jarri.

21. Lanbide Heziketan ikasle gorrek behar dituzten zeinu hizkuntza interpreteak %100an bermatzea.

Unibertsitatea eta ikerketa

22. Euskal Unibertsitatearen Lege berria osatzeko sektore guztiarekin ponentzia parlamentarioa osatu.
23. UPV/EHUrentzako babesa eman, euskal unibertsitate-sistemaren erreferente egituratzaile gisa, prestakuntzarako eta ikerkuntzarako duen bere potentziala garatzea eta inguruko unibertsitate garatuaren mailetara hurbiltzea ahalbidetuko dioten bitarteko eta baliabideen nahikotasuna bermatuz.
24. Euskaraz ikasteko eskubidea berma dadin titulazioen mapa osoa 2021-2022 ikasturterako euskaraz izatea bermatu.
25. Euskal Herriko Unibertsitate Barrutia sortu.
26. 2021eko aurrekontuetan unibertsitaterako aurrekontua igo eta datozen 10 urtetarako egonkortu.
27. Beken sistema berritu eta galdutakoak berreskuratu.
28. Unibertsitatea merkantilizatzea helburu duten erreforma eta dekretuak eteteko bitartekoak jarri eta eztabaida bultzatu unibertsitate komunitatearen artean, adibidez, 3+2 edota EU2015.
29. Akreditazio Agentzia propioaren bidean urratsak emateko foro espezifikoa sortu.
30. Irakasleria propioaren bidean sektorearen arteko akordioa bultzatu.
31. Magisteritza Eskolak / Hezkuntza Fakultateak definitutako curriculum eta ebaluazio propioaren norabidean kokatzeko formakuntza, aholkularitza eta finantziario zerbitzu berezia sortu.
32. Euskararen erabilera akademikoaren aldeko politikak indartu.
33. Euskarazko on-line unibertsitatea bultzatu eta lagundu. Legegintzaldi honetan on-line unibertsitatea integrala martxan jartzeko konpromisoa.
34. On-line eta biazaldi osoko prestakuntza-eskaintza euskaraz gehitzeko konpromisoa euskal unibertsitate-sisteman.
35. UEUri aitortza egin eta sustatu.
36. GOI.EUS (Goi mailako On-line Ikastetxea) zentro atxikiaren garapenean lagundu.
37. Jakintzaren Jendartearen Euskal Institutua sortu.

Ikerketaren definizio eremua Euskal Herrian kokatu.

Ikerketa Euskal Herriaren behar eta mesedera kokatu.

- 38. EPIPFaren onarpenetik doktoregaiei zor zaien soldatak osorik ordaintzea bermatu.
- 39. Ikerketa publikora bideratutako aurrekontua igo.
- 40. Ikerlari doktoregaien lan baldintzak duindu, hobetu eta lan hizarmenean txertatzeko konpromisoa.
- 41. UPV/EHUko prekarietatearekin bukatu eta ikerketa karrera duinak garatzeko aukerak bermatu.
- 42. Ikasleen nazioarteko mugikortasuna bultzatu, batez ere Erasmus+ programaren bitartez.
- 43. UPV/EHUren AZP/IIP ratioa orekatzeko konpromisoa.
- 44. Akitania, Euskadi, Nafarroa sarea zabaldu eta euskararen normalizazioa jardun-ildoan sustatu.
- 45. Ikasle presoek UPV/EHUen ikasteko duten eskubidea bermatu dadin urratsak eman.

Helduen hezkuntza

- 46. Helduen hezkuntza garai berrietara egokitzeko eremuko eragileekin adosturiko neurriekin eskaintza berregokitu.
- 47. Euskararen irakaskuntzaren doakotasun osoa bermatu.

Herri hezitzailea

- 48. Herri Hezitzaileak egitasmoa bultzatu.
- 49. Aisialdia hezkuntza prozesuaren parte gisa aitortuko dugu eta hezkuntza sistemaren baitan integratu.
- 50. Astialdian Hezteko Euskal Estrategia martxan jarri.
- 51. Euskarazko aisialdi askatzailearen aldeko urratsak emango ditugu, sektorean dabilzan eragile eta elkarten arteko mapa osatuz eta bitarteko propioak eskainiz.
- 52. Auzo/Herri eta ikastetxearen arteko loturak handitu, ikastetxea ingurunera ireki eta ingurunea ikastetxera hurbilduz Herri Hezitzaileak filosofiaren norabidean.

Ikasleak, profesionalak eta familiak

Hezkuntza komunitatea ahaldundu, aktibatu eta hezkuntza proiektuen motor izatea bultzatu beharra dago.

- 53. Haurren Eskubideen Aldarrikapenarekin bat egin eta defendatu.

DUINDU!**HEZKUNTZA**

54. Ikasleria, sektore gisa, hezkuntza sistemaren ardatz eta helburu gisa aitortu eta dagokion parte hartzea ziurtatu, erakundeetan zein ikaste-irakaste prozesuetan.
55. Ikasleen eskubide eta betebeharren dekretua bertan behera utzi, lehentasunez, eta araudi berria diseinatzeko sektorearekin lanketa parte-hartzaile eta demokratikoa gauzatu, oinarrizko hezkuntzan zein unibertsitatean.
56. 2020-2021 ikasturtean hasiera izango duen etorri berrien harre-rarako plan espezifiko diseinatu, inklusioa eta aukera berdintasuna helburu.
57. Etorri berri zein gainerako ikasleek euskarazko murgiltze eredu-
duan ikasteko duten eskubidea bermatu, hau bultzatuz eta baliabideak eskainiz.
58. Ikastetxeetan sentsibilizazio eta prestakuntza dinamikak abiatzearekin batera ikasleen jatorrizko hizkuntza eta kulturari behar duten tokia eta aitortza egiteko; baliabideak bermatu inklusioa egiazki garatzeko. Honetarako, curriculumaren baitan aniztasunaren trataera inklusibo eta integrala bermatu.
59. Kulturartekotasuna zehar-lerro gisa bultzatu eta irakasleak honetan formatu.
60. 'Hamaika esku' programaren balorazioa egin eta sustatu. HBI eta Hamaika Esku programaren osagarritasuna eta erlazioa zehaztu.
61. Egoera konplexudun ikastetxeetan ratioak murriztu.
62. Hezkuntzaren doakotasuna bermatu.
63. 1/2018 matrikulazio dekretua aldatu, sektorearekin adostuta.
64. Eskolaratze bulego bakarrak sortu udalerrietan, "Herriko Hezkuntza Kontseiluen" baitan.
65. Eskola-segregazio pairatu dezaketen ikastetxeen ratioak murriztu.
66. Hezkuntza-berrikuntza proiektuak sustatu, ISEK maila altuak bertara erakartzea xede.
67. Familien formaziorako eta ahalduntzerako plan berezituak bultzatu.
68. Ekipo interdistiplinarrak ezarri, bertan gizarte langileak txertatuz.
69. Pobrezia, bazterketa nagusitzen den guneetako ikastetxeetan osasun zerbitzua bermatu: haginlaria, elikadura edo ohitura osasuntsuak.

70. Ikastetxea gune inklusiboa izan dadin, Hezkuntza Laguntza Premia Espezifikoa eta bereziki Hezkuntza Premia Bereziak dituzten ikasleen familiek ikastetxe eta Berritzeguneeekin komunikazioa eta harremana hobetzeko protokoloa egokitu.
71. HPBak dituzten ikasleen araututako eskolaratze ibilbide osoa definituko duen gida bat sortu, familia guztiak eskura izan dezaten.
72. Aniztasun-adierazpen guztiei erantzuna emango dioten baliabideak bermatu hezkuntza ibilbide osoan zehar (hezkuntza laguntzako espezialista, fisioterapeuta, terapeuta okupazionalak, logopeda, zeinu hizkuntza interpretea, gizarte langilea, HIPIak...).
73. Gizarte langileen egun dauden postuen amortizazioaren "rebersioa".
74. Irakasleen estatutua berritu.
75. Premiaz, irakasleen egonkortasunari begirako urratsak eman.
76. Zuzendaritza taldeak indartzeko neurriak hartu.
77. Irakasle ez diren sektoreei izaera hezitzailea aitortu eta garbitzaileak eta sukaldariak egonkortu.
78. Irakaslegoaren ikasketak garai berrietara egokitzeko hausnarketari ekin eta plangintza estrategikoa diseinatu Magisteritza Eskoletan / Hezkuntza Fakultateekin.
79. 'Partekatuz ikasi' programaren balorazioa egin eta sustatu.
80. EPE eredu berria osatu.
81. Ordezkapenak egiteko araudia egokitu.
82. Irakaskuntzako kidego guztien jubilazio adina eta baldintzak parekatzeko ibilbide orria adostu.
83. Praktika honen sarea sortu.

HEZKUNTZA PROIEKTUAK ETA FINANTZIAZIOA

Curriculum eta pedagogia

Gure hezkuntzak curriculum propioa behar du, berritzailea, etengabe eraberrituko dena, herritarra eta pedagogia feministetan oinarritua.

1. Kanpo esku hartzerik gabeko eta gure jendarte eta errealitatera egokitutako curriculum osatu hezkuntza eragileekin elkarlanean. 2020-2021 ikasturtean balioetan eta gaitasunetan oinarritutako curriculum kaleratu.
2. Materialgintza propioa sortu eta sustatu herrietako curriculumak oinarritzko curriculumaren beharrezko osagarri gisa ulertuz.

DUINDU!**HEZKUNTZA**

3. Ikaslearen beharretara egokitutako bestelako eskola egutegia izateko aukerak zabaldu.
4. Gorputz Hezkuntzarako ordu bat gehiago txertatu gaur egungo bizitza sedentarioari aurre egin eta ohitura osasuntsuak bereganatzeaz gain, haurraren bitarteko naturala den jolasa errekuperatu eta haurraren ohiko bizimoduan espazio guztietara zabaltzeko.
5. Filosofia, musika eta arte zientziei loturiko arloak ardatz gisa kokatu.
6. Pedagogia askatzaileak sustatu eta ikastetxeetan proiektu pilo-toak martxan jarri.
7. Ikastetxeetako kanpo espazioak guneez aske, hezitzaile eta hezkidetzaile bilakatzeko programa sortu.
8. Ikastetxe guztietan espazioen antolaketaren diagnostikoa egin POEMS tresna erabiliz.
9. Ikastetxeei antolaketa aldatzeko aukera bermatu.
10. Berritzeguneetan espazioen antolaketari berritzeari begira adituak kontratatu.
11. Ikastetxeetan espazioen antolaketa hezitzailea bideratzeko zubi lana egingo duten profesionalak liberatu.
12. Osatuko den curriculum propioaren ebaluaziorako institutua egokitu eta indartu (ISEI-IVEI berregokituz).
13. Ebaluazio eredu berritzailea martxan jartzeko esperientzia pilo-toak martxan jarri.

Proiektu lokalak

1. Maila lokaleko hezkuntza proiektuak bultzatu eta sustatu.
2. Ikastetxe eta auzo/herri ezberdinen arteko proiektu partekatuek bultzatu.
3. Proiektu lokalen mapa digitala sortu.

Pedagogia feminista

1. Hezkidetza Sailburuordetza sortu eta lehenengo 6 hilabeteetan 'Hezkidetza Plan Integrala' definitu inplikaturako erakunde eta eragileekin, Skolae erreferentzia gisa hartuta.
2. Indarkeria sexistaren kontrako kontzientziazioa, formakuntza eta protokoloa sortu.
3. HPI hau derrigorrezkoa izango da etapa guztietan eta diruz finantzaturako ikastetxe guztietan.
4. Sexu eta familia aniztasuna oinarrizko curriculumean integratu.

5. Aniztasun afektibo-sexualari zein familia-aniztasunari buruzko prestakuntza eta gaitasunak eman hezitzaileei.
6. Sexu heziketari begirako material pedagogiko eta didaktikoa sortu eta bultzatu.
7. Eskola-jazarpenaren edo bullyingaren aurka indarrean dauden protokoloak gauzatzeko bideak ireki eta baliabide nahikoak bideratu.
 - Indarkeria sexistaren kontrako plan integrala diseinatu, lehentasunez.
 - LGTBIQ+ fobien kontrako protokoloak txertatu.
8. Oinarrizko curriculumean isla izango duten hezkuntza politika positiboak bultzatu aitortza, errespetua, aniztasuna (funtzionala, ideologikoa, sexuala, identitarioa...) eta elkarbizitzaren alde.

Trantsizio ekologikoa

1. Ikastetxeetan “%50 proiektua” sustatu.
2. Trantsizio ekologikoa curriculumean ikasgai zehatz zein zeharlerroko gisa txertatu.
3. Okm eskolak bultzatu garraio aztarna txikitzeko.
4. Energia berriztagarrien aldeko kanpainak sustatu eta eko-ikastetxeak bultzatu.

Laikotasuna

1. Ikastetxeak, espazio publikoa diren heinean, edozein erlijiori dagokion kultura gunerik egon dadin ez da diruz ahalbidetuko.
2. Progresiboki, Hezkuntza Akordiotik eratorritako adostasunei jarraiki, erlijioa oinarrizko curriculumetik atera eta laguntza ekonomikoak ezabatu.
3. Munduko erlijio ezberdinen inguruko ezagutza bermatu, beti ere, aniztasuna, inklusioa eta dogmarik gabeko ikuspegi zientifiko eta kritiko batekin.

Ikastetxe integralak eta eskola mapa

1. Eraikuntza berrietarako 0-16 urte bitarteko ikastetxe integralak bultzatu.
2. Beharrezkoa den eremuetan Eskola Mapak berritu, eskola komunitatearen parte hartzea bermatuz eta garai berrietara egokituz.
3. Trebiñoko ikasleek EAeko ikasleen baldintza berberetan sarrera izan dezaten euren ikasketetara, indarrean diren araudiak egokitu eta egokitu beharreko araudietan kontutan izan. Kasu, unibertsitaterako beketan.

DUINDU!

ETXEBIZITZA

Jantokitik jangelara

1. Jantoki publikoen araua aldatu tokiko elikagai, garaiko eta agroekologikoa sustatzeko bitartekoak eskainiz.
2. Jangelen tokian tokiko autokudeaketarako aukera zabaldu eta eredu agroekologiko, osasungarri eta hezitzaileari bultzada eman.
3. Jangelak gune hezitzaile bilakatzeko urratsak eman eta curriculumean dagokion tokia eskaini.
4. Langileei izaera hezitzailea aitortu eta egungo lan baldintzak bermatuko dituen eredia ziurtatu.
5. Nahi duen ikastetxe orori sukaldea eraikitzeke aurrekontu-partida konkretua sortu.
6. Legebiltzarrean 2019ko urriaren 24an onartutako legez besteko proposamena, eskola jantokiaren egungo kudeaketak behar dituen aldaketei buruzkoa, garatuko dugu.

Eskola kirola

1. Eskola Kirola hezkuntzaren baitan kokatu.
2. Eskola Kirolaren planifikazioa ikastetxetik bideratu.
3. EAEko eskola kirolaren 125/2008 dekretua 3 herrialdeetan betetzea bermatu.
4. Jarduera fisikoaren sustapenaren bidez ohitura osasuntsuak eta inklusiora sustatu.
5. Ikastetxe bat baino gehiago dagoen herrietan, ikastetxeetako haurrak elkarrekin eta elkarren artean kirol ekimenak egin ditzaten bultzatu.

Finantziazioa

1. Hezkuntzaren doakotasuna bermatu.
2. Hezkuntzako murrizketak eten.
3. Progresiboki 2024rako BPGren %6ra hurbiltzeko urratsak eman.
4. Goi Hezkuntzako inbertsioa Europako herrialderik garatuenetan dauden mailetara, 2022rako BPGaren % 1,3 bezalako gastua bermatuz.
5. Azken urteetan langileek galdutakoa eroste ahalmena errekupe-ratzeko konpromisoa hartu.

6. Progresiboki ikasle ratioa etapa guztietan txikitu EU batez bestekora heldu arte.
7. 2020an zehar ikastetxeen azpiegitura beharren mapa osatu eta lehentasunak finkatu.
8. Hezkuntzaren doakotasun osoaren bidean urratsak eman material-pedagogiko, garraio, otordu eta bestelakoetan.
9. Unibertsitate eta ikerketaren finantziazioa handitu eta aurrekontua egonkortu.

Etxebizitza

DIAGNOSTIKOA

Gaur egun etxebizitzarekin dugun arazoa kontuan izanik, etxebizitza larrialdi baten aurrean aurkitzen garela adierazi genezake. Ingurura begiratu besterik ez dugu konturatzeko jendartean dauden arazoak etxebizitza bat arrazoizko prezioan eskuratzeko: diru sarrera baxuak dituztenak eta egoera zaurgarrietan aurkitzen diren asko etxebizitza mantendu ezinik dabilta, edota alokairuak ordaindu ezinagatik kaleratuak izaten ari dira; gazteak bizitza proiektu bat aurrera eramanez ahal izateko emantzipatu ezinik dabilta; familia askotan diru sarreren gehiegizko zati bat bideratzen da etxebizitza kostuei aurre egitera; hainbat eremutan segregazio sozioekonomikoa areagotzen ari da;...

Etxebizitza duin eta egoki baterako eskubidea Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 25. artikuluan jasoa dago, beraz, eskubide horri erantzun behar zaio. Eta hemen, eskubide hori Etxebizitza Legean onartua dagoen arren, ez dago bermatua herritar orok etxebizitza duin eta egoki bat eskuragarri izatea, eta are gutxiago arrazoizko prezioan.

Etxebizitza eskuratzeko bide gisa alokairuaren aukera seikoiztu egin da azken hamarkadan, eta gaur gaurkoz 115.000 familia bizi dira alokairuan Euskal Autonomia Erkidegoan. Era berean, alokairuen prezioak neurrigabeki garestitu dira azken urteetan, eta kasu askotan, abusuzko igoerez hitz egin genezake. Egoera hau gehien sufritzen ari direnak gazteak dira, bereziki emakume gazteak. Beraien bizitza proiektuak guztiz baldintzatuak gertatzen ari dira etxebizitzaren alokairuaren prezioengatik. Baina gainera, putre funtsen presentzia Euskadin areagotzen ari da azken aldian, eta honek gero eta pertsona gehiagori eragiten die.

DUINDU!**ETXEBIZITZA**

Zer egin du Eusko Jaurlaritzak egoera honen aurrean?

- Babes publikoko etxebizitzaren sustapena ez da inolaz ere nahikoa dagoen eskaerari aurre egiteko, batez ere alokairura bideratutakoa.
- Gobernuak uko egin dio alokairuen prezioen kontrolerako mekanismoak jartzeari, alokairuak mugatzeko aurkeztu genuen legearen aurka joz.
- 2015ean onartu zen Etxebizitza Legeak ez du ia garapenik izan. Adierazgarria da hutsik dauden etxebizitzekin dagoen problematikari aurre egiteko neurriak ere ez dituela arautu.
- “Gaztelagun” alokairurako laguntza programa porrot ikaragarria izan da.

Etxebizitza eraldaketa sozialerako ezinbesteko tresna da, aurrera eraman nahi diren bizi eredu zein jabetza-eredu izaerari erreparatuz gero. Etxebizitza politika zuzen eta eraldatzaile batek aurrean ditugun hainbat erronkei erantzun diezaioke: emantzipazio arazoari, zaintza krisiari, segregazio eta bazterketa sozialari,... Orain arte espekulazio tresna bezala erabile dena benetako oinarrizko eskubide gisa ulertu behar da, eta kohesio soziala helburu izango duten etxebizitza politika egokiak beharrezkoak dira.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- 115.000 familia alokairuan bizi dira.
- Higiezinaren Eskaintzari buruzko Inkestaren arabera, alokairuan eskaintako etxebizitzaren batez besteko errenta %26,5 igo da 2013tik, batez ere Gipuzkoan, %38 baino gehiago igo baita.
- Alokairu Merkatuaren Estatistikaren arabera, 2016 eta 2018 artean alokairuaren prezioa %8,2 igo da Euskal Autonomia Erkidegoan.
- 2018an 847 etxegabetze gertatu ziren alokairua ez ordaintzeagatik; 2016an, berriz, 632 izan ziren [Iturria: botere Judizialaren Kontseilu Nagusia].
- Emantzipatzeko batez besteko adina Europako batez bestekoa baino ia lau urte berantiarragoa da. Italia, Eslovakia, Kroazia eta Malta bakarrik daude Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik. Emantzipazio tasa hiru puntu jaitsi da 2007tik [Iturria: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)].
- Egin nahi diren goi-mailako ikasketak askatasunez aukeratzeko eskubidea ere erabat baldintzatu da, ikasle askok ezin baitituzte hiriburuetako alokairu-prezioak ordaindu.
- Gazte batek bere soldataren %69,3 bideratu behar du hileko alokairu-errenta bakarrik ordaintzeko [Iturria: Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK)].
- Familia batek ez luke bere diru-sarreraren %30 baino gehiago erabili

beharko etxebizitza gastuak ordaintzeko. Euskal Autonomia Erkidegoan, batez beste, %33an dago alokairuak suposatzen duen kostua [Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko bazterkeriari eta gizarte-garapenari buruzko txostena, 2018].

- Emakumezko eta gizonen arteko soldata arrakalak era zuzenean baldintzatzen du etxebizitzarako sarbidea aukera berdintasunean ematea. Emakumeek bere soldataren %73 bideratu behar dute alokairura, gizonaezkoak baino 13 puntu gehiago.
- Etxebiden izena emandako emakumeen kopurua (42.047) %31 hazi da 2015 eta 2018 artean. %37,1ak 35 urte baino gutxiago ditu. [Iturria: Etxebide].
- 20.840 etxebizitza huts daude berehalakoan erabilgarri – Bi urte baino gehiago okupatu gabe – Euskal Autonomia Erkidegoan [Iturria: Eusko Jaurlaritza].
- 86.325 etxebizitza okupaziorik gabe, hauetatik 58.697 hutsik, eta hauetatik 35.647 kudeagarriak [Iturria: Etxebizitza hutsen estatistika, 2015, Eusko Jaurlaritza]
- Urkullu lehendakariaren gobernuak egon den zortzi urteetan, etxebizitzako gastu osoa ia erdira murriztu da. 2010ean Eusko Jaurlaritzak bere aurrekontuaren %2 bideratzen bazuen etxebizitza-programetara, 2020an % 1,3 bideratuko du (150,6M €, 11.744M €-tako aurrekontutik).
- Ibarretxe lehendakariaren azken legegaldian urtero alokairura bideratutako babes publikoko ia 1.000 etxebizitza eraikitzen hasten baziren, Urkullu lehendakariaren gobernuetan urtean 300 etxebizitza baino ez dira egiten hasi.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Larrialdirako neurriak

COVID-19aren pandemiak inoiz bizi izan ez dugun agertoki batean murgildu gaitu eta premia berriak sortarazi ditu. Larrialdiaren ondorioz hartutako euste-neurriek ondorio ekonomiko larriak izan dituzte herritarrengan. Muga mugako egoeratan daude momentu honetan EAEko milaka herritar, beren diru sarrerak era bortitzean murriztuta edo diru sarrerarik gabe, beren oinarrizko beharrei erantzuteko zailtasun handiekin. Lehentasun osoz, hauei erantzun behar zaie, eta horretarako, hainbat neurri hartu behar dira berehalakoan.

1.1.- Babes publikoko alokairuetan hartu beharreko neurriak:

- Alarma egoera amaitu eta hurrengo 6 hilabetetan, egoera honen ondorioz diru sarrerak murriztuak ikusi dituzten kasuetan, parke publikoko etxebizitzetan zein zuzkidura bizi-

DUINDU!**ETXEBIZITZA**

tokietan ez da alokairurik kobratuko, ez Jaurlaritzarena den parke publikoan, ez udalena den parke publikoan, ez Alokabidek kudeatzen dituen bitartekaritza programetako alokairu babestura bideratutako etxebizitzetan, ez erakunde edo enpresa pribatuek kudeatzen dituzten alokairuko babes publikoko etxebizitzetan (Benta Berri Donostian, Vitalquiler Gasteizen,...), ezta azalera eskubidean hirugarrenei utzitako alokairu sozialeko babes publikoko etxebizitzetan.

- Aurreko puntuan adierazitako 6 hilabetetako epea pasa eta gero, berehalakoan, beraien diru sarrerak murriztuak ikusi dituzten herritarrei, diru sarreren arabera egokituko zaizkie alokairu babestuko parkearen errentak.
- Zuzkidura bizitokietako maizterrei, hurrengo hilabeteetan amaituko zaizkien bost urtera arteko luzaezinezko kontratuak dituzten kasuetan (besteak beste Gasteizko Arriagako atariko 79 pisuekin edo Hernaniko Sagastialdekoekin gertatzen den bezala) eta zaurgarritasun-egoeran dauden guztiei (60 urtetik gorakoei, ezinduei edo tartean dauden adingabeei, eta maiatzaren 14ko 1/2013 Legean jasotako guztiei) salbuespenez, urtebetez luzatu behar zaie kontratua, edo bestela, bizileku-alternatiba egokia eman arte, nazioarteko eskubide eta jurisprudentziak eskatzen duen bezala.

1.2.- Prestazio eta laguntzei dagokienean, hala nola beraien kudeaketarako sortzen diren beharretan, hartu beharreko neurriak:

- Etxebizitza prestazio osagarria (EPO-PCV) eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa (EPE-PEV) berehalakoan bermatu behar zaie egoera honen ondorioz beraien diru sarrerak murriztuak ikusi dituzten herritarrei. Era berean, prestazio hauen zenbatekoak handitu behar dira eta diru sarreren eta alokairu prezioen arabera kalkulatu behar dira kasuan kasu, etxebizitza gastuetara diru sarreren %30a baino gehiago bideratu behar ez izana printzipio gisa hartuz.
- Larrialdietarako Laguntzetan (GLL-AES) alokairua edo hipoteka mailegua ordaintzeko gehienezko zenbatekoak igoiko dira eta hauek jasotzeko hainbat baldintza malgutu edo/eta ezabatuko dira, hauek jasotzeko aukerak zabaldu eta tramiteak errazteko helburuz.
- Egoera berri guzti hauek aztertzeko eta kudeaketa ahalbidetzeko Alokabideren bitartekoak indartu behar dira, sortu diren eta sortuko diren beharrezanean ahal bezain laisterren erantzun ahal izateko, batez ere pertsonalaren aldetik. Gainera, udaletako gizarte zerbitzuekin elkarlana sendotzea ezinbestekoa da.

1.3.- Etxebizitza parke publikoa babesteko hartu beharreko neurriak:

- Bertan behera utziko dira babes publikoko etxebizitza parkeko edozein etxebizitza saltzera bideratutako oraingo eta etorkizuneko ekintza guztiak, baita babes publikoa duten sustapen pribatuen salmenta ere, funts putreen eta etxebizitza-edukitzaile handien eskuetan erortzea ere ekidituz.
- Lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea gauzatuko da babes publikoko etxebizitzaren salmentan, etxebizitza-parke publikoa handitzeko helburuarekin.

1.4.- Alokabidek hartu beharreko neurriak kaleratzeak guztiz ekiditeko:

- Alokabidek bertan behera utziko ditu kaleratze prozedura judizial guztiak, eta berriz aztertuko ditu kasu guztiak.
- Alokabidek ez du kaleratze prozedura berririk hasiko.
- Alokairu babestuko parkearen alokairu kontratuak automatikoki luzatuko dira.

2

Etxebizitzarekin diharduten fondo espekulatibo eta etxebizitza-edukitzaile handiak mugatzeko, kontrolatzeko eta euren eragina leuntzeko neurriak hartu.

3

Merkatu pribatuan etxebizitzaren gehiegizko alokairu prezioei mugak jarri ahal izatea legez arautu

- Alokairuaren prezioa kontrolatzeko mekanismoak ezarriz

4

Alokairuko eskaintza arrazoizko prezioan izan dadin sustatzeko eta alokairuen gehiegizko prezioei muga jartzeko norabidean neurri fiskalak ezarri

- Erreferentziazko indizeak markatzen duen prezioaren gainetik dauden alokairuentzat, alokairutik errenta jasotzen duten pertsonen zergaren tipo altuagoak eta progresiboagoak ordaintzea, errenta mailaren arabera.
- Erreferentziazko indizeak markatzen duen prezioaren azpitik dauden alokairuentzat, alokairutik errenta jasotzen duten pertsonen zergan hobariak jasotzea.
- Etxebizitza alokairua ordaintzen duten herritarren kenkariak egokitu eta ponderatzea errenta mailaren arabera.

5

Alokairuzko parke publikoa handitu

- Eraikitako etxebizitzaren erosketaren bitartez –berehalako in-terbentzioa- eta eraikuntza sustapen berrien bitartez.
- Urbanizatua dagoen lur-zorua aprobetxatuz, lur-zoru berriaren okupazioa saihestuz ahal den neurrian.

DUINDU!

EUSKARA

6**Babes publikoko etxebizitza sustapen guztiak alokairura bideratu.**

- Egoera oso txarrean dauden eraikinak erosi eta birgaitu edo berreraikiz.

7**Parke publikoko saldu gabeko etxebizitza guztiak alokairura bideratu.**

- Eroslehasun-eskubidea eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritu.

8**Erabilerarik ez duten etxebizitza eta eraikinak mobilizatu.**

- Jenderik gabeko etxebizitzaren erregistroa martxan jarritz.
- Etxebizitza hutsa dagoenaren deklarazioa egiteko prozedura zehaztuz.
- Jenderik gabeko etxebizitzetara aplikatuko zaien kanona ezarritz.
- Erabiltzen ez diren etxebizitzak eta eraikinak mugiaraziz.
- Bitartekaritza-programa erakargarriak eta bidezkoak indartuz.
- Hala badagokio, eraikinen kalifikazioak aldatzeko aukera emanez, etxebizitza bihurtzeko.

9**EAE etxegabetzerik gabeko lurralde izan dadin urratsetan sakondu**

- Bigarren aukerako lege bat aurkeztuz, bankuko jardunbide egokien kodeak jasotzen dituen aukerak jasoko dituenak: kapitalaren ordainketan eteteak, kitak edo alokairu soziala aurreikusten duten neurriak, ordainetan ematearekin batera.
- Ematen diren etxegabeteak saihesteko beharrezko protokoloak egokituz eta gauzatuz.
- Atzeraeraginezko ordainezko ematea arautuz, hau da, zor osoa ordaintzetik askatuz bankuak hasitako prozedura baten ondorioz ohi-ko etxebizitza galdu duten familia guztiak.
- Alokairuen gaingarestitzearen ondorioz gerta daitezkeen etxegabeteak saihesteko neurriak ezarritz.

10**Erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatiboak sustatu.**

- Honelako esperientziak ezagutarazten lagunduz, eredu hau hedatzeko helburuz.
- Elkarlaneko etxebizitzak-esperientziak sustatuz (gazte zein edade-terei zuzenduak, belaunaldi artekoak barne).
- Honelako proiektuak aurrera eramanez nahi dituztenentzat aholkularitza-zerako bulego tekniko bat sortuz.

11

Zahartua dugun etxebizitza parkearen birgaitzea

- Etxebizitza parkean trantsizio sozioekologikorako aurrerapausuak emanaz.
- Etxebizitza parkearen efizientzia energetikoa hobetuz.
- Birgaitzea eta auzoen berroneratzea lehenetsiz, eraikuntza berrien sustapenen aurretik.
- Birgaitzea sustatuz, bai efizientzia energetikoan hobetzeko eta baita irisgarritasuna bermatzeko.
- Birgaitze plan integralak aurrera eramateko diru-laguntza deialdiak indartu, udalekin elkarlanean jardunaz.
- Etxebizitzen birgaitze indibidualak aurrera eramateko diru-laguntza deialdiak indartuz.
- Finantza tresna egokiak eskuragarri jarritz, batez ere behar handienak dituztenentzat.
- Irisgarritasun arazo larriak dauden kasuetan beharrezko interbentzioak ahalbidetuz, inor ez dadin bere etxetik irten ezinik preso aurkitu.

12

Etxebizitza legearen garapen integrala, etxebizitzarako eskubide unibertsala gauzatzeko tresna baliagarri gisa. Horretarako, legearen garapena amaitzeko eta garapen hori burutzeko beharrezkoak diren bitartekoak eskuratzeko konpromisoa hartzea.

Euskara

DIAGNOSTIKOA

Euskara da herri egiten gaituena; izena ematen diguna eta euskaldun identitatearen adierazle. Euskararik gabe ez da Euskal Herririk. Askotariko herri honetan, gero eta herri anitzagoa, aberatsagoa denean, gure berezko hizkuntza dugu hizkuntza ofizialetako bat. Nolanahi ere Euskal Herriko hizkuntzek ez duten estatus bera, eta zoritxarrez ezta garapena bera ere, Covid19aren osasun larrialdian ere baieztatu den bezala. Izan ere, gurea hizkuntza gutxitua baita etengabe hizkuntza hegemonikoekin interakzioan gero eta konplexuagoa eta globalizatuagoa den gizartean.

DUINDU!**EUSKARA**

Euskara, askotariko Euskal Herriko kultura, jatorri guztietako herritarren elkargune bilakatu beharko genuke. Aukera berdintasunerako, inklusiorako eta kohesiorako tresna, hori da euskara. Bakoitzaren eta guztion hizkuntza eta kulturaren aitortzatik. Euskaldunok, nahiz eta bigarren mailako herritar izan gure herrian, atzerritar sentitu, hala egin izan dugu eta egiten jarraituko dugu. Baina gurea denaren aitortza eta estatusa aldarrikatzeaz gain, horretarako Erakunde nagusiek, agintari nagusiek hiztunei ekosistema egokia bermatu behar diete euskaraz bizitzeko. Erabilera areagotu nahi bada, erabilerarako beharrezkoa baita ekosistema egokia izatea; norbanakoan erantzukizuna jartzetik harago. Biziraupen kontua da, gauden errealitate eta baldintzetatik abiatuz. Euskara biziberritzea prozesu kulturala, soziala, politikoa eta, batez ere, prozesu kontziente delako.

Egindakoaren, lortutakoaren aitortzatik eta abiapuntutik. Baina kontzientean izanik ere atzean utzi ditugun herritar guztiak; eta Euskararen asimetria hizkuntza nagusiekiko. Benetan oreka bilatu nahi bada, benetan bizikidetzak helburua lortu nahi bada, gobernu honek espainiar nazionalistek euskararekiko egiten duten jokabide maltzurari begiratzeari utzi eta gure gizarteari, herritarroi, eraiki nahi dugun komunitateari gehiago begiratu behar dio. Hizkuntza eskubideak ere, gainerako eskubideak bezala hartu behar ditu eta eskubide horien berme izan behar da.

Gauden mundu globalizatu honetan diskurtso politiko positiboetatik haragoko jauzia ezinbestekoa da. Euskararen etorkizuna baldintzatzen duelako egunerokoan egiten den hizkuntza politikak.

Egia da, urratsak egin direla hainbat esparrutan, adibidez: 179/2019 dekretuaren onarpenarekin, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa; euskarazko komunikabideekin lorturiko akordioa eta sinaturiko hitzarmena; euskara eremu sozioekonomikoan sustatzeko planaren onarpenarekin. Baina aurrera egin diren urrats guztiak, ezerezean utzi ditu Covid19aren ondoriozko larrialdiak. Egun batetik bestera eman den atzerakada izugarria izan da, bereziki Jaurlaritzatik gainerako erakundeetara edo eta Osakidetzara zein bestelako eremuetara igortzen ziren jakinarazpen, arauetan.

Halaber, egia da ere, legegintzaldi osoan zehar diskurtso politetik harago Jaurlaritzak ez duela urrats kualitatiborik eman Osakidetzako Euskararen erabilera normalizatzeko bigarren plana betetzeko 2013-2019; Segurtasun sailean euskararen erabilera normalizatzeko plana 2014-2017 betetzeko; administrazio publikoan hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen normalizazioan urratsak emateko; euskararen doakotasuna bermatzeko; Lanbide Heziketa euskalduntzeko; hezkuntzan behin eta berriz berresten ari diren euskararen emaitza kaxkarrei buelta emateko eta hezkuntzan hizkuntza trataera aldatzeko; euskarazko hizkuntzen teknologiei buruz lan ildo irekitzeko, hizkuntzen industrian - teknologian berariazko plan bat erredaktatzeko; belaunaldi berrietan euskara bizia biziberritzeko plan estrategikoa abiatzeko; edo eta gizartearen eboluzio demografikoa ikusita, estrategikoak izan daitezkeen eremuetan ikuspegi falta, esparru soziosanitario, zaintza eremuan esaterako edo eta hizkuntza kompetentziak eskuratzeko ikasteko molde berrietan.

Kezkaz bizi izan dugu, diskurtso positiboen argudioen aitzakian, sustatzen eta garatzen ari den hizkuntza politikaren, marko juridiko politikoaren eragina gutxiestea eta norbanakoaren erantzukizuna handiestea.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

Euskararen hiztunen galtzeak ez du etenik izan. EAEko 40 udalerrri baino gehiagotan euskararen hiztun elkarteak hiztunak galtzen ari da (EUSTAT 2016). Adibidez, Beizama, Elantxobe, Errigoiti, Izurtza, Hernialde, Etxebarria, Belauntza, Aulesti, Leintz-Gatzaga, Bidania-Goiatz, Gautegiz Arteaga, Amezketeta, Gaztelu, Garai, Berriatua, Muxika, Ondarroa, Zeanuri, Ubide, Forua, Leaburu, Ziortza-Bolibar, Laguardia, Zerain, Aramaio, Gatika, Mañaria, Ea, Ispaster, Zegama, Ereño, Lekeitio, Iurreta, Bermeo eta Mendexa. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalerrri euskaldunenak erdalduntzen ari dira. Oso kezkarria da sufritzen ari garen akulturazio prozesua, akulturazio horrek, hain zuzen, euskaldun batzuei euskara erabiltzeari uztera bultzatzen du. Hori da, besteak beste, orain arteko hizkuntza politikaren ondorioa

- Hezkuntzan, euskararen emaitzak kaxkarrak dira. Azken Ebaluazio Diagnostikoko emaitzak 2017koak:
- Euskara 4. Lehen hezkuntzan: goranzko tendentzia oso txikia batez bestekoan, baina oso urruti 2009ko datuetatik. 2009an: 250 eta 2017an: 239
- Euskara 2. DBHn: 2015eko batez besteko bera: 241. 2009ko 250tik behera. Tendentzia mantendu egiten da. Maila aurreratua esanguratsuki jaitsi egiten da; tarteko maila zabaldu eta hasierako maila 2015tik jaitsi.
- Hezkuntzako 2019ko Ebaluazio Diagnostikoko emaitzak oraindik ez dira publikoak. Baina komunikabideen bidez filtratu denaren araberako emaitzak kezkarriak dira.
- Jaurlaritzak helburu gisa jarri zuen euskal hiztunak 2020an 25 urtetik beherakoen %75 izatea. Dagoeneko helburua bete dagoen.
- Osakidetzako erabilera normalizatzeko bigarren plana 2013-2019 ez da bete.
- Segurtasun sailean euskararen erabilera normalizatzeko 2014 – 2017 plana ez da bete.
- Helduen alfabetatze eremuan anabasa handia da; gizarte ekimeneko euskaltegietan irakasleak lortzeko eta mantentzeko zailtasunak; lan baldintzak prekarioak dira gizarte ekimeneko euskaltegietan. Esparrua garai berrietara egokitu, ordenatzeko behar handia. Euskaltegi sareak eta horien osagarritasuna aztertu beharra dago. Euskaltegien mapa definitzeko.
- Euskararen doakotasunean ez da urratsik eman beka sistematik eskubide sistemara pasatzeko.

- 2/2012, otsailak 9koa, 6/2003 aldatzen duena, Pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuak ez ditu hizkuntza eskubideak bermatzen.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Euskaraz bizi eta lan egiteko ekosistema eraikitzeke politikak ezarri bizitzako eremu guztietan: administrazioan, esparru sozioekonomikoan, osasungintzan, Ertzaintzan, aisialdian, kirolean, komunikabideetan.

- Euskara agenda politikoaren erdigunean kokatu nahi dugu. Euskara herri honen kohesio, bizikidetzeta eta etorkizunerako ardatza bilakatu.

2

Herritar guztien hizkuntza eskubideak defendatzeko araudia aplikatu

- Errespetatu eta bermatzeko lan ildoak garatuko dugu.
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzkoa garai berrietara egokituko dugu.
- Horretarako adostasunak bilatuko ditugu, onartu eta garatu dadin.
- Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa 17/2019 dekretua, garatzeko elkarlana abiatuko dugu eta neurriak hartuko ditugu udalekin, Eudel eta Udalbitzarekin.

3

Herritarrek euskaraz ikasteko duten eskubidea bermatzeko legea aurkeztu

- Euskaraz ikastea C1 arte doakoa izatea bermatuz.
- Leihatila bakarria ezarriz.
- Herritarren arteko desberdintasunekin bukatuz.
- Laguntza sistematik, eskubide markora pasatuz.

4

Administrazioa euskalduntzeko neurriak abian jarri

- Osakidetzeta eta Ertzaintzako erabilera plan berriak definitu eta planak garatzeko baliabideak jarriko ditugu.
- Lan Eskaintza Publikoetan hizkuntza ofizial biei trataera bera emateko neurriak hartuko ditugu. Gaur egungo langileen egoera eta lanpostuaren izaera kontuan hartuta eta salbuespenak aurreikusita.
- Administrazioa euskalduntzeko planen amaiera datak zehaztea. Horren bidez, administrazioako atal eta erakunde bakoitzak zehaztuko

du, jendaurrean, noiz amaituko duen bere euskalduntze prozesua (beti ere, hiru legealdiko epemugarekin). Euskalduntzea esan nahi du: arduradun eta langile guztiek beren lanposturako adinako euskara gaitasuna ziurtatuta izatea, euskaraz lan egiten hasita izatea (ele bietan) edo euskaraz lan egitea, dokumentazio guztia euskaraz (ere) sortzea, bere zerbitzu guztiak euskaraz (ere) eskaintzea...

- Legebiltzarraren euskalduntzea arautuko duen Legea. Alderdiei eragingo die, eta euskarazko funtzionamendua izango du oinarri. Jakina, parlamentarien euskalduntzea sartzen da hor. Gaur egun, ez legebiltzarra, ez Batzar Nagusiak ezta Udalbatzarrak ere ez dauden ezein arauren mendean.
- Hizkuntza Paisaiaren araudia. Euskararen Lege berriaren puntu nagusietako bat behar du izan. Arlo publiko eta pribatuari eragingo dio. Ezingo da euskaraz ez dagoen hizkuntza paisaiarik egon. Gaztelania hutsez daudenak euskaldundu beharko dituzte beren jabeek.
- Araudiak betetzen direla ziurtatzeko sistema: auditoreak, protokoloak eta zehapenak.

5

Euskal Komunikabideetan euskararen normalizaziorako hizkuntza politika garatu

- Sinaturiko Hitzarmenetik markoaren egituraketara jauzia emateko lan ildoak ezarriko dugu.

6

Esparru soziosanitarioan, zahar egoitzetan, etxez etxeko zerbitzuetan, zaintza esparruan zerbitzua euskaraz bermatzeko politikak ezarri -komunikazio – gaitasunak laneko konpetentziekin estuki lotuz, hots zaintzarako euskara berezia lortzeko prestakuntza zaintza lantoki, esparruetan, eskualdez eskualde. Herrialde bakoitzean, eskualde batetik hasiaz modu progresiboan.

7

Lanbide Euskalduntzeko lan ildoari ekin

- Prestakuntza desberdinetan euskara ikastaroak komunikazio gaitasunak laneko konpetentziekin uztartuz.

8

Gazteen eremura begirako Euskara Biziaren Plan Estrategikoa egin eta garatu

- Esparru hauei eragingo diena: hedabideei, Ikus-entzunezkoen munduari (EITB, plataforma digitalak, zinema, etab.) mundu digitalari (IKT, bideo-joko, etab.) aisialdiari, kirolari eta kulturari. Planak indarra eragingo du, euskararen ahozko erregistro informala sustatzeko eta garatzeko estrategietan eta ezartzeko politiketan.

9

Ingurune digitalean hizkuntza politika egin

- Euskara erdigunean izango duen hizkuntza teknologiak bultzatzeari buruzko berariazko plan baten erredakzioari ekingo diogu, Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuna, Industria eta Hizkuntza Politika

DUINDU!

KULTURA

sailburuordetzen artean, horretarako kontuan izanda Europar Batasunean zein Estatuan alor horretan bideratzen ari diren ekimenak.

- Lehen puntuan aipatutako elkarlana bideratzeko eta Hizkuntza Teknologien EAEko plana abiarazteko eta kudeatzeko sor dezala Jaur-laritzaren baitan zeharkako izaera izango duen Zuzendaritza propioa sortuko dugu.
- Hizkuntza teknologiaren esparruan I+G+b babesteko, garatzeko eta sustatzeko, berariazko izaera juridikoa izango duen gunea sortzeko kudeaketei ekingo diegu, dagoeneko sektorean lanean ari diren eragileekin batera eta adostua.

10**Federazio eta kirol klubekin euskara hizkuntza bizia bilakatzeko neurriak hartu****11****Euskararen arnaguneak indartu**

- Euskara nagusi den gune funtzionalak saretu eta zabaltzeko politikak sustatuko ditugu.
- Euskararen arnaguneak indartzeko elkarlana bultzatuko dugu Udallerri Euskaldunen mankomunitatearekin.
- Osasun zerbitzuetan euskaraz funtzionatuko duten guneak izendatu eta saretuko ditugu hiru herrialdeetan zehar.

12**Hiriburuetarako tokian tokiko administrazioarekin neurri propioak lantzeko plangintza aurkeztu**

- Bilbo, Irun eta Barakaldorekin abiatuko gara.

13**Esparru sozioekonomikoan euskararen normalkuntza sustatzeko plana garatu**

- Esparruko eragileekin landuz eta egungo egoerara egokituz.

14**Kontseiluaren protokoloan jasotako neurriak indarrean sartu****15****Euskaltegien sarea garai berrietara egokitzeko neurriak hartu**

- Mapa aztertuko dugu, mapa berria definitzeko; ordenatzeko; finantziazioa zehazteko.

16**Kontsumitzaileen 2/2012 otsailak 9koa legea aldatu**

- Pertsona kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuak hizkuntza eskubideak bermatzeko.

17**Euskararen normalizazioa lortzeko hizkuntza politikarako EAE, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko egitura tekniko bateratu eta iraunkorra sortu**

Kultura

DIAGNOSTIKOA

Asko hitz egiten da, eta inork ez du ukatzen, arlo eta esparru ezberdinetan paradigma aldaketa baten aurrean gaudenik: lan egiteko, komunikatzeko eta bizitzeko modua aldatu du eraldaketa digitalak, eta noski honek kultura-arloan ere eragina izan du: kultura sortzeko, hedatzeko, ikusgarri egiteko edo kontsumitzeko besteak beste. Digitalizazioak aukerak eta onurak eskaintzen ditu, zalantzarik gabe, baina baita arriskuak gurea bezalako herri txiki batentzat, non hizkuntza gutxitua dugun interkonektatuta dagoen mundu globalizatu batean.

Esan bezala, testuinguru honetan azken hamarkadetan kultur sorkuntza zabaltzeko, transmititzeko eta gizarteratzeko moduak eraldatu dira: sorkuntza-testuinguru berriak sortu dira, kultur industrian eraldaketak gertatu dira, kazetaritzaren parametroak aldatu dira, hezkuntza arautuan pedagogiak berri dira, kultur sorkuntzaren berariazko irakaskuntza murriztu da, kultur kritikaren ekarpenak sakabanatu dira, eta abar. Testuinguru berri horrek modu berezi batean eragin du euskal kultur sorkuntzaren transmisioan, are ahulagoak direlako kultur egiturak eta kultur esparruak. Euskal kultur gintzaren erronka nagusia euskaldunak euren kulturara ekartzea da. Euskal kultur gintzaren berariazko erronka kulturzaleak sortzea da.

Sortzaileak izango diren zaleak behar ditu euskal kultur gintzak, amateurrak eta profesionalak. Antolatzaileak izango diren zaleak: herri ekimenetan edota erakunde publikoetan arituko direnak. Kultur gintzaren industriari emanak biziko diren profesionalak bihurtuko diren zaleak behar ditugu. Kultur kazetaritza jorratuko duten zaleak behar ditugu.

Etxean, hezkuntza arautuan, ez arautuan zein astialdian transmisioa bertutuko duten zaleak sortu behar ditugu.

Beraz erronka handia dugu hainbeste aldatu den errealitate honen aurrean eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Jaurlaritzak, duela hamarkada bateko kultur politika berdina planteatzen jarraitzen du. Horren adierazle dira Kultura Sailaren aurrekontuak, urtez urte errepikatzen direnak, inongo norabide aldaketarik, inongo apustu argirik gabe. Azkeneko Plan Estrategikoa 2004. urtekoa da, duela 16 urteetako plana. Esanguratsua. Eredu eta gobernu agortuaren beste adibide bat. Eta hau gertatzen ari da Euskal Herriko kultur gintza oro har, heldutasun eta maila handia erakusten ari denean, beraz potentziala izugarria izanik, planifikazio eta estrategia ezaren ondorioz ez du behar lukeen ikusgarritasunik izaten ari.

Heldutasun eta maila handi hori ez dator bat kultur gintzan ari direnen bizi eta lan baldintzekin. Salbuespenak salbuespen, oso baldintza eskasak ditu sektoreak eta oso zaugarria da krisi-egoeretan. Horregatik COVID-19 krisiaren ondorioz desagertzeko zorian utziko ditu hainbat proiektu eta egitasmo kultural, euskarazkoak direnak lehen lerroan daudelarik; zenbat eta kon-

DUINDU!**KULTURA**

painia, sortzaile edo proiektu txikiagoa izan, orduan eta ilunagoa izango da etorkizuna, horrek maila emozionalean duen eraginarekin. Krisialdi honek, urteetan iraun ahal duen amildegia ekarri dezake kultura ekosisteman. Hori hala izango da ez badiogu kulturari benetan duen balioa ematen; duen izaera estrategikoa aitortzen ez badiogu. Horregatik, uste dugu krisi honi ahalik eta modu integralean erantzuteko, kultura ekosistema osatzen dugunon artean aztertutako eta adostutako kulturagintzarako urgentziatzeko talka plan integrala ezinbestekoa dela.

Horretaz aparte aipatzekoa da alde batetik talde politiko guztietan kulturak duen espazio eskasa eta bestetik, kultur munduaren atomizazioak eta desartikulazioak ere ez duela laguntzen helburu komunen alde borroka artikulatzeko. Beraz hau ere erronka izan behar du datozen urteotan.

Azkenik, argi dugu oinarrizko kultura adierazpenak indartu eta ekosistemaren oinarria diren heinean hauen aldeko defentsa irmoa egiten jarraitu behar dugula, termino monetarioetan neurtzen diren eta turismoa erakartzea helburu nagusi duten mega-proiektu eta makro-ekitaldietan oinarritzen den Jaurlaritzak sustatzen duen kultur ereduari kontrajarriz.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Arteen eta Kultura Industrien eta Sormen Industrien Estatistikaren datu nagusiek erakusten dutenez, esparrua guztira 1.092 agentek osatzen dute, 762 milioi euroko diru-sarrerak metatzen dituzte eta 6.834,4 langile hartzen dituzte.
- Arteen eta kultura-industrien eta Sormen industrietan emakumeen presentzia gizonezkoa baino zeozer altuagoa da, % 51 emakumezkoak dira.
- Kultura euskaraz. Lurraldeen artean alde handiak daude: Gipuzkoako biztanleen erdiak elebidunak dira (%50,6). Bizkaian, biztanleen laurdena baino apur bat gehiago dira elebidunak (%27,6), eta Araban bostena dira (%19,2). Hizkuntzen errealitate horrek asko baldintzatzen du euskarazko kultura eskaintzaren merkatu potentziala, adinaren eta lurraldearen arabera, eta horrek eragina du ekoizpenen genero eta tipologietan eta programatze-lekuetan, udalerrien lurraldeari eta taimainari dagokienez.
- Ondarearen aurrekontu gehiena museo handiek eramaten dute eta kulturaren sustapenerako aurrekontu zati inportante bat EAEko festibal handiek, apustu eta eredu zehatz baten ondorioz.
- Azken Kultura plan estrategikoa 2004. urtekoa.

2024RAKO KONPROMISOAK

- 1 Kulturgintzarako urgentziatzko talka plan integrala.** Talka Planean besteak beste aztertu beharko dira nola sortu eta arautu kulturarako krisi funtsak, kulturak eta euskal kulturak dituen berezitasunak kontutan hartuz, bertan behera edo atzeratu diren emanaldiekin zer egin, nola egokitu deialdiak eta diru laguntzak, ze hobari edo neurri fiskal ezarri edo hobetu daitezke gutxienez 2020 eta 2021 ekitaldirako, udaletxeek nola lagundu diezaioken kulturgintzari, BEZa kulturalarekin zer edo zer planteatu daitekeen eta bestelako proposamenak aztertu urgentziatzko talka plan horretan jaso beharrekoak.
- 2 Euskal Kulturaren Zentroa sortuko da.** Kultur politikak ekosistemako eragileen artean diseinatzeko bilgunea. Zentroan herri honetan kulturgintzan ari diren eragile guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Euskal Kulturaren Zentroaren izaera eta funtzioak kultur ekosistemako eragileen artean proposatu, eztabaidatu eta adostuko dira.
- 3 Kulturaren plan estrategikoa.** Kultura politikaren ereduak muga jo du eta eredu berria birpentsatzea beharrezkoa da ekosistema osatzen duten kultur eragile guztien parte hartzearekin.
- 4 2021-2023 diru-laguntzen plan estrategikoa.** Kultura ekosistemako eragileekin batera eztabaidatu, diseinatu eta adostu.
- 5 Eskubide Kulturalen Legea.** Kulturala oinarrizko eskubide bihurtzeko neurriak eta legedia garatu, bizitza kulturalen parte hartzeko eskubideaz hasita, horretarako eskubide kulturaleri buruzko lege proposamena aurkeztu.
- 6 Sormena sustatu eta transmisioa bermatu.** Hezkuntza arautuan zein ez arautuan era iraunkor eta sistematikoan lantzeko plana egin.
- 7 Kulturaren sustapen eta ondarearen babesera bideratutako aurrekontuaren % 1. Helburua ezarri,** modu progresiboan helburu hori erdiesteko plana.
- 8 Mezenasgoaren legea.** Lurralde historikoetako ogasunekin batera modu koordinatuan, onura fiskalak zein mikromezenazgoa erregulatzeko legedia eta arauak garatu.
- 9 RIS3 eta KSI Berritzaile.** Kultura eta Sormen Industrien alorreko enpresentzako berrikuntzarako estrategian sakondu, aukerak zabaldu eta Hezkuntza Saila sartu departamentuen arteko elkarlanean.
- 10 Euskal artista eta sortzaileen estatutua.** Prekarizazio orokortuari aurre egiteko bizi eta lan-baldintza duinak bermatuko dituen estatutua diseinatu, garatu eta aplikatu, besteak beste kontratazioak erregulatuz.

MUGITU!

ENERGIA-KLIMA

MUGITU!

LARRIALDI KLIMATIKOARI AURRE EGITEKO PREST

Energia-klima

DIAGNOSTIKOA

Larrialdi klimatikoak gure garaiko erronka historikoa bihurtu da. Gaur egungo inertziari jarraituz gero 3, 4 edo gradu gehiagoko tenperatura igoera izango du batzuetan beste munduak 2100 urtean. EHN ere tenperaturen igoera izango dugu, 1-3 gradu minimoen igoera neguan eta udan maximoak 3 gradu igotzeko aurreikuspena.

Gure herrialdea ere zaugarria da tenperaturen balizko igoera katastrofiko honen aurrean. Gure isurketak arintzeko beharrak, zein dagoeneko abian diren aldaketetara egokitzeko beharrak, ekintza politiko irmoa eskatzen dute, klima-larrialdia arreta handiko ahalegin kolektiboaren erdigune bihurtu dadin. Gure eredu sozioekonomikoa planetaren kapazitatearen gainetik bizi den neurrian, klima eta energia besteen arteko gai izateari utzi dio eta arazo zentrala bihurtzen da.

Horregatik, XXI. mendean, indar politiko eraldatzaile batek erronka hau kontu sektoriala izatetik gai estrategikoa izatera eramane behar du. Porrota, ematekotan, atzera bota ezina izango da. Eta aukera leihoa dramatikoki estutu da. Hamarkada gutxitan bideratu beharreko lana da, eta horretarako garapena ulertzeko era eta sistema ekonomikoaren paradigma zaharra errotik aldatu behar dira.

Eredu aldaketa horretan, energia-klima binomioa elkarrekin lantzea ezinbestekoa da, energia arloa baita klima aldaketa ahalbideratzen duten gasen isuri kopuru handiena dakarrena EAEn (bai zuzenean energia ekoizpena, zein garraioari, industriari, nekazaritzari edo bizitokiei lotutako energia kontsumoa), beraz, klima aldaketari aurre egiteko energia ereduaren eragiteari ezinbestekoa deritzogu.

Eredu aldaketa horretarantz bidea egiteko, eraldaketa sozioekologiko sako-
na martxan jarri behar dugu eta eraldaketa hori bultzada publikotik eta herri-
tarren kontrola eta parte hartzea bermatzen duen energia eredu berriztagarri
batetik pasatzen da, baina ez soilik eskaintza ikuspegi batetik, baita eskari
ikuspegi batetik ere. Hau da, oinarritzko energia askoz ere gutxiago erabiliz.

Bukatu berri den legealdia, trantsizio energetikoan eta ondorioz, isurien mu-
rrizketei begira, legealdi galdua izan da. Azken legealdian, lege, estrategia
eta larrialdi egoera eta abar onartu dira klima eta energia arloetan, baina au-
rrekontuetan ia islarik ez dute izan eta ondorioz benetako aurrerapausorik
ez da izan. Bada garaia diskurtsoetatik ekintzetara pasatzeko; belaunaldi
guztiak, datozenak bereziki, neurri sendo eta azkarren zain ditugu.

Testuinguru horretan, COVID-19k eragindako krisia aukera edo mehatxu bat
izan daiteke. Kontsumo jasanezinaren bidez krisialditik irteteak, energia-es-
kariaren azeleragailua zapalduz eta globalizazioaren aurreko faseko akats
berberak errepikatuz, larrialdi sanitarioa amaitu bezain laster isurketen go-
rakada eragin dezake. Horregatik, bidegurutze historiko baten aurrean gau-
de, okerreko bidetik jarraitzea edo hazkundearen paradigma aldatzea ingu-
runearen kontura, benetan iraunkorra eta bidezkoa den garapen baten alde.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Klima aldaketari begiratzen badiogu, EAEko CO₂ aztarna oso handia da, urteko 9,2 tona pertsonako hain zuzen; munduko, estatuko eta Euro-pako batatz bestekoen gainera.
- Euskadiko berotegi efektuko gasen isurien azken inbentarioak isu-
rien gorako joera kezagarria azaldu du. Honen arabera, Autonomia
Erkidegoko jarduera sozioekonomikoen ondoriozko berotegi efektu-
ko gasen isurketak 20,06 milioi tona CO₂ren baliokideak izan ziren
guztira. Hortaz, aurreko urteko isurketekin alderatuta, %5,5eko igoe-
ra izan zen.
- Klima aldaketa eragiten duten gasen murrizketa behar baino askoz
ere mantsoago ematen ari da EAEn. Kyotoko protokoloak erreferen-
tziaz hartu zuen 1990 urtearekin alderatuta, isurketak % 8 murriztu
dira (Europar % 20). Eta indarrean dagoen KLIMA 2050 estrategia-
ren arabera, 2050. urterako oraindik 2 milioi tona isuri baino gehiago
egongo dira.
- Energiari begira, menpekotasuna % 90etik gorakoa da, ekoizpen
berriztagarria %7aren inguruan dago eta kontsumo berriztagarria %
15aren bueltan. EAEko elektrizitate ekoizpenak ez ditu asetzen gure
beharrak. Kontsumitutako elektrizitatearen % 60a baino gehiago in-
portaturikoa da.
- Indarrean dagoen 3E2030 estrategia energetikoak, aldiz, 2030. urte-
rako helburu ez-nahikoak ditu, eta berriztagarrietarako helburua %
14an geratzen da ekoizpenean, eta %21ean kontsumoan. Europar az-
ken zuzentarauek % 32az hitz egiten dute.

MUGITU!INGURUMENA ETA
BIODIBERTSITATEA

- Sektore publikotik ekoizten den elektrizitate berriztagarriaren ehunekoa hutsaren parekoa da. Ekoizpenaren %95 baino gehiago baliabide fosiletatik dator.

2024RAKO KONPROMISOAK

Klima

1**Larrialdi klimatikoaren eta trantsizio energetikoaren legea onartu.**

- Europar Batasunak neguko paketeen ipinitako gutxieneko helburuak gaindituz.
- Berriztagarrien hedapena: >%32 2030 urterako
- Berotegi Efektuzko Gasen murrizketa: -%40 (1990etik) 2030 urtean

2**Klima neurrien jarraipenerako departamendu arteko baztordea eratu.**

- Klima aldaketari aurre egiteko zeharkakotasuna ezinbestekoa da.

3**Klimaren aldeko Asanblada Herritarraren bultzada.**

- Erakundetatik haratago doan arazoa delako eta herritarren kontzientziazioa eta bultzada ezinbestekoa delako

Energia

1**"EUSKADI ZERO KARBONO 2040" Klima konpromisoa.**

- Karbono neutraltasuna ahalik eta azkarren lortzeko itun politiko-sozial zabala.
- Aurreko legealdian abian jarri zen Adituen Lantaldeari jarraipena emanaz.
- COVID-19k eragindako larrialdi ekonomiko eta sozialari aurre egiteko beharrezkoa den aurrekontu-berregituraketan, ez da murrizketarik egingo energia berriztagarrien arloko inbertsioak eta jarduerak diruz laguntzen dituzten partidetan

2**Energia Berriztagarrien Euskal Erakundearen osatzea (EVER).**

- Baliabide fosilen desinbertsioa gauzatuz eta Energiaren erakunde Publikoa energia berriztagarrietara bideratzeko
- Instalazio deszentralizatuen bultzada helburu

3

Baliabide fosilen Desinbertsio Plan Integrala

- Energia berriztagarriak hedatzerako baliabideak lortzeko

4

Jasangarritasun energetikoaren legea garatu

- Energia Berriztagarrietarako Funtsa eratu (800 M €/legealdian).
- Energia Berriztagarrien Lurralde Arloko Plana (PTS) onartu eta garatu

5

Energia komertzializatzaile publikoa osatu

- Energiaren demokratizazioa eta trantsizio justua bermatzeko.

6

Ongizate energetikoaren legea

- Gizarte-bonuaren koiunturazko neurriak eta COVID-19k eragindako gizarte-larrialdiak abian jarritakoak gainditzea, energia-ongizatea eskubide subjektibo bihurtzeko lege bat onartuz eta garatuz.

Ingurumena eta biodibertsitatea

DIAGNOSTIKOA

Naturatik gure bizitza sostengatzen duen guztia ateratzen dugu: elikagaia, edateko ura, aire garbia, energia, lehengaiak; gainera, ura eta airea erregulatzeko eta arazteko, baldintza klimatikoak egonkortzeko, polinizazioa, hazien sakabanatzea eta izurriteak eta gaixotasunak kontrolatzeko sistema natural osasungarri eta askotarikoak izatearen mende gaude... Biodibertsitatea kontserbatzeak ez du esan nahi espezieak eta habitatak beren interesagatik soilik babestu behar direnik, baizik eta naturak denok behar ditugun ondasunak eta zerbitzuak emateko duen gaitasunari eusteko ere. Eta kontuan izan behar da eragina justizia sozialarekin zeharkatzen dela: beharrak asetzeko eta bizirauteko dituzten premiei erantzuteko, jendarte globalaren geruza zaurgarrienak dibertsitate biologikoaren menpe daude eta, beraz, degradazioaren eragina jasaten duten lehenak dira, eta gehien sufritzen dutenak.

Egungo garai geologikoa ulertzeko Antropozenoa da hitz egokiena, gizakien jarduera baita Lurraren oraina eta etorkizunaren gidari nagusia.

Komunitate zientifikoak egiaztatu du bioaniztasunaren galerak, ekosistemen suntsiketak, gizakien eraginagatik espezien jokaeren aldaketak, kutsa-

MUGITU!**INGURUMENA ETA
BIODIBERTSITATEA**

durak eta planetaren bio-ahalmenaren gaindiko erauzketa jardunak, giza-kien osasuna arriskuan jarri eta birusen hedapena errazten dutela, COVID-19 bezalako pandemien agerpena barne.

Espezieek kalitatezko habitata behar dute, baldin eta haien biziraupena eta, oro har, biodibertsitatea bermatu gura bada; babesguneak badira bizileku eta babesleku, baina ezin dira irla isolatu gisa kudeatu, babesguneen arteko espezieen mugimendua ahalbidetzea habitata zaintzearen parekoa baita beraien etorkizunerako.

Natura-gune babestuen egiazko sare funtzionala errealitate egin behar da eta, horretarako, babesguneetatik kanpoko matrize horretako paisaia-elementuen antolamendua aintzat hartzea beharrezkoa da. Landa eremuko jendartearen inplikazioa ezinbestekoa izango da bide horretan, baina ezin da ahaztu babesguneek kontserbaziorako kudeaketa eraginkorra behar dutela.

Ingurumenaren aurkako arau hausteekiko inpunitate giroa nagusituta dago arlo eta bazter guztietan, egungo zainzaileak oso gutxi izatez gain, laguntza handirik gabe dabilta.

Zaldibarren gertatutakoak hondakinen inguruko hausnarketa batera eramane behar gaitu. Azkenaldian Ekonomia zirkularraren inguruan asko hitz egiten ari bagara ere, datuak krudelak dira, eta urtean sortzen ditugun hondakinen zati handi bat erre edo zabortege arriskutsuetara botatzen dugu eta birziklapen tasa sortutakoaren erdira ere ez da iristen.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Espezieen desagertze tasa naturalki ematen dena baino 100 aldiz handiagoa da eta ornodun basatiak munduko biomasaren % 5 besterik ez izateraino murriztu ditugu, ganaduek (% 59) eta gizakiok (% 36) hartzen baitugu beste guztia.
- Biodibertsitatea murrizten ari da eta bizidunen seigarren suntsitze masiboa abian da, gizakien zuzeneko eta zeharkako jardueren ondorioz, hala nola, habitatak suntsitzea eta zatikatzea, arrantza eta ehiza, kutsadura kimikoa, espezie inbaditzaileak eta gizakiak eragindako berotze globala.
- Arazi gabeko ur zikinak isurtzen jarraitzen dugu: Europako Batasunak bi zigor-prozedura ireki dizkio Euskadiko administrazioari, sei udalerrri eta eskualde handiak araztu gabeko egiten dituzten isurketengatik.
- Mendietako lur hondeaketa eta mugimenduak sortzen duten lurzoru galerak, lurren etorkizuneko emankortasuna eta karbono metaketa arriskuan jartzen ari dira.
- Landare eta animalien portzentaje txikia ezagutu arren, erkidegoko 373 espezie mehatxatuen katalogo ofizialean daude, esperantza handirik gabe oraingo.

- Inongo kemenik gabe, garraio eta energia azpiegituren etengabeko hazkundeak ekosistemak zatikatzen eta isolatzen jarraitzen du.
- Baliabideen ustiaketa biodibertsitatean eragiten duen narriadura kontutan hartu gabe egiten jarraitzen dugu.
- Argi geratu da harreman zuzena dagoela airearen kalitate eskasa eta osasunarengan COVID-19ak duen eraginaren artean.
- EAEn metabolismo ekonomiko lineala medio, azken datuen arabera, pertsona bakoitzeko 2.900 kg/hondakin/urteko sortzen ditugu, hauen % 37a zabortegei arriskutsuetara doalarik eta birziklapena sortutakoaren erdira ere ez da iristen.

2024RAKO KONPROMISOAK

Biodibertsitatea eta Klima Aldaketa

1

Natura Ondarea Kontserbatzeari dagokiona eta Ingurumen Administrazioari buruzko Lege berriak onartu.

- Natura eta natura-ondarea, funtsezko prozesu ekologikoak eta paisaia kontserbatzeko eta hobetzeko, jarduera ekonomikoak inguru-nearekin bateragarri eginez, etorkizuneko belaunaldien ongizatea bermatzeko modu bakarra da.
- Natura-ondarearen arloko koordinazio-batzordea sortu, Eusko Jaur-laritzari atxikia, natura-ondarearen arloan eskumena duten administrazio guztien arteko lankidetzarako eta elkarlanerako organo gisa.

2

Ingurumeneko GKEen ordezkariak egokia ziurtatu administrazio ireki eta parte hartzaile baten testuinguruan.

3

Natur Ondarearen erresilientzia sendotuko duen eta ekologikoki funtzionala izango den azpiegitura berde-urdina eratu, lurralde osoa sare ekologiko moduan egituratuz, degradatutako ekosistemak lehengoratuz eta inguruko lurraldeekiko irazkortasuna bermatuz.

- Eskualde- eta toki-garapenaren, klima-aldaketaren, hondamendi-arriskuaren kudeaketaren, nekazaritzaren eta basogintzaren, eta ingurumenaren arloetan dituen politiken helburuak betetzeko egitura hobeezina sortuz.
- Hurrengo 10 urteetan lurraldeko % 30ean berezko ekosistema naturalen bilakaerara dedikatuko programa eta neurriak zehaztu.

MUGITU!

LURRALDE
ANTOLAMENDUA,
AZPIEGITURAK ETA
MUGIKORTASUNA

- 4 **Mendi, ibai eta kostaldeko espazioen publikotasuna bermatu eta benetan biodibertsitatea sustatzeko erabili** eta espazio publiko horien azalera handitu.
- 5 **Natur baliabideen ustiaketa mota guztiak antolatu eta naturaren babeserako praktikekin bateragarriak direnak bakarrik bultzatu.**
- 6 **Ustiaketa eredu berriak bultzatu, ekosistemen oreka mantentzeari eta epe luzerako begiradari eutsiko diotenak;** laguntzak ekonomikoak zein aholkua, bertako espezieak landatzera bideratu herri-basoetan eta pribatuetako pizgarriak ere horretara bideratu.
- 7 **Habitat eta espezie mehatxatuak berreskuratzeko planak onartu eta praktikan jarri, egoera hobetzeko epeak finkatu.**
- 8 **Europar Batasunaren Biodibertsitateari buruzko Estrategiarekin bat egiteko moduak egiten joan.**
- 9 **Ingurumen delituen arloko pertsonala emendatu eta Koordinazio mahaia eratu,** Ertzaintza, basozain eta udaltzaingoen lanak koordinatzeko helburuarekin, ingurumen ikuskaritza eraginkorra sustatuz, delitu eta faltak prebenitzeko eta zigortzeko gaitasuna bermatuz.
- 10 **Finantzaketa propioa indartzeaz gain, Europako finantzaketa (bereziki NPB eta EGEF) biodibertsitatea kontserbatzeko erabil dadin bultzatzea.**
- 11 **Landa eremuak aisialdirako eta ingurumen hezkuntzarako ematen dituen aukerak aztertu eta arlo horretan ekintzailetza eta lurraldearen zaintza bultzatu.**
- 12 **Natur Kontserbazioaren Batzordea Teknikoa sortu.**
- 13 **Bioaniztasunaren eta natur ingurunearen ikerketan sortzen den ezagutza berria integratu eta natur kontserbazioaren mesedetan modu esanguratsuan bideratzeko,** ezinbestekoa da horretan diharduten profesionalen ahotsa kontrastatu eta kudeaketaren eremura lerratzea.

Baliabide Naturalak

- 1 **Akuiferoak eta azaleko eta itsasoko urak belaunaldien arteko ondare moduan babestu, defendatu eta erabiltzeko, ur ekosistemen kontserbazio egoera egokia bermatu.**
 - a. Derrigorrezkoa den ura soilik erabili eta erabiltzen denaren arazketa ziurtatzeko neurriak hartu isuri aurretik.

2

Lurzorua eta bertako biodibertsitatea kontserbatzeko neurriak hartu.

b. Lurra, ozeanoen ondoren karbono gehien metatzen duen egitura da. Lurreko funtsezko ekosistemak berreskuratzeak eta lurzorua modu iraunkorrean erabiltzeak klima-aldaketa arintzen eta klima-aldaketa horretara egokitzen lagun diezagukete.

3

Klima larrialdiari aurre egiteko, tokian tokiko basoak berreskuratzen joan, landaturiko monokultiboek baino bi aldiz karbono gehiago metatzen baitute.

c. Beste basogintza eredu bat bultzatu, baso-ekosistemen oreka mantentzeko eta epe luzearako begiradari eutsiko diona, onura publikoak izatera pasa dadin.

4

Karga fiskala birbanatuko duen Ingurumen Fiskalitateari buruzko lege bat onartu, aurreztea, ingurumena lehengoraztea eta ingurumenari lotutako enplegua sortzea sustatuko duten jardunbide egokiak lehenetsiz, eta, aldi berean, karga fiskala lanetik kutsadurara eta baliabideen kontsumora mugiaraziz.

d. Ingurumen Fiskalitateari buruzko Lege hori biodibertsitatearen aurkako jardunak ezabatzeko plan batekin osatu.

5

Ekonomia zirkularrerako lege autonomiko bat bultzatu eta bere garapenerako hondakinen arloko lurralde plan bat onartu. Bertan, hondakinen kontrol eta kudeaketa publikoak sendotu behar dira.

Lurralde-antolamendua, azpiegiturak eta mugikortasuna

DIAGNOSTIKOA

Esana eta egina

Inoiz baino arrakala handiagoa nabaritzen da Eusko Jaurlaritzaren diskurtsoaren eta benetan aurrera eramaten dituen ekintzen artean, baita lurralde-antolamenduaren, azpiegituren eta mugikortasunaren arlo estrategikoe-tan ere. 2019an, urrunago joan gabe, Lurraldea Antolatzeko Gidalerro berri itxuraz integratzaileagoak onetsi ditu, baita Energia Iraunkortasunaren legea, Ekonomia Zirkularrerako Estrategia eta “Bultzatu 2050 hiri-agenda” ustez jasangarria ere. Halaber, klima-larrialdia izendatu du.

MUGITU!

**LURRALDE
ANTOLAMENDUA,
AZPIEGITURAK ETA
MUGIKORTASUNA**

Alabaina, diskurtso ofizialean dena “berdea” izan arren, errealitatean egiten ari den eta egin nahi dituen proiektu zehatzak antzinako ikuspegi garapenezalearen betiko logikan daude pentsatuta, “Euskal Hiria” izeneko proiektu metropolizatzaileari jarraikiz: AHTa, Zubietako erraustegia, Gasteizko gasputzuak, Abantoko parke teknologikoa, Lamiakoko itsasadar-azpiko autobidea, Zaldunbordako merkataritza-zentroa, Billoda-Jundizko geltoki intermodala, Lezo-Gaintxurizketako makroplataforma logistikoa, Supersur delakoa, Donostiako “metro”-a... Lurralde-antolamendu arrazionalagoa behar dugu, esanaren eta eginaren arteko egungo amildegia gaindituko badugu, gobernantza-eredu demokratikoago baten bidez.

Klima-larrialdia

Mundu mailako klima-krisiak dena aldatu beharko luke, bereziki lurralde-politikei dagokienez. Klima-larrialdian gaude, eta, ondorioz, ezin dugu jarraitu orain arte bezala, pentsatuz lurraldeak ez duela mugarik, eta garrantzitsuena dela BPGa etengabe hazi araztea edozein preziora (ekonomiko, sozial eta ekologikoa), besteak beste azpiegitura handien eraikuntzaren bidez. Larrialdiko testuinguru honetan, betidanik aldarrikatu ditugun lurralde-politika iraunkor eta jasangarriak inoiz baino premiazkoagoak dira.

Geografiari dagokionez, eskualdea lurralde-antolamendurako unitate gisa ulertuko duten politika deszentralizatzaileak behar ditugu lehenbailehen, zentzu guztietan beharrezkoa den oreka, ekitatea eta gertutasuna sustatzeko (ekipamenduetarako irisgarritasunean, mugikortasunean, genero-ikuspegian, energiaren eta elikaduraren ekoizpen eta banaketan, hondakinen kudeaketan...).

Eta tematikari dagokionez, ildo berean, burujabetza, trantsizio sozioekologikoa eta mugikortasun jasangarria serio hartuko dituen lurralde-antolamenduko zentzudunago baten alde egin behar dugu berandu baino lehen, klimaren aldaketa induzitua behingoz gelditzeko asmoarekin, euskal lurralde bizi bat helburu.

Post COVID-19 lurraldea

Koronabirusaren pandemiak arestian azaldutako hiru ildo tematikoak lantzeko beharra berretsi eta are gehiago nabarmendu du. Inoiz baino premiazkoagoa izango dugulako lurralde-burujabetza erdiestea eta indartzea, zentzu guztietan, trantsizio sozioekologikoa behingoz seriozki abian jartzea, eta mugikortasun egiazki jasangarria lehenbailehen ezartzea. Datozen aldaketa balizkoen aurrean hobeto erantzun ahal izateko, modu erresilenteagoan.

Hori guztia, testuinguru sozioekonomiko latz batean, duela hilabete eskas batzuk pentsagaitza zena, eta obra publikoetan inbertitzen den euro bakoi-tza inoiz baino gehiago aztertzea eskatzen duena. Bukatu behar da gutxi batzuk aberasten dituzten obra faraoniko zentzugabeen aroa. Post COVID-19 lurraldean inoiz baino gutxiago behar dira kapitalismoak hainbeste maite dituen “elefante zuriak”, hots, eskaintzen dituzten onurak baino eraikitze eta mantentzeko kostu handiagoak dituzten eraikin eta azpiegiturak. Post COVID-19 lurraldean bukatu da hormigoiaren xahubide itxuraz amaigabea. Post COVID-19 euskal lurraldeak behar du izan orekarena eta ekitatearena.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Eusko Jaurlaritzak “klima-larrialdia” 2019ko uztailean ofizialki izendatu zuen. Europako Legebiltzarrak, 2019ko azaroan.
- Itsasoaren mailaren igoerak Euskal Herriko kostaldean (eta, bereziki, itsasadarretan) milaka pertsona bizi diren lurzoruak har ditzake. Neurririk hartu ezean, 2100 urterako itsasoaren maila 110 cm igo daitekeela kalkulatu da (IPCC, 2019).
- EAEko kostaldearen % 12,8 dago urbanizatuta. Espainiako Estatu iparraldeko erkidegoetan kostalderik urbanizatuena du EAEk, eta Estatu osoan laugarren urbanizatuena (Greenpeace, 2019).
- Lurzoruaren urbanizazio edo artifizializazio mailari dagokionez, EAEko lurzoru osoaren % 6,91 dago artifizializatuta dagoeneko (Eusko Jaurlaritza, 2018), Europakoaren batez bestekoa soilik % 4,2 denean, ia erdia. EAE Europako eskualde artifizializatuenetakoa da.
- Lurzoruaren artifizializazio maila ere desorekatuta dago EAEn baita: Arabako artifizializazioa % 5,31ekoa da, Bizkaikoa % 9,11 eta Gipuzkoakoa % 6,86 (Eusko Jaurlaritza, 2018). Alegia, Bizkaiko lurzoruaren artifizializazio maila Arabakoaren bikoitza da ia.
- EAEko metropolizazioa eta lurralde-desoreka ondo adierazten duten beste bi datu: biztanleriaren % 72 hiru hiriburuetako area metropolitarran biltzen da, eta soilik % 2 bizi da 2.000 biztanle baino gutxiagoko landa-udalerrietan (“Bultzatu 2050 hiri-agenda”, 2019).
- Biztanle-dentsitate desoreka handiak daude EAEn: area funtzional dentsoena Bilbo Metropolitarra da, 1.753 biztanle/km²-rekin, eta, dentsitate txikieneko Guardia, 36 bizt/km²-rekin (Eusko Jaurlaritza, 2018).
- Herrialdeka, Bizkaia eta Gipuzkoa Europako eskualde dentsoenetakoa dira, 514,45 bizt/km² eta 360,3 bizt/km²-rekin, hurrenez hurren. Arabak 106,38 bizt/km² ditu (Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak, 2019), eta Espainiako Estatu osoan makrozefalia-indizerik altuena duen probintzia da, herrialdeko biztanleriaren % 75,47a hiriburuan bizi delako (IGN, 2016).

MUGITU!

**LURRALDE
ANTOLAMENDUA,
AZPIEGITURAK ETA
MUGIKORTASUNA**

Jada eraikita eta planifikatuta (eta onetsita) dauden etxebizitzetako dagokienez, Guardiako area funtzionalean dago EAeko eskaintzarik demasena (111,03 etxebizitza/100 biztanle), bigarren etxebizitzaren eskaintza handiagiagatik, eta Durangokoan eskaintzarik neurrikoena (49,93 etxe/100 bizt.).

- Sektore ekonomikoei dagokienez, oso interesgarria da 1997ko eta 2019ko Lurraldea Antolatze Gidalerroetako datuak alderatzea, haien bilakaeraren arabera EAeko lurzoru-eskaintzak doitu beharko lirakeelako: lehen sektorearen pisua % 2,92 zen 1997an eta soilik % 0,8 da 2019an; industriaren pisua % 36,32 zen 1997an eta soilik % 23,5 da 2019an; eraikuntzaren ekarpena % 7,59 zen 1997an eta % 6,10 da 2019an; eta zerbitzuen pisua % 53,16 zen 1997an eta % 69,6ra igo da 2019an. Alegia, etengabeko tertziarizazio-prozesu bat jazotzen ari da EAEn, eta lehen sektorearen presentzia hutsaren hurrengo bilakazten ari da.
- Komertzio-azalera osoa (m² eraikiak) 2008-2015 epean % 10,8 handitu da Araban, % 19,6 Bizkaian eta % 35,3 Gipuzkoan. Biztanleekiko proportzioan, komertzio-azalera gehien duten hiru eskualdeak Debagoiena, Gasteizaldea eta Donostialdea dira, hurrenez hurren (Merkataritza-ekipamenduen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapena, 2018).
- 1990eko EAeko lurralde-antolamenduko legea onetsi zenetik dagoeneko 30 urte igaro dira.
- 2014ko EAeko paisaia-dekretua onetsi zenetik dagoeneko 6 urte igaro direnean oraindik 10 area funtzionaletako paisaia-katalogoak falta dira egiteko.
- Klima-aldaketa dela-eta, EAeko euriak 2100 urterako batez beste % 15 jaistea espero da, bereziki hego-isurialdean (Lurraldea Antolatze Gidalerroak, 2019). Hala ere, jarraitzen dugu ura desbideratzen euri gutxiago egiten duen hego-isurialdeko Zadorra-sistematik euri gehiago egiten duen ipar-isurialdera (Bilboko Ur Partzuergoaren uraren % 90 Zadorra-sistematik dator).
- AHTaren obrak 2006an hasi ziren EAEn; duela 14 urte. Eta oraindik ezezagunak dira hainbat datu garrantzitsu: noiz bukatuko diren, zenbateko kostua edukiko duten guztira (gaineko egitura, hiriburuetakoa sarrerak eta “Euskal Y” delakotik kanpoko ibilbideak ere barne hartuz), EAE eta NFE nondik lotuko diren, Foronda lotuko ote den...
- “Euskal Y”-aren kilometro bakar baten kostua 30 milioi eurokoa da, batez beste (Eibarko eskualde-ospitale berriaren kostu bera).
- “Ekonomia berdea” delakoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak (EAJ-PSE), 2020ko aurrekontuetan, “klima-aldaketaren kontrako” neurrien artean zenbatu ditu AHTaren eraikuntzara bideratutako 95,3 milioi euro.

- COVID-19aren pandemiaren erdian, apirilaren 21ean eta 22an, Eusko Jaurlaritzak aldizkari ofizialean iragarri du 1.006 milioi euroko “inbertsioa” AHTaren bi tarte ezberdinetarako.
- Bilboko AHTaren lurperatzearekin batera, besteak beste, 1.370 etxebizitza eraiki nahi dituzte, eta, Gasteizko lurperatzearekin batera, besteak beste, 1.551 etxebizitza.
- COVID-19aren pandemiaren erdian, apirilaren 7an, Kutxabanken Vitalquiler enpresak Gasteizko babes publikoko 500 alokairu-etxe saldu zizkion Catella putre-funts suediarri, Eusko Jaurlaritzaren oniritziarekin.
- “Lurralde-kohesioa” delakoari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak (EAJ-PSE), 2020ko aurrekontuetan, despopulazioaren kontrako neurrien artean, 900.000 euro biltzen dituztenak, Izkiko golf-zelai publikoaren galerak estaltzeko 450.000 euro barne hartu ditu.
- EAE mailako azpiegitura eta ekipamendu batzuk bikoiztuta, edo, gutxienez, gainjarrita daude, eta horiek modu orokorrean planifikatu beharko lituzketen Gidalerroek ez diote arazoari aurre egiten: zibersegurtasun-zentroak (Gasteizen Eusko Jaurlaritzarena eta Donostian Gipuzkoako Foru Aldundiarena), aireportuak (Forondan, Loiun eta Hondarribian), AHTaren merkantzia-geltokiak (Jundizen Espainiarena eta Billoda-Jundizen Eusko Jaurlaritzarena), itsas-portuak...
- Eusko Jaurlaritzak EAEko garraio guztietarako txartel bakarra agindu zuen jada amaitu den legegintzaldirako hasierako helburuen artean eta ez du gauzatu.
- COVID-19aren pandemiaren erdian, eta Zaldibarko zaborteziaren istripu larritik soilik bi hilabetera, apirilaren 6an, Eusko Jaurlaritzak aldizkari ofizialean iragarri du Azkoitian hondakindegri pribatu bat irekitzea baimendu duela.
- EAEko Hiria Antolatzeko Plan Orokor guztiak 2006ko lurzoruaren legera egokitu behar dira 2021eko irailerako.
- COVID-19aren pandemiaren erdian, ekainaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiak iragarri du aurrera jarraitzen duela Bilboko itsasadarraren azpiko autobidearen eraikuntzarekin (380 milioi euroko aurrekontua), proiektuaren idazketa 8,9 milioi euroengatik esleituz.

MUGITU!

LURRALDE
ANTOLAMENDUA,
AZPIEGITURAK ETA
MUGIKORTASUNA

2024RAKO KONPROMISOAK**Lurralde-Burujabetzarako Konpromisoak****1**

Tokiko garapen endogenoko proiektuak alor guztietan sustatu (lehen sektorea, etxebizitza, industria, komertzioa...), "ekonomia soziala" delakoaren parametroetan

- Horretarako espresuki sortutako zuzendaritza eraginkor berri baten bidez, lurralde-plangintzako sailean egon daitekeena.
- Horretarako espresuki onetsitako tokiko garapenerako lege baten bidez.
- Lurralde-plangintzan (Lurraldea Antolatzeko Gidalerroak, Lurralde Plan Partzialak, Lurralde Plan Sektorialak) tokiko garapenaren garrantzia ardatz garrantzitsu gisa txertatuz, Europa mailan ezartzen ari den "place-based approach" delakoari jarraikiz.

Lehen sektorerako (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza...) lurzoruak babestu eta antolatu

2

- Lehen sektoreko ekoizpena transformazio-, banaketa- eta komertzio-politikekin bateratuz.
- Elikadura-burujabetza eta ingurumenaren zaintza bateratuz, bereziki nekazaritza ekologikoa (agroekologia) sustatuz.
- Abeltzaintza estentsiboa laguntzeko neurriak gauzatuz, besteak beste, abeltzaintza intentsiboa mugatzeko lege bat.
- Baso publikoen jabego kolektiboa eta ohiko kudeaketa jasangarria blindatuz eta haien jabegoaren publikotasuna sustatuz, posible den kasuetan lurzoru-ondare publikoa gorpuztu dezaketen erosketak eginenez.
- Baso pribatuak espezie autoktonoekin birlandatzeko neurriak bultzatuz, besteak beste, hainbat espezieren (intsinis pinua, eukaliptoia...) landaketa mugatzeko lege bat.

Industriaren bigarren sektorean ere Euskal Herrian sustraitutako proiektuak sustatu eta lehenetsi

3

- Industria-lurzoruaren eskaintzan ere tokiko garapenaren ikuspegia txertatuz.
- Lehiaketa publikoetan klausula ekosozialak txertatuz, tokiko proiektuak sustatzea helburu.
- Logistika jasangarriago eta deszentralizatuago baterako lurralde-erdua gauzatuz.
- "Brownfields" direlako industria-eremu ohiak berrerabiltzeko estrategia orokor bat planteatuz.

- Esandako parametroetan jarduera ekonomikoen Lurralde Plan Sektoriala berrituz.

4

Euskal Herria lurralde-proiektu gisa ere gauzatzeko erabakiak hartu

- Goitik behera lan egingo duen Euroeskualde berri bat sortuz EAEn, NFEren eta Euskal Elkargo berriaren artean.
- Behetik gora lan egingo duen Udalbiltza udal-partzuergoa indartuz.
- NFEekin, Trebiñurekin eta Euskal Elkargoarekin lurralde-elkarlana areagotuz, horretarako kooperazio-mahai espezifiko bat sortuz.
- Oraindik ere Espainiako Gobernuaren menpe dauden mugikortasun-azpiegitura estrategikoak (aireportuak, trenbideak, itsas-portuak...) Eusko Jaurlaritzari eskualdatuz.
- Orain arte soilik Renferenak ziren zerbitzuak (edo zerbitzu-tarteak, Gasteiz-Agurain kasu) Euskotrenek bereganatuz.
- Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia birsortuz.

5

Subsidiaritate-printzipioa eta deszentralizazioa sustatu

- Hiri mailako auzoak eta lurralde mailako eskualdeak indartuz, erabakigune garrantzitsu moduan.

6

Lurralde-antolamenduak eta hirigintzak euskararen bilakaerarengan duten eragina aztertu eta ebaluatu

- Lurralde- eta hiri-proiektuen eragin linguistikoaren ebaluazioan sakonduz, horretarako baliabideak jarritz.
- Euskararen Lurralde Plan Sektorial bat eginez.

Trantsizio Sozioekologikorako Konpromisoak

1

Azpiegituren egokitasuna integralki baloratu

- Ikuspegi sozial eta politikoa (herri-ikuspegia) ere kontuan izanez.
- Azpiegitura-proiektuek klima-aldaketarengan edukiko duten eragina ebaluatzeko lege baten bidez.
- Kudeaketa publiko/pribatua soilik behar-beharrezkoa den kasuetarako utziz, kasu guztietan kontrol publikoa ezinbestekoa izanik.
- Azken urteotan klima-aldaketa biderkarazi duten lurralde-proiektuen (AHT, erraustegiak, hiriguneetatik kanpoko parke teknologikoak, puztutako autobideak, familiabakarreko urbanizazioak, golf-zelaiak, zabortege pribatuak...) auditoria ekosoziala eginez.

MUGITU!

LURRALDE
ANTOLAMENDUA,
AZPIEGITURAK ETA
MUGIKORTASUNA

- Hazkunde amaigabearen mito aizuna indartzen duten etorkizuneko proiektu handi guztien (aireportuen handipenak, industrialdeak eremu uholdegarrietan eraiki ahal izateko dikeak, lurralde-segregazioa areagotzen duten azpiegiturak...), publikoak zein pribatuak, klima-inkaktua ebaluatuz eta neurri prebentiboak hartuz, zeinetan osorik berrikusteko aukera ere egongo den.

2**Merkataritza-gune handien eraikuntza mugatu**

- Mugikortasunean eta ingurumenean eragiten dituzten kalteak direla-eta, 25.000 m²-ko gehienezko eraikigarritasun-muga berriro ere ezarriz, 2004ko Lurralde Plan Sektorialean bezala.
- Saltoki handiei haien tamainaren (m² eraikiak) araberako zerga bat ezarriz.

3**Landa-eremuko despulazioa txikitu**

- Lurralde-kohesioa eta -oreka handitzeko erabaki espazialak eta sozioekonomikoak ere hartuz.
- Landa-eremuarekiko hiriburuen nagusitasuna modulatzuz, besteak beste, lurralde-orekarako lege baten bidez.
- Legebiltzarrean ponentzia espezifiko bat sortuz despulazioaren kontrako neurriak aztertu, adostu eta gauzatzeko.

4**Lurraldea Antolatzeko Gidalerroetako egoitza-kuantifikazioaren oinarri kontzeptual eta operatiboak berraztertu eta aldatu**

- 1997ko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen eta “adreiluaren burbui-la” delakoaren (1998-2008) arteko harremanak ikertuz, bereziki landa-eremuko “kontraurbanizazioa” delako efektuari dagokionez.
- Jaurlaritzak aplikatzen duen “harrotze-koefizientea” delakoa berrikusiz, etxebizitzaren plangintza, bereziki herri txikietan, biderkaratzen duen heinean.
- Etxebizitza hutsen faktorea modu serioagoan kontuan hartuz.
- Esandako parametroetan egoitza-kuantifikazioa dekretu bidez aldatuz.

5**Bikoiztutako proiektuak saihestu**

- Errepikapenak dagoeneko egonez gero, proiektuak optimizatuz eta osagarritasuna bilatuz (adibidez, Euskal Herriko 5 aireportuen artean terminal bakarra osatzea).
- Administrazio publiko ezberdinen arteko elkarlana egikaritzuz (Jaurlaritza, Foru Aldundiak, udalak...).
- Azpiegiturarako korridoreak elkarbanatuz, lurralde-fragmentazioa txikitzeko asmoarekin.

- Ikuspegi integraleko lurralde-antolamendu loteslea egikaritzuz, azpiegitura guztien eta bestelako proiektuen bideragarritasuna eta osagarritasuna bermatuko duena, indarrean dagoen ikuspegi sektorial (eta, askotan, probintzial) hertsia- ren gainetik.
- 1990eko lurralde-antolamenduko legea berrituz, besteak beste ikuspegi integralaren eta lotesletasunaren beharra lurralde-plangintza- ren eskema osoan txertatzeko.

6

Jada urbanizatuta dauden lurzoruen berrerabilera sustatu, zoru "berri" gehiago urbanizatu baino lehen, etxebizitz- en zein industrialdeen eta azpiegituren kasuetan

- Lurralde Plan Partzialak berrituz ideia hori txertatzeko, eta, hazkunda- deak planteatzeko beharra egonez gero, birdentsifikazioak lehene- tsiz.

7

Hiri trinkoak eta erabilera mistokoak sustatu eta lurralde- sakabanaketa eta -segregazioa gelditu, bereziki kostaldean

- Berritzen diren plan guztietan lurralde-sakabanaketaren kontrako proposamen trinkoak eginez.

8

Itsasoaren mailaren balizko igoeraren arriskua aztertu, neu- rri pasibo eta aktibo egokienak hartzeko asmoz

- Unibertitate eta zentro teknologikoekin batera ikerketa aplikatu bat abiatuz.

9

Landa eta hiria elkarren osagarritzat ulertu, zeharkako kon- promiso ideologiko gisa

10

Urbanizazio-prozesuetatik administrazio publikoek lortzen duten diruaren erabilera arautu (etxebizitz- en alokairu so- zialera bideratzeko, hirigintza-ustelkeriaren ikerketarako...)

- Horretarako espresuki onetsitako hirigintza-gainbalioen lege baten bidez.

11

Hondakinen lurralde-antolamendua hobetu

- Horretarako Hondakinen Kudeaketarako Lurralde Plan Sektoria- la eginez, non egoeraren diagnostia egiteaz gain, eredu pribatizatua desegiteko bide-orri bat eta eredu alternatiboak ere landuko lirate- keen (konpostatzea, birziklatzea...),, baita hondakindegien kokapena zehaztu ere.

MUGITU!

ELIKADURA
POLITIKA ETA
LANDA EREMU
BIZIAK

Mugikortasun Jasangarrirako Konpromisoak**1****Mugikortasun-eredu iraunkor eta jasangarriak sustatu, publikoak zein pribatuak, iraunkortasuna sozialki ere baloratuz**

- Aldiriko trenbideak (Euskotren, Renfe, Feve) hobetuz eta sustatuz (geltokien egoera, maiztasunak, falta diren bide-bikoizketak...).
- Jada eraikita dagoena zukutzeko proiektuak lehenetsiz (ohiko trenbideetan hirugarren errailaren bidez nazioarteko zabalera txertatuz, Erriberabeitia eta Asparrena arteko trenbidea “tram-train” baterako egokituz, geraleku berriak planteatuz...).
- Autobusak elektrifikatuz.
- Oinezkoentzako eta bizikletentzako espazioak irabaziz, bestelako azpiegitura faraonikoen aurrean.

2**Garraio publikoko sare moderno eta jasangarria sortu**

- Intermodalitatea oinarri gisa ezarri.
- Erabiltzaileen errenta-irizpideak txertatuz.
- Lurreko mugikortasun modu guztiak bere baitan hartuz.
- Lurreko garraio modu guztietan mugikortasun-txartel bakarra ezarri, udal eta Foru Aldundiekin elkarlanean.
- Herritar guztiak kontuan hartuz, ez soilik hiriburuetakoa.

3**Bizikleta-mugikortasuna estrategikotzat hartu**

- Haren erabilera lehentasunezko garraiobide gisa bihurtuz, instituzioek ere horretarako neurri taktikoak zein estrategikoak hartuz.
- Beharrezkoak diren kaleak birmoldatuz, hirietako sareak berrituz eta osatuz, bereziki sarrera-irteeretan, hiriak haien inguruekin lotzeko asmoarekin.
- Udalez gaindiko sareak sortuz, lurralde-mailako bide berdeak kontuan hartuz.

Elikadura Politika eta Landa Eremu Biziak

DIAGNOSTIKOA

Azkeneko hamarkadetan maila globalean zein lokalean elikagaien kontrola esku gutxietan pilatzen joan da negozio erraldoi bilakatuz. Elikagaien ekoizpena, bere eraldaketa, banaketa eta merkaturatze sistemak ingurumeneko arazo ugari eta bidegabekeri sozialak eragiten ari dira munduan barrena. Euskal Herrira ere aspaldi iritsi dira ondorioak. Nekazaritza sektorearen “modernizazioan”, baserriak, nekazaritza familiarra, arrantza iraunkorra, mendiaren kudeaketa komunala, dibertsifikazioa eta gertuko harremanak baztertzen joan dira, Europar Batasunetik, Madrildik eta Euskal Herriko instituzioetatik, ekoizpenaren industrializazioa eta espezializazioa bultzatu den bitartean. Eredue honen ondorioak nabarmenak dira euskal elikadura sisteman: monolaborantzan oinarritzen den ekoizpena eta inondik inora iraunkorra ez dena, ekoizten diren elikagaiak kanpora bidaltzea eta kontsumitzen ditugun elikagaiak milaka kilometro egitea, diru-laguntzen kontzentrazioa industrialak eta inbertsioetan intentsiboak diren ustiatzeetan, landa ingurunea hustea eta lehen sektoreko belaunaldien errelebo eza, kontsumo ohiturak galdu eta elikagai ultra-prozesatuen kontsumoa igotzea, eta abar luze bat. Bitartean, emakume baserritarrak, landa eremuko bizitza sostengatu dute, eta egun ez dituzte inondik inora euren eskubideak berdintasunean bermatuak, izugarritzko arrakala ekonomiko eta sozialak pairatuz. Testuinguru guztian, azken legegaldian, baserritarrek edota arrantzaleek euren ekoizpenagatik jasotzen dituzten prezio ez duinen salaketa kalean izan dugu; edota gure basoen egoera eta eredia ere eztabaidagarria izan da, kontuan izanik bizitzarako duten garrantzia, baita karbonoaren hustuketa eremu gisa ere. Aldi berean, herritarren artean gero eta handiagoa da elikadura eta egungo elikadura sistemak duen eraginaren gaineko kezka eta honek aldaketa klimatikoarekin eta elikadura sistemaren kontsumo eta banaketa eredia kapitalistarekin, maila globalean zein lokalean, dituen loturak diagnosiaren elementu garrantzizkoak dira elikadura gaia ikuspegi sistemikotik aztertzeko. Are gehiago, COVID19aren krisialdiak ikuspegi sistemikoa aintzat hartzea zein garrantzitsua den erakutsi digu, elikadura eta elikagaien ekoizpena zenbateraino den jendartearentzat esentziala.

Herri gisa elikadura burujabetzan sakontzea eta kalitatezko elikadurekiko herritarrok dugun eskubide subjektiboa bermatzea dira helburu nagusienak, nekazaritza eta arrantza iraunkorra eredia oinarri hartuta, hau da: elikadura sistema osoa kontuan hartzen duen elikadura politika osoa eraikiz.

MUGITU!

ELIKADURA
POLITIKA ETA
LANDA EREMU
BIZIAK

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- EAEn landa eremuan biztanleriaren %12 bizi da soilik, hiru hamarkadatan baserrien herena hustu da eta egun titularren %8,5 soilik ditu 35 urte baino gutxiago, eta adinaren bilakaera gorantz doa. Generoari dagokionez, Eustateko 2016ko datuen arabera, EAEn ustiapenen titularitateari begiratuz gero %38,2 ziren emakumeak. Baserritarren errenta maila euskal batez besteko errenta baino %30 baxuagoa da.
- 2015eko urriak 15ean Emakume Baserritarren Estatutua onartu zen aho batez Eusko Legebiltzarrean, babes falta juridiko eta laboralarekin bukatzeko, baina legean jasotakoa betearazteko ez da baliabiderik jarri eta estatutuak ez du inolako garapenik izan.
- Udalerri bakoitzak oinarrizko zerbitzuetara (hezkuntza, osasuna eta babes soziala, larrialdiak ...) duen irisgarritasuna aztertu eta batz besteko distantziak aintzat hartuz, euskal geografiak ageriko bi espazio adierazten dizkigu: alde batetik, zerbitzuak eskuragarri dituen, kostaldea eta hiriguneak hartzen dituen eta, beste alde batetik, nabarmen irisgarritasun gaitzagoa duena, barnealdeko ardatza. Tes-tuinguru horretan, menpeko pertsonak bizi diren baserrietako fami-lien %80tan emakumeak arduratzen dira zaintza lanez.
- Barne Produktu Gordina (BPG) terminoetan lehen sektorea %1 da, baina elikadura kateak BPGaren %10,56 da. Balio katea eta elikadura sistema bere osotasunean ulertzea nahitaezkoa da, desorekak identi-fikatuz eta aztertuz eta egungo diru laguntzen politika eredu agroin-dustrialak birdefinitzea eskatzen du.
- Nekazaritza Politika Bateratuko (NPB) laguntzetatik gehien jasotzen duten %10ek laguntzen ia %50 kontzentratzen dute EAEn, eta beste erdia lur-jabeen %90 artean banatzen da. Horrez gain, NPbaren 2021-2027 ziklo berriaren eztabaida daukagu, baina ez da inolako eztabai-da zabalik eman EAEn, gure lurraldearentzat eta sektoreko eragi-leekin elkarlanean Europako irizpideei egin ahal dizkiegun ekarpen egokiei muzin eginez.
- 1990az geroztik Euskal Herriko lurraren erabilerak aldaketa nabar-menak izan ditu. Euskal Herrian nekazaritzarako 787.300 hektarea daude egun, 1990 urtean baino 80.400 hektarea gutxiago. Hiru ha-markada hauetan galdutako nekazal lurraren erdia artifizializatu egin da (41.900 ha), hots, zaila da nekazaritza jardueretarako berres-kuratzea.
- 2020ko urtarrilean estatu espainoleko elikagaien jatorri-helmuga prezioen indizea 4,15ekoa izan zen, hau da, elikagaiak 4,15 biderka-tu ziren, eta elikagai batzuetan askoz handiago izan zen indize hori. Euskal elikagaien prezioen behatoki egoki bat aldarrikapen histori-koa izan da; ahaleginak bidean geratu dira eta prezioen ezagutza ilun-pean.

- Mahastizaintza: Azken 20 urtetan krisialdi desberdinak bizi izan ditu, eta bilatu izan diren irtenbideak - botilen eta, bereziki, mahatsaren prezioa jaitsiz- ekoizle eta upategi txikiak desagertzeraino eraman ditu. Arabako Errioxako ardogintzan 1996an 716 upategi zeuden, 2019an 400.
- Elikagaiak batzaz beste 3.000 kilometro baino gehiago egiten dituzte ekoizpenetik platera iristerako, elikadura segurtasuna eta esentziala dugun elikadura eskubidearen beharra esportazioa eta inportazioen menpe dagoen eredu baten esku utziz.
- Kontsumo ohiturak EAEn: gazteriaren %51,2 ez du egunero frutarik jaten eta %82 ez du egunero barazkirik jaten; azukre librean batez besteko kontsumoa 100 g./pertsona/egunekoa da, 50 gramo denean gomendatutako kopurua helduen kasuan eta 37 haurren kasuan; 3 haurretik lek gain-pisua du, eta 3 heldutik lek hipertentsioa du.
- Espainiar Estatuan, Justicia Alimentaria-ko datuen arabera, errenta maila baxua duten pertsonen %22,37ak obesitatea du, eta datu hau, aldiz, %9,29koa da errenta ertain eta altuko pertsonen kasuan. Emakunderen datuak kontuan hartuz, pobrezia gainera eragin handiago du emakumeetan, gizonezkoen bikoitza mantentze gastuetara bideratzeko, elikadurara tarteko.
- Gure basoen egoera eta eredu ere eztabaidagarria izan da. Lurraldearen %50-60 azalera suposatzen duenez, berebiziko garrantzia du karbonoaren hustuketa eremu bezala. Horrez gain, hazkunde azkarreko espezien diru sarrerak baso jardueraren %80 ingurukoa da. Beraz, mendi eta baso politikak birkokatze bat eskatzen du hurrengo hamarkadei begira, agroekosistemen parte bihurtuz eta baserrien dibertsifikazioaren bidean.

2024RAKO KONPROMISOAK

Elikadura Sistema Birlokalizatzea

1

EAEko Elikadura Burujabetzarako Trantsiziorako Legea onartzea:

- EAEko Trantsizio agroekologikorako Plana
- NPbaren eztabaida kolektiboa ematea sakonki EAEn eta, markoa kontuan izanik, diru-laguntza planak ingurumenaren jasangarritasunerantz birbideratzea
- Elikadura Burujabetzarako Trantsizioa Nafarroa eta Iparraldeko lurraldeekin modu koherentean planifikatzea.
- Ikuspegi agroekologikotik EAEko Elikadura Politikaren Ikerketa eta Berrikuntza estrategia 2020-2030erako antolatzea

MUGITU!

ELIKADURA
POLITIKA ETA
LANDA EREMU
BIZIAK

- 2 **Nekazaritza lurren babeserako Legea: Balio agroekologiko handiko lurrak eta Nekazaritzarako intereseko lurrak babes-figurak sortzea eta garatzea.**
- 3 **Baxura eta Arrantza artisauko flota mantendu eta izaera publikoa hartzen joan.**
- 4 **Arrantza iraunkorrerako trantsizio mahaia**
- 5 **Ustiapen agroekologikoen Kontratuak**
- 6 **Intensifikaziorik gabeko nekazaritza eta Trantsizio agroekologikorako etengabeko-trebakuntza garatu, bai sareak sortzeko eta baita zikloak ixteko aukerak sortzeko.**
- 7 **Ekoizpen bolumenen kontrolerako politika**
- 8 **Mahastizainen eta Upategi txikien biziraupena bermatuko duen tokiko eredu iraunkorrerako plana**
- 9 **Tokiko elikagaien eraldaketarako guneak garatzea: Osasun baimena garatu eta Eraldaketa Gune Publikoak sortu**
- 10 **Tokiko elikagaien merkataritza eta kontsumo plana:**
 - Jantoki publikoen sarea (eskualdetako logika): eskolak, zahar egoitzak, ospitaleak, ...
 - Asteroko azoken eraberritze planak
 - Merkatarari txikien eskualdeko katalogoak garatuz.
 - Plataforma digitalak garatu, beti ere eskualdeko logikari jarraituz eta eskala txikiko ekoizpen eredu iraunkor eta dibertsifikatuen logika zainduz.
- 11 **EAEko Elikadura Kontseilua eta Tokiko Elikadura-kontseiluen sarea sortu, bertan emakume baserritarren parte hartzea ziurtatuz.**
 - EAEko Elikadura Kontseiluaren mahaia eratzea bai Tokiko Elikadura Kontseiluetara lotuta, eta baita ere EAEko Elikadura Politikari, mahai hau euskal elikadura sistemaren gobernantzan erabaki gunea izanik.
 - Euskal elikadura sistemaren datuen Behatokia sortu, ikuspegi agroekologikoa jasoz.
 - Elikadura Kontseilua Elikagaien Bidezko Prezioen Itun Soziala erdiesteko baliatu.

Landa eremu biziak eta bizitza duina bermatzea

- 12** Errelebo familiarra eta familia kanpoko ibilbideen programa
- 13** Nekazaritza proiektuen egonkortasun ekonomikorako eta pertsonalerako zerbitzua
- 14** Nekazal Ondarearen Kontseilua sortzea, erreleboa ematen duten edo jarduera modu profesionalean uzten duten baserritar eta arrantzaleen ezagutzen transmisiorako.
- 15** Komunitatean bizitza duinerako azpiegitura sozialak sortzea, baliabide eta zerbitzu egokituekin, beti ere espazio bakoitzaren berezitasunetik, bertakoen parte hartzearekin, gabeziei erantzunez eta errealitateak homogeneizatzeko ahalmena duten kanpoko plangintza handietatik ihes eginez.
- 16** Landa eta Herri Txikien proiektu sozio-ekonomikoen sustapena, ulertuz landa-guneak elikagai sistemarekin izan behar duela lotura zuzena.

Elikagai osasuntsu eta nutritiboak ekoizteko eta kontsumitzeko eskubidea

- 17** Pertsonen eta animalien elikadura-katean transgenikoak erabilera debekatzea
- 18** Elikadura osasuntsuaren fiskalitatea
- 19** Euskal Nekazaritza eta Elikagaigintza Osasuntsuari buruzko Legea idaztea.
- 20** Elikadura-pedagogia eskola Curriculumean barneratzea, ikuskera eko-soziala landuz.

Emakume baserritarren eskubideak berdintasunean

- 21** Emakume baserritarraren Estatutua berrikusi eta garatu
- 22** Emakume baserritarren antolaketa guneak sustatzeko eta garatzeko baliabideak eskaini

Mendien zaintza orekatua

- 23** EAEko Mendi eta Basoen zaintza jasangarriaren Legea
- 24** Zerbitzu ekosistemikoen araberako fiskalitate berdea
- 25** Ikuspegi iraunkorra duen Mendi eta Basoen Formakuntza Ofiziala
- 26** Bertako espezien ezaugarritze teknologikoa burutu

BABESTU!GATAZKAREN
KONPONBIDEA

BABESTU!**GIZA ESKUBIDEEKIN
AURRERA EGITEKO PREST****Gatazkaren konponbidea**

DIAGNOSTIKOA

Euskal gizarteak iraganean gertatutako bortizkeria politikoaren inguruan, egia ezagutzeko eta bakea lortzeko eskubidea du. Bide luzea egin badugu ere, Bakea hitz larriz, tamalez, gaur egun, ez da erabatekoa. Oraindik mantentzen dira gatazka politiko horren ondorio edo eraginak bizirik, biktimen beharrak egoki asebate gabe, preso politikoaren eskubideak urratzen dizkien salbuespenezko legedia mantenduz edota ekimen politikoagatik Espainiar Entzutegi Nazionalera eramanak direnak. Bultzada handia eman behar zaio gizaki ororen berezko duintasunean oinarrituta giza eskubide eta oinarriko askatasun bakar bat ere urra ez dadin eskenatoki bati, orain eta hemen. Oinarri demokratikoak sendotu behar dira, berriro urraketarik gertatuko ez direla bermatzeko.

Euskal jendarteak etorkizunean bizikidetza demokratikoaz eta normalizazio politikoaz gozatzeko eskubidea du. Aniztasunaren errespetuan oinarrituta, ideia eta proiektu politiko guztiak demokratikoki defendatzeko eta askatasun osoz garatzeko aukera emango duen esparru politiko bat eraiki beharra dago, hau saihesten duten oztopo guztiak mugiaraziz.

Saiatu gara ekartzen Legebiltzarrera ekimen zehatzak hiru norabideetan: iragan dramatiko baten konponbidean, orainean daukagun erantzukizunean eta etorkizunarekiko konpromisoan. Tamalez, “errelatoaren bataila” deitutako horretan murgilduta, giro eraikitzaile bat sortzea baino, memoria eta presoen gaia arma jaurtitzaila gisa erabiltzeko tentaldia areagotu da, posizioak gotortuz eta aurrerapausuak geldotuz. Horrelako jarrera ez dugu baxteregoki hartzen. EHBilduk ez du nahi hau betiketzea: hizkuntza, lengoia, adierazpen liskartsuak, baretu behar ditugula, desaktibatu behar ditugula pentsatzen dugu, norberak duen errelato (zilegia) sakontzeko edo besteei

inposatzeko baino, irtenbideen arora pasatzeko. Gauzak nola izendatu edo nola baloratzen dugunez gain, “gauzak mugitu daitezen” nahi du EHBildu. Hitzetatik ekintzetara. Askok geratzen zaigu iraganetik etorkizunerako trantsizio horretan egiteko, urratsak emateko, eskubideak urratuak dituztenak (presoak, biktimak...) eskubide guztien babesa bermatua ikus dezaten. Baina mugitzen hasi gara.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- EHBilduk bultzatu zuen Frankismoaren biktimen errekonozimendu eta erreparaziorako lege bat, EAJren ezezkua jaso zuena. Frankismoaren krimenen kontrako Plataformak, memoria historikoan ahots autorizatuenak, ILP bidez luzatu zigun Memoria historikorako lege proposamena ere atzera bota zuten. Agortu da legegintzaldia eta ez dugu legerik. Frankismoaren biktimek denbora al dute eztabaida hau etengabe atzeratzen ibiltzeko?
- Gasteizko gobernuaren jarduna gatazkaren konponbidearekiko “errelatoaren batailaren” logikan kokatu behar dugu. ETaren desagertaren aurrean protagonismoa soila bilatu zuten; biktimen aldeko ekitaldietan irakurketa partikularra agertu, Herenegun bezalako planak diseinatu EAJren ikuspegi partziala besteoi inposatu... Jokaldi honek konponbiderako praktika onak, ekimen partekatuak eta sinergiak sortu baino, amankomunean aurrera egiteko zailtasunak eragin ditu.
- Estatuko Segurtasun Indarren biktimen aldeko legea egin da, ETaren biktimen legediak zabaltzen duen babes mailatik oso urrun. Gainera, Estatuak Auzitegi Konstituzionalaren mehatxuagatik, EAJ eta PSEk mugatzea onartu zuten, Segurtasun indarren ohorea eta emandako zerbitzua nabarmenduz eta bere biktimen erreparazioaren indarra gutxituz. Anbizioarik gabeko lege horrek Estatuko indar polizialen hildako, zauritu eta torturatuei aitortza emateko prozesuari bidea zabaltzen dio, baina euren eskubide guztiak babestuak izateko lanean jarraitu beharko dugu.
- Gehiengo batek sustatu ditu preso politikoaren aldeko adierazpen garrantzitsuak aurreko legegintzaldian, sakabanaketa amaitzeko, preso gaixoak askatzeko eta oro har, salbuespenezko legedia bertan behera uzteko. Baita ere presoek “sortutako minaren” gaineko adierazpenak ontzat hartu. Hau bestelako urratsak diseinatzeko zorua izan daiteke. Tamalez, Gasteizko gobernutik proposatu diren presoaren aldeko plan edo adierazpenak, protagonismoa edo lidergoa erakusteko helburuarekin egin dira. Horregatik, partekatuak ez izanagatik, tirabira politikorako oinarria suposatu dute.
- Desmilitarizazioaren esparruan, Espainiar segurtasun indarren “erretiratzea” izan da orain arte Legebiltzarreko gehiengo baten aldarrikapena. Oraingo legegintzaldian, EAJ eta PSEren arteko akordioa

BABESTU!GATAZKAREN
KONPONBIDEA

dela eta, aldarrikapen hori ahultzera eraman du, espainiar indarrak “euren eskumen markora egokitzea” eskatuz. Tamalez, Gasteizko Gobernuak hau ere gorpuzteko ahalmena edo borondatea ez duela ikusi ahal izan dugu.

2024RAKO KONPROMISOAK

Herri honetan bizi izan dugu gatazka politiko dramatikoaren ondorioei konponbide integrala izango duen ikuspegitik erantzun nahi izan die EHBilduk: “Bakerako Euskal Konponbidearen” proiektua kaleratu zuen, 69 neurriekin. Lau urte hauetan aldaketa handiak egiaztatu ditugu, besteak beste ETaren armagabetze eta erabateko desagertzearekin lotuta daudenak. Urrats hauek babestu zituen Legebiltzarreko gehiengo zabal batek, baina tamalez, ez da etorri Estatuaren aldetik, bakea eta bizikidetzaren sustatzeko tamaina bereko urratsik. Plan hori eguneratu eta beste indar politikoekin batera konpartitzeko moduan berdiseinatuko dugu, bakea eta bizikidetzaren demokratikoa sustatzeko gure herrian

- 1 Frankismoaren biktimak erdigunean jartzen duen Memoria historikorako legea gauzatzeko prozesua burura eraman behar dugu.** Gure ikuspegitik, ezin da banatu herri honek bizi izan duen gatazka, 1936ko estatu kolpea eta gerra, diktadura eta gaur egunera arte. Are gehiago, faxismoa harrotuta ikusten dugun testuinguru batean. Datorren legegintzaldian, faxismoaren biktimek dituzten eskubideak behin betiko aintzat hartuko dituen legea bultzatuko dugu. Ezin da gehiago itxaron, izan ere Frankismoaren biktimek ez dute denborarik eztabaida hau etengabe atzeratzen ibiltzeko.
- 2 Gatazka politikoan izandako biktima guztiak errekonozitu eta erreparatzeko inizatibak bultzatu ditu EHBilduk, berdintasun ikuspegi batetik.** Tamalez, biktima guztien egoera hobetzeko urratsak baino, errelato bat inposatzeko eraikinak, ekitaldiak, neurriak, inizatibak... bultzatu dira. Biktimen eskariak politizatu dira, edo erabili nahi izan dira ikuspegi politiko batetik, edo errelato zehatz batetik, biktima horien ustezko erantzule gisa definitzen dituztenak erasotzeko edo higatzeko. Biktima guztiek dauzkate beharrak, egia eta justizia eskuratzeko, baina baita eguneroko bizitzan ere beharrak dituzte. Biktima guztiek dituzten behar-izan horiek aztertuko ditugu eta eurei erantzun egoki bat emateko zerbitzuen karta bat osatuko dugu.
- 3 12/2016 Estatuko segurtasun indarrek eragindako giza eskubideen urraketan biktimen legea bertan behera geratzeko jarritako konstituzio kontrako errekurtsioari aurre egitea.** Lege honen kudeaketaren ondorioz biktima hauek beste biktimekiko duten tratua ezberdintasuna konpontzeko beharrezkoak diren lege aldaketak proposatu.
- 4 Preso politikoak ibilbidea egiten ari dira, legalitatearen barruan, etxeratze prozesua burutzeko.** Gaur egun aplikatzen

zaien legedia salbuespenezkoa da. Berau errealitate politiko berrietara egokitu behar da, horretarako beharrezkoa den eraldaketa legala burutuz, salbuespenetik lege arruntera trantsizioa eginez. Euskal gehiengo sozio-politikoaren adostasuna bideratuko dugu Espainiako Gortetan urrats legalak eman ditzaten.

5

Zentzu horretan, preso bakoitzeko inguruabarren arabera, Euskal kartzeletara lehenik eta behin eta urgentziaz eta euren gizartera berriro bueltatzeko eta egoki txertatzeko akonpainamendurako neurriak definitu eta praktikara eramane behar dira. Horretarako, Programa bat diseinatu eta indar politiko ezberdinekin adostu behar da presoek, gaurko testuinguru sozial eta politikoaren arabera, ematen dituzten urratsak eta egiten dituzten eskakizunak berehalako ondorioak izan ditzaten: isolamenduari eta bestelako neurri gizagabeekin amaitzeko, preso gaixoak edo adinakoak kaleratzeko, zigorraren zati handia beteta dutenak berme neurriekin askatzeko, baldintzak betetzen dituztenak baimenak jasotzeko inolako jukutri edo aitzakiarik gabe, amatasuna eta gurasotasuna duintasunean egikaritzeko neurriak ... Aurrerago, ikuspegi zabalago batetik aztertuko ditugun Kartzela eskumenaren esku-aldatzetik eratorriko diren tresnak eta ahalmen horiek, kolektibo honen tratamenduaren markoa, neurri alternatiboen bitartez onurak jasotzeko eske-ma orokorra suposatu beharko dute.

6

Behin presoak kaleratua, jendarrean integratzen laguntzeko eta bizitzari modu duinean aurre egiteko izan ditzaketen behar-rrizan partikularrak (enplegu, hezkuntza, etxebizitza, ekonomikoak, zaintza, osasun arlokoak...) betetzeko laguntzak edo babes sozialeko neurriak eskaintzeko Programa bat definitu eta gauzatuko dugu.

7

Espainiako segurtasun indarrek atzera egiteko edo erretiratze-ko talde politikoon gure aldarrikapena berrestu behar dugu.

- Segurtasun ereduaren ikuspegi batetik egia da hustu egin behar dire-la Espainiako polizien eskumenak, gaur egun dagoeneko urriak direnak.
- Sortu duten sufrimenduaren ikuspegi batetik eta giza eskubideen urraketetan izan duten erantzukizun horren aurrean izan duten inpu-nitatea salatu behar dugu. Gaur egun gure herrian duten presentzia eta ekitaldi politiko-instituzionaletan parte hartzea ezin dugu natu-raltasunez onartu. Berbiktimizazioaren orde, egia eta justizia zor diz-kiegu euren biktimei, eta baita euskal jendarte osoari ere.

BABESTU!

JUSTIZIA

Justizia

DIAGNOSTIKOA

Justiziaren independentzia eza mundu mailako arazoa da. Gure kasu zehatzetan, gainera, ez dauzkagu tresna guztiak gure esku horren garrantzitsua den zerbitzu publiko honi egoki erantzuteko. Ezin dugu arlo guztietan gure legedia garatzeko eskumena –Autogobernuaren ponentzian gure proposamenek hori exijitzera jo badute ere- eta horren ondorioz, ezta ere legeak betearazteko gure justizia sistema egikaritzeko. Justizia espainolaren menpe gaude, datu guztien arabera Europa mailan politizatuena eta partzialenetakoa dena. Estatutuak aurreikusten duen eskumena Justiziaren administrazioa antolatzen murrizten da. Eta antolaketa arazo estruktural larriekin aurkitzen gara, hainbat zerbitzu egoki funtzionatu dezaten. Justiziaren langileak euskal administrazioaren baldintzetara ekiparatzeko ibilbide handia garatzen da. Justizia moderno eta euskalduna bilakatzeko ekimen sorta garatzen aritu gara, baina hastapenetan baino ez gaude.

Sistema penala eta horren adierazpen ikusgarriena den kartzela erakundea, punitibismo eta mendekuzko ikuspegi batetik hedatzen ari da mundu osoan zehar. Zuzenbide penalak hutsegite txikiei gogortasun handiarekin erantzuten die eta sistemako delituei babesa ematen zaie erabateko inpunitatearekin. Kartzela eskumena eskuratzeko prozesua probestu nahi izan dugu, beste zigor sistema gizatiarrago bat irudikatzeko, alternatiboa, presoari jendarretatik banandu baino, gehiago lotzeko aukera eskainiko diona, kartzelan dagoela kaleratzeko duen helburua errazteko. Sistema penala eta horren adierazpen ikusgarriena den kartzela erakundea, aztertu eta proposamen zehatzak egin ditugu. Gaur egun kartzelak giza-erakundeak dira, presoak jendarretatzeko eskubidea bideratzeko sistema izan beharrean, presoak baztertzeko azpiegitura baita. Kataluniako erakundea aintzat hartuta, sistema gizatiarragoa, alternatibo bat martxan jartzeko aukera gisa, “Beste espetze-politika baterantz Euskal Herrian-100 neurri EAEn espetxeen arloko eskumena kudeatzeko” programa definitu dugu. Hori da gure diagnostiko eta erreferentzia aurrera begira garatu behar diren neurriak proposatzeko.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Berezko Justizia administrazioa antolatzeko arazo estruktural larriekin aurkitzen gara –eskumen falta- baina premia, erronka eta arazoei aurre egiteko Justizia Sailaren ez-gaitasun osoarekin ere topo egin dugu: emakumeen kontratako bortizkeriaren Epaitegietan dauden gabeziak, espediente digitala garatzeko zailtasuna, zerbitzua euskaraz emateko ezintasuna, zerbitzu batzuen utzikeria, Justizia Leheneratzailearena edo Medikuntza Legaleko Institutua....
- Kudeaketa txarraren ondorioz, Justizia Leheneratzailearen zerbitzuan egin diren adjudikazioak enpresa jakin batzuei onurak emateko bideratuak egon dira ere. Horren ondorioz, esperientziadun hainbat langileen kaleratze bidegabea eman da, Lan-Auzitegiak agerian utzi duenez. Epai hauek diru publikoaren kudeaketa txarra inplikatzaren duen kalte-ordainak errekonozitzen dizkie langileei.
- Bestetik, Sailak ez du diseinatu Justiziako langileen eta administrazio orokorreko langileen arteko ekiparazioa nola gauzatu, behin betikoz. Justizia sailak ez ditu langile hauen eskubideak lehentasunez hartzen. Ekiparazioa eman dadin, aurreikusirik ez dagoen aurrekontua behar da ere.
- Euskarazko formazioa murrizteaz gainera, perfilatutako plazak ezin dira LEPer atera, Justizia Ministerioak debekatzen baitu. Beraz, lehiaketa zehatzen bidez bakarrik bete daitezke. Lan berezia egin behar da plaza hauek oposizio bidez betetzeko arautegia aldatu dadin.
- Kartzela ereduari buruzko diagnostiko zehatz baten gainean, EHBil-duk zigor- eta espetxe-politikaren gertuko sistema alternatibo oso bat diseinatu du, jendarte moderno eta solidario bati atxikita izango dena, espetxeratuen gainean kezka jartzen duena, presoek eskubideak errespetatzen dituen, osotasun fisikoari, mentalari, garapen pertsonalari, behar psiko-sozialei garrantzia ematen diona eta, nola ez, jendartean ahalik eta hobekien eta azkarren berriz txertatzeko eskubideari lehentasunezko erantzuna ematen diona.
- Kartzela eskuduntzaren transferentziaren eztabaidaren testuinguruan, Legebiltzarreko Justizia Batzordean agerraldi sorta eskatu genuen, hainbat aditu eta eragilekin eskumen horren egikaritzan lehentasunak eta beharrak identifikatzeko. Ondoren, Osoko Bilkura monografiko batera jo genuen, beste indar politikoekin eztabaidatzeko eta egoki ikusten genituen ebazpenak onesteko. PSEk gidatzen duen Justizia Sailaren jarrera jeloskorrekin topatu ginen, etxeko lanak egin ez eta guk proposatutako neurrien egokitasuna eta anbizio maila ezin onartuz..
- COVID-19ak eraginda pairatzem dihardugun osasun krisiak mahai gainean jarri du bestetik, espetxe politika ezberdin, alternatiboa, gizatiarragoaren beharra. Hori da gure erronka.

2024ERAKO KONPROMISOAK

Euskal Justizia-botere baterantz

- 1** **Justiziako langileak Ekiparaziorako IV. Akordioa betetzea**, euskal administrazio publikoko langileen lan-eskubideen eta bete-beharren behin betiko homologazioarekin. Iragarritako lanpostuen balorazioa eta dagozkion osagarrien ebaluazioa, pentsioak, gizarte-segurantzia, klase pasiboak... egin ondoren, ekiparazioa modu errealistan burutzeko behar besteko aurrekontu-gaikuntza.
- 2** **Justizia Administrazioaren Letraduen kidegoen erabateko transferentzia.**
- 3** **Emakumeen aurkako Indarkeriaren Epaitegietan egiturazko gabeziak eta baliabide falta gainditu.** Indarkeria matxistaren arloko espezializazioa eta prestakuntza espezifikoa sustatzea, haien eskubideak baliarazteko eta berriz biktimizatzea saihesteko, Europako araudiarekin bat etorritz.
- 4** **Adingabeen epaitegien diagnostikoa eta plangintza**, zaurgarritasun-egoeren prebentzioari buruzko plan bat barne hartuta, bai eta asistentziaren eta exekuzioaren arloan ere, ikuspegi horretan erakundeen eta eragileen esku-hartzea bateratuz eta indartuz.
- 5** **Espediente digitala ezartzearen gabeziak eta disfuntzioak** eta administrazio edo kidego desberdinetako sistema informatikoen arteko bateraezintasuna konpontzeko plana.
- 6** **Justizian euskara ezartzeko bidean urrats sendoak eman**, prozedura judiziala osorik euskaraz hasteko eta amaitzeko aukera emanaz. Tolosa eta Gernika bezalako epaitegietan esperientzia pilotu bat bultzatzea, euskara hutsezko prozedurak izapidetu eta bideratzeko burura arte. Araudia aldatzeko beharra, perfilatutako plazak oposizio-ra ateratzeko.
- 7** **Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuari dagokionez**, Osakidetzako medikuekiko lan-diskriminazioa amaitu. Prestakuntza ez bultzatzearen ondorioz, lan-prestigioa galtzea eta lan-destino gisa interesik ez izategatik plantilla zaharkitzea zuzentzea.
- 8** **Emakumeen edo adingabeen aurkako abusu edo indarkeriagatik** aurrekariak dituzten gizonei zaintza partekatua ukatzeko lege-ria eguneratu.
- 9** **Euskal Zuzenbide Zibilaren garapena irmoki bultzatu.**
- 10** **Bulego Judizial berria ezartzeko prozesua amaitu, eta aurreko ezarpenetan hautemandako arazoak eta gabeziak antzematea eta konpontzea, batez ere langilerik eza.**

- 11** **Doako justiziaren eskubidearen kasuak eta onuradunak zabaldu**, baldintza ekonomiko edo sozial kaltegarriek justiziara iristeko eskubidea gauzatzea eragozten ez dutela ziurtatzeko.
- 12** **Publizitatearen helburua ahaztu gabe**, Justizia leheneratzaileko zerbitzuak enpresa pribatuei gardentasunez hautatu eta esleitu. Gainera, bidegabe egindako kaleratzeak eta esperientzia duten langileen subrogazioa itzuli behar dira, Eusko Jaurlaritzako lan-kontratuko langileak izan beharko luketelako.
- 13** **Erregistro zibilen euskal zerbitzu publikoaren transferentzia**. Erregistro zibilen zerbitzuak pribatizatzeko asmoei aurre egin behar zaie, aukera aprobetxatuz euskal zerbitzu publiko gisa bere gain hartzeko; zerbitzu horretan, pertsonaren naziotasunari, auzotasunari, nortasunari, egoera zibilari eta gainerako inguruabarrei buruzko egitateak inskribatzeko eta horien publizitatea egiteko eginkizuna dago.
- 14** **Giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak birdimentsionatu**, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, Zigorak Kudeatzeko Euskal Zerbitzua eta esku hartzeko eta gauzatzeko programa zehatzak bultzatzeko. Balorazio integraleko zerbitzua eta talde psiko-sozialak sustatzea indarkeria matxistari eta familia-prozesuei dago-kienez.
- 15** **Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan eskumena duen ustelkeriaren aurkako bulego publikoa eta fiskaltza sortzea eskatu**.
- 16** **Gardentasuna justizian. Beharrezkoa da gobernu ona kontrolatzeko aurreikusitako mekanismoak Justizia Administrazioa zabaltzea**, bereziki haren jarduera baloratzeko edo neurtzeko mekanismoak, herritarren ikuspegiaren eta iritziaren informazio-mekanismo tasatuen bidez. Alderdi horiek guztiak aintzat hartuko dituen eta urtero herritarrei informazioa emango dien Behatokia sortuko da.
- 17** **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako justizia-administrazioaren misio eta ikuspegi berri baten balio eta erronka berrien komunikazio eta hedapen plana**, zerbitzu moderno, eraginkor, arin, euskaldun eta gure herritarren beharrekin konektatuaren garrantziaren pedagogia eginez, Euskal Botere Judiziala bultzatzea eta sortzea barne.

Euskal Espetxe Sistema

Espetxeen eskumenari dagokionez, berehala transferitzeko eskatzeaz gain, kudeaketa alternatiboa izango duen eredu bati aurre egin behar zaio, honako hauek dakartzana:

- 18** **Espetxeetako funtzionarioak euskal administrazio publikoan beren borondatez berraxikitzeke plan bat**, euskal administrazio orokorraren antzeko eginkizunak betetzen dituzten beste kolektibo batzuekiko legea, lana eta ordainsaria behar bezala parekatuta. Aurre-erretiroak egiteko eta beste destino batzuetara berriz atxikitzeke sistema bat itunduko da Espetxe Zuzendaritzarekin, euskal Administrazioan sartu nahi ez duten langileentzat.

BABESTU!

SEGURTASUNA

- 19** **Dekretu bat idatzi euskal bizilekua duten presoak euskal espetxeetara borondatez lekualdatzeko**, bai eta EAEn dauden presoak beren jatorrizko lekuetara eramateko ere, hala eskatzen badute.
- 20** **Espetxeetako langileen ratioak aztertu**, errealitate berri horretan oinarrituta, segurtasun-funtzioak aldatuz eta tratamendu-funtzioak lehenetsiz.
- 21** **Plan Estrategikoa**, gutxiengo nazionalak, etnikoak, linguistikoak, erlijiosoak errespetuz tratatzeko neurriekin.
- 22** **Emakumeei espetxean ematen zaizkien bizi-baldintzak**, diseinu arkitektonikoa eta zerbitzuak egokitu. Arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza espezializatua, bai eta amentzako moduloak sortuz eta arreta berezia ere, espetxeetatik kanpo dauden EAeko mendeko unitateen mapa eguneratuz.
- 23** **Programa espezializatua**, lehen gradutik bigarrenera ahalik eta modu eraginkorrenean eta azkarren joateko, bai eta askatasunaz gabetzen ez duten neurrien plan estrategiko bat garatzeko ere, segurtasun-neurriekin eta eskubideez gabetzen duten zigorrekin betetzeko programak sustatuz.
- 24** **Espetxe-osasunerako jarduera-plan espezifikoa**, hiru eremutan: gaixotasun mentalak, droga-mendekotasuna eta gaixotasun infektzioak, bakoitzari irtenbide zehatzak eskainiz.
- 25** **Erregimen irekiko baliabideak berrantolatzea** (tutoretzapeko etxebizitzak, gainbegiratutako etxebizitzak, etxe-egoitza txikiak, pentsioak ...), batez ere hirugarren sektoreak eragindakoak. Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru-aldundien eta baterako baliabideak eta programak behar bezala planifikatzeko Erkidegoko ekimenen arteko koordinazio-plan arina.
- 26** **Gizartera itzultzeko unean "gartzelaritze" egoerak dituen ondorioen aurka borrokatzeko plana eta deserrotzearen kronifikazioa**, batez ere kondena luzeenetan, ikuspegi hirukoitza dakarrena: gizarteratzeko eta familian integratzeko bermeak, etxebizitza bat eskuratzea eta laneratzea.
- 27** **Sailen arteko plana**, politika kriminalak eta politika sozialak, hezkuntzakoak, lanekoak, sanitarioak, droga-mendekotasunak gainditzeak berdintasun-arloan integratzeko... zigor- eta espetxe-politikan.
- 28** **Espetxeari buruzko komunikazio- eta pedagogia-plana, herritarrengana hurbilduz.**
- 29** **Espetxe-azpiegiturak arrazionalizatzeko eta plazak berresleitzeko programa, diseinatutako eredu alternatiboaren arabera.**
- 30** **Hemen adierazitako beharrak betetzeko behar den aurrekontu-zuzkidura.**

Segurtasuna

DIAGNOSTIKOA

Euskaldunok, Europa mendebaldeko beste edozein jendarte modernoren moduan, hainbat arazo eta kezka daukagu segurtasun ikuspegi batetik.

Segurtasunaren inguruan, gure artean ohikoak edo historikoak izan diren arazoei aurre egitearekin batera, erronka berriak daukagu: ziber-segurtasuna, gorrotozko delituak, emakumearen kontrako bortizkeriaria, adin txiki-kioen abusuak, ingurumen delituak... edota azken bolada honetan, nola ez, COVID19aren ondorioz sufritutako osasun krisiak ere osasun segurtasunaren inguruan sortutako behar eta erronkak.

Gaur egungo segurtasunaren erronkei aurre egingo dien polizia eredu berria proposatzen du EHBilduk. Segurtasuna zerbitzu bat da, kezka bat da, herri-tarrek egoki jasotzeko eskubidea dutela. Segurtasunaren eztabaida oso subjektiboa izaten da, segurtasun pertzepzioaren arabera. EHBilduk objektiboa bihurtu nahi du eztabaida hau, segurtasuna kolokan jartzen duten adierazle, datu eta tasa zehatzaren arabera neurtuz, horren arabera baliabide, behar-rrizan, aurrekontu edo neurri legalei buruzko eztabaida zentzuduna eginez.

Gero eta distopikoagoa den mundu batean bizi gara. Terrorismo yihadistaren ondorioak pairatzen ditugu eta arazo horren aurrean asaldatzen gara gure inguruan jo duenean, biktimen %99a musulmanak direla ahaztuz, baina ez dugu erroetara jotzen: terrorismoaren adierazpen horiez gain, NATOren jarrera inperialista, interbentzionista, lehengai naturalak espoliatu eta ekialdean politikoki eta militarki eragiteko duen lehentasunak ere arbuiatzen du EHBildu. Mugimendu faxistaren gorakadarekin batera, jarrera autoritarioak zabaltzen dira, oinarrizko eskubide eta askatasunak kolokan jarritz.

Oinarrizko eskubide demokratikoak bermatuak egon daitezen baldintzak sortzeko lan egin du EHBilduk. Herritarren Segurtasunerako Legea (mozal legea bezala ulertuta), Segurtasun digitaleko dekretua edota Kode Penalaren erreformak osatu dute herritarren eskubide eta askatasunak murrizteko Estatuaren erasoaren muina. Inboluzio horren aurrean, eskubideen esparrua zabaltzera jo behar dugu. Nahi izan dugu eskubide eta askatasunen egikarritza bermatu, gauzak eraldatu, mugitu daitezen. Giza Eskubideen urraketa sufritu duten eta sufritzen dutenek nabaritu dezaten gauzak aldatu daitezkeela. Eskubide guztiak euskal herritar guztientzat Euskal Herri osoan, hori da gure leloa. Ezin fatalismoan erori, gure determinazio osoa jarri dugu helburu hori erdiesteko eta hala jarraituko du izaten aurrerantzean ere.

BABESTU!**SEGURTASUNA****HAINBAT DATU ESANGURATSU**

- Segurtasun departamentuaren aurreikuspen falta eta kudeaketa txarra dela eta bortizkeria bidegabeen kasuak aztertu ditugu (Cabacas auziko erabaki judiziala eta horren ondorioz, erantzulearen dimisioa ezagutu dugu, Amalur Mendizabal senatariaren kontrako zaurien ondoriozko zigorra...) edo oraindik gertatu direnak salatu (VOXen probokazioen ondoriozko Ertzaintzaren operatiboak atxiloteta arbitrarioak eta zauriak eragin dituztenak; greba eta manifestazio eskubideen egikaritzan poliziaren oldartzea...). COVID19 pandemiaren kudeaketan zehar ikusi ahal izan ditugu horrelako proportzio gabeko gertakizun arbitrarioak, Sailaren partetik babestuak izan direnak. Oraindik horrelako jarrerak bertan behera geratzeko lana eta presioa jarraitu behar da egiten.
- Polizia legeari egin zaion bostgarren aldaketa onetsi berri du EAJ-PSEk, PPren bozarekin, segurtasun eredia sentsibilitate horretarantz balantza desorekatuz. Polizien interes korporatibo eta soldaten igoerak lehenetsiz, beste funtzionarioen kolektiboekiko berdintasun printzipioa hautsi da, pribilegioak gailenduz. Guk kontrako norabidean, polizia modernoa, zibila, gertutasunekoa, eraginkorra, euskalduna izateko eman beharreko urratsak planteatu genituen. Aukera galdu bat.
- Bitartean, ikusten dugu gailentzen dela Sailaren borondate bat Ertzaintzaren eredia hedatzeko udaltzaingoekiko edo emergentzietako edo suhiltzaileen zerbitzuetara ere. Menpeko ikuspegi batetik hartzen dituzte agentzia hauek, funtzio banaketa egoki eta kooperatibo batetik baino. LEP bateratuen emaitzez, Ertzaintzaren trokel bereko udaltzainak sortzen ditu Arkautek, gero zerbitzua emango duten herrietako nortasun eta idiosinkrasia kontutan hartu gabe.
- Herritar Segurtasunaren lege hau indarrean sartu zenetik, EAJ-PSE-ren gobernuak 26.000 aldiz aplikatu du, horietako kasu asko adierazpen askatasuna eta biltzeko eskubidearen kontra. Kopuru hori bikoiztu da COVID19aren krisiaren kudeaketa dela eta. Ez dago izaera xedatzailea duen tresna bat horrelako egoera bati, berme guztiekin eta era zehatz batean jarduteko. Ezin ahaztu lege honek duen izaera errekaudatzailea, osasun krisiaren kudeaketan, diru sarrera ikaragarria suposatzen diolako administrazioari. Neurri honetan, naturalizatu da Mozal legearen erabilera, ohiko kudeaketarako lanabes gisa. Beste aldetik, kaltetuei babesgabetasuna eragiten die. Kasu hauek berme prozesalak gutxitzen dituen prozesu administratibo baten bitartez bideratzen dira, isuna jaso duenaren defentsarako kapazitatea murriztu eta azken erabakia Ertzaintzaren Zuzendariaren esku uzten duena. Kasu zehatzak tratatu ditugu Legebiltzarrean, prentsa askatasunari, euskara erabiltzeari, etxebizitzaren desjabetze mugimenduei, gizarte elkarteei... Orain, pandemiaren kasuistika dela eta zabaltzen da. Legedi errepresibo hau bertan behera geratzearen pilota, Espainiar estatuaren, Kongresua eta Senatuaren borondatearen esku geratzen da. Zoritxarrez, menpekotasunaren ordaina. EAEn bitartean, EAJren erabakipean aplikatzen jarraituko da.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Alderdien interesek sortutako polizia eredu batetik, herritarrei zerbitzu eraginkorra emateko logikara pasatzeko gardentasun, gertutasun, fiskalizatze eta kontu emate printzipioen araberrako eraldaketa estrategikoa abiatzea.

2

Ertzaintza gailentzen duen eredu batetik, segurtasun funtzioen banaketa kooperatibo eta egokiaren bitartez, dimentsionatutako segurtasunaren gertutasun poliziaren trantsizioa proposatuko dugu. Horretarako bi eginbehar ditugu:

- Ditugun kriminalitate-tasa objektiboen balorazioaren araberrako efektiboen berregokitzapena, Lan Postuen Zerrendak aldatuz.
- Ertzaintza eta udaltzaingoaren arteko funtzioez gainera, segurtasun eremuan diharduten agentzia guztien -babes zibila, larrialdi, erreskate, sute eta salbamendu arloetan lan egiten duten eragileak, baina prebentzioa, hezkuntza eta pedagogian aritzen direnak ere- funtzioen berregokitzapena bultzatuko da. Horretarako 15/2012ko Segurtasunaren ordenamendurako legearen eraldaketa proposatuko dugu.

3

Bitartekaritza eta poliziaren kudeaketa bateratuko da, Ertzaintzak eta 20.000 biztanletik gorako udaletan Udaltzaingoek eskainiko dute Herritar Bitartekaritza zerbitzua, auziz-kanpoko gatazka konponbideak eskaintzeko, win-win filosofia batetik, prozesuan parte hartzen duten alde guztiek irabaz dezaten. Gorputz horiek aldeei eta agintaritza judizialari jakinaraziko diete justizia leheneratzailearen zerbitzu hau aktibatzea komeni dela, eta subjektu aktiboak izango dira prozesuan. Prozesu horrek lege-euskarria izango du, horretarako Euskal Poliziaren Legean aldaketa eginez.

4

Ertzaintzaren hainbat unitate espezializatu sortu (adin-txikikoen taldea, desagertutako pertsonen unitatea, gorrotozko delituetarako, hirigintza...) edo indartu; Estatuko segurtasun indarrek une honetan garatzen ituzten eremuak ere indartu, ingurumena edo itsas-erreskate lanetakoa kasu.

5

Poliziaren gehiegikeriak edota praktika txarrak detektatzeko eta egoki tratatzeko Torturaren Kontrako Mekanismo bat jarriko da martxan, Nazio Batuetako proposamena jarraituz. Zentzu horretan, praktika polizial guztiak tasatzeko eta erregistratzeko Errolda sistema bat ezarriko da, batez ere armen eta defentsen erabileraren ondorioz, efektuak eta estatistikak jasoko dituen. Mekanismo honek Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasunerako Batzordea ordezkatzeko du, eskumen zabalagoekin, eta bere gain hartuko du emaitza kaltegarria izan duen polizi esku-hartze oren ofiziozko nahitaezko azterketa. Independentziaren printzipioak bermatzeko Mekanismo horren kideak Legebiltzarrak izendatuko ditu, gizartearen elkarteek proposatutako kideen kuota bat barne. Sistema horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziei buruzko Legearen 10. eta 11. Artikulua aldatzera behartzen du.

BABESTU!

SEGURTASUNA

- 6** **Larrialdi premiei erantzuna emateko Plan estrategikoa.** Emergentziak, Babes zibileko zerbitzuak, larrialdien edota sute eta erreskate zerbitzuak zein bolondres ematen diren zerbitzuak koherenteak izan behar dira, gaur egun deskoordinatuta eta baliabide nahikorik gabe ari baitira.
- 7** **Pairatzen dugun pandemiak ispiluaren aurrean jarri gaitu.** Gure jendarteko zenbait sektoretan administrazio publikoa eskaintzeko gai ez diren zainketa beharrak ematen ari dira. “Herriak bakarrik salba dezake Herria” printzipioaren pean, beharrezkoa da estaldura eta lege-segurtasuna ematea gure inguruan sortu diren Laguntza Sare horiei. Horretarako, Larrialdiak Kudeatzeko Legea aldatzea proposatzen dugu, babes zibileko boluntarioen baliabide horiek udaletatik egituratzeko tresnak eskainiz.
- 8** **Segurtasun departamentua,** fiskaltza eta justizia boterearen arteko koordinazio tresnak badaude, baina ez dute egoki funtzionatzen. Delituen estatistika eta trazabilitatea ere bateratzeko ezintasunaren aurrean, datuak alderatzeko eta koordinaziorako esparruak diseinatu behar dira.
- 9** **Segurtasun eta emergentzietarako lan-heziketarako modulu espezifikoak diseinatu,** segurtasun formazio erregelatua emateko hezkuntza sistema barruan. Hezkuntza sistema arruntaren bidez eskainiko den trebakuntza honek, gaur gaurkoz Arkautek eskaintzen duena murriztea ekarriko du.
- 10** **Emakumea euskal polizian sartzeko Plan eraginkorra sustatuko da, genero parekidetasuna helburu.**
- 11** **Segurtasun eredua euskaraz eskaini ahal izateko Programa integrala diseinatuko da.** Lehentasuna izango du, eta segurtasuneko langileak euskalduntzeko plan bat erabakiko da: erronkak, epeak, modu errealean eta bideragarrian lortzeko moduko helburuak, baina aitzakiarik gabe.
- 12** **Polizia legeari espainiar Estatutik planteatutako Konstituzioaren kontrako helegitearen mehatxuari aurre egitea,** gure segurtasun eredua gehiago politikoaren arabera, injerentziarik gabe, garatu ahal dela bermatzeko.
- 13** **Espainiar segurtasun indarrek gero eta eskumen gehiago hartzen dituzte** (ingurumena, itsas erreskate lanetan edo historikoak izan dituen, errepideetako kontrolak, kasu), legearen inolako babesik gabe. Badaude tresnak ere legearen muga hertsietara eramateko eskumen horiek, borondate faltagatik edo utzikeriagatik, Jaurlaritzak egikaritu ez dituenak. Espainiar segurtasun indarren errepliegearen bidean, legeen mugen arabera eskumenak gutxitzeko Ekintza-plana diseinatuko da.

14

Mozal legea (Herritarren segurtasun legea) eraldatzeko neurriak Madrilen hartzen diren bitartean, ez aplikatzeko konpromisoa hartuko da oinarrizko askatasunak urratzen diren kasuetan. Ertzaintzaren Zuzendariak ebazten ditu prozedura guzti horiek, berak interpretatu dezake askatasuna urratzen den kasuan, izapidea bertan behera geratzea. Emergentsietako legearen aldaketaren bitartez ezarriko dira isun sistema proportzionatu eta eraginkorra osasun, ingurugiro, meteorologia edo antzeko hondamendi edo arrisku publiko krisietarako, kaltetutako pertsonen eskubideen eta babes judizialaren eskubidearen berme osoz.

JAUZI!ERABAKITZEKO
ESKUBIDEA**JAUZI!****ETORKIZUNA
ERABAKITZEKO PREST**Erabakitzeko eskubidea**DIAGNOSTIKOA**

Burujabetza ez da euskal herritarren artean aldarrikapen edo asmo berria, eta euskal nazioaren izaerari ez ezik, aldarrikapen zahar eta berri hori euskal lurraldeetan bizi diren herritarren ongizatea bermatzeko eta garatzeko borondateari ere lotuta dago. Historian euskal lurraldeetako biztanleek osatutako komunitatea behin eta berriz bere burua politikoki eratzten eta gobernatzen saiatu da, euskal herritarren bizi baldintza ekonomiko, sozial eta kulturalak hobetzeko asmoz.

Nekez egongo da Herri honetan aldaketa politiko edo sozialik, herri hau burujabea izan ezean. Gaur egun gizarte gisa ditugun erronkak -politikoak, ekonomikoak, sozialak- alde batean, eta haiei aurre egiteko dauzkagun baliabideak bestean, euskal herritarroi desoreka gero eta handiagoa suertatzen zaigu. COVID-19aren krisiaz egindako kudeaketak ere agerian utzi du birzentralizazio asmoei aurre egin beharrean gaudela, eskura ditugun eskumen mugatuak bertan behera gera baitaitezke Estatuak hala erabakitzen duenean, eta porrot egin duen Estatuaren menpe uzten gaituela. Horregatik, Gernikako autonomia estatutuaren fasea agortutzat emanez, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako euskal herritarrek estatus politiko berria behar dutela aldarrikatzen dugu: burujabetza osoa bilduko duen estatus politiko, hain zuzen ere, euskal herritar guztien ongizatea bermatu ahal izateko bide bakarra delako.

Herri bezala gure etorkizuna bermatzeko, globalizazioak begi bistan jartzen dituen erronka ekonomiko, finantzario, ekologiko edota sozialei aurre egiteko eta bide batez gure herriaren ongizatean sakontzeko burujabetza maila gorena ezinbestekoa dugu. Nazioarteko eremuan, XXI. mendean eta bizi dugun egoera geopolitiko konplexua kontutan izanda, Estatu propio bat izateak soilik bermatzen du aukera hori. Eta Estatu izaera horrek soilik bermatzen digu demokraziaren berreskurapena, non euskal herritarrek eta soilik berriak erabakiko duten zein izango den bere antolaketa politiko, instituzional edota ekonomikoa.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Pasa den legealdi honetan, Estatus Politiko Berria izan behar denaren Oinarri eta Printzipioak adostu ziren Legebiltzarrean, bertan, egungo marko juridiko-politikoa gaindituz erabakitze eskubidearen instituzionalizazioa ardatz, EAE eta Estatu espainolaren artean egun dagoen menpeko harreman eredu irauli eta berdinen arteko harreman eredu marraztu zen.
- Nahiz eta ondoren EAJren hautuak EH Bildu bakarrik utzi akordio horren defentsan. EAJk 41 urte beranduago erreforma estatutario soil baten aldeko hautua egin du.
- Ezarri zenetik 41 urtera, ez betetzeak edota ezagututako birzentralizazio joerez harago, gizarteak ezagututako bilakaerak zaharkitua utzi du Gernikako Estatutua. Etorkizun laburrean aurre egin beharko dizkiegun erronka handiek, eskumenak eta hauek arautzeko ahalmena gaurkotzea eskatzen dute.
- Estatuarekin dugun menpeko harreman ereduak, Estatuaren aldetik egon diren hainbat esku hartzeri modu efektiboan aurre egiteko bitartekorik gabe utzi du EAE.
- Azken urteotan esku hartze horiek askotariko esparruetan gauzatu dira; enplegua, osasungintza, pentsioak, bekak, merkataritza ... non, azken erabakia Auzitegi Konstituzionalaren esku egonik gehienak Estatuaren alde ebatsiz egunerokotasunean eragiten dizkiguten hainbat erabakietan ezin erabakirik utzi gaituzten.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Guztiona eta guztiontzat izango den Euskal Herri baterako proposamena.

- Ondorengo oinarriak jasoko dituen eredu baten defentsa:
- Nazioa gara, nazio izaeraren aitortza.
- Estatuarekin izango dugun harreman ereduaz zein politika publiko guztietaz erabakitzeko eskubidea.
- Lan Harremanetarako Euskal Esparrua, pentsioak hemen arautu eta erabakitzea, justizia eta epaile propioak, Kode Penal propioa... jasoko duen marko burujabea eta gure kultura, hezkuntza sistema, askatasunak, segurtasuna lege, polizia edo epaile espainolei lotua egongo ez direna.
- Auzitegi Konstituzionalaren edota Espainiako Kongresuaren erabakien menpe egongo ez den autogobernu marko burujabea. Izaera

JAUZI!HERRITARREN
PARTE-HARTZEA

konfederala duen berdinen arteko harremanetik eratorria. Euskal erakunde eta herritarrak dira beraien etorkizunaren erabaki subjektu bakarrak.

- EH Bilduren proposamenak etorkizuneko behar eta erronkei erantzuten die eta horrez gain Estatuak duen lurraldetasun auziari erantzuten dio. Nazio aniztasunaren eta Estatuko nazio ezberdinen arteko benetako harreman konfederallean oinarritzen da proposamenaren muina.
- Erabakitze eskubidea harreman eredia libre eta demokratikoki definituz, baita gure eredu soziolaborala, pentsio sistema... galdeketa edota erreferendumak arautu eta egiteko ahalmena baliatuz.
- Prozesu argi bat arautzea euskal herritarrek estatu espainolarekin zein Euskal Herriko beste lurraldeekin edukiko duten harremana erabakitzeko eskubidea gauzatu ahal dezaten.

2**Estatuarekin Estatus berriaren inguruko ezin negoziazio burutu aurretik galdeketa gaitzaile bat burutzeko konpromisoa.**

- Estatutuaren 46. Artikuluaren modifikazioa.
- Estatus berriaren inguruko proposamen konfederala Lege Proposamen gisa aurkezteko konpromisoa.
- Estatus berriaren inguruko eztabaida instituzionalarekin batera eragile sozialekin eztabaida soziala sustatzeko konpromisoa.
- Legebiltzarraren gehiengoak babestuta adostutako Galdeketa baten aldeko konpromisoa
- Euskal Herriko hiru lurralde administratiboen artean lankidetzaren politiketarako eremu instituzional egonkor baten aldeko konpromisoa
- Kataluniarekiko konpromisoa Llotja de Mar-eko akordioaren baitan

3**Nazioarteko komunitatearekiko harremanak sendotu**

- Nazioartean beren estatuetako lurralde-gatazkei bide demokratikoa eman dieten gobernuekin, aldebiko lankidetzaren eta bitartekaritza-akordioak landuko dira.
- Lehentasunez, aldebiko harremanak eta akordioak sortuko dira Eskoziako, Irlandako, Faroe Uharteetako edo Quebeceko gobernuekin. Era berean, bideak irekiko dira Frantziako (Kaledonia Berria), Erresuma Batuko (Eskozia/Ipar Irlanda), Danimarkako (Faroe Uharteak) edo Kanadako (Quebec) gobernuekin.
- Ahaleginak biderkatuko dira Europako erakundeekin lan egin dezaten eta konpontze-prozesuan inplika daitezkeen, eragile inplikatuak eta bitartekaria den aldetik, estaturik gabeko nazioek Espainiako Estatuarekin dituzten lurralde-gatazketan.

Herritarren Parte-hartzea

DIAGNOSTIKOA

Demokrazia, herritarren boterean oinarritzen den sistema politikoa da. Ondorioz, zenbat eta herritarren botere gehiago, orduan eta demokrazia gehiago. Eta demokrazia, askatasuna eta herritarren ongizatearen oinarria da.

Gure herriak dituen arazo nagusien konponbidea, demokrazia garatu eta sakontzean dagoela irmoki sinesten eta defendatzen du Euskal Herria Bilduk. Euskal herritarrok gure herriaren etorkizuna gure esku izatea ezinbestekoa dugu. Ondorioz, gobernu eta administrazioa herritarrengandik gertu egotea funtsezkoa da; baina ez da nahikoa. Herria eta herritarrak izango dira gobernu eta herritarrak ahalduntzea da bide honen bizkar hezurra.

Herri honek behin eta berriz adierazi izan du, informatu, eztabaidatu eta erabaki egin nahi duela. Guztiari buruz erabaki. Tokiko politika eta kudeaketatik hasi eta herri gisa munduan izan nahi dugunari buruz, erabaki. Gure eredu ekonomikoari buruz eta estatu espainiarrarekin izan nahi dugun harremanari buruz, erabaki. Gure gorputzarekin egin nahi dugunaz eta Euskal Herriko beste herrialdeekin izan nahi ditugun harremanei buruz, erabaki. Aske izateko, guztia erabaki.

Baina Euskal Autonomia Erkidegoan urrun gaude eredu horretatik. Herritarrak begirale soil gisa nahi dituen ereduak garatu da azken urteetan Jaurlaritzatik. Gutxi batzuk, gehiengoaren izenean erabakitzea da indarrean dagoen eredu. Multinazionalak jartzen dituzten arauen pean atxikitzea. 78ko erregimenak inposatutako espainiaren batasuna ontzat eman eta zalantzan ez jartzea. Eta azken lau urteetan, EAeko agintarien aldetik areagotu egin da norabide hori.

Indarrean dugun eredu honek herritarrak ahalduntzeari uko egiten dio, herritarrek ahotsa izateari eragozpenak jartzen dizkio eta ahalmen legegile eta araugilea, bide berriak irekitzeko baino gehiengoaren iritzia jazartzera bideratu dira Jaurlaritzatik.

Erabaki gune politiko zein ekonomikoak herritarrengandik gero eta urrunago daude eta gero eta opakoagoak dira. Administrazioaren egiturak egoera hori bermatu eta babesteko daude antolatuta daude, egitura zurruna zein arrotza osatuz.

Herritarren eguneroko bizitza eta etorkizunean zuzenean eragiten duten esparru nagusietatik komunitatea egituratu eta beste kudeaketa eredu bat garatu ordez, azken lau urteotan atzera egin du. Jaurlaritza, urrunetik erabakiak hartzen dituen egitura gisa ikusten da, herritarrentzat erabakiak hartuz baina herritarrak kontuan izan gabe.

JAUZI!**HERRITARREN
PARTE-HARTZEA**

Ondorioz, herritarren aldetik gero eta nabarmenagoa da bere instituzio ordezkatzailleekiko konfiantza galera, baita demokrazia ordezkatzailleak gizar-teari eskaini izan dizkion parte hartze tresna murriztuekiko urruntasuna ere.

Covid-19 aren pandemiak sortutako krisiak zerbait argi utzi baldin badu, hori da, urruneko botereguneetatik hartutako erabakiek ez dutela gure arazo eta etorkizunaren giltza. Herritarrok, gure egunerokotasunaren eta etorkizunaren protagonista izan nahi dugula eta guk aztertu, hausnartu eta erabaki nahi dugula. Herritarrok oso agerian utzi dugu egoera zailei, ardura eta hel-dutasun handiarekin aurre egiteko gaitasuna dugula eta gure hitza balioan jartzea ezinbestekoa dela.

Azken lau urteotan, herritarrak erabaki politikoak hartzeko ahaldunduko di-tuen bitarteko esanguratsurik ez du aurrera atera Jaurlaritzak. Aldiz, gero eta gehiago dira, gero eta gizarte esparru zabalagoetatik, geure bizitzaren eta he-rriaren etorkizunaren jabe izan nahi dugula diogun herritarrak: Pentsionista, emakume, gazte, langile, langabetu eta Euskal Herria aske ikusi nahi dugu-nok, gure herriaren etorkizunaren erabakietan, parte hartu, eztabaidatu eta erabaki egin nahi dugu.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Urkulluren gobernuak ez dio, herritarren parte hartu eta erabakitze-ko aldarrikapenari inongo erantzunik eman.
- Herri bezala dagokigun erabakitzeko eskubidearen gauzapenean, Es-tatu espainiarraren aurrean errenuntzia egin du. Autogobernu ponentziaren baitan gehiengo handi batek adostu eta onartutako Oinarri eta Printzipioei uko egin die, Euskal Autonomia Erkidegoa, orain arte be-zala, espainiar estatuaren menpeko harreman batean mantenduz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Legea, eztabaidatu, adostu eta onartzeko boronda-terik ez du izan Jaurlaritzak. Ezezko honen arrazoi nagusia, Euskal Herria Bilduk egindako herri kontsultei buruzko proposamena izan da. Jaurlaritzak ez du inolaz ere herri kontsultak egiteko aukerarik le-gez arautu nahi izan.
- Hiru Herri Ekimen Legegile aurkeztu dira legealdian zehar eta Jaurla-ritzak osatzen duten alderdiek hirurak atzera bota ditu.
- Auzolanaren aipamena, marketing kontua besterik ez da izan. Auzo-lanak behar duen benetako herri borondatearen antolaketa ez da inolako urratsik eman Jaurlaritzaren aldetik.
- Prozedura administratiboetan, herritarrek zein herri eragileek parte hartu, iritzia eman eta erabakitzeko aukera berririk ez da ireki.
- Demokrazia zuzeneko ariketa bakar bat ere ez da antolatu Jaurlari-tzak bultzatuta.

- Bitartean, gero eta gehiago dira esparru desberdinetatik, beraien bizitzan zuzenean eragiten dute gaien inguruan hitza hartu eta erabaki nahi duten herritarrak. Gero eta gehiago dira iritzia eman eta erabakitzeko bitarteko berriak eskatzen dituzten eragile sozial, sindikal eta politikoa.
- Hainbat Tokiko Eragiletatik partaidetza eta demokrazia zuzeneko jarduerak bultzatzen ari diren bitartean, Jaurlaritzatik ez da inolako pausurik ematen. Ez da herritarren ahalduntzeko heziketan inolako inbertsiorik egin, ez eta elkarlan sozialerako sarerik eraikitzen inolako urratsik egin ere.
- Covid-19 aren pandemiak iraun duen bitartean, Urkulluren gobernuak, Madriletik agindutakoa betetzeari eman dio lehentasuna. Herritarrengandik sortutako ekimen guztiei ezezkoa esan die lehen unean, eta ekimen horiek masiboak bilakatu direnean bakarrik onartu eta babestu ditu. Era berean, gainerako alderdiekin elkarlanean jarduteari ere uko egin dio, bai eta larrialdi egoera honetan Legebiltzarra berriz martxan jarri eta eztabaida bertara eramateari ere.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Parte hartzea bultzatzeko Plan Orokorra onartu

- Jaurlaritzak, legegaldiaren lehen hiruhilabetekoan, herritarren parte hartzea eta erabakitzeko ahalmenari bide emateko helburuarekin, Parte Hartzea Bultzatzeko PLAN OROKORRA onartuko du. Plan hau garatzea, Jaurlaritza osoaren ardura izango da.
- Jendartearen eremu guztietan, demokrazia parte hartzaileari bidea egitea izango da Plan Orokor honen helburu nagusia.

2

Hezkuntza sistema publikoko curriculum-ean, demokrazia parte-hartzailearen edukiak txertatu

- Hezkuntza sisteman, demokrazia parte hartzailearen balioak Curriculum-ean txertatu.
- Parte hartzean oinarritutako heziketa bultzatu horretarako beharrezkoak diren bitarteko pedagogiko eta unitate didaktikoak sortuz.
- Ikastetxeak bere ingurunearen ezagutza eta berarekiko inplikazioa bultzatuko du ikasleen artean, parte hartze kultura zabaltzeko lehen urrats gisa.
- Institutio Publikoek, Hezkuntza zentro desberdinekin HITZARMENAK sinatuko dituzte parte hartzearen heziketan sakondu eta demokrazia zuzeneko ariketak martxan jartzeko.
- Parte hartzearen ezagutza eta kultura hedatu herritarren artean, eremu bakoitzaren ezaugarriak kontutan izanaz eta bakoitzarentzat ba-

JAUZI!**HERRITARREN
PARTE-HARTZEA**

liagarria den bitartekoak erabiliz. Emakume, gazte eta pentsionisten artean saiakera berezia eginaz.

- Parte hartze molde eta mekanismo desberdinei buruzko informazioa zabaldu herritar ororen artean.

3**Gardentasun, informazio eta parte hartze legea aurkeztu**

- Herritarrak ahalduntzeko.
- Emakumeen ahalduntzean sakontzeko neurri berezituak garatuko dira.
- Parte-hartze eta erabakietarako gutxieneko adina 16 urtetan kokatuz.
- Zaurgarritasun egoeran edo arriskuan egon daitezkeen kolektiboen parte hartzeko neurri berezituak garatuz.

4**Instituzioen erabaki nagusietan herritarrei eta herri eragileei parte hartu eta erabakiak hartzeko bideak jarri**

- Aurrekontuak onartzeko prozesuan, atal batzuk herritarren erabakiaren baitan uzteko mekanismoak jarri. Aurrekontuen Legean txertatu.
- Sektoreka edo atalka egiten diren plangintza estrategikoen prozeduran, herritarren eta eragileen ekarpenak jaso ahal izateko zein beraien iritzia kontutan hartzeko bitartekoak jarri.
- Administrazioaren prozeduretan herritarren eta herri eragileen parte hartzea erraztuko duten bitartekoak txertatu. Ekarpenak egiteko baliabideak eskainiz, epeak luzatuz eta abar.
- Jaurlaritzaren Sail bakoitzak, Gardentasun eta informazioaren kudeaketarako plana garatu beharko du legealdiaren lehen hiruhilabetekoan.
- Jaurlaritzaren Sail bakoitzak, herritarrei parte hartzeko eta zuzenean erabaki ahal izango duten atal eta gaien plana burutu beharko du legealdiaren lehen hiruhilabetekoan. Bertan, emakumeen ahalduntzea bereziki landuko da.
- Herritarren Parte Hartzeko Guneak sortuko dira EAE mailan. Gune honetako presentzia zozketa bidez erabakiko da eta herritarrek bertan egon eta parte hartzeko betebeharra izango dute.

5**Kontsulten legea aurkeztu**

- Informazio, gardentasun eta parte hartze legeaz gain, modu berezitan Kontsultak Egiteko Legea aurkeztu eta landuko dugu. Bertan, herri kontsultak egiteko baldintzak arautuko dira (lotesle izaera noiz, noiz ez ...).
- Herritarren interes orokorrekoak diren gai orori buruz egin ahalko dira kontsultak.

- Emaizten inplementaziorako neurriak zehaztuko dira.

6**Herritarrek antolatutako sare komunitarioa ahaldundu eta parte hartzeko mekanismoak bideratu**

- 3. Azken urteetan eta bereziki Covid-19ak eragindako krisiaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoan sare komunitario indartsua sortu da. Sare komunitario hori elikatu eta bultzatuko da instituzioetatik, informazioa eskainiz eta ekarpenak egiteko aukerak zabalduz.

7**Demokrazia zuzeneko ariketak martxan jarri**

- Herritarren interesekoak diren gaietan EAE mailako kontsultak eta demokrazia zuzeneko beste ariketa batzuk antolatu.
- Sektoreka edo lurralde eremu konkretu batzuetara begirako kontsultak eta demokrazia zuzeneko beste ariketa batzuk antolatu.

8**Larrialdi, krisi eta premiazko egoeretan, herritarren iritzia jaso**

- Premiazko egoeren aurrean, herritarren iritziak jasotzeko bitarteko azkar eta eraginkorrek jarriko dira. Iritzi hauek ez dira binkulanteak izango baina erabakiak hartzeko garaian aztertu eta baloratuko dira.

9**Prozesuen jarraipena egin eta neurri zuzentzaileak aplikatu**

- Jaurlaritzaren, lehendakaritza eta Gobernantza sailak, Gardentasun eta Informazioaren kudeaketarako planaren eta herritarrek zuzenean parte hartu ahal izango duten atal eta gaien planaren jarraipena egingo du urtean behin, Legebiltzarrera txostena igorri eta dagozkion neurri zuzentzaileak proposatuz.

10**Herritarren parte hartzerako kontseilua eratu**

- Herritarren parte hartzea sustatu eta gainbegiratzeko helburuarekin, Herritarren Parte Hartzerako Kontseilua eratuko da.
- Kontseilu hau, Gardentasun, Informazio eta Parte-Hartze legean aurreikusiko da eta instituzioetako ordezkariak, gizarte eragileetako ordezkariak eta herritarren artean aukeratutako ordezkariak osatuko dute.

Gobernantza Eredu berria

DIAGNOSTIKOA

Azken hamarkadetan izan dugun gobernantza ereduak, herritarrak administrazioarengandik urruntzea ekarri du, legitimitate eta konfidantza krisi sakona ekarriz. Gero eta maizago agertzen dira, kargu publikoak norberaren intereserako erabili izan diren kasuak edo instituzioetatik burututako gehiegikerien berriak. Kontrolerako mekanismoak eznahikoak izanik eta esku gutxi batzutan hainbesterako botere politiko eta ekonomikoa bilduz, ateak parez pare irekitzen zaizkie horrelako jardueri. Era berean, informazioa eta kontu emateko betebeharrak iraunkorrak eta behar bezain zorrotzak ez izateak, erraztu egiteko ditu praktika hauek.

Botere publikoa herritarrengana gerturatzea ezinbestekoa da. Bai, erabakiak hartu aurreko prozesuan (informazioare kudeaketa egokia eginaz), bai erabakiak hartzerako garaian (hemitarrak ahaldunduz) eta bai behin hartutako erabakien kudeaketa eta egikaritzea modu garden eta zorrotzean eginaz. Kontrolerako tresnak sortuz eta modu iraunkor zein arduratsuan kudeatuz.

Behin eta berriz herritarrek, konfidantzarik handiena gertuena dituzten instituzioetan (tokiko instituzioetan) dutela aipatzen dute. Zenbat eta urrunago sumatu, orduan eta konfidantza urriagoa. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzioak, tokikoekin alderatuz adibidez, urrun sentitzen ditu herritarrak. Egiturazko urratsak egin behar dira gertutasun hori lantzeko.

Jaurlaritzak azken bi legealditan uko egin dio, Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari eta Herritarren Parte Hartzeari buruzko Legea onartzeari. Adostasunetarako proposamen zehatzak izanda ere gobernantza eredu aldaketa sakonak egiteko borondaterik ez du izan. Legebiltzarreko beste taldeetatik norabide berean egindako beste inolako proposamenik ere ez du onartu Jaurlaritzak.

Ondorioz, gaur gaurkoz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak teknologia berrien bidez informazio publikoa modu egokiagoan emateko, instituzioen jardunaren gardentasuna behar bezala bermatzeko eta administrazio publikoa herritarrengana gerturatzeko ezinbestekoa den oinarriko araua onartu gabe dauka.

Tramite burokratikoaren konplexutasunak eragotzi egiten du administrazioa eraginkorra, erraza eta gertukoa izatea.

Sistema publikoaren aldeko defentsarik onena, administrazioaren jarduna irekitzea, hobetzea eta gerturatzea da. Sistema publikoa gure bizitzaren ardatzean kokatu behar dugu, denona eta denontzat delako. Hori da hain zuzen ere, Jaurlaritzak orain artean behar bezala egin ez duena, eremu pribatuari ateak irekitzeko interes handiak izan dituelako.

Bereziki azpimarratzekoa da, gobernantza eredu berria ikuspegi feministatik garatu beharra. Ezin da gobernantza molde berriei buruz hitz egin, mendeetan gizartearen erdia baztertu duen ereduarekin errotik mozten ez bada.

Administrazioaren jardunaren hobekuntza, etengabe irekita izan beharreko eztabaida da, etengabe ebaluatuz, aldatzen ari den gizartearen egoerara egokitu behar delako sistema publikoa ere; egoera berriei aurreratuz eta herritarren kontrola areagotuz. Gaur egun gizartearen beharren oso atzetik doa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren erantzuna.

Egoera honi guztiari buelta emateko, gobernantza eredu berri bat ezinbestekoa da, eta berau, honako printzipio hauetan egituratuko da:

Partehartzea, gardentasuna, kontu ematea, osotasuna, burujabetza politikoa eta ikuspegi feminista.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Azken galdeketen arabera, EAEko herritarrek instituzioetan duten konfidantza ez da 10 puntutatik 4,8 ra ere iristen.
- Tokiko instituzioak dira, herritarrengandik gertutasun eta konfidantza maila handiena jasotzen dutena.
- Herritarrenganako gertutasuna lantzeko helburua zuten Gardentasun, Informazio eta Partehartze legea, Sektore Publikoaren legea edo Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko Legea onartu gabe utzi ditu Jaurlaritzak.
- Bitartean, ustelkeriak kasuak eta hauen aurkako epaiak biderkatu egin dira EAEn.
- Ez da EAEko instituzioak eta administrazioa herritarrengana gerturako apustu sendorik egin Jaurlaritzaren aldetik.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Legebiltzarra ahaldundu

- Legebiltzarrak, funtzio legegilea eta gobernuaren kontrola izateaz gain Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako errealitate politikoaren ispilu izan behar du.
- Legebiltzarraren erabakiak burujabeak izango dira. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Estatu espainiarraren arteko berdinetik berdinerako harremanean, erreferentzia instituzional nagusia izango da Legebiltzarra.

JAUZI!GOBERNANTZA
EREDU BERRIA

- Eztabaida bultzatu eta erabaki estrategikoak hartzeko ahalmena duen gunea izango da Legebiltzarra, alderdi politikoen ordezkariaren aritmetikaz gaindik.
- Legebiltzarra irekitzea ezinbestekoa da, herritarrengana hurbilduz. Indarrean dagoen Barne Erregelamenduaren aldaketa sakona burutzea ezinbestekoa da, legebiltzarra sistema parlamentario aurrerakoen eredura egokitzeko.

2**Estrategikoak diren gaietan eta krisi egoeretan, lehendakarietatik gizarte elkarrizketa bultzatuko, alderdi, sindikatu, eragile sozial, eragile ekonomiko eta interes zuzena duten gainerako eragileekin**

- EAE-ko Lehendakaria, alderdi politiko, sindikatu, enpresari elkarte eta eragile nagusien ordezkari osatutako Mahaiak eta elkarrizketarako gunek eratu dira herriarentzat estrategikoak diren gai oro lantzeko eta ikuspegi desberdinetako ekarpenak jasotzeko.
- Jaularitzak, duen informazio guztia Legebiltzarrean ordezkari duten gainerako indar politikoeekin elkarbanatuko du.

3**Larrialdi, krisi eta premiazko egoeretan, herritarren iritzia jaso**

- Premiazko egoeren aurrean, herritarren iritzia jasotzeko bitarteko azkar eta eraginkorrak jarriko dira. Iritzi hauek ez dira binkulanteak izango baina erabakiak hartzeko garaian aztertu eta baloratuko dira.

4**Jardunaldi egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzeko legea onartu**

- Iragan legealdian aurkeztu eta Jaularitzako alderdiek onartzeko borondatearik izan ez zuten legea, berriz erroldatu eta onartu dugu.
- Instituzioen kudeaketa jardunbide egokietan oinarritua izan dadin eta ustelkeriaren aurkako neurri prebentibo zehatzak aplikatzea izango da bulegoaren helburua, jarraipen eta kontrol neurri zehatzak gauzatuz.

5**Kargu publikoaren kode etikoa garatu**

- Kode Etiko hau, hautetsientzat ez ezik, Administrazioan kargu politikoa izango duten pertsona guztiek sinatu eta bete beharko dute. Kode hau, berdintasun, inpartzialtasun, legitimitate, errespetu, osotasun, kontuak ematean eta gardentasun printzipioetan oinarrituko da.
- Kargu publikoen ondasunen kontrol eta jarraipenean, indarrean dagoen araudian sakonduko dugu.

6**Ate birakarien kontrako neurriak onartu**

- Kargu publikoa norberaren onura gehigarrietara bideratu ez dadin, ate birakarien aurka dauden arau eta neurriak egokitu eta sakonduko dira.

7

Gardentasun, informazio eta parte-hartze legea onartu

- Informazioa modu ulergarri eta argian herritarrengana iritxi dadin, instituzioen jarduera erabat gardena izan dadin eta herritarrek gai publikoetan parte hartu eta erabakitzeko aukera izan dezaten, arlo hauek denak arautuko dituen legea onartuko dugu.
- Jaurlaritzak osotasunean eta Sail bakoitzak zehazki, gardentasun eta informazioa zabaltzeko plangintza bat burutu eta publiko egingo du.
- Gardentasun eta informazio betebeharrak betetzen ez dituzten Sail eta arduradunentzat neurri betearazleak eta zehapen nerriak ezarriko dira.

8

Herritarrek antolatutako sare komunitarioarekin elkarlana

- Azken urteetan eta bereziki Covid-19ak eragindako krisiaren aurrean, Euskal Autonomia Erkidegoan sare komunitario indartsua sortu da. Milaka herritarrek osatutako sare hau elikatu eta osatzea garrantzitsua da. Institutio publikoetatik, egituratutako komunitate horrekin harremana bultzatuko da.

9

Kontratazio publikoetan klausula sozialak txertatzeko legea onartu

- Kontratazio publikoetan klausula sozialak txertatzearekin, kontratazio hauek juntuagoak izateaz gain, gain-kostuak sortzea ekidin behar da. Bi helburu nagusi horiek beteaz, gobernantza eredu egokiago baten norabidean urratsak emateko Legea onartuko dugu.

10

Ustelkeria kasuen salaketa burutzen duten pertsonak babesteko legea onartu

- Ustelkeria kasuen berri ematen duten pertsonen, beren enplegu eta ingurunetik erauziak izateko arriskua pairatzen dute askotan. Fede onez ustelkeria praktiken aurka urratsa eman duten pertsona hauen eskubideak babestuko dituen lege bat onartuko dugu.

11

Lehendakaria eta jaurlaritzako goi karguen soldatak mugaratu, pribilegioak ezabatuz

- Lehendakaria, Sailburuak, Sailburu-orde eta zuzenean izendaturiko goi karguen oinarritzko soldata %25ean jaitsiko dugu.
- Ez-ohiko dieten ordainketa sistematikoa ezabatuko dugu.
- Goi kargu publikoek dituzten ordezkaritza eta protokolo gastuak murriztuko dira, karguari dagozkio lanetara mugatuz. Sail honetan egiten den gastuaren jarraipen zorrotza egingo da.

JAUZI!GOBERNANTZA
EREDU BERRIA**12****Dirulaguntzak emateko iripideak zehaztu eta kontrola areagotu**

- Urteroko dirulaguntza plangintza egiteaz gain, Euskal Herria Bilduk, dirulaguntza horiek emateko irizpideak zehaztu eta sakonduko ditu.
- Ematen diren dirulaguntzak, modu argi eta gardenean bideratuko dira. Bereziki, dirulaguntza zuzenak emateko irizpideak zorroztea funtsezkoa da, eragile eta norbanako denen aukera berdintasuna bermatu dadin eta botere gehiegikeriak ekiditeko helburuarekin.
- Emandako dirulaguntzen jarraipen eta kontrolerako neurriak zorroz-tuko dira. Dirulaguntzak jasoko dituzten empresa, norbanako eta era-gileen aukera berdintasuna bermatuko da eta botere gehiegikeriak zein lagunkeriak ekidingo dira.

13**Talde politikoek zein eragile sozialen aukerak zabaldu, gobernuaren kontrola areagotu eta legebiltzarra herritarrei irekitzeko, barne araudia aldatuko dugu.**

- Legebiltzarreko Erregelamendua gobernantza estilo eta eredu bati erantzuteko egituratuta eta zaharkitua dago. Barne Araudi honen sakoneko aldaketa egitea ezinbestekoa da:
- Legebiltzarra herritarrengana irekitzeko eta dauden oztopoak gainditzeko.
- Funtzio legegileaz gain, gobernuaren kontrola baldintzarik egoki-entan egin ahal izateko.
- Jaurlaritzaren kontrolerako osoko bilkuretan eragile sozialek eta sindikalek, beraiei eragiten dien gaitan, zuzenean gobernuari galderak eta interpelazioak egiteko aukera izan dezaten.
- Erregelamenduaren aldaketaren bidez, bertako talde politikoek eta legebiltzarkideek lan politikorako eta herritarrekin harreman zuzenagoa izateko erraztasunak txertatu eta arautuko dira (bilera telematikoa, Diputazio Iraunkorraren eskumenak, Jaurlaritzaren kontrolerako neurriak, e.a.)

14**Kargu publikoak berretsi edo kargugabetzeko herri ekimenaren legea**

- Lehendakaria edo Jaurlaritzako edozein sailbururen kudeaketaren inguruan herritarrei zuzenean galdetu eta bere arduraren berretsi edo kargugabetzeko aukera arautuko duen legea aurkeztuko da.
- Lege honen helburua, Jaurlaritza eta bere kideen kontrol zuzena herritarrei irekitzea izango da.

15

Goberntza eredu berria, polizia eredu berria

- Ez dago gobernantza eredu berririk, polizia eredu errotik aldatzen ez den bitartean. Polizia indarrek, herritarrenganako gertutasun eta errespetuzko jarrera izango dute. Prebentzioa eta elkarrizketa izango dira beren lanaren jarraile nagusiak. Ez da polizia indarren aldetik gehiegikeriazko jarrerarik onartuko.

16

Komunikabide publikoak herritarren zerbitzura

- Komunikabide publikoak ezin dira bilakatu gobernuan dagoen alderdia edo alderdien bozgorailua. EITB-k, herritarrei beharrei eta informazio eskubideari erantzun behar die, euskararen erabilera bultzatu eta eskaintza komunikatiboa etengabean berritu eta eguneratuz.
- Herritarrei informazioa modu objektibo, argi, zehatz eta ulerterrezean emango zaie.
- Komunikabide publikoen jarduna independentea izango da. Jaurlaritzaren ekimenen berri ezezik, Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdien eta sindikatu zein eragile sozialen mezua zabalduko da, modu orekatuan.
- EITB ren jarduna gainbegiratu eta hobekuntzarako ekarpenak egingo dituen jarraipen organo independentea sustatuko da. Organo honek hiru hilean behin txostena burutuko du. Bertan, hiruhilabetekoaren balorazioa eta neurri zuzentzaileak proposatu dira.
- Gaur egungo eredu errotik aldatu eta aipatutako printzipioak garatuko dituen proposamena egingo dugu.

17

Administrazioa herritarrentzat irisgarriago izateko plana burutu eta garatu

- Plangintzak oinarrizko zereginak hartuko ditu bere baitan:
- Herritarrei tramite administratiboak egiteko aukerak erraztu eta zabaldu egingo zaie, leihatila bakarra eskainiz.
- Zerbitzu eta Sail desberdinen (Gizarte Zerbitzuak, Osasun Zerbitzuak, Administrazio Zerbitzuak ...) arteko koordinazio egokiaren bidez, administrazio tramiteak erraztuko dira.

18

Administrazioak, bere jardunean, herritarren hizkuntz eskubideak errespetatu

- Gobernantza eredu berriak, herritarra izango du erdigunea eta ondorioz, herritar guztien hizkuntza eskubideak bermatuko ditu une eta toki guztietan.
- Bere eguneroko jardunean administrazioak euskara izango du erdigunean.

JAUZI!**GOBERNANTZA
EREDU BERRIA****19****Gobernantza eredu berriak, oinarri feminista**

- Gobernantza moldeak egokituz instituzioetan hartzen diren neurri guztiek, ikuspegi feminista izango dute, hori delako gizonezko eta emakumeen arteko berdintasuna bermatzeko aukera bakarra.
- Gobernuak erabaki eta Administrazioak gauzatzen dituen neurri guztiek, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna errealitate bilakatzea bideratuko dute.
- Covid-19 ak eragindako krisiak agerian utzi ditu gure gizartean, askotan modu prekarioan lan egin eta ezinbestekoak diren sektoreak, bereziki zaintzari lotuak. Instituzio guztien aldetik, eta ikuspegi feminista oinarri gisa harturik, sektore zabal hauen aitortza publiko bat eta bizi zein lan baldintzak hobetzeko herri konpromisoa hartuko da.

20**Gobernantza eredu berriaren jarraipena eta neurri zuzentzaileak**

- Jaurlaritzaren, Lehendakaritza eta Gobernantza sailak, Gobernantza ereduaren jarraipenerako bitartekoak jarriko ditu. Neurri hauen azterketa eginaz, Sailburuak Legebiltzarrean txostena aurkeztuko du urtero.
- Txostenean, urteko balantzeaz gain, arloz arlo hurrengo urtean garatu beharreko neurri zuzentzaileak aurkeztuko dira.

BAT EGIN!

FEMINISMOA

BAT EGIN!

ELKARREN ARTEKO ETORKIZUNA ERAIKITZEKO PREST

Feminismoa

DIAGNOSTIKOA

COVID-19aren pandemia eragiten ari den krisi anizkoitz eta basatiak esku-bideetan eta berdintasunean atzerakada larria izateko mehatxu-egoera bat marrazten digu, bereziki sektore zaurgarrientzat eta emakumeentzat. Feminista askok azken hilabeteetan etengabe errepikatu dutenez, ez da krisia, sistema da arazoa. Emakumeek, eta bereziki zaurgarrienek, dagoeneko krisi estruktural larri baten ondorioak bizi zituzten neoliberalismo kapitalistaren aurrerabidearen mehatxuaren aurrean: bizitzaren prekarizazio orokorraren ondorioak, lan-diskriminazioa, ordaindu gabeko zainketen zama, indarkeria matxista, gure bizitza eta lurraldeen gainean erabakitzeke gaitasunaren galera, etab.

COVID-19aren krisiak agerian utzi du gobernuek eta haien egiturek ez dutela bizitza lehenesten kapitalaren aurretik. Bizitza zaurgarria dela eta hura zaintzea gure lehenetasuna izan behar dela agerian geratu den aldi berean, gobernuetatik egiten ari den kudeaketa zentralizatua, autoritarioa, sekuritarioa, neoliberala eta, jakina, patriarkala izan da eta izaten ari da. Tokikoaren eta komunitatearen autonomia murriztu da (zaintzarako eta elkartasun-sareetarako funtsezko espazio gisa), eta familiei utzi zaie, batez ere emakumeei, orain etxea den zentro horretan haurrak, adinekoak, mendekotasuna duten pertsonak eta bizitza orokorra zaintzearen gainkarga astuna: babesgabe utzi diren milaka emakumerentzat, neskentzat, LGTBI pertsonentzat... segurua ez den etxea. Agerian geratu da sektore feminizatuak eta prekarizatuak funtsezkoak direla bizitzari eusteko, baina ez dira behar beste babestu. Kapital korporatiborako, multinazionaletarako eta enpresa handietarako milioi askoko laguntzak injektatu dira; aldiz, langile-klaseak eta, horren barruan, sektore prekarioenak (emakumeak, migratzaileak, LGTBI pertsonak, etab.) apurrak jasotzen dituzte, adibidez, etxeko langileen kasuan.

Inoiz bizi izan ez dugun egoera baten aurrean ziurgabetasun handiko uneak bizitzen ari gara, atzeraldi ekonomiko larriaren itzala, eta denok dakigu bertikoeak ordaintzea nahiko dutela. Baina krisi hau mobilizazio eta indar sozial handiko une batean iritsi da, bereziki feminismoan. Guztiok ditugu gogoan azken urteetako mobilizazio jendetsuak eta azken mugarrak, hala nola greba feministak eta Euskal Herriko Jardunaldi Feministak.

Halaber, osasun krisiaren gailurrean, Euskal Herriko mugimendu feministak aurrera pausua eman du, eta subjektu politiko gisa duen erantzukizunetik abiatuta, Zaintza Mahai tekniko politiko bat antolatu du, eragile sozial, sindikal eta politikoei parte hartzeko gonbita eginez, Nafarroako eta Eusko Jaurlaritzako gobernuez gain. Azken horien absentiarekin, EH Bildu izan da, gehiengo sindikalarekin batera, gune horretan parte hartu duen alderdi nagusia, zaintzaren arloan eragin politikoa izateko aliantzak sortzea helburu duena.

Feminismoak zentraltasuna hartu du, subjektu politiko gisa eratu da eta desberdintasunen errora doazen eraldaketa politikoak eskatzen ditu, emakumeen% 99ri balio ez dieten adierazpen hutsak, zuritze-saiakerak eta berdintasun-politika neoliberalak baztertuz. Krisitik irtetearen testuinguruan, guztiz beharrezkoa da kontakizun bat eraikitzea, bizitzaren zaintza erdigunean jartzeko eta hura lurreratuko duten politika publikoak proposatzeko eta lehenesteko. Euskal Herriko mugimendu feministak lehen ere hala eskatzen zuen, eta orain ere hala egiten jarraitzen du.

Prekarietatea krisiaren aurretik ere emakume gehienek bizitzen parte zuten bermatu behar dugu krisi hau ez dela erabiliko kapital handia lehenesten duten eta hainbat kolektibo babesik eta eskubiderik gabe atzean uzten dituzten politika austerizideagoak justifikatzeko, hala nola, zaintza-langileak, indarkeria matxisten biktimak, baserritarrak, presoak, migratuak, lesbianak eta transak etab.

Krisiak balio behar du zaintzak demokratizatu, baloratu eta duintzeko politikak planteatzeko, bai etxeetan, bai kanpoan; Zaintza Publikoen Euskal Zerbitzua sortzeko; behar dituzten pertsonen zaintza duinak bermatzeko eta zaintzen dituzten guztiei lan-baldintza duinak bermatzeko; lan guztien banaketa bidezkoagoan aurrera egiteko, etab.

Krisiak, behingoz, hamaika emakumek, nerabek eta umek pairatzen duten indarkeria matxistari aurre egingo dioten politikak planteatzeko balio behar du: egiturazko indarkeria horrek, alderdi instituzionaletik, sinbolikotik, bere bizitzako esparru guztietan eragiten du, eta krisiak ekarri duen konfinamenduarekin, erasotzaileekin bizitzera behartzen ditu, oraindik ezagutzen ez ditugun eta aurre egin beharko diegun ondorioekin.

Krisiak balio behar du inor atzean utziko ez duten politikak planteatzeko, gehiengo sozialaren premiei erantzun egokiak emateko eta, bereziki, egoera zaurgarriagoan krisitik aterako diren kolektiboek: sektore feminizatuetako langile prekarioak, lanik gabe geratuko direnak, etxeko langileak, egoitza-takoak, garbitzaileak, hoteletako kamarerak, presoak, pentsiodunak, baserritarrak, aukera gutxien dituzten ikasleak, transexualak, guraso bakarreko emakume familiaburuak, egoera administratibo irregularra dutenak, etab.

BAT EGIN!**FEMINISMOA**

Krisiak instituzionaltasun eta gobernantza feministaren eredu berri bat bultzatzeko balio behar du, non emakumeek, baztertutako kolektiboek, arrazismoaren aurkako mugimenduek, ekologistek eta abarrek benetan parte hartuko duten erabakiak hartzen, politika publikoak definitzen, Euskal Herrian eta Euskal Herriarentzat.

Krisitik irtetea ezin da lehen ere krisian zeudenen bizitzak gehiago prekariatzearen kontura izan. Osasun-, gizarte-, zaintza-, klima-, ekologia- eta ekonomia-krisi honetatik bizitza erdigunean jarriko duen irtenbide bat behar da, ez enpresa handien etekinak. Lehen ere esan dugu, beste sistema sozial eta ekonomiko bat behar dugu: euskal herritarrek nola bizi erabakitzeke aukera izango duten etorkizuna marraztuko duen sistema, justiziaz, duintasunez eta berdintasunez.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Agerian utzi nahi dugu COVID-19aren pandemiak, konfinamenduak eta krisitik “normaltasun berri” batera irteteko ondorengo estrategiak inoiz ezagutu ez den egoera bat ekarri digula, eta gaur egun azterketa kuantitatibo eta kualitatiboak falta direla etorkizun hurbilean zer errealitate erantzun behar zaien zehatz-mehatz jakin ahal izateko.
- Datu batzuk ditugu, batez ere ekonomikoak, eta indarkeria- eta diskriminazio-errealitate asko areagotu ahal izango direla erakusten duten zantzuak: emakume askok enpleguak galduko dituzte edo beren lan-baldintzak okertuko dira, askok zaintza-karga areagotuko dute, emakumeen eta haurren aurkako indarkeria matxista areagotzeko arriskua agerikoa dela dirudi, eta murrizketen aurrean, hezkidetzan, gizarte-etxebizitzan, kontziliazioan, gizarte-babesean edo ahalduntze-prozesuetan aurreko partidak (nahikoa ez zirenak) gutxituko dira, gutxi batzuk aipatzearen. Krisi honen aurretik eta orain, errealitateak eta beharrak zehatz-mehatz identifikatzeko eskatu diogu Eusko Jaurlaritzari, horiei aurre egiteko politika eta programa egokiak planteatu ahal izateko.
- 2003 geroztik, 106 emakume eta 11 haur hil dituzte indarkeria matxistaren ondorioz Hego Euskal Herrian (4 konfinamenduan). Argi dugu zenbakiak ematea bezain garrantzitsua dela ikusaraztea indarkeria matxista sistemaren tresna eraginkorrenetako bat dela emakumeak mendetasun-egoeran mantentzeko, eta eremu eta esparru guztietan gertatzen dela, indarkeria sinbolikoaren, fisikoaren, sexualaren, psikologikoaren, ekonomikoaren eta instituzionalaren bidez.
- EAEn indarkeria matxistaren biktima diren 24 urtetik beherako emakumeak bikoiztu egin dira azken urteotan. Era berean, gero eta gehiago dira gizon gazte erasotzaileak. Datu kezagarriak dira, zor den guztia ez dela egiten ari adierazten digutenak.

- Babes-aginduak dituzten emakumeen kopuruak % 36 egin du gora azken 4 urteetan.
- Sexu-askatasunaren aurkako delituek urteak daramatzate hazten EAEn. Esate baterako, 422 emakumek salatu zuten 2019an sexu askatasunaren aurkako delitu baten biktima izan zirela, hau da, 2018an baino %9,61 gehiagok. Okerragoa izan zen aurreko urtekoa, 621 kasu izan baitziren, 2017an baino %37 gehiago. Eta ondo asko dakigu, salaketak icebergaren punta baino ez direla, zeren emakume askok sistema judizialean hain ohikoak diren erruduntasun eta birbiktimizazioaren aurrean, uko egiten diote salaketak jartzeari.
- EAEko emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala urtean bataz beste 7.500 €-koa da; pentsiodunek bataz beste % 43 gutxiago kobratzen dute; gainera, lanaldi partzialaren jasotzaileak ia %80 (gutxien baloratuena direnak eta aukera izanez gero hartu nahi izaten ez direnak) eta lanaldi murriztuen zein eszedentzien %80 baino gehiago emakumeak dira. Baina soldata-arrakala zenbaki bat baino askoz gehiago da, emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdintasun baten adierazle da. Dimentsio anitzeko arazo konplexua da, eta egiturazko aldaketak eskatzen ditu ordena sozial eta ekonomikoan, arlo guztietan.
- Gutxiago irabazi arren, emakumeek urtean bataz beste 400 ordu gehiago egiten dute lan; zaintzako eta etxeko lanaren zama ez da behar bezala banatzen. Lanaren sexu-banaketak zuzenean eragiten du emakumeen bizitzaren prekarizazioan, pobrezia-indizeetan, eta bizitza sozialean zein politikoan parte hartzeko aukeretan, osasunean, etab.
- Datu guztiak okerragoak dira diskriminazio ugari jasaten dituzten emakumeentzat: jatorria, arraza, administrazio-egoera, adina, sexu-orientazioa, adina edo genero-identitatea, etab.

2024RAKO KONPROMISOAK

EH Bildurentzat feminismoa bere proiektu politikoaren zeharkako printzipioa da, bai barruan, bai kanpoan. Gaur egun, beharrezkoa da feminismoak gure proposamen eta dokumentu guztietan ageriko lekua izatea; jardun politiko feminista integral baterantz trantsizioan jarraitzen dugun bitartean. Horregatik, estrategia dual bat kontuan hartuta, feminismoen atal espezifiko hau aurkezten dugu eta,aldi berean, hauteskunde-programa osoa irakurtzera animatzen zaituztegu, gure konpromiso feministen ikuspegi integralagoa izateko, batez ere enpleguko, etxebizitzako, gizarteko, fiskalitateko, hezkuntzako, osasuneko, LGTBiko, eta abarreko politikekin zerikusia duten atalak.

Horrela, atal honetan hurbilketa transbertsala egin nahi izan dugu feministik, eta, ondoren, politika feministekin dugun konpromisoan funtsezko bi

BAT EGIN!**FEMINISMOA**

ardatz nagusi jaso nahi izan ditugu: gobernagarritasunarena eta indarkeria matxistena, biak zeharkakoak. Gainera, krisi osteko berreraikuntzaren tes-tuinguruan bereziki egokia den ariketa gisa, pandemian, eta gero ere hala izan beharko lukeen, zentrala izan den gaiari buruzko planteamendu bat sar-tu dugu: zaintzak.

Zaintzak funtsezkoak dira eredu sozioekonomiko berri bat planteatzeko or-duan: bizitzaren zaintza printzipio gidari politiko gisa. Planteamendu erradi-kal horrek trantsizio bat eskatzen du, 2024tik haratago eramango gaituena eta, jakina, gure jarduera politiko instituzional guztia blaituko duena. Ildo horretan, EH Bilduk argi dauka bere etorkizuna, pertsonak lehen: printzipio hori presente dago gure programa osoan, pertsonen eta lurraldeen zaintza. Horregatik, bere zeharkakotasuna bistaratzeko helburu praktiko batekin, zaintzei buruzko atal berezi bat aurkezten dizuegu, ildo horretako neurri na-gusiak jaso nahi dituen. Horren berri zehatzagoa izateko, programa osoa irakurtzea gomendatzen dizuegu, batez ere hemen nabarmendutako arloak.

Bizitzaren zaintza erdigunean

Denok gara zaurgarriak. Gure bizitzan zehar hainbat motatako eta intentsi-tate desberdineko zainketak behar izan ditugu eta beharko ditugu. Hau da, elkarren mendekoak izan gara, gara eta izango gara: beste pertsona batzuen zaintza-lanaren - ordaindua edo ez - eta gure autozaintzaren mendekoak gara. Era berean, guk ere, batez ere harreman eta afektuen bidez, zaindu egin behar dugu. Gure herrian, interdependentzia hori askotan konpontzen da ba-liabideak, denborak eta afektuak ustiatuz, gehienetan emakumeei zaintza-lanak bizkar gainean utziz, aitortu edo balorizatu gabe.

EH Bildun uste dugu Euskal Herria zaintzen demokrazia-eredua izan behar dela. Pertsonen eta lurraldeen zaintza egokiaren inguruko antolaketa ekono-miko eta soziala duen herria, pertsonen artean zaintza-praktika demokrati-koak sustatuz. Horretarako, zaintzak eremu pribatu eta indibiduala gainditu behar du; zaintza balio publiko eta, beraz, politiko bihurtu behar dugu. Ere-mu publikoaren erantzukizuna da zaintzaren erantzukizun kolektiboa bere gain hartzen laguntzea, banaketa justua bultzatuz, beharrezko bisibilizazio eta balorazioarekin batera. Ildo horretan urratsak emateko, hainbat maila-tako neurriak behar ditugu, hainbat arlotan eta epe labur, ertain eta luzera.

Krisiak erakutsi digu bizitza zaintzeak inplikazio ugari dituela, gaur egun go-bernuen barruan hainbat sailetan antolatutako politika publikoekin lotuta. Politiken ikuspegi konpartimentalizatua ez da kasualitatea, berez erabaki politikoa da. EH Bilduren apustua maila horretan ere eragitea da, erakun-deek, kasu honetan Eusko Jaurlaritzak, zaintza-politika publiko benetan in-tegralak bultzatu ahal izateko.

Zaintzak duintzeko herri-itun bat behar dugu, gizarte-sistema unibertsal eta publiko bat bermatuko duen itun bat, egoera zaurgarrian dauden pertsonen, mendekoei, adinekoei, haurrei eta abarrei babes eta arreta egokia emango dien itun bat, zentroan pertsonen arreta duina jarriko duena, interes ekono-miko pribatuak baztertuz. Helburu nagusia izan behar du.

Era berean, tresna berriak sortu behar direla uste dugu, lan erreproduktiboa

aztertze, historikoki alde batera utzi baita. Horretarako, zeharkako akordioak beharko dira Eusko Jaurlaritzaren, unibertsitateen eta beste eragile sozial batzuen artean, hala nola mugimendu feminista, sistema kontzeptual berriak garatzeko eta esparru berriak sortzeko, zaintzen eta etxeko lanen arloarekin zerikusia duen guztia aztertze.

Zaintzen gaineko diziplina anitzeko eta osoko ikuspegia beharrezkoa denez, esparru hori programarekiko zeharkakoa da, bereziki gizarte-politikei, enpleguari, hezkuntzari, osasunari eta etxebizitzari dagokienez. Sarreran adierazi dugun bezala, feminismoen atal honek zaintzei buruzko ikuspegi zabal eta zeharkako hori agerian uzteko eta ulertzeko balio izatea nahi dugu. Horretarako, gure ikuspuntutik, erdigunean bizitzaren zaintza jarriko duten politiken eredurantzko trantsizioa egituratzen duten proposamenak nabarmendu ditugu hemen.

Gizarte politikak

Gizarte Politikei dagokienez nabarmendu nahi dugu (hala ere, Gizarte Politiketako programa osoa kontsultatzeraz gonbidatzen zaituztegu, Zaintza Sistema Publikoari buruzko proposamen osatua eta garatua jasotzen baitu):

- 1 **Lege berri bat aurkeztea, zaintzen unibertsalizazioa eta aukera askea bermatzeko.** Lege horrek, besteak beste, honako hauek jaso beharko ditu: erakunde bakar bat izateko beharra, mendentasun-egoera iraunkorretara mugatuta egongo ez diren zaintzak eman-go direla bermatzeko; eta zaintzak dimentsio guztietan hautatzeko askatasuna: nola zaindu edo (ondo) zaindua izan; eta nola, zenbat eta nor zaindu.
- 2 **Diru-sarrerak Bermatzeko Legea erreformatzea,** indibidualtasunaren, unibertsaltasunaren eta baldintzazkotasunik ezaren printzipioetan oinarrituta.
- 3 **Gizarteratzeko Legea onartzea,** besteak beste, gizarteratze-prozesuen dimentsioaniztasuna, zerbitzu pertsonalizatuak eta pertsonen autonomia eta autodeterminazioa jasoko dituen.
- 4 **Guraso/ama bakarreko familiei buruzko lege bat aurkeztea,** prestazio eta zerbitzuetarako sarbidea ahalbidetu eta erraztuko diena, bai eta neurriak bultzatzea ere, ahultasun-maila handia duten familiak babesteko (ama bakarreko familiak, familia ugariak, desgaitasuna duten seme-alabak edota gurasoak dituztenak, adopzio anizkoitza, harrera-familiak, etab.).

Osasuna

- 5 **COVID-19arekin bizitzeko Larrialdi Plan bat ezartzea,** Osakidetza berrantolaketa eta publikotasun eta unibertsaltasun integratzerako trantsizioa jasoz.
- 6 **Lehen mailako arreta eta osasun mentala sustatzea,** besteak beste: arreta komunitarioa lehenestea, osasun-baldintzatzaileetan arreta jarritz eta ildo espezifikokoak sartuz indarkeria matxistaren bikti-

BAT EGIN!

FEMINISMOA

ma diren emakume eta neskentzat, adinekoentzat eta egoera zaurgarria dauden beste kolektibo batzuentzat, hala nola migratzaileentzat, LGTBI pertsonentzat, bazterkeria-egoeran dauden haurrentzat, etab.; plantilla handitzea; ikastetxeekin osasun mentala lantzea

Hezkuntza

- 7** **Hezkuntza curriculum propio, berritzaile, herrikoi, euskaldun eta parte-hartzaile baterantz aurrera egitea**, zaintzarako hezkuntza paradigma batetik sortua eta pedagogia feministetan oinarritua.
- 8** **Hezkidetzeta Sailburuordetza bat sortzea** eta Hezkidetzeta Plan Integral bat definitzea inplikaturako erakundeekin eta eragileekin, Skolae programa erreferentziatzen hartuta, eta, besteak beste, indarkeria matxistaren eta lgtbifobikoaren aurkako plan integral bat barne hartuta.

Pentsioak

- 9** **Premiaz aktibatzea EAEko pentsio guztiak gutxienez 1.080 eurokoak** izango direla bermatzeko beharrezkoak diren mekanismoak eta tresnak.
- 10** **Lege bat aurkeztea**, aintzatespenik eta balioespenik gabe familia-eremuan zaintzan urteetan lan egin duten emakumeak konpentsatzeko.

Enplegua

- 11** **EAEEn 1.200 euroko gutxieneko soldata ezartzea**, prekarizazio orokorraren aurka.
- 12** **Soldata-arrakalaren aurkako estrategia integral bat abian jartzea**, honako hauek, besteak beste, jasoko dituenak: mugimendu feministarekin eta eragile sozial eta sindikalekin batera, lanaren antolaketari eta banaketari buruzko hausnarketa bat; kontziliazio eraginkor eta errealerako plan berri bat; sektore feminizatuetako eta prekarizatuenetako (besteak beste, zaintzekin eta zerbitzuekin lotutakoak) lan-baldintzak duintzeko neurri zehatz eta eraginkorrak, bai eta kalitatezko enplegua lortzeko zaurgarriak diren kolektiboetarako (gazteak, LGTBI pertsonak, desgaitasuna duten pertsonak, luzaroko langabeak, etab.).
- 13** **Etxeko langileak erregularizatzeko behar diren neurriak proposatzea**: Erregimen Orokorrean sartzea; eta kontrol-prozesuak, batez ere barneko langileentzat.
- 14** **Ekonomia sozialean, komunitarioan eta kooperatiboan oinarritutako ekintzailtza-programa bat bultzatzea**.

Etxebizitza

- 15** **Egungo krisiaren ondorioak gehien pairatzen ari diren kolektiboetara zuzendutako neurri sorta bat premiaz aktibatzea**, besteak beste: 6 hilabetez barkatzea, errenta doitzeta eta kontratua zabaltzea alokairu publikoetan, alokairua ordaintzeko laguntzak handitzea kolektibo kalteberentzat, eta etxegabetzeak etetea.
- 16** **Etxebizitza-eskubidea bermatzera bideratutako hainbat neurri abian jartzea**: espekulazio-funtsen etxebizitza eskuratzeko aukera mugatzea, merkatu pribatua alokatzeko gehiegizko prezioak arautzea, alokairu-parke publikoa handitzea, etxebizitza hutsak mobilizatzea, EAE etxegabetzerik gabeko lurraldea izateko neurrietan sakontzea edo erabilera lagatzeko etxebizitza kooperatiboak sustatzea.

Elikadura politika eta landa eremu biziak

- 17** **Landa-eremuetan bizitza duinak bermatuko dituzten neurriak aktibatzea**, besteak beste, errealitate bakoitzera egokitutako gizarte-zerbitzuak sortzea edo indartzea, tokiko parte-hartzearekin, genero-ikuspegiarekin eta behar adina baliabidez hornituta.
- 18** **Emakume baserritarren eskubide-berdintasuna bermatzea**, besteak beste, Emakume Baserritarren Estatutua berrikusiz eta garatuz, eta garapenerako baliabideak aktibatuz eta emakume baserritarrak antolatzen laguntzeko espazioak bultzatuz.

Gobernagarritasuna

Sarreran esan dugun bezala, politika askoren ikuspegi konpartimentatu, neoliberal, patriarkal eta asistentzialista gaindituko duten instituzionaltasun berri bat eta gobernu-eredu feministak behar ditugu. Gure ereduaren ardatz nagusia izan behar da jendea zaintzea, eskubide-ikuspegiarekin eta berdintasun-, duintasun- eta justizia-printzipioetan oinarrituta: benetako parte-hartze demokratikoko prozesuak artikulatuko dituen eredu bat. Atal honek aurrekoa bezala balio du EH Bildurentzat zeharkakoa den apustua nabarmentzeko.

- 19** **Euskal herritarrei Euskal Herrian eta Euskal Herriarentzat erabakitzeko aukera emango dien marko propioa lortzeko beharrezkoak diren ekimenak eta neurriak proposatu.**
- 20** **Administrazioan Plan Estrategiko bat diseinatzea eta gauzatu**, Sail guztietan egitura feministak sortuko dituen, funtzionatzeko behar diren baliabideak bermatuz.
- 21** **Genero-ikuspegia zeharkako bihurtzeko araudia garatu**, maila guztietako aurrekontu publikoetan, fiskalitate aurrerakoi feminista baterantz aurrera egiteko ere.
- 22** **Administrazio publikoko pribatizazio- eta azpikontratazio-prozesuak lehengoratu, Publikazioaren alde eginez.**

BAT EGIN!

FEMINISMOA

23 **Parte hartzeko esparru lotesleak gaitu**, mugimendu feministarekin, adituekin eta beste eragile sozial eta sindikal batzuekin, modu integralean, gobernu-eredu parte-hartzailea eta demokratikoa bermatuz, genero-harremanetan eragina duten politika publiko guztien diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan.

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

24 **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lege berri bat aurkeztu**, Istanbulgo Hitzarmenarekin bat datorren indarkeria matxistei buruzko ikuspegia jasoko duena, kolektibo eta adituen parte-hartzea bermatuz, bai eta ondorengo arau-garapena ere, horiek gauzatzeko baliabideak bermatzeaz gain.

25 **Indarkeria matxisten aurkako Behatokia aurkeztu**, indarkeria matxistaren adierazpen guztiak aztertu, erregistratu eta ikusaraziko dituen, esparru guztietan, eta horiei aurre egiteko ikuspegiak proposatuko dituen, arreta berezia jarriz indarkeria matxisten moduei, adierazpenari eta eraginari Covid19-ren krisiaren testuinguruan eta ondorengo faseetan eta bereziki zaurgarriak diren kolektiboetan, hala nola emakume migratuetan, etxerik gabekoetan, sexu-langileetan, administrazio-egoera irregularrean daudenetan, haur eta nerabeetan, etab.

- Halaber, kontuan hartu beharko ditu espazio berriak, hala nola emakumeek sarean jasaten dituzten indarkeriak eta
- Elkarrizketa-esparru lotesle eta iraunkorra gaitzea mugimendu feministarekin, bizirik atera direnen elkarrekin eta adituekin, proposatutako neurri guztiak diseinatzeko, abian jartzeko eta ebaluatzeko.

26 **Erakundeen arteko premiazko koordinazio-mahai bat aktibatu, indarkeria matxisten arloko arreta hobetzeko, COVID-19ko krisitik irteteari erantzuteko**, erakundeen, berdintasun-teknikarien, mugimendu feministaren eta inplikaturako eremuetako espezialisten parte-hartzearekin.

- Premiaz, plan espezifiko bat ezarriko duena, COVID-19aren osasun-krisiaren ondoren identifikaturako indarkeria matxistako egoerei aurre egiteko: eta plana inplementatzeko behar diren baliabide guztiez hornituta.
- Arlo judizialean, sanitarioan, sozialean, polizialean eta laborean ahalduzko-ikuspegiarekin eta ikuspegi feministarekin arreta emateko, bere eskumeneko eremuetan beharrezkoak diren baliabideak eskainiko dituen bai emakumeei, bai haien seme-alabei eta euren kargu dauden mendeko pertsonen, egoera bereziki zaurgarrian dauden kolektiboen beharrak kontuan hartuta.
- Inplikaturako profesional guztientzako prestakuntza-prozesu espezializatuak jasoko dituen, ikuspegi feminista eta ahalduzkoak baretik.

27 **Indarkeria matxisten biktimen erreparazioarako Plan Estrategikoa aurkeztu**, beste erakunde batzuekin, bizirik atera diren pertsonen elkarteekin eta aditu feministekin koordinatuta.

biktimen erreparazio-eskubidea bermatuz, dimentsio guztietan: kalte-ordaina, ez errepikatzeko bermeak, osoki berreskuratzea, gogobetetzea eta egia zabaltzea.

28 **Beharrezko aldaketa judizialei aurre egiteko proposamen estrategiko bat aurkeztu**, arreta bidezkoa eta berdintasunezkoa bermatuko duena, COVID-19aren osasun-krisian eta ondorengo faseetan sortutako egoeretara egokituko dena, eta emakumeen beharrak eta erritmoak kontuan hartuko dituena, bai eta birbiktimizaziorik edo erruduntasunik eza, seme-alaben babes egokia eta abar ere.

- Biktimen eta justizia feministako adituen parte hartzea bermatuko duena.

29 **Adin guztietako emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiborako beharrezkoak diren baliabideak eta espazioak aktibatu**, autodefentsa feminista bereziki bermatuz, emakumeen etxeen eta jabekuntza eskolen bidez.

30 **Euskal emakume presoen egia aitortzearen eta erreparazioaren alde eta Euskal Herriko bake prozesuan ikuspegi feminista sartzearen alde lanean jarraitu parte diren eragile guztien parte-hartzearekin**, COVID-19aren krisiaren testuinguruan eta ondorengo faseetan eskubide guztiak betetzen direla bermatuz.

31 **Osasun-arloan, sexu- eta ugalketa-eskubideak eta abortatzeko eskubidea bermatu emakume guztiei**, arreta berezia jarritz COVID-19aren osasun-krisiaren testuinguruan eta ondorengo faseetan bete beharreko berme osoari, eta

- Ikuspegi feminista eta interseksionala izango duena eta kontuan hartuko dituena biztanlerian zaurgarrienak diren edo baztertuta dauden kolektiboen beharrak, hala nola: lesbianak, gazteak, migratzaileak, aniztasun funtzionala duten eta/edo gizarte-zailtasunak dituzten pertsonak, etab.

32 **Emakumeek jai- eta/edo aisialdi-eremuan bizitzen jarraitzen duten diskriminazioaren aurkako neurriak identifikatu eta bultzatu**

- Emakumeen parte-hartzea kontuan hartuta eta dagozkien erakundeekin koordinatuta (alardeak, txokoak ...).

Gazteria

DIAGNOSTIKOA

EAEko gazteria euskal jendarteko kolektibo espezifikoko bat den heinean, neurri propioak eskatzen ditu. Agerikoa da azken urteetan gazteek pairatzen dituzten arazoak areagotzen ari direla. Emantzipatzeko arazoak, lan baldintza prekarioak, aisialdi eredu zaharkituak, jokoaren arazoaren zabalpena, lan baldintza hobetuzkoen bilaketarako migrazioa, ikasketen garestitzea...

Politika neoliberalen ondorioz, gazteok kondenatu nahi gaituzten gizarte batean bizi garenez, premiazko neurri zehatzak behar ditugu. Errotik gauzak aldatuko dituztenak epe labur ertain batean. Esplotazioari aurre eginez, bizi baldintzen hobekuntza eraginez eta parte hartze eredu aktiboa sustatuz.

Zentzu honetan, EH Bildutik apustu garbia egiten dugu: Euskal Herriko gazteen oraina eta geroa bermatuko dituzten politikak proposatu eta egikaritu behar dira, arlo guztietan, iraunkorki eta haien behar eta nahien arabera.

Gazteen begirada modu integralean txertatuko dugu gure politikak gauzatzeko unean, gazteak entzunez eta beraiei protagonismoa emanez. Gazteak gara oraina eta etorkizuna, ezinbestekoa da gu kontuan hartzea benetan jendarte osoa kontuan hartu nahi badugu.

Aldaketa politiko eta sozialaren lehen lerroan kokatuta, gazteriak ezinbestekoa du bere bizi ereduaren aspektu guztietan erabakitzea

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Gazteen %40ak ez du posible ikusten datorren urtean emantzipatzea
- Soldataren %77a bideratu beharko luke gazte batek etxebizitza bat alokatu ahal izateko. Gipuzkoan, datu hau %93,1era igo da, soldata ia osoa.
- Etxebizitza bat erosteko aldiz, hipoteka ordaintzeko soldataren %54,4a gorde beharko luke.
- Goi-mailako ikasketak modu librean aukeratzeko eskubidea ere erabat baldintzatuta geratu da, ikasle askok ezin dituztelako hiriburuetako alokairu prezioak ordaindu.
- EAEko gazteen batazbesteko emantzipazio adina Europar Batasuneko baina 4 urte gehiagokoa da.

- 2007tik emantzipazio tasak 3 puntu behera egin du.
- EAEko 3 gaztetatik 1 apustueta ibiltzen da. Gazte horien %15ak ludo-patia garatzeko arrisku larria du. Apustu etxeetara joaten direnen %66a 35 urtetik beherako pertsonak dira
- Lanean ari diren 16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiagok aldi baterako kontratua du. Aldi baterako kontratuen ehunekoak, gainera, gora egin du azken urteetan.
- Gazteen %54,4 guraso edo familiako beste kideren baten diru sarre-
ren bitartez biziraun behar dute.
- Gazteen %77,4 gurasoen edo familiako beste kideren baten etxean bizi da, emantzipatu gabe.
- Gazteen %78 ez da hilean 900 euro baino gehiago izatera iristen.
- Egia da gazteen langabezia tasak behera egin duela, baina lanean ari diren gazteen lan baldintzak okerragoak dira, kontratu gehienak parzialak dira eta ekonomikoki oso baxuak
- Gazteriaren erdia edozein enplegu, edozein tokitan eta edozein baldintzetan hartzeko prest ageri da.
- EAEko gazteek batz besteko soldata baino 8.000€ gutxiago kobratzen dituzte eta gazteen artean emakumeek gizonen baino 3.540€ gutxiago.
- Gazte askok ikasketak lan prekarioekin batera egin behar dituzte, askotan ikasketen urteak luzatuz eta ikasketen prezioa biderkatuz
- Datu hauek txarrak izanda, egun bizi dugun krisia gazteengan eragin zuzena izaten ari da. Langabezia areagotu da gazteen artean eta bizi baldintzak txarrerantz egin dute azken hilabeteetan.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Gazteen emantzipatzeko Plan Estrategikoa aurkeztu

- Etxebizitza komunitarioen esperientziak biderkatuz.
- Lan eta enplegu duinerako estrategia gauzatuz
- Alokairu publikoan gazteentzako kuota ezarri eta pribatuetan alokairua diruz lagunduz

2

Atzerriratutako Gazteen Itzulerarako Plana aurkeztu

3

Gazteei zuzendutako enplegu Plana

BAT EGIN!**SEXU ETA GENERO
ANIZTASUNA**

- Kalitatezko enplegu duina sortzeko estrategiak garatuz
- Gazteen prekarizazioarekin amaitzeko neurriak bultzatuz
- Autonomo faltsuen penalizazio eta ikuskaritza gogortuz eta plataforma birtualen jarraipen zorrotza eginez
- Praktika lanaldiak duintzeko neurriak hartuz eta horiek errebisatuz.
- Aldi baterako kontratuak errebisatuz eta horiei mugak jarritz.

4**Heziketa ziklorako babes neurriak aktibatu**

- Derrigorrezko heziketaz haragoko ikasketak burutzen jarraitzeko beka sistemak indartuz
- Ikasleentzako alokairuzko etxebizitzak sustatuz

5**Gazteen parte hartzea areagotzeko neurriak aktibatu**

- Gazteen begirada txertatuz politika oro garatzeko unean, gazteen parte hartze zuzena ahalbidetuz.
- Erabaki politikoetan parte hartzeko adin muga 16 urtera jaitziz.

6**Aisialdi eredu berriak sortu**

- Espazio autogestionatuei erraztasunak jarritz.
- Jokoaren aurkako neurri mugatzaileak zorrotzuz, joko aretoen ezabapen fisiko eta birtuala bultzatzeko legedia bultzatuz.
- Kultur eta musika adierazpen herrikoiak babestuz.
- Espazio publikoaren erabilera erraztuz eta hastapenetan dauden sortzaileei beharrezkoak dituzten bitartekoak erraztuz (instrumentuak, materialak, lokalak...).

7**Mugikortasuna errazteko neurriak hartu**

- Txartel bakarra martxan jarri eta sustatuz.
- Gazteentzako tarifikazio propioa sortuz arrazoizko prezioak zehaztuz.

Sexu- eta genero-aniztasuna

DIAGNOSTIKOA

LGTBI kolektiboen ikusgarritasuna eta eskubideen aldeko borroka indartu egin da azken urteotan, borroka feministak egin duen modu berean. LGTBI pertsonen eta kolektiboen merkantilizazio-saiakeren aurrean, mobilizazio ugari eta jendetsuak izan dira, duela hamarkada batzuetatik hona Euskal Herrian gogorutzen ziren handienak, mugarri garrantzitsuak markatuz: mobilizazioak mugimendu sindikal eta langilearekin batera, Stonewalleko matxinadaren 50. urteurrena eta Francis Oleretan eraildako 40. urteurrena. Horrek guztiak, zalantzarik gabe, mugarri bat ezarri zuen gure herrialdeko mugimenduaren borrokan. Ezin dugu ahaztu Ekai Lersundi gazte transexual ondarrutarraren heriotza 2018an: hasitako borroka jarraipena izan du, eta gure herrian transexualitatea despatologizatzen lagundu du.

Aurrekaririk gabeko dimentsio anitzeko krisiak, COVID-19aren pandemiak ikusarazi eta indartu duenak, gure bizimoduak nahasi ditu, eta agerian utzi du, gordinki, gure bizitzaren zaurgarritasuna eta interdependentzia. Sistematikoki disidenteak diren pertsonentzat, LGTBI pertsonak bezala, zaurgarritasun handiagoa izateko arrisku argia dakar. Dauden datu apurrek, eta hainbat kolektiboren aldetik iristen joan zaizkigun informazioek, inpaktu nabarmena erakusten dute, konfinamenduaren faseetan ez ezik, bai eta, ziur asko, inpaktu jarraitua ere, irteera-faseetan eta gaizki deitu den "normaltasun berrira" itzulera: LGTBI kolektiboentzat bazterkeria- eta diskriminazioa ekarri izan duen normaltasuna.

Gogora dezagun oraindik diskriminazio asko eta asko daudela: disidente sexu-generikoei, esparru heteronormatibotik kanpo dauden pertsonak, ez dituzte eskubide berberak Euskal Herrian, ez formalki, ez modu errealean. Politikoki zuzenak diren diskurtsoetatik harago, ez da aurrerapen esanguratsurik izan politika publikoetan. Oro har, orain arte, EAEko erakunde publikoek politika deskoordinatuak eta erabat eskasak bultzatu dituzte, helburu argirik gabeko eta baliabiderik gabeko zerbitzuak sortu dituzte, baztertuz LGTBI politiketarako beharrezkoak diren oinarri instituzional finkoa zein ikuspegi politiko eta araudi argiak.

COVID-19aren ondorioz krisi-irteeraren kudeaketaren egungo testuinguruan, litekeena da LGTBI pertsonentzat indarkeria gehiago, lan-prekarietate gehiago eta osasun-zerbitzu egokiak eskuratzeko arazo gehiago ekaritzea. EH Bildun argi daukagu krisia ezin dela aitzakia izan euskal herritar asko atzean uzteko, babesik gabe, eskubiderik gabe. Beharrezkoa da krisiaren eraginaren ezagutzan sakontzea, LGTBI pertsonen egungo beharrak eta errealitateak ikuspegi feministatik eta eskubideen ikuspegitik landuko dituzten politika integralak proposatu ahal izateko. Kolektibo zaurgarrientzako eskubideetan atzera egiteko arriskua dagoen testuinguru batean,

BAT EGIN!**SEXU ETA GENERO
ANIZTASUNA**

lehentasuna eskatu behar dugu politiketan: ez da baliabide falta, badakigu, borondate politikoaren kontua da.

Testuinguru honetan eta inoiz baino gehiago, beharrezkoa da LGTBI siglen barruan erantzun beharreko errealitate eta behar desberdinak ikusaraztea: hala, lesbianek ikusezin bihurtzen eta diskriminatzen jarraitzen dute, emakume izateagatik eta beren sexu-orientazioagatik, eta transexualek diskriminazio anitzak eta estigma sozial handia jasaten dituzte, beren bizitzetan inpaktu larriak eraginez.

Sistemak, iruzurrezko leloen pean, denbora darama LGTBI nortasunak helburu ekonomiko hutsarekin erabiltzen saiatzen: Euskal Herrian ere ikusten ari gara, gayfriendly hotelak, makroekitaldiak... Aniztasunaren errespetuaren eta defentsaren babespean etekin ekonomiko hutsa lortu nahi duten ekimenak, batez ere gizon zuriak, gayak, adin ertainekoak, gaitasun ekonomiko handikoak, lumarik gabeak... bisibilizatuz. Argi daukagu LGTBI pertsonentzat eskubide guztiak defendatu behar ditugula, sexua, genero-identitatea, arraza, jatorria eta abarregatik diskriminatuta daudenengan arreta berezia jarritz bai eta COVID-19aren krisitik irteteko prozesuan areagotu daitezkeen egoeretan ere.

EH Bidun, sexu- eta genero-aniztasunak arlo bakarra osatzen du feminismoekin batera: horrela, onartzen dugu patriarkatuak, sexu-genero sistemaren eta arau heterosexualaren bidez, emakumeak eta disidente sexu-generikoak azpiratu eta bereizten dituela. Bi sexu-etako bati, esleitzen zaizkion rolei edo arautzat hartzen den sexu-portaerari erantzuten ez diotenak baztertuak eta zigortuak dira. Jatorri bera duten diskriminazio-adierazpenak dira, eta askotariko hurbilketa behar dute, azterketa-esparru komun batean oinarrituta.

Ikuspegi interseksional batek politika publiko egokiak planifikatzeko orduan kontuan hartu beharko ditugun bizipenak, errealitateak eta beharrak hurbiltzen eta ikusarazten dizkigu. Gure helburua pertsonen eta kolektiboak jasaten duten eskubide urraketaren arrazoiei aurre egiteko neurri integralak diseinatzea eta martxan jartzea izango da: krisia ezin da aitzakia izan: borondate politiko kontua da.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Esanguratsua da LGTBI pertsonen errealitateari buruzko datu zehatzik eza EAEn (nahiz eta aho batez onartua izan, EH Bilduk proposatuta, Gasteizko Legebiltzarrean). Ondorioz, EAEn ez daukagu ez diagnostikorik, ez ildo politiko argirik, ez plan integralik, ez jarraipen-adierazlerik. LGTBI mugimendua bera arduratu da datu batzuk biltzeaz, erakundeen erantzun faltaren aurrean. Gaur egun, LGTBI mugimenduak kudeatutako behatoki bakarra dugu, parte-hartze publikoarekin, Gasteizkoa.
- Jakina, egoerak berdin jarraitzen du COVID-19aren krisiaren eta irteeraren kudeaketaren testuinguruan: ofizialki ez dago daturik. Hala

ere, Estatu espainiarrean egiten ari dira ikerketa batzuk eta ziurrenik Euskal Herrira estrapolatu daitezke neurri handi batean.

- Pertsona transexualen eta transgeneroen langabezia-tasa % 85 ingurukoa da; emakume transexualen bizi-itxaropena 50 urte ingurukoa da. Konfinamenduan zehar, LGTBI pertsonen% 20k gutxienez galdu ditu lanpostuak behin betiko edo aldi baterako.
- LGTBI pertsonak diskriminazioa jasaten dute egunero, eta askotan indarkeria, batez ere esparru publikoan: hezkuntzaren, kirolaren, osasunaren, aisialdiaren esparruetan, erakundeen beraien aldetik... Egoera administratibo edo migratzailearen, arrazaren, jatorriaren, egoera ekonomikoaren, adinaren edo sexu-orientazioaren beraren edo genero-aniztasunaren arabera, diskriminazio-egoera gordinagoa da.
- Nabarmenezkoa da krisiak ezarritako konfinamenduan, familia-etxeetara itzuli behar izan duten pertsonen artean, % 60k baino gehiagok onarpenik eza eta diskriminazioa adierazten dituztela. Harreman intimoetan eta bikote-harremanetan,% 11k haustura emozionalak izan ditu alarma-egoeran. % 6k besteentzako zama sentitzen du, eta aldarte depresiboa du; pertsonen% 15ek, berriz, esan du ez duela sarerik edo laguntzarik. % 7k adierazi du arazoak izan dituela bere tratamendu hormonalak edo sexu-osasunarekin lotutakoak eskuratzeko.
- Ez dugu ahaztu behar, halaber, krisiaren kudeaketak, diskurtsoetatik hasi eta konfinamendu-faseetan ezarritako neurrietara arte, arrasto familista heteronormatibo argia duela: ez dira agerian jartzen beste bizikidetzak eta harreman afektibo eredu batzuk, beste sexualitate eta identitate batzuk, eta, beraz, ez da neurririk zehazten areagotu daitezkeen indarkeria-egoerei, osasun mentaleko arazoei eta abarri aurre egiteko.
- Berdinu, Eusko Jaurlaritzak sortutako zerbitzu bakarra, Gizarte politiketako Sailaren barruan dago, "Familia politika eta aniztasuna" izeneko norabide batean. Izenekoan bertan ikusezin bihurtzeak jada adierazten digu gobernuaren konpromiso falta. Informazio-edukiak (sare sozialak, etab.) eta LGTBI pertsonen ematen zaien arreta ez dira nahikoak, esleitutako baliabide gutxi daudelako eta ildo politiko argirik ez dagoelako, etab., ondo dakigun bezala, izendatzen ez dena ez da existitzen, eta existitzen ez dena ez da politikoki artatu behar den errealitate sozial bat.

BAT EGIN!SEXU ETA GENERO
ANIZTASUNA**2024RAKO KONPROMISOAK****Gobernagarritasuna eta arau-eremua**

- 1 Eusko Jaurlaritzan sexu- eta genero-aniztasunari buruzko zuzendaritza espezifiko bat sortu,**
 - LGTBI politiken bultzatzaile eta koordinatzaile gisa jardungo duena.
- 2 Premiazko diagnostiko bat egitea COVID-19aren ondorioz LGTBI pertsonen EAEn duten egoerari buruz, kolektibo eta eragile sozialekin koordinatuta.**
- 3 LGTBI kolektiboekin eta adituekin elkarrizketa lotesle eta iraunkorreko esparru bat gaitu**
 - Bertan, LGTBI pertsonekin zerikusia duten politika guztien diseinua eta jarraipena eta ebaluazioa sustatuko dira.
- 4 LGTBI lege integrala bultzatu, betiere LGTBI kolektibo eta adituekin adostuta,**
 - Benetako parte hartzea erdigunean jarritz, bai prozesuari bai edukiei dagokienez.
- 5 Transen despatologizazioaren eta diskriminazioaren aurkako legea garatu**
 - LGTBI kolektiboen eta adituen parte-hartzearekin egin beharko da.
- 6 EAEko LGTBI Behatokia diseinatzea eta martxan jarri**
 - LGTBI kolektiboek eta adituek parte hartu beharko dute, bai diseinuan, bai martxan jartzean, funtzionamenduan eta jarraipenean.
- 7 Berdinu arreta- eta informazio-zerbitzu publikoa osatzeko proposamena berreskuratu**
 - LGTBI kolektiboek eskatu bezala, hau da: Aurrekontua duen zerbitzua, plan estrategikoa duena, LGTBI kolektiboekin etengabeko harremana duena erabakiak hartzeko guneetan, eta zeharkakotasun-antibioa duena Eusko Jaurlaritzako gainerako sailetan.
- 8 Prestakuntza-prozesu espezializatuak eta jarraituak bultzatu,**
 - Ikuspegi feministarekin.
 - Arlo horrekin zerikusia duten profesional guztiei zuzenduta daude, epaitegiak, fiskaltza, polizia eta jendearen arretarako profesionalak barne.

9 Eremu eta sektore guztietan, LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean koordinaziorako, arretarako eta erantzun publiko instituzionalerako protokoloak diseinatu eta martxan jarri

- Kolektiboek diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzea.
- COVID-19aren krisialdiaren ondorioz sortutako indarkeria-mota berriei edota gorakadari aurre egiteko neurri egokiak jasotzen dituztenak.

10 Neurri espezifikoak bultzatu Osakidetzarekin LGTBI pertsonen arreta hobetzeko,

- Bereziki azpimarratuz COVID-19aren krisian ezarritako konfinamenduan izan diren babesgabetasun-egoerak iraultzeko, eta transexualitatearen despatologizazioan aurrera egiteko.

11 Disidentzia sexu-generikoan kokatzen diren pertsona guztien eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak aktibatu

- Eremu guztietan, besteak beste: Administrazio-formularioetan aldaketak egitea, Euskaltzaindiaren nomenklaturan binarismoa ezabatzea, aldagelak eta komunak instalazio publikoetan egokitzea, lan-arloko protokolo eta kanpaina espezifikoak, etab.
- COVID-19aren krisitik irteteko kudeaketaren testuinguruan, LGTBI kolektiboen kalteberatasun- eta diskriminazio-errealitatea kontuan hartzea onartuko diren talka-politiketan: lanekoak, gizarte-babese-koak, osasun-arlokoak, etab.

12 Haur eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezarri, bereziki, transen errealitatea barne hartzen duten hezkidetzaren prozesuen bidez.

Aldaketa sozialak LGTBI fobiaren aurrean

13 Sentsibilizazio feministako kanpainak egin, COVID-19ko krisiaren testuinguruan kokatuta, eta

- Epe labur, ertain eta luzean sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari eta LGTBI pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea erraztuko dutenak.

14 Hezkidetzako Plan Integrala bultzatu

- Eremu formala eta ez-formala hartzen dituenak, eta Hezkuntza sexu-afektiboa eta aniztasun sexu-generikoa jasoko dituenak.

BAT EGIN!

MIGRAZIO
POLITIKAK
ETA KULTURA
ANIZTASUNA

- 15** Jazarpen eta eraso LGBTIfobikoen aurrean erantzun eta arreta emateko protokoloak bultzatu
- Hezkuntzan, kulturaren, komunikazioan eta enpresetan.
- 16** Hezkuntza-, kirol-, kultura- eta komunikabide-eremuetan neurri progresiboak eta nahitaezkoak diseinatu eta abian jarri LGBTIfobiaren egiturazko kausak ezabatzeko, betiere COVID-19a dela eta egin beharreko premiazko diagnostikoan identifikatu diren errealitateei aurre egingo diona, besteak beste, jasoz,
- Lesbianen ikusezintasunaren eta diskriminazioaren aurkako neurri zehatzak,
 - LGBTI presoen estigmari eta diskriminazioari aurre egiteko neurri zehatzak,
 - Komunikabide publikoetarako kode deontologikoak.
- 17** Adinekoen egoitzetan hainbat neurri bultzatu, modu koordinatuan, LGBTI pertsonak beren aukera sexual-generikoa askatasunez bizi ahal izan dezaten, diskriminaziorik gabe, besteak beste, jasoz,
- Sentsibilizazio-kanpainak,
 - Espazio bitarren berrantolaketa, eta
 - LGBTI adineko pertsonen ekarpena ikusarazteko eta balioesteko jarduerak.
- 18** Pandemian sortutako zaintza-sare komunitarioen, erakundeen eta LGBTI kolektiboen arteko baterako lana sustatu, LGBTI ikuspegia izango duten zaintzaren lan-ildoak aktibatzeke.
- 19** Indarkeriaren biktima diren edota egoera bereziki zaugarrian dauden LGBTI pertsonentzako harrera-espazioak sortu arreta psikosozialeko, ekonomikoko, hezkuntzako eta bizilekuko zerbitzuak integratuz. Adingabeen, migratzaileen, transexualen... behar espezifikoak jasoz.

Migrazio politikak eta kultura aniztasuna

DIAGNOSTIKOA

Euskal jendartearen ezaugarrietako bat bere jatorri, etorkin eta kultura aniztasuna da. Arrazoi ekonomikoak, politikoak, ingurumenekoak, kulturalak eta sozialak direla medio, migrazio fluxu ezberdinek jatorri ezberdineko pertsona eta kolektiboak Euskal Herrira iristea ekarri dute, baita munduan euskal presentzia izatea ere.

Horrela, herri gisa aberasten gaituen eta jatorri estatala eta globalizatua duten migrazio-fenomenoen ondorioz garrantzi handiagoa hartu duen kultura anitzeko errealitatea dugu, eta, gainera, ijito-herriaren presentzia sekularra du.

Egoera horrek erronka berriak dakartza, eta, beraz, EH Bilduri dagokio herri gisa geure ikuspegitik erantzutea, betiere, subjektu protagonistekin, gizarte-eragileekin eta euskal herritar guztiekin elkarlanean. Kultura-aniztasun hori aberasgarria da, eta behar bezala kudeatzeko gai bagara, bizikidetzarako funtsezko elementu bihurtuko dugu. Gainera, errealitate demografiko ukazina da, koiunturala ez den eta gertatzen jarraituko duen fenomeno baten aurrean baikaude, bereziki ekonomia kapitalistaren ereduak iparralde-hegoalde harremanetan eragiten dituen desberdintasunak sakontzen jarraitzen den bitartean.

Errealitate horri gehitu behar diogu COVID-19 gaixotasunaren pandemiak eragindako osasun eta gizarte krisiaren testuingurua. Krisi horren ondorioak ere nabarmentzen baitira migrazio-politiken eremuan; bai mugimenduen mailan, mugak erabat ixtean sortutako mugikortasun murrizketengatik; bai eskubideen mailan, erakundeen utzikeria egoeran, erregularizatu gabeko pertsonen egoerak dakartzan ondorio sozialak direla eta. Testuinguru horrek areagotu baino ez ditu egiten Espainiako Estatuko atzerritartasun eta nazionalitate-legeak pairatzen ari zirenen diskriminazioak eta desberdintasunak.

Egungo larrialdi-egoerak babesik gabe uzten ditu langile-klaseko sektore ahulenak, izan ere, kolektibo prekarioenak dira ondorioak gehien pairatzen dituztenak. Horien artean daude administrazio-egoera irregularrean dauden migratzaileak; emakume migratzaileak, bereziki etxeko, zaintzako edo zerbitzuetako langileak; gure herrialdean erreferente nagusirik ez duten adingabeak; adinekoak; etxerik ez duten pertsonak; sexu-langileak edo ijito-herriaren zati handi bat, gizarte-egoera ahulenen artean daudelako, adibide batzuk aipatzearen. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu gizarte-babeseko premiazko jarduerak eta neurriak lehenestea, inolako desberdintasunik ez errepikatzeko. EH Bildurentzat, une honetan, lehentasuna dira osasun publikoa eta herritar guztien ongizatea. Horrela, migrazio eta kultura-aniztasuneko politikek honako zeharkako helburu hau izan behar dute: osasun-krisiaren ondorioz bultzatutako neurri guztiek pertsona guztien eskubideen,

BAT EGIN!

**MIGRAZIO
POLITIKAK
ETA KULTURA
ANIZTASUNA**

betebeharren eta aukeren berdintasuna bermatzea, haien kultura-jatorria edo administrazio-egoera edozein izanda ere.

Egoera horren aurrean, EH Bilduren ustez, administrazio publikoei dago-kie jendarteratzea eta kulturen arteko bizikidetzat bultzatuko duten politikak lehenestea, eta, gainera, pertsona guztien eskubide, betebehar eta aukera berdintasuna bermatuko dutenak. Beraz, EH Bilduren lehentasunezko helburua izango da Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurraldeetarako ere kultura aniztasuna kudeatzeko eredu demokratikoa bultzatzea. Horretarako, kultura aniztasunaren kudeaketa eredu demokratikoen eta kulturartekotasunaren arabera bideratu behar da, non hitz gakoa bizikidetzat den. Hori lortzeko, elkar ezagutzea, ulertzea eta aitortzea ezinbesteko elementuak izango dira. Gure kasuan, herritar guztientzako eredu propioa, inklusiboa, parte-hartzailea eta zeharkakoa, berezko kultura gutxitua duen nazio politiko gisa dugun errealitatea kontuan hartuko duena; izan ere, ezin dugu alde batera utzi Espainiako konstituzio-esparruak eta haren atzeritartasun-legeek ukatu egiten dituzten migrazioari buruzko politika propioa garatzea, eskubide eta betebehar guztiak aukera-berdintasunean aitortzen dituen herritartasun unibertsala eta osoa bermatzeko.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Gaur egun, biztanleriaren %28'5 (898.500 pertsona) gure lurraldetik kanpo jaio da, baina errealitateak oso desberdinak dira herrialde edo eskualdeen arabera: Iparraldea (%42,6), Araba (%33,6), Bizkaia (%28,4) Nafarroa Garaia (%26,5), Gipuzkoa (%22,6). Tasa horiek altutzat jo daitezke inguratzen gaituen Europako testuinguruarekin alderatuta, Luxenburgok edo Kataluniak soilik gainditzen baitituzte.
- Diagnostiko labur hori osatzeko, adierazi behar dugu EAEko autonomia-erkidegotik egiten diren migrazio-politikek eta kultura-aniztasuna kudeatzeko politikek profil txikia dutela eta estatuko politiken mende daudela.
- Horrela, bada, ez erakunde-egituran, zeina gizarte mailan aldaketa handiak izan arren zaharkituta jarraitzen duen, ez autogobernuaren ekintza eta migratzaileen eskubideen bermea mugatzen dituen lege-esparruan, ez eta herrialde gisa eredu propio batean aurrera egiteko eskumen-garapenean ere, ia ez da ikusten hiru lurralde historikoen kultura, gizarte eta politika berezitasuna kontuan hartuko duen gobernu-ekintza kohesionaturik. Profil baxukoa da, osasun-larrialdian ere mantendu dena, sortu diren behar berrien eta premiazkoen aurrean erantzunik eman gabe.
- Jakina denez, migrazio-politikaren, nazionalitatearen, atzeritartasunaren eta asilo-eskubidearen arloko eskumenak Estatuaren eskumen eksklusiboak dira, salbuespen gutxi batzuk, migratzaileen jazarteratzearekin zerikusia duten sektorekoak ezik (osasuna, hezkuntza, enplegua, gizarte-eskubideak) administrazio autonomikoen, foralen eta toki-administrazioen esku geratzen baitira.

- Egoera hori ez da kasualitatearen ondorioa; izan ere, kontrolaren bidez (atzerriartasunari eta nazionalitateari buruzko legeak, administrazio-baldintzen erregulazioa, migrazio-fluxuen kontrola, deportazioak, boto-eskubidea, identitatea...), estatuek baldintzatu egiten dute nazio minorizatuen egoera, ez baitiete tresnarik edo baliabiderik ematen migrazio-prozesu batzuk kudeatzeko, zeinak, nabarmenki, alor sozialean, ekonomikoan, lan-harremanetan, linguistikoan, autogobernuan, bizikidetzan edo kultura-garapenerako prozesuetan eragiten duten. Horrela, kontraesan nabarmenak ageri dira giza eskubideak, gizarteratzea, bizikidetzaren edo erabateko herritartasuna bermatzeko orduan.
- EH Bilduren ustez, Euskal Herrian bizi garen guztiok, eskubide, bete-behar eta aukera berberak izan behar ditugu. Baita Espainiako estatuko atzerriartasun-legeria aplikatzearen ondorioz giza eskubideak urratzen diren kasuetan ere. Hori dela eta, osasun-larrialdiaren ondoren, uste dugu Lakuako Gobernuari dagokiola, halaber, atzerriartasunari buruzko estatuko araudiek eragiten dituzten diskriminazioak gainditzeko ekintzak ezartzea eta mekanismoak antolatzea. Garaia da, euskal agenda politikoan, migratzaile guztien erregularizazioaren eskakizunari heltzeko, eta autogobernuaren eztabaidari lotzeko; izan ere, eskumenak erabat garatuz eta gure subiranotasuna gauzatzeko bermatu ahal izango dugu herritartasun unibertsala eta osoa pertsona guztientzat.

2024RAKO KONPROMISOAK

Harrera integrala

1

Herritarrentzako eta Bizikidetzarako Harrera Integralari buruzko Legea

- Helburua da lurraldeetara iristen edo itzultzen diren pertsonen inklusioa eta aukera-berdintasuna erraztea, bai eta hori eragozten duten oztopoak gainditzea ere, batez ere, oinarrizko hizkuntza-gaitasunik ez izateagatik eta gizartea eta ordenamendu juridikoa ez ezagutzeagatik, berdintasun-printzipioa eragingarri egiteko eta gizarte-kohezio handiagoa lortzeko.
- Lege horren barruan, pertsona migratzaileen osasunerako, hezikuntzarako eta gizarte-zerbitzuetarako eskubidea bermatzea, unibertsaltasunaren ikuspegitik.
- Zeharkako lege honek, egungo ikuspegi asistentzialista hutsa alde batera utziko du, eskubideen eremura igarotzeko.
- Atzerriartasunari buruzko legediaren eta eskubide-desberdintasunen, oinarrizko hizkuntza-gaitasunik ezaren edo gizartearen ezjakintasunaren ondorioz gizarteratzea eragozten duten oztopoak gainditzeko legea izango da.

BAT EGIN!

MIGRAZIO
POLITIKAK
ETA KULTURA
ANIZTASUNA

- Foru aldundiekiko eta udalekiko lankidetzan oinarrituta, lege honen helburua migratzaileei zerbitzu publikoetarako sarbidea erraztea izango da, batez ere bi arlotan: itzulpen-zerbitzuak sustatuz (euskarazkoak eta jatorrizko hizkuntzetakoak bereziki) eta lege eta gizarte arloko aholkularitza eta arreta zerbitzua abian jarritz, batez ere Egoera administratibo batean dauden migratzaileak

2

Herritar guztiek euskara jakin eta ezagutu dezaten bermatu jatorria edozein dela ere.

- Hizkuntza Normalizatzeko Sailarekin batera
- Migrazioa jasotzen duen jendarte batean, hizkuntza da harrera prozesuaren elementu nagusietako bat. Horregatik, gobernutik lan egingo dugu EAE iritsi diren pertsonen euskara ikasteko aukera izan dezaten.

3

Doakotasun unibertsala eta euskararen irakaskuntza helduengana hurbildu lurraldean bizi diren pertsona guztientzat, eta arreta berezia eskaintzea etorri berriei eta jatorri desberdinetakoei.

4

Lurraldera iristen diren pertsona guztiei harrera integrala egiteko programa, haien jatorria edo migrazio-joan-etorriaren inguruabarrak edozein direla ere, zerbitzu publikoetarako sarbidea bermatzeko, hala nola: gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, laneratzeko laguntza, etxebizitza, etab.

5

Jatorri edo kultura desberdinen inguruan antolatutako elkarteentzako sustapen, lankidetzeta eta laguntza programak.

6

Nazioarteko uretan erreskate humanitarioko proiektuak defendatu, hala nola Aita Mari.

Herritartasun osoa

7

Herritartasun unibertsalari lotutako eskubideen defentsa aktiboa EAetik

- Ikuspegi propioa emanez.
- EAEn bizi garen pertsona guztiok eskubide, betebeharrak eta aukera berdinak izan behar ditugu, eta hori bermatzeko ardurak administrazio publikoei dagokie. Baita Espainiako Estatuko atzerriartasun legedia aplikatzearen ondorioz eskubideak urratzen diren kasuetan ere.

8

Pertsona migratzaileen administrazio-erregularizazioaren aldeko ekinak eta neurriak:

- Estatuko Gobernuari eskatzea administrazio-egoera irregularrean dauden pertsonen erregularizazioa, premiaz, modu orokorrean eta ez ohikoan.
- Azterketa bat egitea zehatz-mehatz ezagutzeko EAEn administra-

zio-egoera irregularrean dauden pertsonen kopurua, jarduteko plan integral batekin osatuko dena, kaltetutako pertsonen eskubide eta betebeharren berdintasuna eta lan zein bizileku-egonkortasuna bermatuko dituzten neurriekin.

- Pertsona guztien erabateko herritartasunerantz aurrera egitea ahalbidetuko duten migrazio-politiken arloko eskumenak bereganatzeko lan-agenda bat egitea.

9

Osasun-krisia dela-eta bultzatutako gizarte-babeserako neurri guztiek pertsona guztien beharrak asetzen dituztela bermatzea, haien kultura-jatorria edo administrazio-egoera edozein dela ere.

10

Benetako bizilekuaren aplikazioa, erroldatzearen bidez airtortua

- Horretarako, erroldatzeak udalerrietatik emateko neurriak ezarriko dira, bertan bizi diren herritarrak herritar egoiliarak izango direla bermatzeko, baita helbide finkorik edo erregistratzeko helbiderik ez duten pertsonentzat ere.

11

Migrazioko eta kultura-aniztasuneko politika propioak garatu

- Baliabide egonkor eta iraunkorrekin, printzipio gisa herritartasun unibertsala eta herrien arteko elkartasuna izango dituen, non pertsona guztientzako eskubide guztiak, migrazioaren arloko politika publikoen ardatz egituratzailea izango diren.
- Migrazio eta kultura-aniztasuneko politikak kudeatzeko esparru burujabe baten beharrari buruzko interpelazio politiko eta instituzionalak eginez. Estatuak esparru horren kudeaketan dituzten mugak salatzea.
- Eusko Jaurlaritzak immigrazioaren arloan bere gain hartu behar dituen eskumen guztiak (lan eta egoitza-baimenak, harrera-legeria, etab.) definitzea, azterketari ekiteko.

12

Asilo, babes eta laguntza-politika propioak diseinatu eta garatu

- Migratzaileen eta errefuxiatuen eskubideen defentsan inplikaturako gizarte-eragileak kontuan hartuta, eta politika publikoak egiteko haien proposamenak lotesleak izatea, bai eta giza baliabide ekonomiko guztiak ematea ere, giza eskubideen alde egiten duten aparteko lana egiten jarraitzeko.

13

Lurraldean bizi diren pertsona guztien boto-eskubidea, elkartzeko eskubidea eta parte-hartze politikorako eskubidea babesteko erabil daitezkeen tresna juridiko-politikoak buruzko azterlanak egin jatorria edozein dela ere.

BAT EGIN!

MIGRAZIO
POLITIKAK
ETA KULTURA
ANIZTASUNA

14 Erakundeen inplikazioa, euskal herritarren salaketa eta defentsa proaktiboaren bidez, eskubide politikoak eta zibilak urratzen diren kasu larrietan. Atzerritartasun eta naziotasun legeek urratutako eskubideak baliatzeko euskal herritarren babesa bermatu.

15 DSBE jasotzeko baldintzak malgutzea. Erroldan 3 urte eman izanaren eskakizuna kentzea.

Kultura-aniztasunaren kudeaketa demokratikoa

16 Kultura-aniztasuna eta migrazioak kudeatzeko zuzendaritza orokorra sortu

- Eremu honetako politiken lidergoa izateko eta jarduera, baliabide eta estruktura guztiak koordinatzeko.
- EAEko erakunde guztiak (gobernua, aldundiak, udalak, etab.) esparru horretan dinamizatu, bultzatu, koordinatu eta kohesionatzeko.
- Herri-mugimenduekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan aritu eta parte-hartzea errazteko.

17 Migrazio-politiken eta kultura-aniztasunaren arloko esumenak garatzea.

18 Udalerriei baliabideak eman migratzaileei harrera egiteko eta pertsona guztien gizarteratzea eta kulturen arteko bizikidetzaren bultzatzeko sortzen diren beharretan oinarrituta.

19 Migratzaileen eta jatorri desberdinetako biztanleen artean euskara ikasteko aukera emango duten hezkuntza-ereduetan matrikulatzeko behar diren mekanismoak sustatu eta gaitu

- Aukera-berdintasuna bultzatzeko eta segregazioa saihesteko.
- Horrekin batera, sentsibilizazio eta prestakuntza dinamikak abiartzeko ditugu ikastetxeetan, familia horien jatorrizko hizkuntzek beren lekua eta aitorpena izan dezaten gure hezkuntza-sisteman.

20 Ekintza integralerako plana garatu, Ijito Herriaren errealitatea, kultura eta ezaugarriak ikusarazteko eta herritarrak sentsibilizatzeko.

- Ijitoen garapen integralerako ekintza-politika publikoak ezarriko dituen.
- Ijitoei hainbat eremutan eragiten dieten desberdintasunak murrizteko, hala nola osasunean, hezkuntzan, enpleguan eta etxebizitzaren eskuraketan. Gazteei eta emakume ijitoei arreta berezia eskainiz, tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza oinarri hartuta.

- Ijitoei euskara eta euskal kultura ezagutzeko laguntza eskaintzeko, ijitoen kultura ere euskara eta euskal kulturaren parte baita.

Xenofobiaren, diskriminazioaren eta arrazakeriaren aurkako borroka

- 21** **Arrazakeria, xenofobia eta ijitoen aurkako jarrerren salaketak jasoko dituen bulegoa sortu**
- Eta jardun horien biktimei lagundu eta aholkuak eman.
 - Gorroto delituen aurkako Euskal Behatokia sortu.
- 22** **Erakundeen arrazakeria salatzeke dinamika bat abian jarri**
- Hala nola izaera xenofobo, arrazista edo ijitoen aurkakoa duten neurri legal eta administratiboak.
 - Botoa emateko eta hautatua izateko eskubidearen ukazioa salatu.
- 23** **Lankidetzeta-programak eta elkarteentzako laguntzak sustatu**
- Lan egin dezaten salaketa eremuan eta pertsona migratzaileen eskubideen defentsan.
- 24** **Zurrunmuru eta estereotipo arrazista, xenofobo edo ijitoen aurkako jarrerren inguruko informazio eta sentsibilizazio-kanpainak abian jarri**
- 25** **EAEn armen ekoizpena eta salmenta ezabatzeko proposamena aurkeztu**
- 26** **Kode deontologikoa proposatu beste herrialde batzuetan giza eskubideak betetzen direla bermatzeko lan egiten duten euskal enpresei zuzenduta**
- 27** **Etxeko langileen lan-ikuskaritza betetzen dela zaintzeko ekintza-plana, sektoreko langile migratzaile guztien erregularizazioa eskatzeko ekintzak eskatzen dituen.**
- 28** **Helduen erreferenterik gabeko adingabeentzako emantzipazio-programak. Adin-nagusitasunera, administrazio-egoera erregularizatuta iristen direla bermatzea.**

SARETU!NAZIOARTEKO
POLITIKA

SARETU!

ELKARTASUNETIK AURRERA EGITEKO PREST

Nazioarteko Politika

DIAGNOSTIKOA

90. Hamarkadatik munduaren egoera asko aldatu da, gaurdaino ezagutu ditugun instituzioen funtzioak aldatzen ari dira eta horrek gurea bezalako estatirik gabeko herrian eragin handia dauka. Botere harremanen oreka berri baten aurrean gaude, aktore ezberdinak agertuz eta gatazkak ugarituz. Covid 19-k gogoratu digun bezala ziurgabetasun eta turbulentzi garaik bizi ditugu. Agertoki konplexu horretan gure herriak bere etorkizunaren jabe izan nahi badu mundu osoan zehar harremanak egin eta bere burua ezagutzera eman beharko duela argi dago. Azken urteotan Jaurlaritzak ez dio erronka horri erantzun. Ez du gure herriaren beharretan eta herri gisa definitzen gaituzten balore eta egiteko moduetan oinarrituriko kanpo politika egin.

Erronka horiei erantzun ahal izateko Jaurlaritzak Kanpo Ekintzari esleitzen dion garrantzia eta baliabideak handitu eta herri bezala nazioartean agertzeko egituraketa instituzionala sendotu egin beharko ditugu. Euskal Herriak bezala, bere buruen jabe izan nahi duten beste herriekin ditugun harremanak indartu beharko ditugu eta euskal instituzioek beste herri horietako instituzioekin hartueman iraunkorrak izan beharko dituzte. Gure kanpo proiektzioa gure herria definitzen duen ideia eta baloreen arabera egiten dela ziurtatu beharko dugularik.

Ildo honetan, berebiziko lana egiten ari da euskal diaspora, euskal nortasuna eta kultura mantentzeko baina baita berau munduari ezagutarazteko ere. Euskal Diasporak nazioartekotze prozesu horretan eragile izateko duen gaitasuna aitortu beharko dugu, joka dezakeen paper hori burutu ahal izateko indartuz.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Egungo nazioarteko egoeraren gaineko analisia hau izanik, herri bezala aitortua izatean dugu jomuga eta iragan legealdiari erreparatuz, Urkulluren gobernuak egin beharreko heldu ez diela ondorioztatu dezakegu.
- Nazioarteko estrategiari dagokionean Urkulluren zortzi urteetan kanpo ekintzako aurrekontuak ez du 8 Milioietako galga gainditu, Ibarretxe eta Patxi Lopezen garaietan (2003-2012) 11 eta 16 Milioien artean mugitu zelarik. Estrategia kontinuista izan da kasurik onenean.
- Urkulluren gobernuak ez du nazioarteko delegaziorik zabaldu, eta bere internazionalizazio lana, soilik, enpresen nazioartekotzera biderratu du (SPRIren delegazioak zabalduz).
- Ez dago nazioarteko politika koordinatzeko espazio bakarra.
- Nazioarte mailan gure herrialdea ikusgarri egiteko marka komunen falta dugu eta euskal instituzioetatik ere planteamendu honekin bat egiten ez duenik dago. Basque Country marka indartu beharrean (honen egokitasuna aztertzen sartu gabe), marka propioak sortzen ari dira etengabe (San Sebastian region, Bizkaia talent...)
- Nazioarteko egoeraren eta Jaurlaritzaren kanpo harremanekiko urteroko analisi kualitatiboa egiteari uzten zaio 2012an eta ez da berreskuratzeko ahaleginik egin.
- Mugaz gaindiko lankidetzak baztertuta dago, gure herri eta lurraldeen kohesio eta elkarlanerako izan daiteken lanabes honi buruzko ebaluaketa eta prospekzio faltak agerian uzten duen bezala.

2024RAKO KONPROMISOAK

Euskal Herria munduan. Herri bezala nazioartean agertzeko egituraketa instituzionala sendotu

1

Nazioarteko Harremanetarako Sail propioa sortu

- Nazioarteko Harremanetarako Sail propioa sortuko dugu eta sail horrek Kanpo Harremanetarako Zerbitzu bat izango du bere zerbitzura, Euskal Estatu Erkidegoko Administrazioaren parte izango dena.
- Kanpo ordezkariak eta bulegoak irekitzea sustatuko dugu, hedapen eta egonkortzerako plan bat diseinatuz eta hauen eta jaurlaritzaren beste sailtako nazioarteko atalekiko koordinazioa bultzatuko dugu besteak beste, nazioartean koherentziaz eta kontzientziaz aritu gaituzen. Honetarako, Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Koordinazio Exekutiboari buruzko legea garatuko dugu.

SARETU!**NAZIOARTEKO
POLITIKA**

- Koordinazio honetan, nazioartean aritzen diren aktoreak batzea eta norabide komunak zehaztea egongo da, hala nola, Spri, Garapenerako Lankidetzaren Agentzia, nazioarteko ordezkariak edo Etxepare Institutua bezalako organoak koordinatuz. Honetaz gain, Foru Aldundi zein Udaletxeek daukaten kanpo harremanetarako proiektioa norabide komunak sustatzeko lan egingo du.

2**Kanpo ekintzarako eskola.**

- Hau guztia ikuspegi nazional batez kudeatzeko prest egongo den profesionalen sarea osatzeko, Euskal Diplomazia Eskola sortuko dugu.

3**Nazioarteko egoeraren eta Jaurlaritzaren kanpo harremanekiko urteroko analisi kualitatiboa berreskuratu.****4****EHko lurraldeen arteko Basque Country marka birkokatu**

- Kultur ekimenak, ekonomi ekimenak, zein mugaz gaindiko proiektuek gune antolatua izan dezaten. Gune honek Foru parte hartzaile bati bide emango dio, non instituzio ezberdinek eta erakunde herritarrek parte hartuko duten.

5**Nazioarteko erakunde guztietan euskal ordezkariak segurtatu**

- Europako Parlamenturako hauteskunde eremuan hauteskunde barruti propioa bideratzea defendatzen dugu
- Kanpo ekintzako zerbitzuak kanpo ordezkariak izango du Europar Batasuneko erakundearen aurrean bere interesak defendatzeko eta Europako Erakundeek gure lurraldean presentzia zuzena izatea bultzatuko du.
- COVID19ak eragindako krisi ezberdinen gainean lan egiteko sortuko diren espazioetan parte hartzea izatea bultzatuko dugu, bereziki kontuan hartuz, gure eskumenen gaineko erabakiak hartzeko espazioak izango direla (osasungintza, gizarte politikak, fiskalitatea...)
- Etorbizuneko emergentzietan aurre egiteko sortuko diren organoetan parte hartzea zirtatzea proposatuko dugu.
- ECOFINen ordezkariak iraunkorra izateko eskaera egingo dugu, euskal lurraldeen zerga eskumenak direla eta.
- Euskara hizkuntza Europar Batasuneko hizkuntza ofizial bezala onartua izateko lan egingo dugu eta hizkuntza, nazioartean presente egoteko eta honen normalizazio prozesua sendotzeko lan egingo dugu.
- EAEko parte-hartzea sendotzea gobernu ez zentralen nazioarteko sareetan, batez ere, Garapen Iraunkorreko Eskualde Gobernuen Sarean (NRG4SD)

6

Euskal Euroeskualdea sortu eta nazio bezala urratsak emateko aukerak baliatu.

- Mugaz gaindiko lankidetzaren arloaz arduratuko litzatekeen zuzendaritza berria sortuko dugu, Ipar Euskal Herrian sortu den Euskal Elkar-goarekin eta Nafarroako Foru Erkidegoarekin batera, Euskal Euroeskualdea sortzeko.
- EBko Erregio politikatik eratortzen diren mugaz gaindiko lankidetzaren zein lanabesen informazioa eta bitartekoen jasole garelako segurtatuko dugu. Mugaz gaindiko lankidetzaren sendotuko dugu aldi berean.
- Mugaz gaindiko lankidetzarako euskal estrategia zehaztu, baliabideak eta ahaleginak optimizatzeko, bai eta EAEn aldameneko lurralde-entitateei lankidetzaren eskaintzeko eta lankidetzaren horren koherentzia bermatzeko ere. Estrategia honek euskal kultura-identitatea sendotzea eta lurralde-desorekak murrizteko helburua izango du, lurraldeen arteko harremanak hobetzen diren bitartean.
- Europar Batasunari begirako Jaurlaritza eta Estatuaren arteko azpi-batzordea abiatzea: Itun politikoaren Batzorde Mixtoraren barruan kokatuko dugun batzorde honek, lurralde honi dagozkion gaiak edota eskuduntza eskusiboen gainean eragina izango duten gaiak daudenetan emango digu instituzio bezala lan egiteko eskumena. Era berean EBko itunen edo jatorrizko tratatuak berrikusteko aukera zehaztuko da. Subsidiaritatean eta proportzionaltasun printzipioen kontrolean partaide izatea. Batik bat EBko mugaz gaindiko lankidetzari eta COVID19aren ondorioz sortutako lan espazioei dagokionez.

7

Ekonomia Sozial eta Jakintza Kooperatibistaren zentroa sortu

- Ekonomia Soziala eta jakintza kooperatibista zabaltzeko Institutu bat sustatuko dugu. Gure herriak metatu duen jakintza eta praktika onak beste herri eta herritarrekin partekatuzko

8

Brexitaren aurrean prestatu

- Brexitaren ondorioak pairatuko dituzten Britania Handian bizi diren Euskal Herritarren zein enpresen egoera eta zalantzak argitzeko delegazioa sortuko dugu BHN. Honetaz gain, aditu eta inplikaturako kideek osatuko duten foro teknikoa martxan jarriko dugu Jaurlaritzatik, jarraipen zehatza egiteko egoerari baita Euskal Autonomi Erkidegoan bizi diren biztanle Britaniarren egoerari ere.

9

COVID19aren ondorioen aurrean elkarlanerako guneak sortu

- Birusaren krisiak eragindako nazioarteko foro ezberdinetan parte hartzeaz gain, berariaz, inguruan izan ditzakegun administrazio ezberdinekin edo/eta nazioarteko bestelako herrialdeekin jakintza eta elkarlana sustatzeko guneak sortuko ditugu. Tresna eta jakintzak elkarlanean jarri eta maila globalean eragin duen alde anitzeko krisiari aurre egiteko.

SARETU!**NAZIOARTEKO
POLITIKA**

- Era berean, nazioarteko irizpideak jarraituko dituen ikerkuntza bultzatuko dugu bai eta ekipamenduen eta guneen hornikuntza publikoa sustatzeko nazioarteko sare ezberdinekin lotura ezarriko duen organo berezitua sortuko dugu.

Euskal Herria munduan. Euskal diaspora sendotu eta aitortu

- 10** **Gazteekin hartu-emanak indartu**
 - Besteak beste Euskal Herria ezagutzen laguntzeko programak martxan jarriz eta martxan dauden proposamenak indartuz.
- 11** **Euskal diasporako emakumeen sarea sortu**
 - Egun daukaten presentzia txikiagoaren aurrean, euren parte hartzea bultzatu eta diasporako emakume bezala izan litzaketen problematika konkrituek ere tokia izan dezaten entitate ezberdinetan.
- 12** **Kanpoan diren euskal gizataldeei buruzko araudia berritu**
 - Egungo Diasporaren legea edo 8/94 legea eguneratzeko prozesu parte hartzailea diasporarekin batera abiatuz.
- 13** **Hezkuntza lege berrian diasporaren ikuspegia txertatu.**
- 14** **Populazioaren Mugikortasun zentroa sortu**
 - Eta honen barruan Euskal diaspora zaharreko zein berriko pertsonen informazioa eta harreman administratiboetan lagunduko dien zerbitzua eratuko dugu.
- 15** **EiTBko eredu berrirako proposamenean euskal diasporaren ezagutza eta ikusgaitasuna handitzeko neurriak jaso.**
- 16** **Euskal etxeak sendotzeko plana abiatu.**

Naziorik gabeko estatuekin harremana

- 17** **Estatu gabeko herriekiko lankidetzaren areagotzea.**
- 18** **Estatu gabeko nazioetako hiriburu/ hiri nagusien sarea sortu.**
- 19** **Nazio estatuak urteetan zehar zapalduetako herrialdeekiko elkartzaren praktikoa abiatu**
 - Haien instituzioak aitortuz, eta elkarlan zuzena sustatuz. Hala nola Palestina, Kurdistan edo Sahara bezalako herriekin.
- 20** **Espainiar estatu mailan, Katalunia eta Galiziako prozesu subiranistekin sinkronizatu**
 - Maila instituzionalera eramango dugu ere.

21 **Europar Batasun mailan, estaturik gabeko nazioak diren herrien prozesuak gertutik babestu eta hauspotu**

- Irlanda, Eskozia, Korsika, Flandria, Faroe uharteak eta Kanaky – Kaledonia Berria bezalako herrialdeetako instituzioekin akordio estrategikoak landuko ditugu.

22 **Gerta daitezkeen larrialdi ekologiko edota pandemien aurrean ekiteko estaturik gabeko nazioen arteko krisi talde bat egonkortuko dugu.**

Bakearen eta eskubide zibil, sozial eta politikoen aldeko elkarlana

23 **Nazioartean sortzen ari diren edo garapen bidean dauden bake prozesuen alboan egoteko eta haiengandik ikasi eta gure neurrian dituzten prozesuak sustatu edota babesteko euskal institutua sortu**

- Adibidez Kolonbia, Bangsamoro... bezalako herrialdeetako eragile eta instituzioen eta euskal eragile eta instituzioen arteko lankidetzak sustatzeko.

24 **Giza eskubideen defendatzaileen alboan lerrotu**

- Haien herrialdeetan burutzen duten lan politikoa aitortuz eta honek, hainbat lurraldetan sortarazi ahal dien biolentzia egoera agerian utziz.
- Egoera urgenceenetan, nazioarteko defendatzaileen sareen barnean kokatuko dugu gure lurraldea, urgentziazko harrera eskaintzeko espazio bilakatuz.

25 **Feminismotik ikustarazten dabilzan zaintza kate globalen gaineko ardura hartu**

- Internazionalizazioak, sektore ekonomiko konkretu batzuetan soilik ematen ez dela jakitun izanik.
- Zaintzen sektore publiko sendo bat ez izateak, prekarizatutako kate globalak sustatzera daramatzala ikusirik, gizarte zerbitzuen arloan egiten dugun ekarpena mahai gaineratzeaz gain, nazioartetik gure herrialdera zaintzera etorritako milaka pertsonen, bereziki emakumeen, lan eta bizi baldintzak duintzeko konpromisoa hartzen dugu.

26 **Euskal Enpresek Atzerrian eragiten dituzten Inpaktuak Ebaluatzeko Zentroa sortu**

- Inplikaturako agenteen —gizarte-mugimenduak, giza eskubideetan adituak diren gobernu kanpoko erakundeak, sindikatuak, enpresak, kooperatibak, ekonomia sozialaren eta ekonomia solidarioaren agenteak eta Arartekoa— parte-hartzea sustatuz.
- Kontu ematea, sektoreen arteko elkarriketa, enpresentzako pres-

SARETU!HEDABIDEAK ETA
EITB

takuntza, politika publikoari buruzko irizpenak egitea eta haien enpresa-ekintzan giza eskubideen urraketak egiten dituzten enpresak zigortzeko gaitasuna izango du.

27**2030erako Garapen Sostengarrirako Helburuen inkorporazio praktikoa euskal marko legegilean**

- Nazioarteko hitzarmen hainbatek, gure garapen legegile eta exekutiboan izan dezaketen eragin positiboa aintzat hartuta
- Nazioarteko foroetan, euskal instituzio eta herri bezala parte hartzeko borondatea sustatuko dugu.

Hedabideak eta Eitb

DIAGNOSTIKOA

Paradigma aldaketa baten aurrean gaude bizitzaren esparru guztietan eta komunikazioa ez dago hortik kanpo. Ikus-entzunezkoen arloan, telebistaren eta zinemaren eskusibotasunetik euskarri anitzetan egindako ikus-entzunezkoari igarotzen ari gara, hau da, esparru globaleko ekoizpen garestietatik kostu txikiko eta interaktiboetara. Telebista tematikoa generalista desplazatzen ari da, eta edukien banakako kontsumoa hazten ari da, identitate eta kezka kolektiboen imajinarioak zatikatuz. Era berean, komunikazioagatiko ordainketa kultura ere hazten ari da. Covid19aren krisiak joera hori areagotu baino ez du egin.

Testuinguru honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da komunikazio politikak birpentsatzea, bai eta irrati-telebista-internet zerbitzu publikoaren zentzua ere. Baita EITBn ere. Erakunde hori 1982an sortu zen, eta arlo askotan aitzindaria izan zen arren, gaur egun inork ez du zalantzan jartzen erreforma sakon baten beharra, Europako beste komunitate batzuetan egin duten bezala.

Euskal Herriak ere bide horri ekin behar dio, ezinezkoa baita herri bat eraikitzea komunikazio esparru propio bat eraikitzen ez bada, are gutxiago hizkuntza gutxitua duen herri bat bada. Horregatik behar dugu euskal espazio komunikatibo sendo bat. Bertan, EITBk funtsezko papera jokatzen du, eta ardatz nagusia izaten jarraitu beharko du datozen urteetan, Euskal Herriko zerbitzu publiko eta komunikabide nagusi gisa. Era berean, euskarazko tokiko komunikabide sarea ere ezinbestekoa izango da euskal komunikazioa osatzeko eta hortaz, lehentasunezkoa izango da eurak babestu eta sendotzea.

Aurrean dugun herri erronkaren aurrean, EiT布伦 eredu berri baterako proposamen bat egin dugu, hemendik aurrerako gure urratsak gidatuko dituen proposamena.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Euskara ulertzeko gai zirenak biztanleriaren herena izatetik erdia baino gehiago izatera igaro dira. Gipuzkoako biztanleen erdiak elebidunak dira (%50,6). Bizkaian, biztanleen laurdena baino apur bat gehiago dira elebidunak (%27,6), eta Araban bostena dira (%19,2).

2024RAKO KONPROMISOAK

Euskal komunikazio esparrua osatzeko hausnarketatik ekintzetarako jauzia egitea lehentasuna izango da. Hortaz, lehenik eta behin, interneterako sarbide unibertsala bermatuko dute erakundeek.

Euskal komunikabideei dagokienez, EiT布伦 biziberritzea izango da urrats handienetako bat, eta hortaz, hauexek dira horretarako neurri nagusiak:

1

Legea. Ikus-entzunezko-internet eta komunikazioaren kontseiluaren legea sortuko da eta bere lehen lana izango da komunikazio legearen proposamena egitea.

- Komunikazio Legearen garapenarekin batera, EiT布伦 lege berria egingo da komunikazioaren paradigma berrira egokitu dadin.

2

Zerbitzu publikoa. EiT布伦 erreforma integrala egingo da itun sozial batean oinarrituta, zerbitzu publikoaren misio eta baloreak definituz, hala nola, sarbide unibertsala; informazio eskubidea neutraltasunean, zintzotasunean eta botere politikoarekiko independentzian oinarrituta; euskara eta euskal kulturaren bultzada; aniztasun politiko, erlijioso, linguistiko, kultural eta sexuala bermatuko duena; gardena, parte hartzailea eta berritzailea.

3

Kalitatezko eskaintza. Talde sozial guztiei zuzenduta, behetik gora eraikitakoa. Hortaz, herritarren parte hartzerako erakundeak sortuko dira programazio eremuan eragin zuzena izan dezaten.

- Euskara bultzatuko du EiT布伦 eta kultura izango da bere nortasunaren ikurra.
- Ikus-entzunezkoen eta interneterako edukien produkzio sarea sortuko du EiT布伦 euskarri ezberdinetan zabaltzeko baita Estatuko zein nazioarteko beste komunikabide batzuetan ere.

SARETU!HEDABIDEAK ETA
EITB

4

Informazioaren objetibotasuna. Egiazko Informazioa, anitza, kontrastatua eta kalitatezkoa eskainiko du. Bere nortasunaren marka izango da, prestigioa emango diona. Herria eraikitzea izango da bere helburua eta euskara izango da lehentasunezkoa.

- Gubernamentalizazioa ekiditeko, zuzendaritza profesionala izango da eta independentea, eta karrera profesionala eta barne promozioa bermatuta egongo dira aukera berdintasunean oinarrituta.
- Albistegiak, egunerokoak eta programazioan modu iraunkorrean daudenak, barne produkziokoak izango dira, hau da, etxeko langileekin egingo dira.
- Profesionalen espezializazioa bultzatuko da eta formazio plan egonkor bat ezarri.

5

Paradigma berria. irrati-telebista kontzeptu analogikotik euskarri anitzeko komunikazio talde integralera igaroko da, herri ikuspegi batetik.

- 5G-ari dagokionez, eremu irrati-elektroa kontrolatzea lehentasun politikoa izango da.
- EiTbK kanalen ohiko banaketa gaindituko du eta teknologia, kanal eta euskarri berrietara egokituko da edukietan zein euskarrietan pentsatuta produzituz.
- Euskarazko edukiek lehentasuna izango dute genero guztietan.
- Informazioa, komunitatea sortzea helburu dutenak, eta umeei eta gazteei zuzendutakoak izango dira ardatz.
- Covid19aren krisiak agerian utzi duenez, guztiz beharrezkoa izango da umeei zuzendutako edukiek ekoiztea entretenimendukoak ez ezik funtzio hezitzailea dutenak ere.
- Kanal eta eduki plataformen eskaintzaren barruan sartzea negoziatuko da beste eskaintza bat gehiago bezala.
- EiTb bera izango da plataforma bat bere kanal eta zerbitzu guztietarako sarbidea erraztuko duena, lineala eta ez lineala uztartuko duen eredu baterantz eginez.
- Era berean, osasun krisiaren sasoiko albistegien audientzia datuei erreparatuz, argi geratu da herritarrek euren informazio premia asetzeko EiTbRa jotzen dutela. Horrek indartu egiten du informazioa eta gaurkotasanari lotutako kanal bat sortzeko beharra, albistegietan, espezializazioan, eta gaurkotasaneko dokumentaletan oinarrituko dena.

6

Gizarte eta lurralde kohesioa. EiTbK euskararen lurraldeari emango dio zerbitzua, hau da, Nafarroa, Iparraldea eta diasporari.

7

Euskal komunikabideen ekosistema: agentzia. Euskal komunikazio sistema behar da integrala, multimedia, eleanitza, baina batez ere euskalduna eta horretarako, albiste agentzia publikoa sortzeko aukera aztertuko da. Herri ikuspegi batetik, kanporako albisteak zabalduko lituzke, agenda sozial eta politikoa sortuko luke, eta apartidista, gardena eta efikaza izango litzateke. Tokiko informazioa jaso eta sortuko luke. Testuak, irudiak eta audioak zabalduko lituzke batik bat euskaraz, baina baita ingelesez ere, munduan bere ikusgaitasuna zabalduko.

8

Euskara. Euskara bultzatzea izango da EiTbren helburua eta horretarako euskarri berrietan euskarazko produkzioa lehenetsiko da. Euskarazko fikzioa indartuko da bai barne produkziokoa zein kanpoko, eta azpitoluduna zein bikoiztutakoa izango da, baina kalitatezko bikoizketa indartuko da behar besteko inbertsioak eginda.

- #EiTBLab sortuko da eta bertan hizkuntza erregistroen laborategi bat eta sormen tailer bat egongo dira.
- EiTbren enplegu eskaintza guztietan eta ardura postuetan euskaraz jakitea derrigorrezko baldintza izango da.

9

Genero ikuspegia. Genero ikuspegiari buruzko proposamenak egin, aholkatu, eta berdintasun legea betetzen den zainduko duen organo bat sortuko da.

10

Ikus-entzunezko sektorea. Euskal nortasuna eta kultura sortu eta mantentzeko ikus-entzunezko produkzioaren balio estrategikoa aitortuko da. Horretarako, euskarazko zinea eta ikus-entzunezkoak sortu eta produzitzeko fondoa eratuko da.

- Era berean, euskal komunikazio esparruan euskarazko hedabideak zutabe garrantzitsuak izango dira. Zerbitzu publiko izaera aitortuko zaie eta horren baloreak errespetatu beharko dituzte. Horregatik, euren egonkortasun ekonomikoa ziurtatzeko, epe luzeko hitzarmenak sinatuko dira.
 - Azkenik, software librearen aldeko apustua egingo da batez ere hezkuntzan eta administrazioan.

SARETU!GARAPENERAKO
LANKIDETZA

Garapenerako Lankidetzaz

DIAGNOSTIKOA

Gaur egungo krisi sistemikoa aintzat hartuta, inoiz baino beharrezkoagoa da euskal lankidetzaren eta garapenaren aldeko apustua aldarrikatzea. Lankidetzaz, bizikidetzaz eta garapena sustatzeko jendartearen tresna behar du izan, bakezko bizikidetzaz eta garapena mundu osoan sustatzeko. Garapen hau ordea, Giza Garapenaren eta iraunkortasunaren paradigmatik landu behar da.

Egoera honen aurrean, egun, ez da proposamen askatzaile eta alternatiboen alde aposturik egiten; ez dira politika koherente eta globalak martxan jartzen. Lankidetzaz politikak, gizarte politika publiko bat izan behar du, izaera egonkor eta iraunkorra duena. Honetarako, nazioarteko elkartasun eta justizia sozialean oinarritutako borondate politikoa ezinbestekoa da. Koherentzia ere ezinbestekoa da. Ikuspegi koherente batetik begiratuz gero, erreferentziazko esparru bat eta irizpideak izango ditugu eta, hartara, hainbat arlotako politikak (merkataritzaren, energiaren edo zergen arloko politikak, esaterako) beste herrialde batzuetan eragiten dituzten ondorio negatiboak sahiestu ditzakegu.

2007ko Lankidetzaren Euskal Legea mugarria izan zen lankidetzaz-politike-tan. Adostasun sozial handia lortu zuen, baina 13 urte beranduago bere osotasunean garatu gabe jarraitzen du. Legeak ezartzen duen funtsezko elementuetako bat aurrekontua da, guztizko aurrekontu bateratuaren %0'7a alegia. Politika publiko askatzaile eta eraldatzaileak martxan jartzeko, ezinbestekoa den oinarria. Tamalez, urruti gaude hau betetzeaz, Jaurlaritza honek ez baitu berau lortzeko konpromisorik ere onartu.

Egiaztatu da ez dagoela borondate politikorik baliabide horiek modu egonkor eta iraunkorrean ezartzeko. Lankidetzaz-politikak gizarte-politikak dira, eta beraz, arlo horretako murrizketak gizarte-murrizketak dira, Euskal Herriko zein munduko gizarteaz eraldatzeko prozesuei eragiten dietenak.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- Jaurlaritzak ez du inoiz aurrekontuaren %0'7a Garapenerako Lankidetzaz bideratzeko legea bete. Egun %0'39ra heltzen da.
- BPGren arabera neurtzen bada, Euskal Autonomi Erkidegoak, garapenerako lankidetzaz bideratzeko aurrekontua, europaz batatzeko baina %66 txikiagoa da.
- Jaurlaritzak, Garapenerako Lankidetzazko Euskal Agentzia indartzeko apustua egin duen ikasturtea izan da. Baina hau, gizarteaz eraldatzeko lankidetzaz- eta heziketa-proiektuak finantzatzeko eskuragarri dauden funtsak nabarmen murrizteko baliatu du.

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Administrazio publikoetako garapenerako lankidetzarako kolitika koherente eta konprometituak bideratu

- Garapenerako Lankidetzaren politika publiko egonkor gisa ulertzen dugu eta gizarte zibil antolatua erakundeekin batera indartu eta betearazi behar dela uste dugu. Koherentzia bultzatzea ezinbestekoa izango da. Puntu honetan, Nazioarteko Politiken atalean barnebidetako hainbat ideia elkarlotzen dira, eta beraz, bestelako zehaztasunetarako ere, programa hori aztertzea gomendatzen dugu.
- Garapenerako Lankidetzari buruzko Euskal Legea betetzeko falta diren alorrak legegintzaldiko egutegian kokatuko ditugu eta Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutuna abiaraziko dugu.
- Hausnarketa prozesu parte hartzailea abian jarriko dugu, aldaketarako subjektuak eta lurraldeen lehenespena burutu eta gaur egungo lankidetzaren eredu eguneratzeko.
- Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzarako tresnak berrikusi eta gaur egungo egoerara moldatzeko, eragileen arteko konfiantza eta aliantzetan sustatutako eredu lehenetsiko dugu.
- Administrazio bakoitzaren autonomia errespetatuz, udalerrien, foru-aldundien eta Jaurlaritzaren artean artikulatzeko gunea osatuko dugu, euskal lankidetzaren deszentralizatuaren berariazko nortasuna planifikatzeko, eta kronogramak eta administrazio-irizpideak harmonizatzeko.
- Garapenerako politiken koherentzia bultzatuko dugu gobernu-ekin-tza osoan, politika hau zeharlerrotasunean kokatuz. Besteak beste, Nazioartekotzeko euskal estrategia berrikusiko da eta erosketaren publiko arduratsuen protokoloa jaurlaritzaren jardunean kokatuko dugu.
- Estaturik gabeko herriekiko, sortzen ari diren estatu berriekiko eta gure herriarekin harreman historiko edota kulturalak izan dituzten herriekiko lankidetzaren areagotuko dugu, giza eskubideen nazioarteko esparruaren aitortze integrala bilatzen duten nazioekin aliantza estrategikoak sortzeko asmoz.
- Ikuspuntu feminista, Euskal Lankidetzaren analisi integralerako esparru bezala kokatzen dugu. Ikuspegi intersektionala aintzat hartuz, bereziki indarkeria matxistari aurre egiteko proposamenak, edota eskubide sexual eta erreproduktiboak eta ongizate baldintzak bermatzen dituztenak indartzeko lan egingo dugu. Norabide honetan, Zaintza kate globalen ardura politikoa gure eginik, jatorrizko herrialdeetan kate hauek duten eragina aztertu eta ondorioei aurre egiteko lana sustatuko dugu.
- Nazio Batuek garapen jasagarriari buruz onartu duten 2030 Agen-

SARETU!

JARDUERA FISIKOA
ETA KIROLA

daren 17 helburuekin bat gatoz eta ildo honetan pobreziaren adierazpen oro desagerrarazteko konpromisoa hartzen dugu.

2

Gizarte eragile berriak garapenerako lankidetzan barnebildu

- EH Bildutik, Euskal Lankidetzaren deszentralizatuak izandako ibilbidea aitortzen dugu eta batez ere eragile sozial eta erakunde akademikoen lankidetzarekin gizarte-erakundeek egindako lan guztiaren balioa azpimarratu nahi dugu.
- Lankidetzaren agenteekin elkarrizketa politikoa izateko borondatea duen egitura politikoa sortuko dugu eta horretarako, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren funtzionamendua indartzeko barne-araudia sortuko dugu eragileekin batera. Helburua, eremu honen elkarrizketarako eta erabakiak hartzeko gaitasunak indartzea izango da.
- Lehentasuna emango zaio gizarte-mugimenduak edota ekonomia sozial eraldatzaileko erakundeak lankidetzaren dinamikan modu naturalean sartzeari, horiek baitira eraldaketarako subjektu estrategikoak, eta hausnarketa kritikoa sortuko da lankidetzaren agenda osoari buruz. Hortik abiatuta, nazioarteko lankidetzaren dinamikan horien parte-hartze aktiboa eta kalitatezkoa defendatzen da.
- EH Bilduk bere lankidetzaren politiketan bere gain hartuko du giza garapen iraunkorra pobreziaren aurka borrokatzeko estrategia gisa, garapena ezin baita hazkunde ekonomiko gisa soilik ulertu. Ildo horretan, garapenerako lankidetzarako funts publikoak garapenerako lankidetzaren zereginekin lotura espezifikoak duten irabazi-asmorik gabeko erakundeetara soilik bideratuko dira, hala nola GGKEetara, unibertsitateetara, administrazio publikoetara eta gainerako gizarte-erakundeetara, jarduerak eta proiektuak egiteko.
- Ekonomia Soziala eta jakintza kooperatibista zabaltzeko Institutu bat sustatuko dugu. Gure herriak metatu duen jakintza eta praktika onak beste herri eta herritarrekin partekatzeko.

3

Aurrekontu konpromisoa: Guztizko aurrekontu bateratuen %0,7a

- Herritar kritiko antolatutako sortzeko lankidetzaren politiketara bideratutako aurrekontua geroz eta handiagoa eta iraunkorragoa izatea ezinbestekoa izango da. Ikerketa, eragin politikoa, sentsibilizazioa, hezkuntza emantzipatzailea edota artikulazioa sendotuko dira Iparr-Hegoa logikarekin hausten duen eta gizarte-mugimenduak bezalako subjektu berriak barne hartzen dituen estrategia baten barruan. COVID19ak eragindako krisi anizkoitzaren eragina aintzat hartuta, aurrekontuen banaketa orekatuaren alde egiten dugu, politiken mailaketa batean "betikoek" ordain ez dezaten.
- Indarreko legegintzaldian, Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzarako funts publikoak %0,7ra heltzeko konpromisoa hartzen dugu, eta hau denboran zehar mantenduko da, aurrekontu osoan gorantz berrikusteko konpromisoarekin.

4

Jendartea Eraldatzeko Hezkuntza lehenetsi

- Gaur egungo lankidetzaren Iparralde/Hegoalde eta Lankidetzaren/Hezkuntza dikotomian oinarrituta egon denez, nabarmena da Euskal Herritik kanpoko herrialdeetan egiten denaren eta bertako lanaren artean. Hau apurtu eta antolatutako eta mobilizatutako herritartasun kritikoa sortzea helburu duen nazioarteko lankidetzaren alde egingo dugu.
- Euskal gizartearen artean sentsibilizazioa eta gizarte eraldaketarako hezkuntza sustatu
- Hezkuntza kurrikulumean Garapen lankidetzarako baloreak sustatu, gazteriak gai honekiko sentsibilizazioa eta azterketa kritikorako baliabideak izan ditzan.
- Iparralde/Hegoalde dikotomiarekin apurtu eta ikuspegi global eta tokikoan oinarritutako elkartasun-lankidetzaren internazionalistaren alde egin
- Mugimendu sozialekin eta ekonomia solidarioko erakundeekin ezarritako aliantzak sustatu

Jarduera Fisikoa eta Kirola

DIAGNOSTIKOA

Legegintzaldi honetan, Eusko Jaurlaritzak kirol zerbitzuari izen berria ipini zion arren, Jarduera Fisiko eta Kirol zerbitzua, izena eta izanak ez dute bat egin. Legegintzaldia galdu da herritar guztiontzako zuzenduriko mugimenduaren kulturaren eta sedentarismoaren aurkako politika berri eta berritzailerik bat egituratu ez delako. Munduko Osasun Erakundeak Jarduera Fisikoa-ren 2018-30 Ekintza Plana ezarri du.

Kirola, berez eta ustez, ez da ez hezigarria, ez inklusiboa ezta osasungarria ere. Kirolak orain arte, gizarte arrakalei eusteko bermatzaile eraginkorrenetako bat izan da.

Kirola eta bere aldarrikapen denak androzentrista eta matxistak dira. Emakumeek gizonezkoek baino kirol gutxiago egiten dute. Kirola egiten duten emakumeek saio gutxiago eta motzagoak egiten dituzte gizonezkoek baino. Kirol erakundeen kudeaketetan, nagusi, gizonezkoak dira. Eta baliabideen banaketan, gizonak, jaun eta jabe. Eta oraindik orain, administrazio egituretan ez da baliabideen bidezko banaketa bat egiten ez eta exijitzen ere.

SARETU!**JARDUERA FISIKOA
ETA KIROLA**

Jendartearen %40aren mugikortasun premiak ez dira oso aintzakotzat hartuak izaten kirol-politiken garapenean. Ehuneko horren barruan gaude: 65 urtetik gorako herritarrak (%20). Nolabaiteko premia fisiko, psikiko edo sensoriala dutenak (%10) edota behin-behineko mugikortasun murriztua daukatenak (%10).

Azkenik eta ekitatearen bidean, hainbat kolektibo gutxi eta gutxiagoturen aurreko politikarik eza dago: sexu identitate aniztasunean, bestelako etniko herritarrekin, kirola luxu duten kalteberak, landa-eremuko txikietako jarduera-fisiko politiko eza, eta abar.

Euskadik berebiziko kirol oinarri paregabeak ditu: udalak, ikastetxeak, klubak, federazioak eta kirol-entresak. Kirol baliabide gehienak toki mailan aurkitzen dira. Horregatik berregatik, ezinbestean, Jaurlaritzaren egiteko nagusia eragile guztiei norabide bat emango dion Jarduera Fisiko eta Kirol plana egitea da. Aukera galdu da bide-orria izan behar zuten kirol-lanbideen legea eta kirol lege eguneratu eta berritzailea atera ez direlako. Zer esanik ere ez Eskola-Kiroleko dekretuak bilatzen zuen lurraldeen arteko armonizazio gabezia eta Hezkuntza Sailaren parte hartze eza.

Izen berriak izanarekin bat egin ez duenaren erakusgarri, COVID19 krisialdian zehar ikusten ari gara. Mugiment diskurtsoa bertan behera geratu da konfinamendu eta fasez fase kirol eta jarduera fisikoak izan duten tratamendu tamalgariarekin. Jarduera Fisikoa osasun sustatzaile bazen, non geratu dira haurren nahitaezko jolas denborak, nagusien osasuna bermatuko duten oinarritzko ariketa fisikoak eta joan-etorri aktiboen aldeko politikak? Horiek denak, Madrildik markatu den politikari men eginez, albo batera utzi eta soilik aukeratu batzuentzako kirola bermatu da, eliteko kirolari federatuak eta kontsumo kirolak baino ez dute bide izan.

Beraz, legegintzaldi hasieran zeuden erronkak bere horretan geratzeaz bat, COVID19 krisialdiak horiek areagotu eta areagotuko ditu. Benetako kirol eta jarduera-fisiko politika batek herritarren bizi baldintzak aintzat hartu eta ekitatearen politika batekin bat egin behar du.

Eusko Jaurlaritzak kirol eragile guztien aurrean lidergoa berreskuratu behar du, nazio ekintza plan bat diseinatu beharko du datorren PostCovid19 jendarte berrirako. Jendarte bat, zeinetan inoiz baino gehiago baldintzatzaile sozialak eta bereziki ekonomiak baldintzatuko gaituzten. Beraz ze motako kirol eta jarduera-fisiko politika nahi dugu herritarrontzako, banatzen gaituena ala batzen gaituena?

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- 2014ko otsailaren 27an legebiltzarrean onartutako, kirol – lehiaketaren euskal esparrua garatzeko, (10/11/02/01/0371 espediente zenbakia duenean jasoa dagoena), ekintza plan bat egin zuen 2012-2016 legegintzaldirako gobernuak. Bete gabe jarraitzen du.

- Mugiment Estrategiaren garapena oso desberdina izan da lurraldez lurralde, non Gipuzkoako Aldundiaren lidergoa gailentzen ari den gainekoen determinazio faltan.
- Ohitura osasuntsuen garapenerako lan ildoak Jaurlaritzako gainerako sailekin garatzeko zailtasun nabarmenak: orientazio zerbitzuak, sedentarismoaren aurkako borroka bazterketa egoeran, arriskuan edo eta bakardadean aurkitzen diren pertsonak identifikatu eta sisteman txertatzeko.
- Goi mailako kirol talde eta kirolari zein nazioarte mailako lehiaketetan parte hartzeko diru laguntzetan gizonetzkoen eta emakumezkoen arteko arrakala oraindik handia da.
- Jarduera fisikora eta Kirolera bideratzen den aurrekontuarekin ezer gutxi egin daiteke: 2020an: 8.990.108 / 2019an: 8.537.850 / 2018an: 8.273.186 / 2017an: 8.187.219 / 2016an: 7.612.964.
- Kirol eta jarduera-fisikoko estrategia berrietarako ezinbestekoa diren kirol-lanbideen legea eta 98ko kirol-legea, biak ala biak, ez dira garatu. Kirol eragileentzako ezinbestekoa den araubide erreferentzia ez ipintzean Jaurlaritzak duen lidergoa ez du bereganatzen, eta azkenean, sakabanaketa politika ematen da lurraldez lurralde.
- Kirol estrategia gabezia. Kontutan izan gabe euskal gizarteko zaletasunak, praktika... Jaurlaritzaren kirol estrategia, nazioarte mailako kirol ikuskizun handiak antolatzen bideratzen da bereziki. Bertoko kirol lehiaketak babesik gabe utziaz, eta maiz desagertzera kondenatuaz: txirrindularitza lehiaketak horren lekuko. Adibidez: Emakumeen Bira, Urkiolako igoera, Laudiokoa, Zornotzakoa, Getxo, Ordizia...

2024RAKO KONPROMISOAK

1

Jarduera fisikorako eta Kirolerako zuzendaritza Lehendakari-tzan kokatu.

- Politika guztiak bizitza aktibo eta osasuntsurako filosofiaz bustitzeko. Pertsonen bizitza ona erdigunean kokatzeko.

2

Kirol eskuduntzak bere osotasunean garatu, sendotu eta finkatu.

3

Euskal selekzioek Nazioartean txapelketa ofizialetan parte hartzeko ekimena hartu

- Federazioekin elkarlanean.

4

Nazioartearekin elkarlana garatu.

SARETU!

JARDUERA FISIKOA
ETA KIROLA

- 5 **Nazioartean gure herriaren nortasunaren eta baloreen erakus leiho izango diren emakumezko zein gizonezko goi mailako kirol eta kirol taldeak aritzeko bideak ireki.**
 - Nazioarte mailan
- 6 **Berariazko euskal kirol markoa definitu.**
- 7 **2014ko ekintza plana behingoz gauzatu**
 - Egin beharreko eguneraketa egin ostean.
- 8 **Bizitza aktiborako estrategia garatu.**
 - Lehendakaritza herritar eta herri aktiboaren erreferente bilakatzuz
- 9 **Gizarte aktibo baten komunikazio estrategia definitu eta garatu.**
- 10 **Jaurlaritzako sail guztiekin elkarlan eta lan bateraturako egiazko estrategia ezarri.**
- 11 **Urbanismo aktiboa eta mugikortasun ez motorizaturako neurrien garapena.**
 - Euskadiko kirol – instalazioen sarea planifikatzeko irizpideak.
 - Euskal Herriko Bide Gorri Sarea
- 12 **Euskadiko bide ez motorizatuen Plan sektoriala definitu eta garatu.**
 - Ziklisten euskal plana.
 - Ziklisten euskal behatokia garatu
 - Ziklistak hiltzen dituzten errepideetako istripuekin amaitzeko neurriak.
- 13 **Eskola Bideak landu eta garatu.**
 - Psikomotrizitatea HH eta Haurreskolak Partzuergoan txertatzeko ekimena hartuko dugu.
 - Heziketa Fisikorako ordu bat gehiago ezarriko dugu L.H eta D.B.H
- 14 **Eskola Kirola hobetzeko eta hiru herrialdeetan bateratzeko lan ildoak garatu.**
- 15 **Gazteen artean jarduera fisikoa praktikatzeko, gazte plana ezarri Aldundiekin elkarlanean.**
- 16 **Kirol azpiegiturak energetikoki jasagarriak izateko neurriak zabaldu**
 - Kirolaren praktikan ingururekiko eta naturarekiko errespetua bermatzeko neurriak hartuz.

- 17 Euskal Etnomotrizitatea garatu**
- Lehen Sorospinak curriculumean txertatzeko ekimena hartuz.
- 18 Mugiment planaren garapenean sakondu.**
- Mugiment txartel bakarraren ezarpenarekin jarraitu.
- 19 Emakume kirolari eta emakumeen kirol taldeak lehen le-
rroan jarri.**
- 20 Genero berdintasunean eta aniztasunean oinarritutako ku-
deaketa ereduak txertatu**
- 21 Jarduera fisikoaren bidez inklusioa garatu eta aldi berean,
desGAITASUNA duten herritarrei jarduera fisikora eta kiro-
lera sarbidea erraztu, ezinezkoa denetan tokiko eragileen
bitartezko eskaintza bermatuz.**
- 22 Euskal Herrian bizi diren etorkinei kirol sarbidea erraztu**
- Besteak beste, kirol lehiaketarako araudia egokitzeko urratsak eman-
go ditugu.
- 23 Euskal Herriko Txirrindulari lehiaketak lehenetsi, babestu
eta bultzatu**
- 24 Berehalako esku-hartzea behar duten kirolak babestu**
- Gu garena egiten laguntzen digutelako edo premiazko hil ala biziko
egoeretan aurkitzen direlako.
 - Euskal Pilota; Herri Kirolak; Txirrindularitza
- 25 Ondorengo legeen eguneratze eta araudien egokitzapena**
- Kirol lanbideetan aritzeko legea errealitate bilakatu.
 - Euskadiko Kirolaren 14/1988 eguneratu.
 - Igerilekuen araudia eguneratu.
 - Federazioen hauteskundeetarako araudia eguneratu.
- 26 Kirol alorrean lanean diharduten langileen lan baldintza dui-
nak bermatu**
- Kiroldogietan kontratazioan klausula sozialak ezarriko ditugu.
- 27 Kirol alorrean ditugun egitura publiko, publiko-pribatuak
ordenatu, sinplifikatu**
- Sistema eraginkorragoa definitu eta abian jarri.

Laikotasuna

DIAGNOSTIKOA

Kontzientzia-askatasunaren, eskubideen berdintasunaren eta politika publikoen defentsatik, laikotasuna aldarrikatzen dugu, gure herrialdearentzako proiektu juridiko eta politikoaren zati bat den heinean.

Botere publikoaren eta hura ordezkatzeko erakundeen arteko bereizketa — eta erlijio-konfesioen arteko bereizketa — ezinbestekoa da, gizarte zibilarren interesak babesteko erlijio-interes partikularren aurrean.

Sistema laiko batean, gizarte zibilarren interes orokorrek lehentasuna izan behar dute erlijio-interes partikular posibleen aurretik. Horregatik, erlijio-praktika ez da gizarte osoarentzako zerbitzu publikotzat jo behar.

Egiaztatu dugunez, ordea, beste errealitate batean bizi gara, antolamendu juridikoan jasotako akonfesionaltasunak talka egiten duelako erakundeen jardunbidearekin, erakunde horietatik mesede edo babes ematen baitzaie eremu pribatura mugatu beharko lirakekeen erlijio-praktika jakin batzuei.

Gaur egun, Eliza katolikoak mesede-tratua jasotzen du zerga-alorrean: salbuespena Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (IBI), oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan; PFEZren esleipen zuzena; elizaren jabetzako ondarea kontserbatu eta zaharberritzeko gastuak; erlijio-funts publikoen bidez ordaindutako irakaskuntza (sexuaren arabera bereizitako zenbait zentro barne); edo higiezinaren kudeaketa.

Egoera hori bertan behera uzteko eta laikotasunaren bidean aurrera egiteko, Konkordatua hautsi beharrean, itxuraz antzekoak diren pribilegioak eman zaizkie beste konfesio batzuei.

HAINBAT DATU ESANGURATSU

- 2003tik aurrera batez ere, instituzio katolikoak bere ondarea handitu zuen nabarmen, José María Aznarren Gobernuak 1998ko Hipotekei buruzko Legea —1946ko Hipotekei buruzko Lege frankista aldatu zuena— erreformatu baitzuen. Arau horretan, apaiza edo apezpikua fede-emaile publiko baten parean jarri zen. Herritar batek frogatu eta lekukoak aurkeztu behar dizkio administrazioari, familiaren jabetza bat lehen aldiz erregistratzeko. Eliza, aldiz, betebeharrak horietatik salbuetsita geratu zen harrezkero.
- Gasteizko Legebiltzarrak, EH Bilduren proposamenari jarraikiz eta PSEren eta EAJren babesarekin, 1978az geroztik Elizak inmatrikulatu dituen ondasun guztien zerrenda premiaz eskatzea onartu du.

- Eliza katolikoak Euskadin bere izenean erregistratutako jabetzak publizitaterik gabe inbentariatu dira, ondare-transmisioko zergarik ordaindu gabe eta biurtekoen titulartasuna egiaztatu gabe, hau da, obra-ziurtagiri bakar bat aurkeztuta. 530 ondasun bildu dira inbentario horretan. Gipuzkoan, Elizak 387 ondasun inmatrikulatu ditu, Bizkaian 75 eta Araban 69, hurrenez hurren.
- LOMCE legea euskal hezkuntza-sistema osoan eman beharreko irakasgaia da, nola ikastetxe laikoetan hala erlijiosoetan, familien aukeran.
- EAEko ikastetxeen % 35 erlijiosoak dira, katolikoak. Hezkuntza Sailarekin itundutako ikastetxeak dira, ia denek dirulaguntzak jasotzen dituzte.
- EAEko 6 ikastetxek sexu-bereizketa bermatzen dute.
- 6 ikastetxe horiek pribatuak dira, OPUSekoak. Alabaina, ikastetxe horiek 13.000.000 euroko diru-laguntza zuzena jasotzen dute.

2024RAKO KONPROMISOAK

Kontzientzia-askatasuna

- 1 Kontzientzia Askatasunari buruzko legea aurkeztea.**
 - Kohesio soziala bermatzeko eta herritar guztien interesak babesteko.
- 2 Erritu zibiletarako protokoloen aplikazioa sustatzea.**
 - Hilerriei izaera zibila emateko neurriak.
- 3 Zigor Kodearen 522.-525. Artikuluak —birao-delituei eta erlijio-sentimenduen aurkako delituei buruzkoak— ez aplikatzeko arau bat aurkeztea.**
 - Heriotza duina aipatzen duen 143. artikulua aplikazioa saihesteko.

Ondasunak

- 4 1946.-2019. urteetako inmatrikulazioak ezabatzeko nahi-taez bete beharreko neurri bat aurkeztea eta ez errepikatze bitartekoak ezartzea, atzeraeraginez.**
- 5 Eliza katolikoaren esku dagoen interes orokorreko ondarea desamortizatzea.**
 - Hemendik aurrera herri-onurakoa izan dadin.
- 6 Interes kulturala edo historikoa izanik funts publikoekin zaharberritu den erlijio-ondarea xede publikoetarako erabiltzea, jasotako dirulaguntza publikoaren arabera.**
- 7 Urtero-urtero, elizen esku dagoen ondare historiko-artistikoaren erregistro publiko bat sortzea.**

SARETU!

LAIKOTASUNA

Finantziarioa

- 8** **Erljio-erakundeak zuzenbide pribatuaren babesean gera daitezten, dagokion araua aurkeztea.**
- 9** **Estatuari mezenasgoari buruzko 48/2002 Legea** eta elizen aldeko diskriminazio positiboa sustatzen duten gainerako neurriak (IBI, Eraikin eta Obren, Sozietateen, Transmisioen gaineko zergak, etab.) indargabetzeko eskaera aurkeztea. Eliza neurri ez-orokorre lotzea ahalbidetu duten diskriminazio ekonomiko guztiak ezabatuz.
- 10** **Erljio-konfesioentzako zuzeneko edo zeharkako dirulaguntza publikoak ezabatzeko neurriak aktibatzea.**

Sexu-indarkeria

- 11** **Elizetan sexu-indarkeria edo pederastia sufritu duten pertsonen laguntzeko baliabideak sustatzea.**

Hezkuntza

- 12** **Hezkuntza-ibilbide ofiziala laikotasun-irizpideei jarraikiz egiten dela bermatzeko behar diren arauak onartzea.**
- Pixkana-pixkana, ideia propioak dauzkaten ikastetxeentzako dirulaguntzak ukatzeko neurriak jartzen ari dira martxan, erlijio- edo genero-arrazoia tarteko bazterkeria-egoeran dauden ikastetxeei dago kienez batik bat.
 - Erljioaren irakaskuntza eta erlijio-doktrinamendua eskola-ordutegitik kanpo geratzen dela bermatuz.

Ikurrak

- 13** **Eraikin eta ekitaldi publiko guztietan erlijio-sinbolismoa ezabatzeko neurriak martxan jartzea.**
- Ikastetxe, unibertsitate, osasun-zentro, espetxe eta epaitegietan eta gainerako eremu publikoetan erlijio-ekitaldiak debekatuz.
- 14** **Sinbolo edo ideologietarako ohore zibilak ezabatzea, atzeraeraginez.**
- Balio filosofiko, etiko, demokratiko eta zibikoak dira laikotasunaren funtsezko zutabeak, eta horrek justizia, errespetua eta askatasuna dakar berekin. Horregatik, erakunde publikoek ildo horretatik jardungo dute, herritar guztien interesak defendatzeko.
- 15** **Edozein erlijioaren aurrean apostasiak egiteko aukera bermatzea.**
- 16** **Adingabeen kontzientzia-askatasuna bermatzea.**
- 17** **Komunikabide publikoetan, erlijio-ofizioen emanaldiak bertan behera uztea.**



ehbildu